

ITXASTARRAK

ELEBERRIA



Augustin Zubikarai

O AUGUSTIN ZUBIKARAI

Legerako Gordetza

BI-872-85

Depósito Legal

Argitaldaria GAUBEKA Irarkola - Gernika

Azala: F. BERISTAIN

Marrazkiak:

Barrukoak: P. ZUBIKARAI

EUSKERAZAINTZA'ren babespean

Augustin Zubikarai

ITXASTARRAK

1985

*Ona eleberri erraz bat,
neke barik jaso,
bururatu daustan erriari
biu rtu nai dautsadana.*

*Gure onoimen
eta akatsekin,
gure gatz
eta ozpiñarekin.
Gure gordinkeri
ta txikikeriekin.*

*Bizi nai dogu
ta bizitzzen kontu lar.
Len, orain eta gero
itxasora jo bear.
Nai eta jakin
zoroaldi baten
iruntsiko gaitula
ondasun guztiekin.*

*Baiña gurea
itxasoa da.
Origaitik guretzat
eguneko ogi itxas bizia.
Orrek dakarkigu
nortasun berezia:
Mariñel izatea,
arrantza eskubidea,
gure egi ta bizi
eta gure bidea.*

Ondardi'n

Ondardi'n ez egoan lanerako ordurik.

Ezin esan goizetik gabera, edo egun sentitik gau lenera lan egiten zanik be.

Kale-kantoietan, erri guztian zabalunei begira edo tarteren bat euken kale egal batzutan, eguzki orduariak egozan. Eguraldia zela, ordua ala iragarten ebenak, edo igarri eragiten ebenak.

Garbi, egun eguzkitsu eta udako galdaetan; ozta-ozta, egun urdin, ñabar, euritsutan; ia ez ígarteko eran laino egunetan, laino lodi eta lanbro ertsi edo beroaren gurma zuri egunetan.

Baiña ez eben balio itxasorako orduak iragarteko.

Ondardi'ko orduak maretik marera egin eta beteten ziran.

Ez zan gizona orduak markatzen zituna; ezin egian txalupako patroiak bere gizara erabagi; gizonak baiño geiago agintzen eben uraren neurrietan ibili bear eben txalupak.

Danok dakigu gure kaltetako sarrera asko, gaur be, ondar mai zabalak dirala, uraren sakontasun barik. Origaitik itxasoak bere gora-beratan erabilten dau txalupen sartu-urtenetarako giltza.

Ala da Ondarribi'n asi, Iger muturra igaro eta gure alderdiko diran Orio'n, ala Zumaia'n, ala baita Deba'n. Ala baita Bizkai mugan asi eta Bilbo'ko burdin-uren bitarte dagozan kaltetan, batez be ondarrez inguratu edo beteta daukezan portuetan.

Ala izan zan Ondardi'n be luzarotan.

Orrek itxas bizi-bidea kezkatu egiten dau.

Orrek arrantzale ogi-bidea larritu egiten eban.

Baiña Ondardi'n ez egoan beste biderik itxas-bidea ezik, ez

eta irabaz-biderik arrantzakua izan ezik, itxas-sakonetatik atara eikeana besterik.

Origaitik itxas kolorea euken ondarditarrak.

Ekiñaren izerdiagaz nastaten zan itxas-lurrinak, arpegiko narrua be loditu eta nabartu egiten eutsen bertakoei. Ez gizon mardul eta zaarrei bakarrik. Bai eta oraindik azal bigun eta zurizka euken ume-mokoei, bizarrak urteteko be urteak falta zituenu ume troko urduriei.

Origaitik Ondardi'n jaioten zanak, bere bizitzako eskola itxasoan ikasten eban; bere soñean ulea zabaltzen igarri orduko, eta gizon itxura eta ezaupideak artzen asi baiño len, arrantzale zar egiña igarten eta ezagutzen zan itxasoan, nai ta beretzat, oraindik, izen berezirik, bere nortasuneko deiturarik aukeratzeko denborarik be artzen laga ez, samurkeriz eta errukitsu lez esaten zan Txo baiño besterik.

«Txo» gizonak.

Emakumeak, amak, samurtasunaren indarrez, «txo-txo».

.....

Lotarako denporarik be ez eutsan lagaten bere Txo'ri Simon zarrak.

Simon zarra deitzen eutsen, baiña oraindik irurogei urtetarra eldu barik egoan.

Gitxik lortzen eben bere denboretan adin ori.

Umerez okertuta ilten ziran asko, oraindik gizon mardul zirala. Edo ta perleziak jota.

Erriaren agirian, kairako sarrerako barra bildurgarrian, etxekoen aurrean, bertakoen negar eta intziri garratzak ia entzuten, olatuen orru, zirri-zarra eta eraso aldi indartsu eta amorratuetan, ondotik ataratako ooldi baten gizan bira-biraka erabili eta iruntsita.

Edo aize brastaden bateri eutsi ezinda, txalupak tira-bira egin eta trasko ta guzti uren sakonetara ondoratuta.

Bere biziaren aria, sokaz egiña barik, tantzazkoa zala esaten ekian, eta origaitik nekezago bigundu eta etengo zala.

Edozelan be lotsaz begiratutako gizona zan, ia erritik zarrena zalako, eta arrantzan jarraitzen ebenetatik adintsuena lez zurrena be.

Ia, Txo!, deitzen eban kaletik, au bizi zan etxetxoaren aurrean, mare egokia egoan orduan. Goizeko irurak, laurak, edo seirak izan, bardin.

Eta bere dei orreri bereala erantzuten eutsan Idurre alargunak, bai! andi bategaz.

Bereala asten zan, baita, kaletik igarteko eran, mutillari ia Txo-txo dcika.

Etxean ez egoan gelako aterik jo, ez zabaldu bearrik.

Orduko arrantzale etxeak barruko ormarik ez eben eukiten, eta eukenak be aterik ez. Geienak sukaldea eta beste zatien bat eukiten eben, zela-ala erdibituta.

Ate bakarra sarrerakoa izaten zan, katu-zulo ta guzti.

Izara bat edo eun zati lodien bat naiko izaten eben barruko zurkoloetan, jantzi-erantzi bearretako begirapena eta beste egin-bearretako lotsari eta eskutua zaindu eragiteko.

Ez zan bein deituta jaiki al izaten gure Txo.

Azkenean, alegiñak egin ostean, amak, erreguka lez, kriselu argia eskuetan ebala beregana urreratu eta oetik atara bear izaten eban.

-Jo! Gaur be itxasorar

-Ia ba, txo-txo.

-Ze ordu da?

-Goizeko laurak.

-Zortzirakarte be lorik ezin egin.

-Neuk naiagoen.

-Batzuk ez dira ain sarri joaten.

-Ba dakizu Simon zelakoa dan.

-Ba daki egunotan arrainik ez dabilela.

-Atzo be Diopil'ek edozenbat berdel ekarri ebazan.

-Aren aparixu erdirik be ez dogu guk. Jo!

-Ia laztana, jaiki zaite.

-Ze egualdi dago?

-Ez da ezer ikusten.

-Laiñoa?

-Erreka-laiñoa, itxura baten.

-Eta ain goiz urten? Agure ori ez dago burutik ondo. Nire lagunak esaten dabe buru gogorra deitzen dautsela.

-Ez egizu olakorik esan.

-Arrokeriz egiten dau dana.

-Bai zera!

-Danak esaten dabe agure potozorria dala.

-Jesus! Zelako berbak esaten dozuz? Ume barrabasa! Ez zaitu berak entzuten.

-Danak esaten dabe, eguraldi txarra igarriarren be, itxasoan eutsi nai izaten dautsala.

-Ondo dakizu zuk ori ez dala egia.

-Egia da, ama.

-Askok uste baiño gizon zurrago da, a.

-Ez dakit.

-Sekula tirabirarik be ez dau egin arek.

-Orrek ez dauka zer ikusirik.

-Zugaz ondo portaten da.

-Zelan?

Amabost egunetan ez dogu ezer izarabazi. Eta zigarro bat emoten be ez da aurreratu.

-Zigarroa ume moko orreri?

-Ama, ume mocoa? Ta itxasoan erramuari edozeinek lezten egin bear? Nire lagunak esaten dabe itxasoak zigarroa eskatu egiten dabela.

-Eztarria sikatzeko?

-Edo berotzeko.

-Orretarakoxe ez dautsut ba ipinten eztiagaz loditutako esnea?

Baina, txo-txo, jantzi zaitez, mesedez.

-Bai, ama bai! Ostera be esango dabe lagunak Simon potozorriari popia garbitzen dautsadala!

-Ene ba da-ta!

Zer esango dabe gugaitik?

Zelako berbak dira orrek?
Bikarioak ez dagiala jakin. Jaungoikoagaitik eta difuntuaren
arimeagaitik!
Izeko Kontze'k entzungo ba leuz!
Ba dakizu zelako lotsariaz lagako ninduzuken?

.....

Ondartzaren sakonune baten, bere txalopan, gertu egoan
Simon, bidera begira, bere Txo noiz agertuko urduri eta keixu.
Etxean amaitu ez, edo erdi aidean laga eutsezan trctza ba-
tzutan amuzkia obeto ipinten.

Mutillari igarri eta txalupara eldu orduko:

Aitarenik egin dozu?

Ori neure gauzea da.

Begietako makarrik kendu ez beintzat.

Ori be neurea da.

Gaurko ume pongoliñuok maiteegi dozue oea.

Zein maite?

Oeko adarra ez beintzat, koltxoeko malutak baiño.

Erantzunik ez?

Ia guk ume aluok sekula errazoirik ez ba dogu, zetarako
erantzun?

Berba ori inoiz entzun daustazu?

Berba batzuk esanarren ez pentsatu gizonago izango zarca-
nik. Gizon izaten itxasoan ikasten da, eta ez kale-kantoieta-
kuku-jardunetan.

Ez zabiz nigaz gustora?

Ez dakít zer esan.

Ezetz esatea beste da ori.

Nik esanda ez.

Beste bategaz ez zendun nigaz aiña ikasiko.

Ainbeste itxasorate sartu be ez.

Damu zara orretaz?

Ez dakit.

-Zerbait esan lei.

Egia esateko, inoiz nire bostean txarto esan dot.

Txo! Gogoratu auxe: gaztetan ezagutu bear da ogi bidea, al danik ugarien ezagutu be.

Arrantzaliena ikasten ez da gaitz.

Ala uste?

Danak dakie.

Ai ene! Oker zagoz.

Nun oker? Zein, ni?

Zuk jakingo dozu artua batzeko lenengo erein egin bear dala.

Arraiñak ereinda dagoz.

-Baiña kalak, bideak, korrentak, urak, bitsak eta beste milla gauza eta gertaera ezagutu bear izaten dira.

Ala dala zegaitik gatoz alperrik azken amabost egun oneitan?

Gaur ez dagona biar egon leikelako.

Eta ni, ezer esan barik, zuri gure eskola erakusten alegindu naz. Neuk ikasi neban lez. Zeu konturatu be egin barik. Ziur egon. Itxas eskola eta arrain eskola, biak.

Zenbat zure adiñekok dakie Arbide, Ezkilantxarri eta Idurazpi baiño zeaztasun geiagorik? Eta zenbat joan dira, beste alderdira, Irabaltza baiño arutzago, dana jota be, Anakabe baiño luzeago?

Eta zuk, Puntako Aitzetik asi, eta Santa Clarape'n zear, gure auzo Lekeitioko Karraspio eta Kurlutxu baiño lenago dagozan bai eta kai, tarte eta bitarte, aitz eta mutur, plantxa eta zabalune, ugarte eta sakon unetan, ez zendukez ogei toki bereizteko?

Bai ogetamar be.

Kontu egizu, askotan, gogo txarrez sekula be ez, baiña bai gogo gitxiz, zeuri erakustearren bakarrik deitu dautsudala eta etorri izan gareala. Eta Atxazpitik Saustan'era, edo Moko-azpira edo Baixa-aundietara aldarak egin doguzala, nun arrantzatu leiken konturatu eragitearren, edo ta nun zer arrantzaten dan zeuri erakustearren.

-Baiña kalean esaten dabe...

Txo! Itxasotik irabazteko sekula ez belarririk zabaldu kale-

ko berbaroei. Bekaizkeri eta zitalkeria baiño ez da ikasten.

Kalea itxasoko izerdiak kentzeko bakarrik. Sareak idortu eta sikatzeko, ez bestetarako.

Eta zer esaten dabe kalean?

-Gauza asko.

Ia bat.

Ba... nire amaren lagun zareala.

-Eta zeñena ez?

Itxas ertzetik zear, igarri barik, kontuak esan nai eta zirika, bela txikiaren laguntzaz ia Baurdo azpira eldu ziran.

Aizea aldatu eta itxas gaiñean sorginkeriak lako txipli-txapla txiki eta ingurukako aize ibillerak igarri ziran.

Itxasoa bera illunduten asi zan urdiñetik baltzera joten.

Dindilizka eroiezan tresnak bilin-bolonka alkar jo ta naas-tuten asi ziran.

Eskuz ekarrean aparixuetan oraindik ez eben tengadarik igarri.

Saustan inguruan kordia luzatzeko asmoa eukan Simon'ek.

Ez eban ezer esan, bestetan be esaten ez eban lez, baiña asmo ori igarri-etsan mutillak.

Bat batez mutillari agindu etsan:

Nasaitu egizu pixkat latiñaren lokarria. Santa Katalina illuntzen asi da eta ez da ori ona. Mendebaletik asi da orain aizea. Ariñegi aldatu da. Bira egin bearko dogu eta lenbailen etxera urreratzen asi.

Etxera?

Zegaitik ez?

Nire lagunak esaten dabe...

Ez eidazu esan, guzurraren buztana erakusten daben gauzarik.

Izurdak igaro ziran albotik.

Oraintxe dabiz oneik atsegiñen.

Izurdak ibili eta mingarri da iges egin bearra. Arraiña agertuko da laster, emen.

Begira zelako gorria! Berdelak ez dira ba? Begira or, ia azalean.

Bai, lebatza be erabiliko dabe orreik azpian.
Tretzaren bat luzatuko?
Ez Bizia lenago da.
Zeinen bizia?
Gurea.
Arriskuan gagoz?
Egon giñei. Oraindik ez gagoz Baiña ez bildurtu. Ekaitza-
ri, gizonari lez, lotsa zaindu bear jako. Eta arpegi emoten jakin.
Zer esaten dabe zure lagunak?
Itxasoan arroegi zareala.
Zozuak beliari ipur baltz
-Zer da ori?
Baserritarren jakituria.
Eta itxastarrak ez dauke?
Esan-ala. Ara orren kideko: Mutxarriak antxo txikiari, ar-
gal.
-Polita da.
-Danok dakigu alkarri adarra joten.
-Itxasoan *ez* dago adarrik.
Bardin da, emen zakatza joko dautse, edo buztanari eragin,
edo agoak astindu, edo eskamak kendu.
Okertu egizu bela ori. Aize bolada oneik tatarrez eroaten
ez ba gaitue... eurekaz baliatu gaitzean eta errira urreratu.
Arro naizela. Ta geiago?
-Egia da?
Zelako begiak alako ikuspegiak.
Sarrerarik ez dogu eukiko kaian.
Mareagaitik? Arin ba gabiltz bai.
Eta zer geiago?
-Zera... Maria berantza ez dua ba?
Begira, begira zenbat berdel txarta-txartaka!
-Tentasiñoa dira. Lenakoena: Ez egizu begiratu atzera.
Sekula *ez* zaitut ain bildurti ikusi.
Bildurra askotan, zurtasuna da.
Ez dozuz onelakoetan gure eleizako tellatuan kaivak ikus-
ten?
-Atzotik asi ziran agertzen-
Ez giñan urten bear gaur.
Eta zegaitik urten?

Arrua naz, bai. Errazoia dauke. Baiña egia esango dautsut. Ba neukan gogoia onelakoxe gertaera bat erakusteko.

Ez nekatu erramutanr Indarrak gorde gerorako, kai sarrcrarako. Oraingoz, naiko da aizea.

Itxas crtza zaindu bakarrik, tatarrez konturatu barik bertara sartu ez gaitezaz.

Ba guaz. Galtsuaran or dago. Emendik aurrera aitzen kontu eta ardura euki. Zabaldu pixkat.

Sekula ikusi zara onelako arriskuan?

Sarri.

Eta?

Bildurtzen asi zara?

Arrisku andian guaz?

Olatuak ez gaitue bildurtu bear. Eurei abagunea artzen alegindu. Olatuak be, gizonen antzera, atsedeen denpora bear izaten dabe, tarteka, gero indar barriz aitzak jotzen asteko.

Bare egunetan be beti egoten zan arriskua Ondardi'ko sarrreran, Puntako Aitz eta bitartean egozan aitz illarak inguru aretakoretako uraren sakona aldatuz, ur korrentak sortu erazten zituelakor

Kalma zuria egon ezik, begi egoan erresaka edo uraren geldi ezin zoroa. Mendebaletan beti zan sailla, ango aizeak txalupa kanpo alera egaltzen ebelako.

Mare berakoetan urak ez eben billatzen ondorik ez bide egokirik nasaitasunez zabaltzeko eta milla errota txiki lez ibiltzen ziran ura bilin-bolonka jaurtiten, iruditu ezin aiñako indarrez.

Aitz bakoitza, eutsigarri orde, zirikalari zala esan bear.

Eta mendebal zoro-zakarretan arriskua geitu egiten zan, ibaiaren erditik kanpora erraz tatarreztuten ebalako edozein ontzi nai txalupa.

Kairako sarrera aurrera eldu ziranean, mare-berakoaren punta laster izango zan ziurtasunez etorren Simon.

Gizon batzuk ikusi zitun Santa Clara azpiko bidean eta bere artean esan be bai: Or dabiz betikuak. A zelakuak esango dituen!

Arduratu zan bere barruko kezkarik mutillari ez agertzen.

Ordurik txarrena zan, kaira sartzen alegintzeko.

Eta eguraldia berdetzen igarten zan.

-Mendebalak berrogei ta zortzi ordu bereak, esan eban. Ba

dakizu?

Zer esan nai orregaz?

Biar ez dogula itxasoraterik eukiko.

-Gaur lez arrainik ez artzekotanr.r

Ala ta be biarkoa baino lenago gaurkoa ikusteko.

Gaurko zer?

-Sarrerar

Iñoiz euki izan dogu onelako egoera.

Ez. Gaur itxasoak barruko bultzada bizia dakar.

Mendebala ez da ba?

Ez dozu igarten zelako baga, ondokoa dakarren?

Begira inguruan daukagun erreponpa. Itxas errearen ezaugarri da. Geldi egon ezin dan itxasoaren ezaugarri. Sarrera zailla.

.....

Errian ez zan arrisku pregoi bearrik egon.

Aizeak leioak eta ateak danba-danbaka erabilten asi orduko, berezko gogorapenez asi ziran etxetakoak, batez be andrak, txalupen egoeren kontua artzen.

Eta ez zan zail izan Simon falta zala konturatzea, nai ta berak senitarte andirik euki ez.

Ia oituraz erritarrak burura ekarten eben txalupa, ain zuzen, berea izaten zan.

Gaiñera etxerik geienetan ba ekien euren gizonak, nai ta itxasorako gertu, urteten ez zirala ausartu, giro ustela igarri ebe-nean. Simon'ek ez eukan iñor, baiña Idurre alargunak Uxabi neskazarrari mutilla falta ebal esan orduko, laster asi zan kale zear aterik ate ii utiltxu koitaduka illeta joten, eta bereala jakin eben danak a beintzat urtena izango zala.

Erritarrak garratz eta zital asi ziran Simon'en aurka:

Alako baten danok ittoko gaitu burugogor orrek!

Geurea da errua, bein da, betiko itxasora joatea galerazoten ez dautsagulako mutilzar zoro orreri!

Zer uste dau buruarin orrek, ogetak urte daukazala itxasoagaz olgetan ibilteko?

-Oraindik bizarrik ez daukan ume koitaduak emoten dau ez berak, lapazorri alu orrek.

Danak, danak, ondamendi baten gertaera lakoa igarten eben, aizeak kale artetan jasoten zitun samar eta zakarren zoroal-dietan cta aizeak kale artetan ataraten eban soinu larria entzutean.

Iñok agindu barik, bizibideak erakutsitako oitura zarrari jarraituz, errian egozan txikotak, salbabidak eta kordak begiraten asi ziran. Onelako egunetarako kai inguruan gordeta eukiten zituen batzuk. Besteak karkabetan. Eta eurei begiratu, azkatu, kotak eta biurriak kendu cta tiraren eutsigarri lez egiten ziran arri moltso naastucn gaiñeko tokirik egokienetan prest laga zituen.

Alperrik zan batelen bat gertutea. Arriskua geitzea zan ori, bertakoak urteen urtetako bizimodutik ekien lez.

Andrak laster asi ziran gizonak ortarako aizatzen.

Eta eurak, nai ta mari-mutil batzuk gizonekaz ur ondora joan, geienak eleiz aurrian batzen asi ziran. Eta aldratxoa batu orduko, iñoiz lenago egin eben antzera, eleizan sartu, aldarako kandelak biztu, sepulturetako argizai-olak be ixotu, eta etenbako erregu eta arrenetan ekiten asi ziran.

Umeak be igarri eben zerbait.

Oiturazko zan olako gertaeretan ekien kantu biozkor eta errukitsu bat abestuten Ama Errukitsuaren eleizatxo aurreko atadian, edo aterpean, alkartutea. Oraingotan, gaiñera, danak eza-gutu eta maite eben Txo zan arriskuan gertateko zorian egoan bat. Nai eta euretako batzuk baiño gazteago izan, pozik alkar-tzen ziran, itxasoko kontu luze eta egunero barriztuten ziran ja-kingarri bakanak jakiten.

Origaitik kezka eta ittotasunez betetako ixillekoak euren artean erabili ondoren, gogoz ekin eutsen oiturazko erreguetan.

.....

Txalupea, errirako sarreraren aora agertu eta urreratu eta sartzeko arriskuagaz ziurtatzea nai izan eban lenengo Simon'ek. Edo itxura ori erakutsi eban.

Legorrekoen keixura eta joan-etorria bizia zan.

Simon'ek ba eukan gauzak nasai ikusteko narotasuna. Eta egoera aztertu eta Txo'ri esaten asi zan:

-Bildur?

-Asko.

-Eukiteko da.

Eta une baten ixilik egon ziran. Eta Simon'eri begiak Iaiñoz beteten igarri eutsazan Txo'k.

Andik gerotxoago, berak:

-Eztarriko miña daukat.

-Qtzarena da.

-Miña baiño ittotasuna geiago.

-Orreri, zarrok, arrautzak eztarriko zulora igotea deitzen dautsegu. Ikasiko dozu.

-Zer dala?

-Ikasiko dozu.

-Zeu be bildur zara?

-Bildurak salbatuko gaitu.

-Ez zaitut ulertzen.

-Bildurra daukadalako nago emen, kaira sartzen asi barik.

-Gaua egin arte.

-Ez. Marc gorakoarcn erdi ingururartc.

-Eta ekaitza gogortu eta baltzitzcn ba da?

-Itxas andiko ekaitza arrua izaten da, baiña ez gaiztua.

-Zeu lcz.

-Kontxo! Urteera ederra!

-Danak diñoce arrua zareala cta ontxc be ziur nago orixe esaten egongo dirala.

-Or konpon. Boga daigun kanpora.

Barrura sartu barik kanpora jo bear dogu.

-Kaiaren au-auan gagoz eta kanpora.

-Kanpora bai.

-Indar askorik cz daukat.

-Indarra atara egin bear izaten da cz dagon tokitik be, eta orretarako alcginik cz ukatu.

-Jo! etcnda geratuko gara.

-Aleginak eta gogoak indarra geitu egiten dabe. Kanpoan itxasoa bigunago egoten da, sarreran baiño, mare berakoan.

.....

Arrantzale zarrak, leorretik, laster igarri eben Simon'en naia.

Ikusi eben zentsuz jokatzeko asmoetan ebillala.

Jokabide egokia ori zala autortzen eben. Baiña askoren kezka eta itauna au izaten zan:

Ume troko a eta bera, gordin ustearren, gizon mardul eta gogortu zan a, zenbateraiño eldu eikezan euren indarrez, egoera orretan, itxas aurre aizetsuan txalupa zaindu eta eusten?

Beste batzuek alperriko jokabidea uste eben. Agoliña luzatzeko jokabidea. Al izatearen neurria ainbestekoa ez zala jakin bear ebal. Eta itxas andian, tira-biraren bat egin ezkerero, euren laguntzarik emoteko aukerarik ez ebela eukiko.

Ba ziran uste ebenak, barran sartzen asi ezkerero, nai eta tira-bira egin ez, txalupa tatarrez eroatea ziurra zala eta gizonak euki eikeela leorretik jaurtitako soka eta salbabidei eusteko aukera.

Itxas kanpoan eutsi al izan ezkerero, ziurrago zan marea goratzen sarrera onuratsuago bat lortzea.

Baiña eutsi bear, eta ba egozan pentsaten asi ziranak, zetarako itxasoan zabaldu, aize boladetan Idur azpi edo inguruen batera tatarrez eroan eta an ezelako laguntasunik ez artzeko ziurtasuna bete-betekoa zala.

.....

Txalupan, Txo'k ez eban nai. Eusten alegindu zanr Baiña negarrari eutsi ezin aiñako samiña eldu jakon, eta karel gaiñean burua makurtuta eta negarrez asi zan, gero ta zaratatsuago.

Simon'eri barruko miña eta malkoak ataraten eutsazan Txo'ren beraldiakr

Ixilik egon zan lenengotan.

Eta gero, samurki, esan eutsan:

-Txo! Itxasoan gizonak lez negar egin bear da.

-Zelan?

Neuk lez.

Zegaitik zagoz ba, zeu be, negarrez?

-Begiak kresalak erreta daukadazalako.

-Bestetan be eukiten dozuz.

-Sarri, beti gabiltzalako kresaletan.

-Ta negarrik ez dozu egin izan. Zegaitik gaur bai?

-Zeu be bildurrez ikusten zaítudalako.

-Niri emon errua eta zeu be kakalarritan egon.

-Ori ez. Ez pentsatu olakorik.

Ba dakizu denpora gitxitan lotsabakotu egin zarcala?

-Gure amak olakoei kanpoeder deitzen dautse.

-Laga egiozu amari .ta eutsi batelari.

-Ba dakit negarrez egongo dala.

-Emakumea da.

Orrek ez dauka ze ikusirik. Gure aitak be negar egiten eban.

-Amorruz egingo eban, *eziñez*, itxastarrei sarri gertaten jakoen lez.

-Gu geuk al dogu, ala?

-Alegiñak neurtu nai dodaz. Zure eta nire onez.

-Salbatuko gara?

-Zer esan dozu?

-Zer esango dot ba! Salbatuko gara?

Orain barrura sartzan astea, batelak tira bira egin eta iganarian olatu artean ibilteko arriskuan giñake.

-Bai.

-Eta itto, ez?

-Mutil demoniena! Zegaitik ain ezkor?

-Nik ez dakit igari egiten.

-Eta zeñek daki asko? Ez daigun pentsatu orrelako premiñetan.

-Gero ta indar gitxiago daukat erramuak erabilteko.

Ez etsi.

Gero ta lanbro geiago ikusten dot itxas gainean.

Egualdiarcna da.

Gero ta eskumarago ikusten dot erria...

Eta besterik zer?

Ain bildurti ziñana jakin ba neu...

Ba dakizu zer pentsatzen nagon? Antxoa txikia lakoa zareala.

Uraren puzpuloak be ikaratuta.

Entzun be ez zitun egin Txo'k Simon'cn berba oncik. Bat-batean kirioak menperatuta lez, indar andien batek jota *lez*, ne-(nuez asi zan zarataka, txilioka, uluka.

Eta ama ama;, amatxuka, deika, uluka, arrenka, intzirika, eta arrantzaka.

Simon'ck lencngotan, adoretu nai izan eban, berera ekarri. Gero, berari be abotsa joan egin jakon, galdu.

Geiago cstatzen eban egoera orrek. Geiago larritu.

Azkenean, Txo besocan artu, eta biak txalupatan tente jarri ziran, eta bcsarkadaka alkar estatzen egon.

Aize brastada batek eta olatu baten zapladak beia jo eragin eutsen.

Mutillak, Txo'k bekokiagaz ikutu eutsan toletari, eta bere azal meia urratuta, odoletan asi zan.

Orrek geiago artegatu eban.

Simon konturatu zan an ez eukala gerorako lagunik. Mutila, gero ta bildurtiago, dardaraka egoala.

Orrek geiago artegatu eban.

Erabilteko indarririk ez eukan erramua, mutillari lepoan, kurutze bat *lez*, lotutea pentsatu eban.

Ez eban nai onek. Bateletik uretara jaurtitearren egingo ebala pentsatu eban, eta sokak azkatu naian asi zan.

Gogor egin eutsan Simon'ek.

-Bizia luzatu egin bear da, al dan bestean luzatu, Txo.

-Baina au ariñago itto eragitearren da.

-Ez! •Batelak tira-bira egingo ba leu..r

-Arriskuan gagoz!

-Ori gertatuko ba litz, nik emon neiken laguntasunik an-

dicha orixe litzake. Ur gainean, azalean ikusi, eta zure alboan jarraituz. Asko dira orrela salbatu izan diran itxastarrak.

-Ez daukat indarrik.

Ez itto zeure bururik.

-Eta zu?

Au baino txarragoetan salbatu nitzan.

-Noiz?

-Bai bi eta irutan be.

-Benetan?

-Bi eta irutan bakarrik? Bai geiagotan be! Fita ain zuzen be gaur galduko etc naz ba?

-Ili jota nago.

-Eutsi, eutsi mutil. Ez da ain errez ittoten.

-Neure Jcsukristo jauna ez dakit ondo.

-Txo! Neuri fraile batek konfiantzan esandako gauza bat esango dautzut: Mariñclik ez da inpernura joaten.

-Ondura bai!

Onclaxe iñarduen batcican. Batak adorctu nai ta bestea jausi geiago. Eta biak, indartu ordez, aulduen.

Eta ondo eutsita be, orduak bear zituen kairako sarrercan egoera zerbait egokitzen igarri orduko.

Lcorrtik konturatu ziran itxasoan zer gertaten zan.

Igarri eben batcican ez egoala indarrik, ctsita egozala, aize boladcn bultzadei eusten alegintzeko.

Batere mariñel zanak ba ekian mcndebalak, igarri barik eroango ebala batela tatarrez, bestc aldeko aitzctara.

Orrck artcgatzcn zitun barra ondoan, ondartzan eta arkaitz gaiñctan egozan gizonak.

-Zenbat eta geiago luzatu, ariñago galduko dira, edo urrerago eukiko dabe arrisku ori!

-Euren buruen aurka dabiltz!

-Igarten da mutillak ezin dabela ezer egin!

-Ez bata ta ez beste ez dira gauza batcican jarraitzeko.

-Usterik gitxienean tirabira egingo dau ontziak eta biak itto!

Zar ori gogorra izan da, baiña...

Eztabaida guztiak ezkorrak ziran. Agertzen ziran eritzi guztiak, galtzekoak. Esperantzazko bat ez zan entzuten. Itotze aurreko esaera, gertaera, kezka eta estutasunak gaindutako egoera larria igarten zan.

Arrantzaleak eztarri bortitzak daukez. Itxasotako bizitzan garratzutako eztarriak.

Abotsak be beteak, luzeak, urruncra jaurtiten oituak.

Orrelakoen artean, beti dira bata ta bestea baiño lodiagoak, eta Ander'en abots zaratatsu eta garratza entzun zan danen gain:

Zeïnek etorri nai dau nigaz gure txalopan?

Ixilunea. Aizea entzun egiten zan, bai eta olatuak, maro berrakuan, erabilten daberen ondo jote eta ondar arrotzearen zarata be.

Barrero, lengo itzal eta garramaz beterik, Ander'en abotsa:

Ez dozue entzun?

Igarriarren, ulertzen gaitz zan barbaroa.

Zeïnek nai dau nigaz etorri?

Arrisku gogorra da!

-Sei batzen ba gara, ni bat.

Eta ni!

Besterik?

Barrako urteera igaro ezkerro, gure txalupak ez dauka ekaitz onen atzerarik. Ainbestekoak sarri igaro izan doguz itxas zabalean.

Ur gitxiegi dago urteteko.

-Txalupa azalean joateko aiña ba dagoala uste dot.

Eta barrero deika:

Ia! Konturatu zaitzeze. Guk lagundu ezik, areik Idur azpira itxasoak eroan eta an galduko dira.

Beste sei lagunik ez?

Ez da laguneren kontua. Barratik urteteko aiña urik ba dogun edo ez jakitea baiño.

Ziur zagoz zure txalopak ondorik ez dabela joko, eta orre-

la, ondarra jota ez dala geratuko?

-Ori neuk ziurtaten dot.

Zurea joan al ba da, goría azalago da ta errezagó joango da. Gurc txalopa be gertu leike.

Ori! Bakarra barik bi bearko dira an!

Gertu nagola esan dot.

Ori entzun eta gizonak asi ziran:

Ncu nator bat.

Eta ni!

Ni bc gertu nago!

Beste batzuk *ez* eben berbarik egin, baiña txalopak lotuta egozan tokira urreratzen asi ziran, Gazteak ziran geienak, baiña gizon mardulak be ez eben atzcrarik egin.

Zortzi ez-c amasei bc batu ziran.

Laster zituen crramuak txalupetan. Andrak be lagundu eutsen orretan, nasako gertakizun orí egiten.

Eta ibaiko uren sakonunc eta ezagutzen zituen tarte ego zear, arriskua gaindutcko be lenengo bat eta atzcrago bestea, txalupa bi crramucn indarrez erabilten ikusi ziran.

Legorrean nialko eta txaloak, kezka eta larritasunak, entzun eta oartu baiño, igarri geiago egiten ziran.

Andre talde bat egoan artetik deadar zoli eta larri bat entzun zan: Uxabio! Datorrena umezurtz lagateko biderik ez egín gero!

Bigarren txalopak, itxasora joaten zan guztietan, ur txakurra erabilten eban barruan. Ia txaluparik geienak eroaten eben. Txakur ulctsuak ziran, ur txakurrak, itxasoan milla laguntza emoten ekienak, bai eteten ziran kordclak billatzeko, bai arrain bizien bat mantsotutcko. Eta gizonen bat uretara jausten zanean, beraganaiño txalopatik jaurti nai eutsen soka zatia edo eutsigarrien bat eroateko.

Oraingotan txakurra ez egoan batel ondoan, sarri oi izaten eben lez, eta bera barik asi ziran urteten. Baiña konturatu zane-rako lcorrtik jarraitzen eutsan batclari, zaunkadaka, bera an egoala jakin cragitcko.

Eta alaxe, atzckuak ikusi ta deitu orduko, uretara sartu ta

txalopara urreratu zan, buztanari eragiñez bere poza agertzen.

Lenengo txalupa ondo urten zan barratik. Eroso artu eban olatucn gora bera eta astiñaldia. Eta arin zabaldu.

Bigarrena okertu egin zan eta beia jo, ondar gaiñean sartu.

Ondamendi askoren asiera izaten zan ondo jo eta olatucn jostallu ibai erdian gcratzea. Zuzenketa arin eta egoki bat egin ezik, arrisku itnlean geratzen ziran ontzi eta gizonak.

Patroiak, atzekuak, len be iñoiz orretan jausia zalako, laster igarri eban atze aldean' zala ondarra jo ebana eta gizonei aurrera joan eragiñaz, pixua aurrera zuzenduz, olatu baten joaldian, nai ta olatu parrastadak ia txalopea urez aurretik atzeraiño busti, atzea aidean lagatea lortu eban eta ubidean sartu. Gizonak artu eben nasaitasuna! Txakurra bera busti-busti eginda geratu zan eta patriaren ondora joan eta urak astintzen asi zanean, arek esan eutsan: Bildurra zuk be, Lasun?

Lcorrekuak bc une larri eta urduri bat igaro eben, ia barrukoak baiño larriago, txalupea an geratzen ba zan, uste baiño oker andiagoa gertatu eikealako. Origaitik, barra inguruko ondardi eta aitzarte guztien barri zeatz ekien patroï zar batzuk egin zituen deadarrak, oarrak, biotz larrien orruak irudien, aolkuak emoteko izanarren, kezkaen naigabe eta ittotasunez ezin ogutzitako deadarrak ziralako, miñak lotu eta zartatutako eztarrien ots bortitzak ziralako.

Alako baten itxasoan zabaldu ziran txalupa biak eta zuzen cioazen Simon'en batelaren ingurura.

Ez ziran belak zabaltzen ausartu, aizeak okerretara ez erabilteagaitik, eta batez be Simon'en txalupara zuzenago eldutearren.

Barra ondoko ondardietan ibili ziran andra eta gizonak, ba-koitzak errezen eukan bidetik Arta-gane edo Arrigorri'ko mendia egaletara joan ziran, andik obeto edo beintzat argiago ikusteko itxasoan gertaten zanar

.....

Simon zarraren batelean, Txo, negar egiteko indar barik,

zotinka ebillan, zutik egon eziñik, otzak kikilduta, eta tartetan txipli-txaplaka ebiltzan olatuak, aizeak jaikitean zabaltzen eben urez bustita.

Simon zearo mendetuta, txarran pentsaten asia zan.

-Ez neban pentsaten au gertatuko zanik.

Entzuten, Txo?

Txo'k ez eukan adorcrik begiak Simon'eri begira zaintzeko be.

Eta Simon'ek jarraitu:

-Egunen baten gure kaietako barren aoa zabaldu eta sakonduko dabe. Urei tokia egingo dautse eta inguru aretako arriskuak kendu. Baiña nik, geroari barik, gaurkoa begiratu bear neban.

Txo! Kontuan euki. Txarto urtetan ba dausku be, barratik kanpora urtenaz erabili nai izan dogun jokabidea, beti artu ta eutsi bearrekoa dala. Jokabiderik ziurrena da.

Baiñar.. zu mutil bigun zara eta ni, ointxe konturatu naz, agure lotu. Uste baiño lotuago. Ziur egon, itxasoak ez gaitu gaindu; gure urteak, zu beregi ta ni gorcgi, izan dira saldu gaituenak.

Gogorra da, baiña cz daukat ittotearen bildurrik. Sekula ez dot orren bildurrik euki. Baiña bai igarri izan dot iñoiz nigan, eta orain be bai, ittotearen lotsa.

Danak esango dabe arrocgi izan nazalako galdu gareala. Orixe pentsatuko dabe. Alaz eta, ni cz naz arro, Txo!

Nirea bizioa da, gaixoa lakoxea. Itxaskeria esango neuke nik. Beti itxasoan egon naia. Baiña naizena danontzat daukat eta dakidana erakusteko gertu, zugaz ibili izan naizen *lez*.

Entzuten Txo?

Txo! Biziari laga sekula be cz gero, eutsi baiño eutsi!

Espanak baltzituta eukazan Txo'k, otzarcn otzcz eta ezin eban barbarik egin. Gizonci lako maiko lodiak urtetan eutsen.

Al eban bestean igortziten eban Simon'ek Txo.

-Ez bildurtu! Adorctu zaitez!

Ezin geinke gure indarrez ezer egin, baiña biotzak esaten eustan, nigaitik cz ba zan be zugaitik, erritarrak urtengo ebela

gure laguntzan, eta begira... or datoz txalopa bi.

Gu mendebalak aitzetara eroan orduko, eurak gugana elduko dira, lortuko dabe urreratzea, bizkor datoz-eta.

Eutsi mutil! Eutsi!

Ezin... ezin... Erramua azkatu eidazu esku-artetik, etzan nadin. Odol usaiña lakoxea daukat aoan.

Ez, Txo! Aitzetara urreratuagaz, olatu andigoan sartzen gara. Eutsi, eutsi al dan bestean.

Esan orduko, olatu batek zotin eragin eutsan batelarir Eta erramuaren aldetik artu eban alborakadak, Txo itxasora jaurti eban.

Larritu zan Simon.

Bere erramua zuzendu eutsan mutillari, al eban aiña eusteko deika. Eta alaxe batel ondotik urrunduten ez eutsan laga nai.

Berak be ez eukan indarrik mutilla uretatik batelera igoteko.

Urreratzen ikusten zitun txalopei deika eta agirika asi zan. Baiña abotsa itto egiten jakon eztarrian.

Eta beste ezer egin eziñik, karel egaletik mutillari ezin eutsita, erreguka, arrenka asi zan.

Negarren negarrez, begiak lausotuta, puztuta, ikusi be ez eban egiten, eskuagaz oratuta eukan mutillik.

.....

Txalopetakoak igarri eben egoera larrian egozala Simon eta laguna.

Gero ta alegin biziagoak egiten ezagutu ziran. Eta laster eldu be, batelaren ingurura.

Jaso eben Txo uretatik.

Jantziak kendu eta eurenak emonaz, berotu eban mutilla. Berotu nai. Txo, ezin zan berera etorri eta gizonak, borondatea besterik ez eukan txalopan, mutillari berera etorten laguntzeko, eta alkarri lagunduta, txandaka, bakoitzak zer pentsatu a egiten eutsen mutillari.

Gaiñean ikusten zituen, bestalde, aitzak eta euretatik ainbat

ariñen aldcratzcn alegindu ziran.

Luzatu eutsen txikot bat Simon'en batelari eta orretarako bcrtaratu zan batek egin zitun bearrezko lotuerak.

An egoan Simon, burua makur, minduta, kezkatuta, kenedubako Txo'rcn arduraz. Eta lotsatuta lez, ezer ezin esan-da.

Alako baten samur-samurrez itandu eban:

-Bizi da Txo?

Beragaitik izan *ez* ba litz ez dakit etorriko giñan.

Bizi da?

Arriskuan ipini ez ba zendun, ziurrago biziko zan.

Bizi dan ala *ez*, esan dot, garratz eta artega aozkatu eban Simon'ek.

Batelekoak ez eutsen erantzun.

Eta lenengo txaloparen atoian joanarren, erramutan egiten eben bcrtara aldatu ziran gizon biak be.

Simon'ck, mariñel zarrak egiten eben lez, karel gaiñean burua makurtuta, uretan cskuak sartu, esku biak alkartuz ura artu, eta kresalagaz garbituten eban arpegia, betazalak zabal eukiten aleginduz, itxas gatzak emoten daben erretasunez malkoen arintasuna loditu eta geratu eragitearren.

Sinistuta eioan Txo txalopara jaso ba eban be, azkenetan jaso ebela eta bizitzarako ari meia eukiko ebala.

Jainkoak jakin zenbat bidar esan eban '«parkatu Jauna» esatera eta eskaria, Ondardi'ko parrokian egozan santu guztiei egin-dako errezucn bitartez.

Arrantzaleak *ez* eutsen, esateko, gorrotorik.

Edozciñeri gertatu eikiola orrelako bat, pcntsaten eben curen artean, baiña *ez* batak eta ez besteak ez eutsen barealdirik emon nai izan, ez zitalkcriz eta cstukeriz, bestetan ain arro ikusten eben Simon'cri une estu bat croan eragitearren baiño, urrengo baten berari nundik zirikatu eta aixatu eukiteko bc.

Bestela, itxas zabaleko txipli-txapla ta mcndebalaren bras-tadak ez zituen ainbestean artcgatzcn. Andiangoetan ibiliak ziran eta indarra batu ezkerro *ez eben* bildurrik izaten.

Barrako sarrerak bai kczkatutcn zitun. Euskalerriko beste kai askok lez, barrako sarrera bildurgarria eukan Ondardi'k, ba-

tez be itxas asarrctako maro bcrakoctan.

Baiña itxasora urten eta an egin ebenetik ordu ta erdi geiagotan, curen mesederako zan dana, barrako sarreran, ura goratuaz cta urak gcituaz, arriskua crdiratzen zalako.

Alaxe, barrako sarrera ingurura eldu ordukoxe, txalopa bictako zarrena zan Diopil'ek zapi zati bat lotu eutsan lanbasarcn makillari eta gora jasoz, beste txalopakoei deitu eutsen:

-Neugaz ibili! Neure esanetara jokatu! Olatuen baga ueña zaindu eta zeuok jo lenengo! Adi egon!

Ez zan konturatu bestaldean talaxerua an egoala Artape'ko mutur baten, olatuen emonaldia zaintzen, gero bitarte egokian barrurako sarrera agintzeko.

Alaxc amar-amabi olatu bata bestearen jarraian igaro ziran.

Eta bareunca igarri ordukoxe, berak irauten eban bi-iru minututan egin bearko eben sarrera.

Diopil, aurretik joanarrcn, geldi geratu zan eta, esana lez, beste txalopakoci sartzeko agindu eutsen.

Besteko oneik ziran Simon'en batela atoian eroienak, nai ta bertan eioazan mutil biak erramutan gogor egiñaz lagundu.

Barran sartzen asteko ekiten iñarduteko deia entzun ebe-nean, bat bateko tongada gogorra egin eben mutillak. Tengada orren ondorenez atoian eroien Simon'en batelaren txikota eten egin zan, eta batel txiki au erdi salduta laga.

Igarri eban Diopil'ek eta jo!, jo! deika asi zan, al dozuen aiña jo, baiña ezkerreca joan barik, olatuen etenetik igeska.

Itxasoa zabala izanarren, olakoetan igarten dan ixiltasunak erraz entzuten laga eban Diopil'en deadarra.

Erramutan etozan bietatik batek askoz be indar geiagoz ten egiten eutsan erramuari ta batela ubidetik urteten, okertzen asi zañ.

Orduan, arriskuak emoten daben bizitasunez, Simon zutik jarri zan.

Ankapeko panela eskuetan artu eta al eban bestean, iñun lotu barik, batela zuzendu naian asi zan, bataren makaltasunari bere zuzentzaz lagundu nairik. Eta ozta-oztan, baiña olatuak barriri asi baiña len sarrerako tokirik txarrena gaindutea lortu

eben, eta bein barruan, korrcnta zaintzea errezago zan.

la salduta geratu ziran.

Beste batclekuak «tasun» txakurra be bialdu eutsen, eten zan txikotarcn crtza aoan croiala, barriro lotzeko.

Alegiñak alegin, txakurrak cz eban alkartzcrik lortu, bate-lckuak be cz ziralako ausartu erramutcari lagaten, eta batel biak sarrera egiña euken.

An egoan Simon zer entzungo, ondar mai batera salto eginda, beste gizonak eta erritar batzuk egozan tokira. Baiña beste txaloparen sarrera lortu arte, ez eban iñok barbarik jaso, aopeko esan-mcsan batzuk izan ezik.

Gogo, begi, nai eta ekiñak txalopa aretan egozan.

Simon'ck, bustita eta indarge egonarren, ez eban nai beste txalupa sartu aurretik iñora aldendu.

Gañera lcorretik igarrita euken, Txo txikia uretara jausita egon zala, eta uretatik jaso ebela. Ez ekien ziur bizirik etorranik.

Sarrcrak, arriskuz betea izanarren, kezka sortuarren, ez eutsen ainbeste ittotasunik emoten, an etozan crramulariak ban-banako mutillak zirala ba ekiclako. Eta atzeko lez etorran Diopil be, errian atzckorik zur eta onenentzako eukelako.

Eta alaxe barealdian sartu zan, neke barik, arin ibili bearra izanarren, eta ubidearen erditik urten barik..

Ondartza ondora urreratu ordukoxe, mutillctako bik lepoan artu eben Txo, curen txamarrecagaz cstalduta, eta arin, arin, errirako bidean asi ziran.

Batzuk bizi zala, besteak il zala, ittota croiela mar-marrecan asi ziran, baiña iñor ez zan ausartu garbi itanduten.

Bizi-zala esanarren, geiagok sinistuten eben zcr-egiñik cz egoala.

Kaitik etxetara aldcbanatu ziran crritarrik geienak.

Andik laster parroko kanpaia joten asi ziran.

Ene ba da-ta!, urten eutsen askori.

Kanpaiak!, esaten eben beste askok, belarriak ade-ade ipiniz. Il da, Txo!

Baiña kanpaiak crrcpika bidun danbadarik joten ez ebela sartuz, eta agoliñako dan-dan... dan-dan (bata bestearen ondoko

egonaldia) be ez zirala konturatu ordukoxe, laster igarri eben Salbe kanpaia zala, erri askotan gaixo bat txarto dagonetan, osasun eskabidez Salbe eskintza egin eta arako deia izango zala.

Eta erri guztia batu zan Txo txikiaren bizia eskatzen Ondardi'ko eleiz nagusian, familikoen orde z Simon zarraren **alabak** andra errukitsuen artean batu ebazan lau-sei-maikoekin ordainduko zan Salbetan.

Andik ordutara Salbearen sinismena sendotu egin zan errian, laster asi ziralakoz zabaltzen Txo berera etorten asia zala.

Kezkak

Gau aretan Simon'ek ez eban lorik egin.

Gertaerako ittotasun eta naigabeak baino, erriaren aurrean ala agertu bearrak sartu eta emoten eutsan goitik berako arrada.

Lo onekoa zan, tontortuta ia gau guztian eten barik lo egiten ekiana. Baiña gau aretan ezin al izan eban oean geldi egon.

Goizaldean, eguna eteten asi baiño len, leiora urten eta zeruetara begira asi zan, eta inguruko karkabatik zear etxera bete-betean sartzan jakon aizeari usaiña artu naian lez egon zan unatxo baten. Itxastar askok esaten dakie aizeari usain on edo txarra egun sentia egitean artu bear jakola, bai eta gangar gogoa be.

Oraindik bere kale itzal eta bakartian iñor ez ebillala konturatu be egin zan. Eta ixilik, argi bako kale zear, izarren argia bakarrik oartzan zan bere etxarte zear, beretik laster eukan Idure'n etxera joan zan.

Aterik jo barik, kisketari eragin eta etxean sartu zan, bertakoa izan ba litz lez.

Bere abots garratzagaz ezpan artean zerbait esan eban, an sartzan zala adierazteko edo konturatu eitezan, baiña erantzunik ez eban artu eta bera be ez zan alegindu orretan, ez zain egoten be, eta agerpen geiago barik sartu zan.

Ezin esan egunonik emon edo eskiñi ebanik, atarako borondatea eukita be.

Kriseillu argia biztuta igarri eban «salako» egalean egiten

zan gelan, eta pentsatu eban antxe egongo zala Txo eta beragaitik biztuta egongo zala. Eta orrek zerbait artegatu eban, ondoezen bat edo «nobedade»a egongo zalakuan. Eta ezelako baimenik eskatu edo ta begirapen barik, aurrera joan zan.

Gelak ez eukan aterik, goian osorik eta erdi aldera zati bitan erdibitzen zan kurtiñoi illun bat baiño.

Idurre erdi lo, edo nekez artutako lo baten menpean egoan, aulki baten gorputzari era billatuta, beso artean burua estaldu edo makurtuta. Bestetan oi eban buruko zapia kendua, eta ule baltz luzca be, buruko kapcte lodi baten batzen eban ule baltz luzca, nasaituta, edo ta lotzeko edo batzeko urkulak kenduta beintzat. Papparre be erdi zabalik.

Ez zan konturatu Idurre Simon'egaz.

Baiña Txo'k, argiaren ke eta goraberen artean, norbaiten itzala igarri ebanean, oraindik indarbarik aozkatu eban:

Nor da?

Ni.

Nor?

Ez nazu ezagutzen?

Zein zarean esan dot.

-Bai laster irudia burutik kendu be. Simon.

-Jo! Gaur be itxasora joan bear?

Idurre erdi-esnatu eta zein egoan konturatu barik, Txo'ri maitasunez:

-Egon zaite nasai, maitia. Ene! Orixe da itxasoan pentsatu bearra! Baretu zaite eta lo egin, loak uxatu cragingo dautsu gertaturikoa-ta.

Eta Simon egoala konturatu orduko, garratz:

Zetan zatoz Simon?

Zerbait jakiten.

Nok zabaldu dautsu atea?

-Niretzat sekula itxita euki al dozu?

Baiña ordu guztiak ez dira bardiñak.

Ezer esatekorik ba daukazu?

Orrek ez dauka zer ikusirik.

Zer ikusirik ez ba dauka ixildu ta kittu.

Ez Simon, ez. Beste ordu baten eta beste era baten. Joan zaite etxera.

Mutillaren kezka etorri naz.

Ondo da, baiña joan zaite.

Zelan dago?

Pentsatu ziñei. Ikusten dozu.

Kiriotsu egotea jakiña da.

Batelean lez igaro dau gau guztia. Erramutan edo itxasoari berbetan.

Danoi gertatu jaku ori.

Baiña joan zaite.

Txo! Gorrotorik artu daustazu?

Txo ixillik. Jaramonik ez. Begiak itxi.

Eta Idurre'k:

Laga egizuz kontu oneik Simon beste baterako. Barriketarik ez daigun sortu. Joan zaitez.

Bialduta ez Idurre.

Bialduta, bai Simon. Oneik ez dira alargue baten etxera etorteko orduak.

Txo'k, bete-betean:

Gaur beintzat ez nazu itxasora eroango. Ze ordu da?

Bostak.

Seirctan egongo da maria, ez?

-Gaur ez, Txo. Gaur lo egin ziñei.

Iño! Atzo baiño estutasun geiago igaro dot oean. Mallatuta daukat gorputz guztia.

-Joan zaitez, mesedez Simon. Eta atea itxita laga egizu.

Txarrena igaro dozu, Txo, eta ez bildurtu.

Asko falta zan ittoteko?

Ittoak ez dabe kontaten eta kontateko daukenak ezin esan zenbat falta zan. Gaitza da une ori neurtutea.

Mesedez Simon. Laga egizuz kontuak beste baterako. Zoaz!

Kalean zer diño?

Nik baiño obeto jakin ziñei. Mesedez, Simon.

Esango eutsuen zerbait.

Semea etxean daukadala ezin sinistuta nago. Bizirik dagola be sinistu eziñez ibili naz. Konturatu kaleko esanci begira ez nagoa... Mesedez, joan zaite.

-Ba dakit txarto igaro gendula, baiña... Zela-alako gauzarik esaten iñor ba jatortzu, neugana etorri dedilla esan.

-Jesus, Simon.

Bildur eta lotsa barik esan c?

Bai, Simon. Zoaz, zoaz...

Kofradi'rako deia

Eguna zabaldu ordurako, Simon'cri Kofradiako etxera joateko deia egin cursen mutiltxo baten bitartez.

Txaluparik geienak itxasora urten ziran egunagaz batera.

Ikusi zitun Simon'ek batzuk, kalean bera, porturako mailladictan bera, trasku otzean, tretzak orzaran sartuta esku baten, eta lepotik zear sokakin lotuta rñundillak dindilizka.

Berdel edo txitxarro tara joiazan, arrain orrein sasoia zalako, eta kanpora joateko, atako bandan ibilteko, egualdi ziurrak ez egozalako.

Dcilariak erabagiten dabe ori. Diru kontu eta abarretan sartzen ez ba dira be, eskubide andiak eukiten dituez dcilariak itxasoctako ibillerei buruz.

Domu-santuru egunetan eukiten dituen batzar nausietan aukerutzen dira. Euren zeregiña itxasora urtetca komeni dan edo ez urten aurretik crabagitea izaren da, edo ta itxasoan dagozananan, ekaitzen bat oartutcn ba da, erritarrei bandera jasoaz *e*-txera biurtu bearra adierazi eta abar.

Geienetan iru izaren dira, erabagia artzeko eztabaida barik, eta batek edo bik emoten daben indarrez baiño ziurrago artu eta bete eragitcko.

Besperan gertatu zana amaitu orduko, batzar bat euki eben irurakicta gau-lencan amaitu.

Danak, ao batez, eta bildurra sartu cragirearren batez be, Simon'eri aldi baterako itxasorako baimena kentzea erabagi

eben. Arrantzale on eta jakintsua zala ezagutzen eben, baiña bakarrik geratutean, eta beste ontzietan tokirik ez zukitean, eukan bateltxoan oraindik arrokeri asko egitkotzat etsi eben, eta \ori, bere onagaitik eta erriaren mesedean, ebagi bear zala uste izan eben.

Ez eban orrelakorik pentsatu Simon'ek ara joateko deia artu ebanean.

Miñik artu ete eban paperen bat beteteko izango zalakoan joan zan, eta origaitik, astiz joan be.

Kofradietan ogibidea daukenak, maiordomuak kenduta, geienak erdi gaixoak izaten ziran, itxasorako gaitasuna makaldu edo galduak. Orretan, «mollako» arduetan emoten eutsen zeregiñen bat, eta nai ta irabazirik euki ez, batzen zituen arrain eta eskupekoak onuragarri izaten ziran eurentzat.

Arrantzaleak ba eukezan babes batzuk, laguntasun batzuk, curen erabide eta jokabidean.

Antxiñetatik etorkiezan lagungarriak.

Gure errietako Kofradien istoria irakurten danean, XIV garren gizaldi inguruan ezagutzen dira ortazko batzarrak, eta aurrez idatzi barik oituraz erabilten ziran legeak batu ta idatzita lagatean, argi irakurten da lege orreik antxiñetatik ezagutzen ziran oituren ondorenak zirala, gitxienez bosteun urte aurretik edo geiago, orduko paperetan irakurten dan lez.

Oitura orrein artean, itxasoko alkar laguntzagaz batera, itxas ondorenez gaitasuna galduta legorrean bizi bear eben alargun, umezurtz, gaixo eta eragozpendunentzako laguntzak be aitatzen ziran.

Umezurtzak eta alargunak, ez-bearraren edo gertaeraren urtean, txalopatik jasoten eben itxasoan ebiltzanak aiña «partilla» edo lan-irabazia, urte betean. Andik aurrera «miseria» kentzeko aiña ez zan laguntasun bat emoten eutsen, Kofradian saltzen zan arraiñen eunekotik, Kofradiak bere eskubideen ordeztatzen eban dirutzatik zerbait.

Eta gaixo egonarren zerbait egin eikien artean aukeratzen zituen Kofradiako zaindari, begirale eta abar. Oneik, geienetan, txalopak arraiñagaz sartzen ziranetan emoten eutsen arrain la-

guntasunagaz bizitzen ziran.

Kofradiko zuzendaritzako batzordekoak itxasora joan bear izaten eben *lez*, legorreko begirale orreik eukiten eben gauzak lotsaz croan edo bete cragiteko ardura.

Oncitako bat zan Paulo. Argal, zorrotz, igar, kolore ori, begiak be zuzen euki eziñckoa.

Ez dakit zegaitik «Ozkil» deituten eutsen berari, nai ta endaz eta familiz «Kolaio»nekoa izan.

«Ozkil» otzakiltetik ctorkion deitura izan eikean. Edo ta bere txatxarkcri, zitalkeri edo es^Pe txarretik.

Ilana dala, Simon Kofradiara joan zanean, an egoan Paulo, eta bigunkcriz edo crrukiz esan barik, arrokeriz así jakon:

Zer? Atzoko estutasunagaz pozik?

Olakoak ondo ikusten dituana, lebatza baiño kolaio txisatia ziurrago.

Mendebalak jota ibiltan diranekaitik be zerbait esan lei.

Iparra artu baiño len itxasoari txis egin cutscnakaitik be zcr kontatu batu lei.

-Ez zaizala jo nire gaixoak.

Batzun alperkeriak be cz naiala dcnporak baiño len 1... r. ductu. Ilana dala, kopletan ibili barik. Zcr nai dozue jakin?

Zeu zara, zeu, jakin bear dozuna.

Zer?

-Ba saويا zala zuri cskarmentu on bat emoteko.

Zegaitik? Origaitik?

Batek baiño geiagok pentsatuko dau gaur ori.

Ori da dakastazun egun ona?

-Merezi be batzuk egun onik?

Txotxolo alu ori. Onetarako zaitugu Kofradian? Esan bein: Zctara ekarri edo deitu nazuc?

Ba bolctoa Kofradiara ekarteko jakin craztcko.

Zetarako?

-Nik ez dakit, baiña emen lagateko. Kentzeko izango da.

Niri bolctoa kendu, itxasorako baimena kendu? Ez dago ortarako bizarrik.

Ez diarduzu ba sarri-sarri arrantzale eta erritar guztiak

arrautzak eztarrian dituela ipinten?

-Bragctatik golpe egiten ba dautsut zurerik ez da igoko ez-tarrira, jakin?

Esatekoa esana dago.

Neuk diñotzut emen ez dagola bart tbAlik niri, itxasora joatea galerazoten daben bandera gorria eskeita ez dagon egu-netan, nai dodanean urten eta joaten galerazoko daustanik.

1)eilarien agindua da.

Obeto egingo leuke itxasoetan denpora geiago sartu, mendebal usaiña artzen asi orduko tatarrez ontzi guztiak etxera ekarten arduratu baiño. Orrelaxe duaz gero gure gauzak. Atzeari begira. Illean egunik erdiak etxean egonda, emengo «arri-alperrei» nundik jaten emon?

Eta zer da obc, arri alperra izatea ala bizarrak urteten asi bako mutil errukarriak itxas ondoctara bialtzea?

Zeñcgaitik diñozu ori?

Zuk diñozuzan arri alperrak ez dakielakoan zirikadak nora duazan igarten?

Ozkil alu ustela! Sekula zeure bizitzan alperkeriz berorik be jan ez dozun orrek, niri esan mutillak itxas onduetara bialtzen dodazala?

Arrokeriak eragiten dautsu dana.

Okotzcko bat emoten ba dautsut!

Lotsa daukazu atzoko arratsaldea ikusita, gaur era onetan etorri eta orrela txakurtuteko? Nun euki zenduzan bart gaur atara nai dozuzan indarrak?

Berbarik be geiago ez egin, depuntuen kolore ori lur koleorean biurtuta lagatea nai ez ba dozu.

Eta bere bostean berbetan, Simon aldenduten asi zan, baiña atetik urten orduko barriro sartu eta beste ekiñaldi bat artzen asteko itxuran.

Kofradiako atetik kaleratu zanean, Paulo'k, kalekoak be entzuteko eran edo entzun eragin naian, deitu eutsan:

Eta boletoa zer?

Bolctoa neurea da, neuk nai dodanean egin eta itxasoetan komeni jatan lez ibilteko, eta zu lako jan txakurrentzat Kofra-

diari dirua ekarteko.

Simon, gaiztua, apana cta zitala ba zan be, cgia da Kofradia-
ri, bere alegiñean, iñok baiño diru *gei*ago cinon cutsala arran
eta origaitik, esanalak esan, ango
langilleak ez euken adorcrik eta garrrik bere jardunci garratz
eran tzu teko.

Gaiñera bera izango zan, erriko eleizan, kandcra lodiak
eroaten edo ta eleizako banderak eroaten lenengo agertuko
zana, eta «parkatu Jauna» esateko orduan, argien eta adoretsucn
esango ebana be.

Orretan laga bearreko zan, beste gauzetan bere izakcra ala
ba zan be.



Gure gizonak

Ez dira aukeratuak. Ez eta banan-banan billatuak be.

Edozein arrantzaleen erri txikietan ainbat gizon eta emakume bakan eta berezi billatzen dira.

Giroak eragiten dabena izan lei.

Ez da berezkoa euren izakera, baiña zeaztuten gaitz da. Indarkeria dabil bitartean. Giroko indarkeria.

Bear ba da itxasoaren indarkeria.

Origaitik arrantzaleak, gogoz, beste iñor baiño bake zaleago dira. Errukiak ariñago jotzen ditunakr Eta zoritxarrak jotzen dituean be, errezago gainduten dabena garratz eta larrienak izanarren. Ba daukez tartetan itxasoan sortuten diran lako bat bateko galerrenak. Baiña ori ekaitzaldi bateko aizea da. Giroa, izatea, besterik da. Gertuta dagozalako edo familietan orixe ikasi, entzun, igarri eta bizi izan dabelako.

Itxastar bizi-modua, eratuta egoan dan eran, famili oso askoren azkena izan da.

Aita semeak ontzi baten, famili berbereko ontzian batzutan eta bestean alogerekoetan, askotan batera ondatu, itto izan dira:

Gaitz billatuko zan lengo denporetan, oraindik gure gizaldiko denporetan, gizatada baten itxasoak negar eragin bakorik.

Goazen gure gizonetarar

Oraiñarte kontakizun onetan erabili doguzanetara.

Simon

Zar deituarren, oraindik berrogei ta amabost urte egitekor Egia esateko, bein berrogetamar ezker alaxe deitzen eutsen Ondardi'n gizon mardulei. Agure baiño zar geiago.

Zortzi neba arreba izatera eldu ziran. Arrantzaleak esaten dakien lez, sei antxoa eta mielga bir Sei mutil eta neska bi.

Mutilletan iru batera itto ziran udako galerren baten itxas zabalean eta euren gorpuak kanposanturik ez eben ezagutu.

Udako giroagaz baliatuta, atun arrantzara urteten ausartu ziran txalopa andi baten.

Atun-kazan arraiñcan ebiltzan. Gaua be itxasoan egin bear olakoetan. Goizaldeko bat-bateko galerren batek ez eutsen denporarik emon belak erriateko be.

Mastc nausia okertu jaken eta apurtu eta ontziari bira eragin. Kamaña barruan egozala arrapatu zitun geienak ondamendi orrek. Itxas azalera agertuteko aukerarik be ez eben euki, txalopca batzutan geratzen zan lez albo gaiñean okertuta barik, killaz gora geratu zalako.

Ez zan curen txalupa bakarrik izan. Kantauri itxasoan, bertako itxasertzcan, eundak gizon galdu ziran gau-lenetik goizalde bitartean.

Urte bi geroago, erriaren aurrean, esateko kai barruan, itxasotik barrura etozala, itxas olatuen mende geratu zan txalopa bat. Tira-bira egin, arraiñak uretara jaurti edo atara eta gizonak be arraiñckaz batera, eta ordu erdi baten olatuen jostallu erabili ondoren, zazpi gizon onduratu ziran ondartza inguruan, indar guztiak eten eragin ondoren, lcorrctik emon nai izan eutsen laguntzarik be artu ezinda.

Andik egun bira, puztuta, azalera agertu ziran batzuk eta kanposantura jaso zituen. Besteak itxas ondoa edo aitz-arteren bat billatuko eben curen betiko loa egiteko.

Simon'en anaiak ziran bi. Eta Jainkoaren eskertzat emon eban berak azalean ittota billatzca, kanposantuko lurretik zerurako itxas ondotik baiño bide laburragoa dalakoan.

Simon berau zan zarrena.

Lenengo iruretatik ezkon barriak ziran bi. Eta curen umeak ama alargunctatik jaio ziran.

Besteak iru neska zitun eta emaztea Santa Eufemi'ko erromerian Markiña aldean billatutako baserritar bat zan lez, gurasoak curen etxera croan eben ume ta guzti eta oneik mardultzen asi ziranean bascrrian danontzat tokirik ez egoala-ta, Durango aldeko konbentu baten sartu zituen bi, dote barik, eskolarik jakin czarren, monja laguntzaille edo legatzako zozkon onckoak zirala ta. Eta bik emon ez ebena irugarrenak emon cban giza-

frutuctan, ingurutan baretu eta odol irakinduci eutsi ezinda ebillan idizko lako bategaz ezkondu ebelako. Esaten ebenez, andrea sekula ez eben lirain ikusi ezkondu ezkeru, czkontzara be lodituta gero joan zalako. Eta berotasunak makaldu eragin ezik, Bollibar'cn arraza bcian lagako ebala bere inguruko zan mutil gangordun aregaitik esaten ekien ondo ezagutzen ebenak.

Andrak eta jokoak etxea ondatu eutsen, bularretikoagaz gaixo jausi ordurako. Eta oraindik be andreak igaroak igaro eta zorrak zor criotz on bat eukiten lagundu eutsan, bera, ondo gogoratu ezkeru, pobrcago joan zala etxe argitara-ta.

Simon'ck ez eban iñor alargun laga nai izan. Ezkondu ez zan egin. Alaz eta semeren bat ba eukala esaten eben; baiña andrerik ez eutsen ezagutu.

Gurasoak il ziranean, bera geratu zan etxeagaz.

Etxc ta txaloparen tresnaleku, dana zan bat.

Beko sua sukaldean.

Alboan gela illun bat. Ortxe sartzen ziran itxas tresnak, bai ontziarcnak eta baita arrantzakuak.

Andik karkaba batera emoten eban leio bitartean, dana utsik. An, leio egalcan, orma barik, lotsa gordetzeko, izarazko aldebanatzea bitarteko zala, bere oea.

Etxcak ez eukan komunik barruan. Orretarako berak eta alboko etxeak, bientzako euken gela illun bat, etxe bien artetik orma arte zan bat igaro eta erreka gaiñera luzatua zan balkoe baten.

Etxean ez egoan urik be eta pedar baten jaso bear izaten eban egunero bere garbitasun, sukaldeko premiña eta abarretarako.

Bera bizi zan artean alaxe ezagutu eban etxea, gurasoak laga eutsen lez ezeri ikutu barik, eta orain bakarrik bizi ba zan be, zortzi neba arreba eta gurasoak antxe bizi ziran, eta etxe on, egoki eta aukerakotzat eukan Simon'ek berea.

Simon sekula ez zan gaixo egon.

Ez eban laga, besteekin ibili zanean itxasorate batik.

Ez eukan orduaririk. Baiña deiagaz batera ibili bear ziran txalopetan ebillanean, bere leiotik bera, kaletik artzeko eran,

soka luze bat ipinita eukan, eta ocan sartzen zanean, soka urren burua bere ainkari lotuten eutsan, deilariak kalctik ten egitean esnatu egian.

Berak egiten eban jatekoa, eguerdian ezin ebanetan, gabea. Askotan egun bat edo birako.

Esnea egun bitik bein eroaten eutsan bezeroak etxera. An sartzeko giltzik bear ez zan lez, eskatzeko mai garean lagaten eutsan, eta aregaz batera berak egokitizat uste izaten eban patata, frutu eta ortuarrien bat.

Sutarako egur, ospal eta biztugarriak, Simon berberak bazten zitun inguruko larre eta otatzetan edo ta arboladictan, etxean egotetan arrantzale zarrak oiturazko ebelako mendiko ostera ori egitea, premiñak beteteko.

Oliorik ez eban erosten. Urdaiaz gertuten eban bere jatekoa. Gauza batzuk arrain gantzekaz.

Otoitz eta errezu luzecn zalea zan.

Etxean, ordu askotan, bakarrik egon bearreko denporetan, besterik egiten ez ekian lez, itsasorako tresnak gertuta laga ondoren, amaren crrosario andi bat artu eta etxeko «karrejoan», sukaldetik leio bitartean ibilten zan, ara eta una, .otoitzak garbi eta geldia aozkatzen. Eta abestu be egiten zituan, salbca eta misterioak batez be. Ba ekian auzokoak entzuten eutsela, baiña beraricz eutsan ardurarik iñorgaitik. «Magnificat» salmoa buruz ekian, bere erara, jakiña, berak bakarrik ulertzen zitun berba eta esacarak erabiliaz, eta jai andi bezperctan salmo ori kantatca oituratzat eukan.

Asko balio dabe zure Magnifikatak, esaten eutsan aurreko lciotik an bizi zan neskazar batek. Asko balio dabe orreik, birgiña guztiak zirrika aidean ibilita gero.

Eta berak erantzuten ekian: Iñori zitzaldirako (tentsiñorako) gogorik sartzeko be ez dozu balio ta ixilik egon zaite, txaxarrori.

Jakiña, zer ikusi edo zer esanik ez dagon errian, orduak zerbaitean laburtu bear izaten diran lez, azkenean santucn letanietan barik, izorramenduko gurikeri eta gordinkcriak nastean esaten amaitzen eben auzotarrcn jarduna, kalekoen ardua barik,

leiotik leiora esanalak esaten.

Itxasoetan asko jakiñarren, ausarditsuegia zala esaten eben beragaitik. Ez eukala atsedenek, ez eta gizonen begirapenik be. Beralakoak ziralakoan besteak. Ez eban nai iñok arpegira ezer esaterik. Eta bakarrik bizi zan lez, eta esku-batu, diru-zale eta abar esaten eutsezanean, berari olakorik ez esateko asarre erantzutzen eban, bereak edozeiñen mende egozala geituz. Baiña iñoiz arrotasunez egiten ebala esaten eutsenean, nai ta berak ziur jakin origaitik egiten zitula ekiñaldi asko, ori esaten eutsanarí paparetik eutsi ta joteko gertu jarkiten zan.


Arrokeriz esaten ekian, sekula ez ebala etxean amurik falta, ez tantza eta lororik, ez soka eta potxerarik, eta iñok baiño karnata aukera geiago erabilten ebala.

Beti eukiten ebala txalopan erramu bat geiago, bear baiño. Eta txaloparen belak be, urratuak eta etenak ondo konponduta.

Naiago ebala egun baten jan barik geratu, bere mai inguruan askatu bako tretza enpatxu eta nasteak baiño, edo ta tretzak enkarna barik pelota biribilletan ikusi baiño, ortarako arrantzara joan bear izaten zan sasoietan.

Origaitik itxasoan be orretan beste arrantzaliekkin zorrotz eta estua izan zan lez, etxean be, bakarrik egoala be, kezkatu eta zorrotz izaten arduratzen zan, sarri bere atsedeen edo loaren kaltez.

Umetatik etorkion oitura eta ardura ori. Eta umetatik etorkion baita be itxasoan zeregin barriak astean kresalagaz Aitearen egitea, eta Aste Santuan santuen irudiak lotzen erabilitako zinta eta orratzak bere sare eta aparixuei lotuta erabiltea be. Ia mesederik egiten eutsen orrelakoak, irriz itanduten eutsen gazteei, erantzuten ekian, ia kalterik igarri ete eben eurak erabilia.



Idurre

Ez zan Ondardi'ko alaba, jaiotzez.

Ez eta bere senarra be.

Bestalde, ez zan senarra itxasoetan ibilia, eta Idurre berbera ez zan itxastarren familiko.

Zek edo zeñek ekarri etc zitun Ondardi'ra eta zetara%

Giputzak ziran biak. Zumaia edo Aizarna ingurukoak.

Ezkonbarriak zirala esaten zan emen etxea billatu eta sartu ziranean.

Itxas lantegi asko egozan, ga ai aretan, Ondardi'n. Geiago be etorri ziran Gipuzko aldetik, ez arrantzale ta ez baserritarr Euren bizikera eta agerpenetatik, kale-baserritar lez ezagutzen zitu en errian.

Itxas ontzi latcngietan aukeran egoan lana. Baiña Idurre'rcn senarra cz zan arotz, cz kalapctari. Istinkari deituten cutscn orduan azken zeregin onetakoei.

Ez ekian maillu, garlopa, mazeta, tronzcrra, trintxa, eta abar, zelan erabili

Origaitik menditik ekarri cta killak egiteko erreka barrene-tan eukiten zituen tantai luzeak urez asetzen, gero okertu ez citezan, cta zeregin ori emon eutsen.

Basa, zikin eta lan zakarra zan.

Ez eban orretan denpora asko egin. Aspertu, gogaitu edo ta bere zercgiñagaz arduragabctu zan. Eta Ondardi'n geienak euki izan daben urteera billatu eban: arrantza bizibidca. Ez eban denpora asko egin orretan. Zuria zala esaten eben, alperra. Eta arrantzan, gaur baiño lengo denporctan askoz geiago, sendo lan egin bear izaten zan, arrantza berbcrcetan baiño, txalopa arrantza

tokictara cdo kalctara croan eta ekarten.

Eta Idurre'ren senarra, «giputxa», erritik aldendu egin zan, *ez* jakin nora. Ameriketara, esaten eben batzuk. Iñoiz arako garrera erakutsi izan ebala, bere txalopako lagunena artean. Besteak uste eben bere erri ingurura joan zala, kale baserritarrei egokia-go jagokcn bizimodu batera. Dana dala, Idurre'k *ez* eutsan jarraitu, edo jarraitzeko biderik ez eutsan emon.

Alkarregaz bizi zirala seme-alabarik ez eutsen ezagutu. Eta alkarregaz bizi ziran denporak baiño geiago ziran Idurre loditzen asi zanean.

Andre ixil eta fiña zanetik, batzuk esaten eben, gizona ez eukala bastertuta; egiten zituala erbesterako urtenaldi batzuk, eta esanak esan jakingo ebala senarraren barri.

Gaiñera berak josten polito jakin eta lan ugari .egiñarren, Ondardi'n cz egoala, beste barik, ortatik biziteko eukerarik, esaten zan.

Baiña berak, Idurre'k, beretzako aiña ataraten eban, jakiña, orduak ordu sartuta, esaten eban lez egunarenak luzatu eta gauarenak kenduta.

Semea jaio zanean, senarraren aitatasuna gogoan euki eban eta ala bete eragin ortazko paperetan.

Denporak igaro-ala, asko ziran senarraren izateagaz keixatuten ziranak. Eta batzuk, betiko satorrak, semeak zenbat illebeta tera jaioten diran itaunak egiten zituenak.

Ondardi'n, errukia eta esku zabaltasuna ezagutzen ziran aiña igarten zan eskutuko gauzak jakin nai eta aizetara atarateko argalkeria be.

Bere antzeko emakume bat etorten zan iñoiz beregana lengo denporetan, emakume laguntzak eskintzen. Egun bat edo bi egiten zitun beragaz, eta gero denporaldi baterako aldendu. Koñata zala esaten eben batzuk. Besteak ez zala senide, Idurre'k monjatzan egindako urte bakarretan ezagututako neska lagun bat zala. Edo ta andre laguna.

Biok ibiltzen ziran alkarregaz emengo egunetan, eta iñori ez eutsan lagun onen ezaupiderik emon, gitxiago zeaztu.

Egia da, bestalde, Idurre'k ez ebala berbalejcurik emon

errian bere jokabidearen ondorcnez, eta bcragaitik esaten ziranak irudimenezko edo oiñarri bagako zer-esanak etsiten zituen askok.

Bere lotsa eta itzala begiragarriago ziran, bestelako esanaldi eta mar-marrak baiño.

Txo

Mutillak, Idurre'ren semeak, ba eukan izena, nai ta danak Txo lez ezagutu eta etxeko edo txalupako izen orregaz deitu.

Esan dogu noiz jaio zan.

Sasoi aretako abadeak gurasoak baiño geiago agintzen eben, edo ori nai izaten eben, umeak jaio eta bataiatzcra eroatean. Askok eurei lagaten eutsen, obetocn ekiela-ta, zeregin ori.

Baiña Idurre'k, eleízara eroan eben aita-ama besutakoci esan eutsen, berak Peru ipintea nai ebala. Peru eta Peru, ortik ez eban urteten eta ez eutsen beste izenik ipinten laga.

Esan be egin eutsen Ondardi lako errian laster asmatuko eutsela zerbait, eta izen orregaz asten zan abesti bat be ba egoala, ta leporatuko eutsela ortazko zerbait.

Idurre'k esaten eban, ia «giputxa» dcitura naiko ez ete eban izango.

Pentsatu lez, eleizara sartzean, Peru izena entzun ordurako, sakristauak laster gogoratu eutsen kantua: Peru gurea Londres'en. Eta irrika geitu be bai:

Peru gurea Londres'en...

zingulun zangulun Maria.

Etxcratzean eta ori agertu, Idurre'k, min artu ezarren, zerbait zirikatuta «neuk erakutsiko dausat tentel areri bi ta lau zenbat diran» esan, eta ixildu zan.

Oiturazko da errietan, umc egin barriak, kaleratu baiño len, eleizan sartzea deritzan siniskera bctctca.

Idurre bere umea eskuetan ebala, abadearen otoitzak amaitu eta sakristauari cskupekoa emoteko ordua eldu zanean, belarrira esan eutsan: Gure Peru au ez dakit Londres'era joango dan,

baiña zu baiño zintzoago izan daiten aleginduko nazala oindixek diñotsut. Eta obeto egingo zenduke, geitu eutsan, kantak ondo ikasi eta agertzea, lotsagarri erabiltea baiño. Eta ba dakizu kantua? Ez ba dakizu be, gogoratu asierako lerro biak:

Peru gurea Londres'en
zingulun larrak ekartenr

Zingulun larrak zer diran ez ba dakizu, kanpaia jote ordez, edo ta konjuroak jotearren garia emoten datorkizuzan bascritarrei galdetu ta orduntxe jakingo dozu.

Sakristaua ixildu zan eta andik aurrera ez eban, nai ta elei-zan sarri ikusi, andre orreri berba erdikarik be bclarriratzcko gogorik eukiten.

Peru amaren ondoan asi zan.

Oitura zarretan. Amaren bular eta amaren kantu samurre-tan.

Kalean ikusten ebanean, umetatik asi jakon Simon ederkaturak egiten, iñoiz etxerako arraintxuren bat emon eta orrelako ederkaturekin.

Mutil egiten etorrela be, Simon'ek ez eutsan eskolara joa-teko aurrerapenik emoten, bai ordez bere txalopa inguruan ikusten ebanean, gogo onez begiratu eta bestetan bere etxera deitu, eta arrantzale zar askok baiño obeto ekiazan bere ogibide-ko gauzak erakutsi. Orrela, oraindik mutil koskor, arrantzale asko zer erantzun jakin ez-da lagaten zitun egiten eutsezan itau-nekaz. Ondo ikasi zitun berak amuen izenak, arraiñen berezita-sunak eta ez-bardintasunak, arrain bakoitza zelako uretan, zenbat metrotara ibiltzen zan eta arrain bakoitzarentzat zelako aparixua, zelako luzerako tantza, zelako amua, ze karnata, zelako potxerak eta abar.

Eta txalopako egal, karel, saiets, atze ta aurre, kodaste, killa, tosta, txopa, bruzola, barenga, bietz utsunea, paelak eta abar. Bardin lanbas, tangarte, arlanka, ankillak, arpeue, karpíñe.

Edozein arrantzale sasoikok baiño obeto ekiz an arraun edo erramu baten zatiak be. Arratau, esku, tanborta, txaplata, pala eta samia, zintzo eta zeatz bereiztuten ekiazan amar urte ordurako.

Ondardi'ren inguruko aitz-ertz eta mutur guztien izenak

ckiazan, bai eta barru-une, sakoneta eta abarrenak be.

Txo eta Simon, obeto esanda, Simon eta Txo edo Peru, cdo ta min labanak esaten eben lez, aita semiak, adiskide on lez ikusten ziran, bata jakin-mín eta bestea erakusle nasai eta patxadatsu.

Paulo

Nortasun bako gizona.

Ezetarako alegin bakoa. Ikasteko bapeza eta arduratzeko al-perra.

Kezka bako, ta ortako giroan sartzeko gogo bako.


Iñoren kontu zikin eta eskutukoetan ibiltzen zaleago edo ortara makur eta jausiagq, beretik zerbait atara, sortu eta alegindu baiño.

Ume zale izaten dira arrantzaleak, edo beintzat ume sor-tzaille, baiña Paulo'k makal aitzakiz urtean itxasoan baiño etxe-ko edo sagardautegiko epeletan denpora geiago igaroarren, ez eban ortarako beta andirik euki. Andreak esaten ekian berari musuak emoteko baiño alperrago zala, ortantxe be nekatu egi-ten zala-ta.

Itxasora joateari lagateko asmoa erabili eban urte luzetan. Baiña beste iñorako balio ez ebalako, an eutsi bear izan eutsan Kofradian mandatari baten aukera sortu arte.

Kaleko kontu batzaille zan, baiña ganorabako eta gatzik ba-koak. Berdekeria ta zatarkeria ziran bere eskola, eta orrela, txalopetako arraiñak zaintzen edo eroaten Kofradiara joaten ziran andrak nekatuta eukazan bere zitalkcri eta lizunkeriekin.

Kofradiko serbitsari zan, eta zerbait zalakoan agertzen zan, baiña gizon alu eta barru-txikikotzat euken ezagutzen ebenak.



Setakeria

Beste arrantzaleak itxasoan egozala, eta nai eta Simon'eri boletoa Kofradian lagateko agindu, onek, orain bai setakeriz, itxasora urteteko asmoa artu eban. Ez urrunera, barra aurre edo ingurura baiño.

Santa Klara azpitik Galtzuan bitartea aukeratu eban arrantzarako. Komeni izatekotan, geien be, Irabaltza aurrera joanazr

Bestetan ainbat aparixu eroaten ba zitun be, egun onetan, otzara barik, eskuko tangarte txikia eroan eban, eskuko aparixo batzuekaz.

Ikusten zan bere zeregiña ez zala besterik Kofradian jakin eragin eutsen agindua ukatzea baiño; deilariak artu eben erabagiari txis egitea baiño, edo ta berak esaten eban lez, belarri bate-tik sartu eta bestetik kanporatzea baiño.

Ez zan ausartu, nai ta gogoia euki, Txo'ri deitzenr

Bakarrik joango zan.

Etxetik itxasorako jantziekaz urteten ikusi eben andrak, gizon aren zorotasuna gogoratzen eben, besperakoak ikusita, era aretan urten bearragaz. Etxean iñor ez ete eukan zerbait esango eutsanik. Danak ekien bakarrik bizi zala, baiña urteera edo esakera orregaz zerbaiten naia agertzen eben. Bear ba da eurak oraindik ez ekiena, Kofradiko gizonak zerbait esan edo agintzea, edo besterik ezean curen aolkuren bat emotea.

Ez eukan Simon'ek orrelako kezkarikr Ez eban nai, bestalde, tximini bako etxeko lapikutik jaten asi.

Ondardi'n, tximini bako etxe lez bi ezagutzen ziran: eleizea (parrokia) eta Kofradia. Eta nai ta batzuk, okertzen edo azurrak gogortzen igarri orduko, unore ta inkesak gorputzean ezagutzen

asi orduko, Kofraditik jaten asi nai, illean al zana artuz, berak esaten eban, alargun eta umezurtzen oiñetakoak erosteko laguntza ozta-oztan emon eikean erakunde baten, indar geiago bear zala, al eben gizonei lan eragiñaz, bazkide eta gizartearen mesedean zerbait ekarri eragiñaz, laguntzak ornidu eta obetzen aleginduz. Eta orretan urteak ez eukela zcr ikusirik, gizon ba-koitzaren gordintasuna eta osasunak baiño.

Egun orretan bere pentsakerak orreik izanarren, bere gogo eta asmoa, bere kemen eta eragiña, iragarri eutsen crabagiari zela ala arpegia erakustea zan. Bere nortasuna erakustearren zan.

Nasa gaiñean, molla gaiñean, biotzekoa eukala ta azpaldi erretiratuta egoan Durdo'k, itxasorako asmoak igarrita, zerbait esan nai izan eutsan.

Nora-Simon?

Ardurarik?

-Bestela ez neutsun itanduko.

Bestetako tokira.

Zu ez zagoz burutik ondo.

Batzuk biotzetik baiño obeto.

Ez dozu, benetan, itxasora joateko asmorik eukiko?

Etxean egonda batzuk zelan zaindu eta jaso?

Ez egizu tentelkeririk esan. Atzokoa ikusita...

Atzokoa zer?

Zer diñozu?

Sekula ez dozue errian egun txarrik ikusi. Portu madari-
katu onetan ez dozue iñoiz txarragorik ikusi?

Baiña, SiMon. Kontuan euki itxasoan burua bakarrik cz
dala bear.

Irabaltza aldera joateko alik ez daukadalakuan?

Edozer gertatuta be.

Atzo baiño egualdi bigunago dago gaur.

!Erriak zer esan leiken be!

Sekula cz dot orrelako ardurarik eukir

Ba dakizu.rr

Zer jakin?

Uste dot jakingo dozula...

Esan, esan, zure esana ez da luzca izango-ta!

Ba dirudi deilariak atzo batu zirala.

-Bai gauza batzutarako prisa artu be.

Diñuenez, bart batu ziran.

-Orreik batu ordez banatu egin bear litzakez sarri.

Zelan ipini leikez deilari, itxasora ez joatearren popako alderdia 'erreten lagako leuken gizonak?

Ori ez iñori esan.

Zegaitik ez?

-Zeu be batzarrean egongo ziñalako, eta egon ez ba ziña txarrago.

Esan esan...

Ba dakizu azpaldian zer igarrita nagon? Gizonik apan eta arolenak urteten dirala Kofradian nagusi. Nai eta berbetan jakin ez, zaratarik geien ataraten dabenak. Sagardautegiko eskoladuak.

Zure usteak dira orrek. Eta zeu be ez zara beti zuzen ibiliko.

-Nik, besterik ezean, zuzen ibili naí beintzat, eta beste berbalapiko askok orixe be ez.

Boletorik ba daukazu zeuk, Simon?

-Ze eskatuten dozu itaun orretan?

-Ez, atzolakoa gertauta gero...

-Zerbait jakin dozu?

-Ez, nik...

-Esan argi.

-Nik dakidana... ez, ez da ezer.

Biotzeko miña eukiko ez dozue ba, barruan gauzak ezin gordeta zabilte-ta? Zer entzun edo jakin dozu? Boletoa kendu nai daustela?

-Zerbait zabaldu da.

-Esan edozeñeiri, ez dagola barrabillik niri ori kentzeko. Guzurrak errementauko dautsala ori nai dabenari, nigandik ori lortu baiño lenago.

-Ogei urte ez daukazuz gero!

-Bai, orraitik, batzuk aiña indar, adore eta gogo.

Eta gaur ba dakizue zer bear dan? Erdiak baiño geiagok ez

daukena, zoritxarrez gogoia.

Legea potozorrikeria da gogorik ez ba dago.

Uri zeure pentsakera bat da.

Pentsakera ez. Agertu, erakutsi egiten dot nik, oraintxe berbetan egingo dodan lez.

-Ez zaitez joan.

-Natorrencan buztanbaltzen bat edo ekarriko dautsut. Ba dakit zu gixarajo ori ez ziñala orrelako izango, osasunak lagundu ba leutsu-ta.

Biak alkarri begira geratu ziran.

Irribarrea egin eutsan Simon'ek.

Oraindik be, lepoan bigun-bigun jo eta esateko gogoia euki eban: Itxasoak, joan ezik, ez dau iñor alikatuko, Durdo adiskide.

Beste barik, aurrean euken arlanpan bera jatxi zan.

Erreka erdian egoan bere bateltxoa, baiña ankillia txikia jaurti eban bertara, kateatu eragin eta molla egalera urreratu. Urreratu baiña len salto egiteko adorea be euki eban. Atzeko lemia bere burdin ultzetan finkatu, bera erabili al izateko jezarlekurañoko aga ipini, bere ankartcraño eltzen zala; erramua eskuratu, estrapua goitik bera sartu, tolctari inkatu, gero besteagaz bardin egin, eta esker-eskuma arraunean asi zan, ibaian bera, ur geien egoan ubidetik.

Barruko nasaitasuna lakoa igarri eban. Kofradiako etxe aurretik igaro zanean.

Bcstc iñok ez eutsan czetarako deitu.

Asarreak kaian

Txalopak arratsalde erdian sartu ziran kaian.

Ondardi'n, iru-lau kai egozan aldi aretan.

Ondar muntu zabalak egiten ziran, ibaiaren itxasoratzcan, eta eurak lagaten zituen bitarte edo ur-uneei, kai txiki edo portu-solo ta abar deitzen eutsen, eta tarte guztiak, urtsu nai legor, kaitzat artzen ziran. Baiña esateko kaia bateri deitzen eutsen.

Alakotan gordeten zituen curen txalopak ango arrantza-

leak.

Amaika ziran ur zabalera urtetan ebenak.

Lebatz banakak ckaraczan, eta kabratxoak, eta fanekak.

Tantorta txiki eta andira joan ziran egun orretan.

Batzuk maitcago eta czagunago zituen Lumatxa, Lekeitio-zulo eta inguruko kalak.

Baiña egun aretan, kala aretatik aurreko egunetan cz ebela ezer ekarri eta ara joan ziran dcilarien borondatez.

Etxera sartu eta Simon'en urteera jakin eben, ondartzara urreratu orduko, Paulo'k esanda.

Eurak baiño beranduago eldu zan Simon.

Molla lako arritzara urreratu orduko, Paulo ondoratu jakon, dcilarien *izenez*, illuntze ber-bertan Kofradira joateko-ta.

Simon'ek erantzun eutsan egun aretan *ez* ebala arrantzatu Kofradian saltzera atarateko arraiñik, eta ez eukala joateko asmorik.

Berba zoliak esan eutsezan alkarri. Garratzak. Eta loiak, zikiñak, ganorabako ustelkeriak.

Arrokeritik alukeria jo eben. Itxasotik basatzara.

Bata okerra, bestea zitala; bata setatsua, bestea ankerra; batek eztena eta besteak pozoia.

Inguruan batu ziran gizon banakak lotsatu egin ziran eta ixildu, curen jardun eta auera gordiñagaz.

Iñoiz arrantzaliak alkarregaz errietan jardutcan, ba ekien laster lanbas, matxete edo erramu berberagaz alkar zemaitzen.

Paulo eta Simon'ek berbaz erabillen autua, baiña mintsu, zaurigarri. Esan eikcan iñoiz lenago be euren artean zerbait eukiak zirala. Lenago be itxasoan edo kalean, asarre biziak eukiak ziralar

Itxuraz, txalopa baten alkarregaz ibili ziran. Simon patrioi. Eta onek txalopatik kanpora atara eban Paulo, itxasorate batzutan makal egoan aitzakiz joateari laga eta etxean geratu zalako, eta egun beretan tabernetan ibili zala jakin eta baten berak billatu be bai.

Aurrerago be beste zerbait eukiak ei ziran. Beraz or dago euren asarrearen kakua.



Beste dei bat

Biamonean, deilariak zerbitsariaren bitartez egindako deiaren orde, karta bat bialdu eutsan lendakariak.

Ez zan Paulo mandatari. Entzunak-entzun cz ziran ausartu zeregin ori areri lagaten.

Simon'ek gizon mardul a ikusi cta cskuctako karta emon eutsenerako igarri eban zer izango zan, baiña mandatariari ardurabakotasuna erakutsi nai izan eutsan.

Kartia artu, azaletik begiratu cta dcstain lakoa egin eban.

Zer da au?

-Ez dozu ikusten? Karta bat.

-Zeiñena?

Ezdozu Kofradiako zillua igarten? Lendakariarena dala uste dot. Arena dala ta nago. Arena dala esan eta bialdu nabe.

Zetarako nai dot nik berau?

Zcuk pentsatu bearko dozu.

Mundu guztiak cz daki, irakurten cz dakidana?

Ori zeure gauza da.

-Eta Kofradi guztiak cz daki lendakariak be cz dakiana? Esatea dauka bestela nungo eskolan ikasi eban.

Etxean be ikasten dabe batzuk.

Bai, umeak egiten. Beraz, karta au czin lei izan lendakariarena.

Nik esana egin dot.

Orrenbeste ba dakizu. An tcllatu bako etxe aretan dabil-tzan arpcgi biko mamucna izango da.

Nik ez dakit ezer.

Nik be cz dot jakingo, komuncrako ondo etorriko da-ta.

Ez dakizu diru partilla izango bada be.

Kofradiak dirua emoten dabenean, aurrez ondo zabaldua emoten dau, begirik eta belarririk ez daukan txalopako koastak be jakiteko eran. Orainarte beintzat orrela jokatu dau.

Alantxe da, baiña...

Ia, ikusi, irakurri zeuk zer diñon.

Kontxo! Nik maiuskulak ezagutzen dodaz, baiña ez onela.

Zer ba!

Au eskuz egiña dalako.

Eskolan ibili ta zeuk ez dakizu irakurten?

Maiordomuaren letrarik ez beintzat.

Eta nik, eskolan ibili barik, bai?

-Gaiñera, erderaz dago, ta nik oraindik ez dakit.

Mutil, neure mesedean zatoz. Joan nasai ta eskerrak emon.

Zeiñeri?

Nai dautsazunari.

Eta nire zeregiña bete ete dodan itanduten ba dauste?

Ez estutu. Gorantziak emoteko agindu dautsudala esan.

Eta gizonak batzarrean ba dagoz?

Nortzuk?

Mordo bat ikusi dodaz nik an.

Nire zain?

Itxuraz bai.

Ondardi'n sarri egon dira ondamentiak, eta sekula ez dira batzarrean batu, eleizako illeta egitean ara joateko baiño.

Ori izan lei.

Eta iñok jakin dau atzoko ez bearretik gure erri onetan beintzat illetarik egingo ete dan?

Ez zan asko falta.

-Ba litz eta ba zan biak alkarren kasan.

Kanpaia jo eben.

Egunero joten dabe kanpaia, eta ez baten bakarrik.

Atzokoa Salbea zan.

Umea egin aurretik andra askok be ez dabe agintzen ba?

-Orretan, ezin ukatu, gurean jaio diran bientzat jo izan dalako.

Eta biak bizi ziran.
Oraiñarte bai.
-Or ba! Orregaz nai da esan, Salbe kanpaia ez dala il kanpaia. Eta kanpaiak be ezagutu egin bear dirala.
Gogorra zara Simon.
Batzuk ez dabe uste, baina ni beti gizon.
Beraz, zer esango dote
-Zer esango dozun? Zeuk ba dakizu kartan zer egon dan?
Eta zuk jakin ezik, eskolan ibilia izanda, nik zelan jakingo dote
-Ori erantzungo dote
Ori esanda guzurrik ez dozu esango, beiñik-bein.

Beste alderditik

Andik laster, andra •txiki, ziztrin, keixu eta berbaldun bat agertu zan Simon'en etxera.

Liñe zan.

Ondardi'n, obeto ezagutzeko, Akerra'neko Liñe. Alarguna bera be eta Idurre'ren etxe-auzorik urrena.

Arnas estuka etorran, eta nekez geratu eban arnasaren joera berba batzuk esaten asteko:

Simon, arin, arin.

Zer gertaten da?

Arin mesedez.

Zoratuta al dagoz gizon arraixuoke Zer darabille eurak?
Eurak dirana neuri aldatzea nai ete dabe.

Entzun. Mesedea egingo dautsazu ta zoaz.

Ze demontre! Ez naz joango. Zer pentsaten dabe nazala?
Neu ittotea nai al dabe?

Peru txikia txarto dago.

Zein, Txo?

Bai.

Nok esan dalle

N uek diñotsut.

Ezin lei ain txarto egon.

Bai, Simon. Zuk ez dakizu ezer.
 Goizean egon naz ikusten.
 Ba dakit. Jakiterik nai ez ba zendun be ba dakit. Baiña egunez gaiztotu egin da. Eta arratsaldera geiago.
 Zer dauka?
 Sukar andia.
 Goizean ez eukan.
 -Orain burutik dabil.
 Ainbestetan?
 Bere indar eta alegiñak zure billa dirar
 Peru koitadua!
 Zuri deika dabil zoratu bearrean; zuri arrenka dabil.
 Sukarrak eragingo dautse. Eta osagillerik ez dautse eroan?
 Zer esan dau berak?
 Ez dago errian.
 Zegaitik ez zarie lenago etorri?
 Zuri deika ez ba lebil, ez giñan etorriko.
 Zegaitik *ez*?
 Pentsatu ziñei.
 Emekeriak dira orrek.
 Ixilik egon zaite.
 Ixilduta ez da gauzarik konponduten.
 Askotan bai.
 Danok zabize nok zer esango. Danok kaka-larritan, auzoko txotxin batek zer esangor
 Edo aurreko agúreak, zuek lez.
 Batak zer esango eta besteak zer egingo. Etxean eta ka-lean. Itxasoan eta legorrean. Eta orrela ezin lei. Orrela danok guzurretan ibiltea baiño ez dogu lortuten.
 -Laga egiozu auto oneri ta goazen.
 Lenago laga bear zeuntsen zeuok.

Txo ikusten

Kale lako aretan, arritza baten laprast eta bestean okertu,

Simon eta Liñe gauza garratzen bat igaroten zala edozeiñek igarteko eran joan ziran, alkarri berbarik be egin barik.

Etxera eldu ziraneke, aterik jo barik sartu eta Simon laster konturatu zan Peru txikia zoro ta zoroago egoala Idurre.

Peru'ren oe-buruan egoan au, mutillari eutsi ezinda, besoc-tatik oratu eta burua batez be geldi euki ezinda.

Mutilla izerdi likiñetan, burutik bera busti-busti eginda egoan. Idurre tartetan, eun zatar bategaz, arpegiko izerdi tantak kentzen.

Idurre eta Simon'ek, berbarik barik, naiko esan eutsen alkarri, bataren kezka eta bestearen ardura jakin erazteko.

Liñe sartu zan eta ondoan jezarri. Baiña Simon'ek bereala kendu eban andik eta Idurre'ri berari lagateko esan eta Peru'ri belarrira berbetan ekin.

Lenegotan ez eutsan jaramonik egiten.

Eskutik oratueran, esku latz cta lodiagoa igartean, edo ta indar eta berotasun biziagoak eutsieran, begiak zabaltzen asi zan.

Simon, berari zerbait atara naian, eta betez be, berari entzun eragin naian, biziro alegintzen zan itaunka:

Ezagutzen nazu?

Ekatzu erramua.

Nungo erramua?

Or eskuetan daukazuna.

Geldi mutil. Oean zagoz.

Estrapuak urten egin dau toletetik.

Ez dago ardurarik, Txo.

Ezin dot tenik egin. Ezin.

Bai, nasai egon.

Ez gara elduko.

Bai. Ez dozu aurrean ikusten Ondardi?

Ez eidazu lotu arraunik.

Ez daukazu arraunik. Baretu zaite.

Ene, ene, ene! Olatu orrek aitzetara eroango gaitu.

Ez dago orren bildurrik. Oean zagoz. Ez da ezer gertatu.

Arroegi zareala esaten dabe danak, Simon.

-Izan lei, Peru.

Odola daukat aoan.

Ez estutu, Txo. Etxean zagoz. Dana igaro da. Etxean zagozr
-Nire lagunak esango dabe makala nazala.

Esan egiozu, Idurre, etxean dagolar

Eta batak laga ta bestea asi, orrelako jardunetan ekin eutsen, oroitzako irudi illunak, eta katerik ez euken erantzunak, mutilla nundik ixartu eragingo, edo ta beroaldiak zelan gainduko.

Ez eukan baretzeko itxurarik.

Simon be estutu egin zan.

Mutil onek alboringoa daukala esango neuke. Eta orrek emoten dautsala sukar guztia.

Simon bedar zalea zan. Arrantzalea izanarren, gurasoekandik artutako bedar ezaupidea eukan. Gaixorik ezagunentzako bedarrak etxean gordeten zitun.

Idurre, Liñe eta Simon, bata bestearen atzetik edo obeto esateko, alkarren gaiñean, eritziak emoten asi ziran.

Ziurretik alboringoa da.

' Alako itxura dauka.

Atzo illuntzeko aize otza atzetik lotuko jakon.

Nik au, lenengotik barruz garbitu egingo neuke eta gero mugita ur egosia emon, esan eban Simon'ek..

Gure errian pasmu bedarra ipintea naiago izaten eben, geitu eban Idurre'k.

Nai dozuena egin geinke. Danetiko bedarrak daukadaz etxean.

Asunekin blastiatzea be ona dala esaten dabe gurean zarrak.

Edozetara be zerbait egin bear da eta zenbat eta lenago obe.

-Egizu, Simon, nai dozuna, zuk onelako gauzetan ezaupide ona ei daukazu-ta, negarti Idurre'k.

Nik, agintzen dozuena, baiña arin esanr

Errezena zer da?

Errezena barik komeniena egin bear da.

-Asunekin blastiatzea erreza ez da ba izaten eta komeni be

olakoetan?

Ezpai barikr

Baiña ta bero geiago artu eta burua galtzen ba dau?

Len lez al dabil galduta?

Orrelakoetan zarrak, eta Txo, barriro, eutsi ezinda, geldi egon ezinda, oetik be salto egin nairik, eta esanalak esaten, di-darka:

Kendu lepotik erramua!

Ez dakit igarian. Ittoko naz.

Luzatu txikota. Simon. Luzatu..!

Begira zelako brastadea. Tatarrez guaz.

Belia, belia erriatu bear dogu. Arin!

Aita gurea...

Ai! Zek jo nau?

Egoera ori ikusita, Simon etxera joan zan arrapastadan.

Esanda *lez*, danetarik eukazan gertu. Batzuk igartuta, potuetan; bestek egal baten legortzen. Eta danetatik pixkanaka artu eta etxean egoalakoan barriro Idurrenean zan Simon.

Bekokian ikutu eutsan Peru'ri.

Peru'k ez eban ezer igarri.

'Ez eban ezagutzen aurrean eukanik. Irribarrerik txikienik be ez. Begiak bere pentsakeren mende, batzutan indar barik, bcstetan biziegi igarten jakozan.

Asunekin igortzi eban Simon'ek.

Igortzi-ala, gorritu egin zan Peru, kolore bizi-bizia artu, eta gero ta ugariago izerditu.

-Kontuz otzagaz. Ozkirri batek aidean eroango leuke.

-Jantziz aldatzea komeni litzake.

Ez daukagu zegaz. Birritan aldatu dogu ta beste zer ipinirik *ez* dauka. S_kula gaixo batik *ez* dau euki be ta.

Esku-zapi edo esku txatar batzuk komeniko litzakez, besterik ezean kentzen jakon izerdiarentzat.

Idurre'k ez ekian zer billatu. Beretik urtenda ebillan, ki-rioak (nerbioak) gaiñez eginda.

Liñe'k barriz, bere artean, otoitz eta crrezu, al ebana egiten iñarduan. Su ondoan erabillazan oetik kentzen ziran izarak. Alaz

eta ugaritasunik ez egoan lez, su ondoan epeldu ordurako barri-
ro gaixoaren oean aldatu eta ipinten, garbitu barik.

Nekez, baiña alako baten be, Peru lo konkorrean geratu
zan.

Ur pixkat, eskatu eban Simon'ek.

Liñe asarretu egin zan, ia zelan ura emon orrelako sukarra
eukanari-ta.

Baiña Idurre'k, Simon'ek agindu lez, zapitxo bat urez busti
eta ezpanetara urreratzen eutsan Peru'ri.

Atea jo eben.

Liñe geratu zan atera joatekor

Simon'en billa etozan.

Kofradi'ko bat egoala atean eta Simon ainbat lasterren ara
joateko aginduaz etorren bat.

Liñe'k, lenegotan, an ez egoala esan eutsan mandatariari.

Ez eban ezer esan, biurtu zanean. Besteak be, euren gauze-
tan, ez eutsen jaramonik egin.

Andik laster, barriro atea.

Lengo ordezkaria. Ba ekiala Simon an egoala eta atera urte-
teko esateko.

Liñe'k bildurrez esan eutsan Simon'eri.

-Nor da?

Kofradiara ainbat lasterren joateko, zain dagozala-ta.

Sakutik artzera bialdu egizuz danak, agindu eutsan garratz,
Simon'ek.

Liñe'k ze mandatu emon eta agindu ori zelan bete eban, ez
jakin. Ziurretik gaixo aitzaki eta abar ezin asmatuta beste zerbait
erantzungo eutsan ordezkariari.

Esan dautsazu nik zer esan dodan, Liñe?

-Joan da beintzat eta biar ikusi eguna zelan argitzen dan.

Barealdia

Esnatuera gozo eta bigukia euki eban Peru'k.

Oraindik burua galduta, senera etorri barik, baiña baketsu.

Itxas tresna eta ontziko gauzak burutik kendu barik erabillazan.

Zenbat egun igaro ete zitun, esate baterako, arrantzale askok ez dakiczan itxas tresnak zeaztuten?

Esnatze baketsu aretan, kezkatu barik, ikasle lez ebillanr Gai-xo edo eritasunaren ezaupideak min eragin ezik, beragaz tartetan barre egin edo ta nai aiña ikasteko eranr

Neuk baiño obeto dakiz onek itxasoko gauzak, esaten jar=duh eban Simon'ek.

Idurre barriz, ezaupideko berba bat atara naian, bere burua igurtzi, eskuan musu emon, begietan ikutu betazalak jasoaz, be-larrietan txitximurka be egin, bularra estaldu, bekokitik izerdia kendu... estu ebillan, nai ta Simon'ek a ba etorralla, txarrena igaro ebalu, sukarraren indarra makaltzen eioala ta abar, itxaropena sartu nairik bere alegiñak egin.

Berba gitxiko gizona zala, zur eta neurtua zala, Idurre'ren-zat berbaldun eta aolkari bizi eta gogotsu ekiten eutsan.

Txo'k, bere artean, eta danak entzuteko eran, ainbat bidar esan zitun erramu (arraun) baten zatiak: Arratu, erramu, esku, pasa, sama, tanborta, txaplata...

Eta urrengo baten amuen izenetara joten eban, eta ekin esaten: Amu-lapur, atun-amu, besigu-amu, katxikamu, lebatz-amu, lixa-amu, txillamu...

Tarteko utsunean bat igarrita, Simon'ek be zirikatu egiten eban, ia konturatzen asi ete zan jakitearren geienbat. Ala amuak izentatzen, atxamarta zer da ba? proostua zer da ba?, eta orrelako gauzak itanduaren, Peru'k ez entzun edo ez konturatu, edo ez jaramonik egin, eta berean jarraituten eban. Eta itxasoan ba ebillan lez, Simon'eri itaunka:

-Simon, ala-arrivan asiko gara? Berdelen bat jo dodala uste dot. Fondo txikia bota bear genduke eta ikusi.

Zetarako egin dogu erre-kalia emen? Ze arrantzateko?

Ekatzu tangarta, aurreko paela jaso ta ur pixkat batzeko. Jo-pe! Lanbas au txikiegia da, ez dau urik artzen...

Simon'ek Idurre kendu egiten eban oe ondotik, bake-baketan laga eta ariñago berera etorriko zala esanez.

Eta bere etxera joan zan, premiñarik ba egoan deitzeko aginduz, baiña berari deika ibiliarren, sentzunez *ez* ebillan ar-tean, gaixoa otzitu barik zainduta eukiteko, etorriko zala-ta.

Liñe eta Idurre su ondoan jarri ziran.

Zapi batzuk berotuaz legortzen ekin eutsen.

Igarri barik, nekearen tontortasunez, lenengo Liñe eta gero Idurre, lo konkorrean sartu ziran eta ametsetan lez esnatu ziran Peru'ren berba larri eta zaratatsuak leio ondoan entzuten asi ziran.

Kontuz! Atxetara goaz eta kontuz! Erria bela ori. Eten so-
kia!

Deadarrak nundik etozanka adí jarri ziranean, gelatik orde-
z kalerako leio ondolik etozala konturatu ziran.

Arein keixura eta bildurra, Peru barrero oera ezin eroanda,
eta bera ezin estalduta!

Kofradia'ko batzarrean

Beste aldetik, Kofradian, an batuta jarraitzen eben gizonak,
ez egozan euren asmoari eta ardurari lagateko.

Arrantzalienen artean, Kofradien indarra erriarena baiño an-
diago da itxas gauzetan eta gizaldi zarretatik dituezan oiturazko
legeak laga edo zapaltzeko arretaz egoten dira, eta lege bat zartu-
ta egonarren ez dabe aldatu nai izaten, len zana orain be izan lei-
kela-ta, edo ta danen artean artutako erabagi bat bitarteko egon
ezik.

Itxaso beteko nastea sortu zan egun aretan, euren artean.

Batzuk ez egoala ondo deilariak bat-batean eta bear ba da
gertatuaren barri asko jakin barik artutako erabagia, Simon'eri
itxásoan ibilteko boletoa kentzeari buruz.

Besteak arelako agurei kendu egin bear jakoela baimen ori,
edo ta ez dagiela erabili eskatzea naiko zala, indarrez beartu ba-
rik.

. Arrantzaleak, itxastarrak geienak lez, bear ba da itxasoaren
zabaltasunetan orretara egitera beartuta, zaratatsu berba egiten

dabe; lau lagun naiko izaten dira etxe baten ulertu eziña sartzeko. Origaitik, sarri, Kofradiako batzarretako deadarrak, atearak itxita egiten diran batzarrak izanarren, leio tartetik be entzun egiten dira eta zer darabilen kalean jakin.

Egun aretan be, Simon'ek barriro deitu eta joatera makurtu zanean, kaletik igarri eban naste gogorren bat ba ebillala. Orrek danak *ez* zirala aurka edo beintzat danak ez zirala eritxi bardiñeko ziurtasuna sartu eutsan eta adoretu eragin.

Atea zabaldueran, egitura orrek danak bertara begira ipini zitulako, nor sartu zan konturatu ziran barrukoak, eta ez eben adorerik euki lengo jardunetan jarraitzeko eta curen barbaroa makaldu egin zan.

Ixiltasun itzala egin zan laster, eulien durundia be entzuteko erakoa.

Lenegotik asi ziran batzuk, Simon aurrera sartzen asi orduko, destain eta zirikadaka:

Izurdetan ibiliko zan ori eta ezin ordurako eldu.

Tollik ezin ilda ori, makilla apurtuta.

Orrenbeste marraixo dabil ortik, etorteko tarterik be *ez* artzeko%

Potozorri andia ori!

Faltaten asten dana, kalera joango da, ots egin eban bizi lendakariak.

-Danok sakutik artzera joateko ez gaitu ba zemaitu?

Ixilik esan dot, barriro be garratz lendakariak. Nik Kofradia eta bertakoa zaindu bear dot, ez kalekoa.

Simon'ek abots bat nundik entzun ara begiratzen eban, bildurtu barik, baiña berbarik esan barik.

Lendakaria itaunka asi jakon:

Zenbat dei artu dozuz?

Legekorik bat be ez.

Deilariena *ez* zendun artu.?

Nire morroiak morroiak ba daukaz, zeñek daki niri agindu daikedana, nire ugazaba nor dan?

Ba dakigu asmotxa zarena, eta gizon argia, baiña ez zaite asi emen naastuteko letaniekin, amen-amen garbi erantzuten

baño.

Ez nekian eleizako gauzetan gure Kofradiko buru ori ain eskolaua ziñanik.

Kardamuak ez daustu jan zuri bururik San Pedro'ri lez.

Edozer erantzuten laga? deitu eban batek tartetik.

Nigaz dabillen artean neuk erantzungo dauosat, eta ixilik, mesedez. Ez arduratu.

Paulo'k ez eutsun deitu?

Orrelako morroiekin Kofradia burua jasoteko asmotan ba da_go...

Orruka lez asi ziran barriro batzuk:

Ikusten? Ori ez da iñor laidotzea?

Berak begien aurrean Paulo ezin dabelako ikusi, zegaitik orrelako destaiñak?

Nor da berori zein dan morroi egokía eta zein tfcarra ebatsiteko?

Ixilik, esan dot! deika, barriro, lendakaria.

Alaz eta be zaratarik ezin kendu, berbetan jarraitzerik ezin eten.

Alako baten, zarata otsen artean, dana amaitu barik, entzun al izateko era oartu zan une baten, lendakariak geitu eban:

Nik esan bear dot, eta danon aurrean esateko lotsarik ez daukat, ni lendakari naizenetik Paulo'k bere zeregiñak, bere al-deko edo aurkakoak izan, aginduta lez betetan jakin dabela.

Zu baño zartxoago naz, lendakari, eta ez arritu nik gauza batzutan beiñik-bein, zuk baño zerbait geitxuago jakitea.

Zetaz?

-Darabilgun auzi onetzaz.

Ori zure uste bat izan lei.

Izan lei ez, da.

-Edozelan be, ori beste baterako laga-ta be, itaun bat: kartarik ez zendun artu?

-Zuk ba dakizu irakurten ez dakidala, eta paperak, niretzat, baliorik ez daukela'

-Baiña Kofradia'ko zillua ikusten danean...

Asko balio dau zilluak, izenpe (firma) okerretakuagaz edo

faltsuagaz ba dator.

-Nok esan dau ori?

-Txibien tinteagaz ikasi zendun firmaten ala?

Danok ez dakigu ba...

Ez zan entzun zer esan eban.

Barrero orruka asi ziran batzuk.

-Zetarako laga arro orreri jarraitzen? Zetarako beste guz-
tion gain jarkiten? Kanpora ta kittu.

-Nok esan dau ori? Ia nor dan eskutuko mamu ori?, danen
gaiñetik jarki zan zemaikor Simon.

Iñor ez zan ausartu erantzuten.

Barrero itaundu eta ixilunea igarri ebanean, berak jarraitu
eban:

-Gaiñera, Tximista, edo parkatu, lendakari: Zuk ez dakizu
erderarik; nik be ez. Zelan ulertuko gara kaielak eta tintoletak
be, eurak diranak izanda, ulertu ezin daben berbetan?

-Politikarik ez ekarri Kofradiara.

-Ori esan dabena bera politika egiten al dabil, oraintxe
bertan egin daben lez berba eginda?

Ez egoan nundik akatsik billatu Simon'eri. Lenago be
«arrantzale maixua» zala esan ei eban norbaitek eta bildurra eu-
tsenr Bildurra ez ba da be, lotsa bai beintzat.

Esan be egiten eben zorrotzegi eta argiegi zalako ez ebela
Kofradia'ko lendakari ñoiz ipini edo aukeratu.

-Eta sakutik artzera bialtzeko, patatak al gara gu?, berdctuta
urten eban deilarietako batek.

-Bakoitzak daki berba ori zelan artu. Or konpon. Ez al da-
goz milla gauza sakutik artzen diranak? Ez gaitezen txiñorrickaz
izutu, arratoiak dagozan etxe eta tokietan.

Ba dakigu ñoiz jan izan dozuzala, txarri andi orrek.

Errekara duazan kaiñu zarretan dabiltzan aingira koipe-
tsuak ez al ditu gogoz jaten ori esan dabena?

Edozetara be, Simon ez egoan erantzun barik gelditzeko.
Eta zirikatu barik egoteko be ez. Origaitik itaundu eban:

Zer da batzerreko gaia, edo zer da nigandik nai zenduena?
Mesedez, bixkor esan, etxeko zeregiñak daukadazalako.

-Peru zure semea da?

Nok sinistuten dau ori?

Esan egiten dabe.

Eleizan itaundu ia zeñen abizena daukan.

Orregaz ez dozu ezer aldatzen.

Nire itxura artu al dautsazue?

Esan egiten da, eta zuk nai baiño zabalago.

Eta gero «damu dot Jauna esan, nai ta ordu erdi baiño len damutasun ori jokoetan aztu edo galdu.

Nire aldetik itaunduten dot: Kofradiaren auzia noiz izan da ume baten aitatasuna jakitea?

Itxasora joaten asia da. Gure gain etorriko dira gertatu leikiozan zoritxar eta ondorenak. Eta arriskuan dabil.

Zeren arriskuan?

-Edozein gizonen itxas-arriskuan.

Ikasten dabil.

Zer ikasten?

Zenbat eskola daukazuez errian?

-Eskolara bialdu edo ez, bere etxekoen ardura eta zeregin izan lei.

Bai eta erriarena be eskolak ipintea.

Ori ez da gurea.

Ez ain arin orrelakorik esan.

Erriaren premiñak be guk jaso bear doguz?

Egon. Bai eta ez.

Egin daigun erriak ezin dabela. Egin daigun letrarik erakusteko egokitasunik ez dagola.

Aren utsunak guk betetea nai dozu?

Ez. Baiña nik bai itaunduko dautsuet: Ze jakintza bear da Ondardi'n? Ez gara danok itxastarrak?

Ez gara danok arrantzaleak?

Eta itxasoak ez al dau eskatzen ikasterik?

Eta arrantzak ez al dau eskatzen gertaerarik?

Gure Kofradia zertarako da?

Ondamendiak euki eta gero negar egiteko?

Umezurtzak eta alargunak eta gaixoak ezin babestuta eta

ezin zainduta ibilteko?

Ez zarie konturatzen orrek berorrek argaltasun bat erakusten dabela, izan bear giñaken aurkako alderdia bakarrik erakusten dabela? Kofradi indartsu bat osotu bearrean, argalkeriz betetako Kofradia dogula, eta geure itsukeri eta txikikeriz?

Txakur amorratuak zaunkadaka lez urten eben bizi-bizi eta garratz eta brastadaka lez atze aldetik deadarrak:

Zelan esan leike ori, ia ondamendi andi bat errira ekarteko arriskua gertu daben batek?

Zeuk zainduko dozuz eta zeure kontura jaso alargunak? Zenbat bear dozuz ba asetuteko?

-Bere gauzeekin itsututa eta zoratuta dagon bateri entzuten egon bear al gara? Ori be bai?

Ez dogu esan ba lenengotik boletoa kendu bear jakola? Zetan gabiltz orain bere koplak entzuten?

-Mollara urreratzen be laga ez eta bakea.

Edozein izan da be, gizon alu batek agindu eta bere aurrean makurtu bear al gara?

Nai dozuena esan, baiña iñori ez falta, urten eban garratz lendakariak. Berba txarrik eta minkorrik ez dot lagako.

Zer da berba txarra, alua? Min-gaiñean berak kendu barik darabillan berba?

Kontuz! Alua eta putia anai arrebak Mutriku'n, esan eban irritsu lendakariak, eta naiko da. Ulertu dozue?

Gauza bat esan bear dautsut, lendakari lez, sartu zan barriro berbetan Simon.

Berba ori esaten ibili dan gizon ozkil, txabillu, lipiztari eta asarreari, zelan lagaten dautsazu batzarrean egoten?

Kofradia danona dalako.

Baiña ez dakizu legezko dala Kofradian etxe zaintzan edo inguru zaintzan, eta ori lez, Paulo lez izen da guzti esanda, itxasora kaka larritan joaten ziranak, errukiz ogibidetu eta leorrean geratu ziranak, ez daukela batzarretan barbarik?

Nik ez dausat emon.

Bardin da, artu egin dau.

Baímen barik.

-Emen egon ez ba zan, ez eban artuko.

Eta? Zer eskatuten dozu eskabide orretan?

Ni ez nagola aren destaiñak artzeko

Paulo, ba dakizu, ots egin eutsan lendakariak.

Ba dakizu ez, erantzun Simon'ek. Edo a kanpora edo nik ez daukat emen zetan egon.

-Zegaitik ez?

Batzarren nortasuna galtzen ba da, batzarretako erabagiak ez dabelako balioko ez gaur eta ez aurrerantzean.

Zer egingo dot, gizonak? itandu eban lendakariak.

Baiña Simon'ek ez eutsan laga jarraitzen. Legeak egozala, oiturak egozala, ez zala bat-baten sortutakoa eta a atara ezik, bera kanpora joango zala, esaten eutsan Simon'ek.

Irurogei lagun inguru egozan batzarrean.

Gazte eta zar.

Ba ekian Simon'ek ezin eikezala danak bere aurkako izan. Igarrita egoan zataraka ebiltzanak nortzuk ziran be.

Konturatuta egoan bere alde egozanak, ixilik egozala, batzuk, arrain zarrak lez, geldi-geldi, baiña buztanagaz noz nai edozeiñeri zaplada bat emoteko gertu.

Batzuen irribarre maltzur eta zurian igarten eban, barrutik pozik egozala, adurretan, batez be Simon beraren jazarraldia jarraitzen. Bitsetan lez egozala, adurretan, tartetan pipari tengada bat egin eta keia gora botaten, arrain batzuk ur parrastadak gora botaten dituen lez. An egozan bere lagunik andienak, bere ustez, bere adiskide jarraitzen ebenak, itxasoetan gizon alegintsu eta asperbako ziranak. Danetakoakk txalopa jaube, patroï eta mariñel uts ziranak.

Beste aldetik an egozan «barrabasak», itxas otsuak, arrain gaiztuak.

Ikutu egin orduko, berbaren batek ziri egin orduko, jarkiteko gertu egozanak

Arrantzale soillak ziran, tostartekoak, Simon'ek aurkako lez ikusten zitun geienak. bere ustez txalopetan be laster minduten ziranak; agindurik bein-beingoz bete nai izaten ez ebenak eta ortara nekez makurtzen ziranak; aizeari bustitasun pixkat artu

orduko, keixaten asten ziranak, edo ta mendebal bigunena igarri ezkeru itxasoan larrituten ziranak.

Olagarruak lez, amarratzak lez, erpak jaso ta luzatu, geldi eziñez ebiltzanak.

Tximista lendakaria ez zan ausartuten Paulo'ri kanpora urteteko agintzen. Batzuen bildurra, edo ta mindu nai eza lakoa eukazan.

Gauzak luzatzen ikusita, batek deitu eban:

Ez gara emen lotan geratuko, ez? Egia da eskubidea daukana edo ez? Nun dago idatzita ez daukanik?

Tximista'k erantzun eutsan berak lege idatziaren barririk ez eukala eta ez ekiala besterik gurasoei entzuna baiño edo ta aurreko batzarretan iñoiz gertatua baiño. Ortik ekiala ez dirala barruko langilleak batzarretan sartzen. Alaz, eta, geitu eban, ori ondo litzakela etxeko langilleen goraberak erabagi bearreko batzarretan, baiña oraingoa orrelakorik ez dagon lez...

Eta nire aurka bere autarkirik emon lei, edo ta bere lagunak ortara berotu? Jardetsi eban Simon'ek.

Ori erantzun eta bat-batez Paulo'k, atzetik

Amar ba neukaz amarrak eta praillien dozenia be emongo neukez zure aurka.

Mar-mar luzea sortu zan.

Lendakaria an ebillan ixiltzeko eskatzen, batzutan mesedez eskatzen, bestetan ixilik ez egoana kalera bialduko ebala zemaitzen.

Simon ez zan estutu. Geldi. Asarreak bere alde jokutzen ebelakoan.

Bateko ta besteko jardunak, itxas orrua lako zarata ataraten eben batzutan. Olatuen burrunbada lez agertzen ziran. Alkarri ulertu ezin, zaratak eta orruak gaiñez eginda.

Alako baten lendakariak, deilari eta maiko batzukaz berba egin ondoren, txiliña jo ta jo, lortu eban ixiltasun lakoa egitea, eta iragarri eban:

Jaunak, gaur lez batzarrik sekula ez dogu amaituko eta datorren astelenan, eguerdirarte itxasoterik ez dagon lez, goizeko zazpiretan batuko gara, arimen albako meza amaitu ondoren. Eta bear aiña batzen ez ba gara, zortziretan.

Eta zortziretan be batzen ez ba gara?

Ba bestetan egiten dana, batu arte bandera gorria jasoko dogu eta ezin joango da iñor itxasora, erria arte.

Zer da baiña gaia, erabagi ezik be itxasora joan al ez izateko?

-Ni neuk neure kontzientzia garbitu nai dot, erantzun eban lendakariak, eta origaitik da batzarra.

-Baiña merezi- dau gaiak arrantzu sasoian itxasora joan barik geratzea?

Neu naz lendakaria, eta neure eskuetan dago batzarretara deitzea..

Eta entzun dozue. Niri ez jat atsegin itxasora urtetea galezotzen daben bandera jasotea, baiña ez erriaterik be ez da kostaten. Zeuon patrikarak esango dabe noraiño eldu zeinkien etxean egoten.

Batzarra amaitu da. Astelen goizearte.

Barruan, eztabaidak gordindu egin ziran. Kanean eioazan aldetan be, Paulo'ren izena eta bere eskubideak autuetan erabillean.

Txotxolo alu orrek, zeuk daukazuz erru guztiak, esan eutsan batek Simon'eri, papar aldean bere alkondara urdiñetik oratu ta.

Laster inguratu eben Simon bere aldekoak.

Ez eutsen erantzuten laga, nai ta berak ukabilla laster jaso. Orraitio, ezagutu eban nor zan eldu eutsana, eta deadar egin eutsan: Itxas-ollarra baiño zapalago lagako zaitut, beste bein ausartuten ba zara. Eskailuak aiña odolik ez daukazu ta zuk niri paparretik eldu?

Gaixoa ikusteko asmotan

Iñor agurtu barik, lagunetatik banatu zan Simon.

Txo'ren kezka eukan.

Batzarreko zarata eta ekin bearrak be ez eutsen aztu eragin eta galdu aren oroipenik.

Baiña arretaz eioan.

Igarri lez egin eban, batzarrean egon ziran batzuk bidera urten nai izango eutsela. Zurra zan orretan eta luze ikusten ebana. Eta ango giroa ikusi eta ezagutu ondoren, bakartadean inguratu nai izango ebela bururatu jakon.

Origaitik, etxera zuzen joan bearrean, lenengo, denpora egitearren, molla aldera joan zan, bere txalopari begirakada bat egin, eta an egon eikezan beste zarrekaz egualdiaren barri artu eta zerbait jakin naiean.

Konturatu zan illuna egiten etorrela eta nasan egoten ziranak etxeetara joanak zirala.

Tranpa kaletik igaro bear zan bere etxe ingurura joateko.

Tranpa kalea deitzen eutsen Ondardi'n bere iru kale nagusietatik itxas kai eta ondartza aldetara eroaten eban bidarte estu bateri.

Itxas aldetik urrena zan, eta laburrena.

Arri zakar, koska eta mendiko basaz betea, txakoliña egiteko erabilten zan mats adarrak tartetan sarratuten ebela.

Nai eta pendiz andiak euki, andik ibiltan ziran arrantzalerik geienak, itxasora joan bearretan. Ez zan bide atsegiña, baiña egualdi legorretan, egoki eta errez egiten zan.

Bitarteak, sakon-unak, ondar multsoz beteta eukazan. Bestetan bustin tarteak, kontuz ibili ezik txirristadan jausi eragitekoak.

Bidearen arreta barik, arratsaldeko jardun eta zemai eta itsukerian gogapenak erabillazan Simon'ek buruan.

Alako baten laprast egin eban, gorputzari eutsi ezin, eta bat batera jaustean eskuturra trukatu.

Ezkerrekoa zan.

Pixu andiko gizona zan, baiña laster jagi zan eta konturatu be bai zer egin eban.

Gora, etxe aldera igo bearrean, barriro kai aldera jatxi eta biurtu zan.

Ba eukan an, ibai egalean, esku-trukatze, zaintiratu eta orrelakoak zuzendu eta konpontzen ekiazana.

Erriko otzara egillea, otar-egillea zan.

Origaitik bizi zan berak eskurako ain sarri bear zitun ü toki aretako txabola baten.

Ibai cgalak, erreka onduak, ii eta zuma toki ziran garai aretan.

Ikusiagaz batera, ikutu batzuk egin, eta bere ustetan auzirik ez eukala iragarri eutsan.

Alaz eta, ba-ezpadan, gatz ura gertu eta edateko ernon eutsan. Bere sinistea zan orrela edaten zan gatz-ura, ondo artzen ba zan, barruak atzera jaurtiten ez ba eban, zauririk ez egoan ezau-pidea zala.

Zenbat urte daukazuz Simon?

Asko nik.

Zenbat?

Zuk baiño bi gitxiago.

Igortzi batzuk egin bear dautsudaz. Zein arduratuko da eurak zenbatuten, zu ala ni?

Alu orrek miñik emon ezik...

Aluka zatoz mesede eskatzen etorrita?

Gizonaren urte bakoitzeko igortzi bat egin bear zala esaten zanr Ori zan oitura. Urteak zaiñak loditu eta gaiztotu egiten zituela eta urteak aiña igortzi bear zirala osatu edo bigunduta lagateko.

Min da guzti, nai ta batzutan begietako malko lodiak urten eta berba gogorren bat jaurti, eutsi eutsan Simon'ek lagunaren igortzi baldar, latz eta zakarrei.

Berrogei eta amabost kontatera nekez eldu ziran, baiña eldu. Eta azkenengoaz batera, lagunak otoitz bat lez esan eban. Bete bearreko ritoa zan:

Zaintiratu,
zain urratu,
zaiña bere
tokian sartu.

Igortzi orreikaz naiko zalakoan egoan Simon. Odo geratu jakolakoan. Baiña lagunak esan eutsan, ez eukazala ogetak urte be txantxangorria lez kantari biurtzeko, eta gari-urun eta arrautzakin egindako enplastu bat ipiniko eutsala, baiña ain zu-

zen be ardaurik ez eukala, gaiki orreik egosteko, eta ardaur ordez koipetan bigundu eta gurutuko zitula. Bear ba da, kalte baiño mesede geiago egingo eutsala enplastoari koipeak.

Esanda lez gertu eban bere naste-borraste ori, eta orrelakotan erabilten eban eun-zati baltz baten zabaldu eta eskuturra lotu eutsan.

Simon'ek miñik ez eban artzen.

Eskerrak emon nairik, ia alako baten arrain gorrien bat jausten ete dan, esan eta agindu eutsan.

Otargilleak, bere aldetik, gogoratu eutsan: Ez dot oraindik nire zeregiñik amaitu.

-Gaiztotu edo txartuko dalakoan zagoz?

-Amaitzen ez dan gauzak ekarri ete lei onik?

Eta beste barik Simon'en eskutur minduaren gaiñean bere atzamarrak ipini eta Aita Gurea eta Kredoa esan zitun. Ez baka-rrik, gaixoak be bere alegiña egin bear ebalta eta ortarako Simon'eri beragaz otoitzak egiten laguntzeko aginduz.

Azken amena esan ebanean, bere eginbearra amaitutzat etsiaz, oraintxe da, borondaterik ba da, eskatzeko ordua, esan eutsan. Eta geitu eban:

Jendeak uste dau onelako otoitz eta eskariak, orrelako gertaeretan, sorginkeriak dirala, baiña ziur egon kalterik *ez* dabela egiten, eta nik gure amumagandik osabidetza au ikasi nebanean, berak ekiten eustan, esanak-esan, bere aolkua jarraitzeko, antziñetatik etorrana zalako, eta milla mesede lortua.

Bera asko ikasia zan, gure amuma bedeinkatu a!

Itxas ibilleretan ibilten zan bere senarra. Urandietako merkataritzako txalupetan. Ez zan kapitan, ez eta piloto be. Baiña ontziko kontulari edo zerbait orrelako zan. Entzute oneko gizona. Ez dakit egia izan dan, baiña kantu batzuk atara eutsezan. Ez dakizu?

Peru gurea Londres'en
zingulu larrak ekarten,
bera andik etorri arte
guztiok dantza gaitezen.
Ai ori egia,

zingulun zangulun Maria.

Ene ba, jakingo ez dodaz? Bereala Simon'ek.

Eta otargilleak:

Ez uste kantu bakarra danik. Niri beintzat, bakoitzak bereari ikututen dautsa-ta, sarri burura etorten jata eta geien bat bere sailleko irugarren kantua:

Ugazaba topau neban
Santo Tobeko zubian,
neugaz atzera ekarri neban
sardin-sestotxo barrian
Ai ori egia,
daigun inguru Maria.

Txistua be jausi egiten jakon otargilleari kantu orreik gogoratzen. Amuma Maria'ren erakutsiak, eta ain zuzen be sardin-sestoak eta abar, berari geien atsegin jakon abestia zala esan eta birresaten ebanr

Bertsoak entzun eta Simon Peru'gaz gogoratu zan.

Garbi esan eutsan otargilleari zer gertaten jakon. Itxasoan igaroa eta gerokoa. Mutilla zelan egoan, zer egin eban, eta abar. Mesedez mutiltxoak ikusten laguntzeko eskatu be bai.

Ogi bedeinkatua baiño onago zan otzara-egillea, bere txabolan fraille bat lez bizi zan langille asperbako eta zintzoa, eta ez eutsan aitzakirik ipini Peru ikustera joateko.

Orrela Simon'ek etxerako lagun bat billatu eban.

Tranpa kalean gora barik, erriberako bideak artu zituen biak Idurre'n etxera joateko.

Illuna sartuta egoan, baiña itargi betea egoan eta asko laguntzen eban bidean.

Orrez gaiñera, erriko tabernariak biztuten zituen kale egaletako farolak, bidea erakusten eben.

Lau tabernari egozan Ondardi'n.

Bakoitzak lau tokitako argiak biztuteko egin bearra euren kontura artzen eban, erriari zor order Au da, tabernari bakoitzak lau farol. Danetara amasei erri guztian.

Beste argirik ez zan ikusten, etxe batzutako leiotatik igariten zan barruko kruseillu argia ezikr

Idurrc'ren etxe aurrera eldu ziranean, gizon bi ikusi zituen andik urteten. Ikaratuta lez iges egin eben, norbaitek ezagutzeko bildurrez, gabarcn itzala eta illuna billatuz.

Otzara egilleak bat-bateko arrada oartu eban bere soiñcan, areik ikustean, eta ezin asmatuta lez esan eban:

-Nortzuk izan dira urten dabenak?

Ez dakit. Aluen batzuk.

Aucra txarra daukazu.

Euki eragin.

Bi izan dira. Bictako bat erriko ()salaria ez ete zan izango?

Noiz egoten da ba errian? Azpaldi kanpotik_ dabil. Kanpoan geiago irabazten ei dau. Gu izan be, miseritik ezin urten-dako erri ozkil bat gara-ta!

Ziur egon, a izatekotan niri lenago deituko custela. Arratsaldean Kofradian cukitako eztabaida batzuk bitarteko izango dira, ziurretik. Itxasoan ibiltcko aitzaki asko eta kalean arrosko.

Eta zetan emen?

-Pentsatuko eben bertan egongo nitzala. Ez dakizu? Nire semia dala esaten dabe Pcru au.

Londres'etik ekarrita?

Ala kantatu ei eutsan sakristauak bataiatera croan ebenean eta Pcru izena ipinteko eskatu: Pcru gurea Londres'en.

Deitu barik sartu ziran.

Kiskctari eragin bearrik be ez eben euki. Iñoren bildur barik, zabalik egoan atea.

An egozan, erdi lotan, Idurre ta Liñe.

Nortzuk izan dira orreik?

Zeintzuk?

Emendik urten diran gizonak.

Emen cz da iñor egon.

Benetan? Atean bai.

Barruan ez. Kurutzea ortxe dagon lez.

-Eta igarri be ez dozue egin, bcrbarorik be oartu cz etxe inguruan?

Egia esateko, atea zabaltzen lcz igarri dogu, baiña iñok deitu ez daben lez, aizea izango zalakuan geratu gara biok.

-Zelan dago Txo?

-Peru? Goizean baiño obeto.

-Burutik egiten dau oraindik?

-Batzutan burutik eta bestetan kontuak esateko gogotan.

-Nigaitik ezer esaten dau?

Egún guztian zu aitatzan dabil. Gizon adoretsua zareala, baiña arroa zarcala esaten dabela. Ba dirudi zure adoreak zerbait kikilduta daukala.

-Eta beste au nor da?

-Erriko otzara egilea, ez dakizu? Jakiña, au kalean ibiltzen ez dan lez, bear ba da ezagutu be ez. Nik baiño geiago daki bedar tratuetan eta gaixo batzuei igarri eta zaintzenr

-Zuma-tokiko Mikol?

-Ez dakit izenik, baiña an bizi da praillé baten antzera. Nik baiño geiago dakizu. Mikol orretara? Alako baten be gizonok gure izenekaz ezagutzeko aukera doguneanr

Idurre ez zan ausartu geiago esan ez itanduten. Burua makurtu eban. Lotsatu? Ez jakin. Ilunegi egoan kolorerik aldatu ete jakon jakiteko be. Berak Liñe'ri esan eutsan:

-Erakutsi egiozu mutilla, Liñe.

-Orrek erakutsi bearra *ete* daukat? itaundu eban Simon'ekr Iñoz ez eban erantzunik emon.

Gelan sartu ziranr Gela antzerakoan.

Erdi lo egoan Peru. Alaz eta laster konturatu zan, gizonen batzuk ikustean, bat Simon zalar

Berbetan ezagutu zaitut, Simon.

-Eta ikusita ez?

-Ez dot ondo ikusten. Lanbroak, edo lausoak edo, orrelako zerbait daukat begietan. Ezagutzeko aiña ez. Kenduko da illuntasun au, 'ez?

-Zelako egualdia dago gaur? Igarriko zenduke?

-Jo! Ikusi ordurako, ariketak egiten?

-Ia. Itxastar jatorra danak oetik be igarri bear izaten dau. Aize berde, kalma zuri, ipar baltz, mendebal gris... Esan, bat esatekotan, zein esango zenduke?

Orretarako leiora joan bear.

Eta joango ziñake?

-Amak laga ezkerero... Joango naz?

Geldi, Txo. Ez otzitu. Zuretzat otzitutca da txarrena.

Igarri eben mutilla ondo etorrela. Gogoa ba eukala, czaupide-a be bai, gero ta geiago ziurretik.

Bart bildurgarri egoan, esaten eban Simon'ek. Benetan, etsita eta jota geratu nitzan etorteko deitu eta ikusi nebanean. Ez dakit zelan asmatu neban zer emon be.

Zer egin zeuntsan?

Asunekin blastiatu. Besterik ez. Ori zala uste izan neban ariñen egitekoa eta origaitik lenengotik ortan ekin neutsan.

Nik aza azi eta berakatsez egindako enplastoia ipiniko neutsan. Benetako fedea daukat orretan.

Baiña ikusten da mutilla, len orrela egon ba da, onera datorrela. Oraindik igarten jakoz, eta egunetan be eukiko dauz, albo-ringoaren gorri-une, begi disdiratsu ta antzekoak.

Nik be ori zala pentsatu neban.

Ziur egon.

Uste dozu ondo osatuko dala?

Atsegin izango litzakit egun bi-irutan ikustea.

Egin zeinke. Eskertuko dautsugu.

-Etxekoak naiko al dabe?

Naiko ez dabe ba?

Ba daukazu zer ikusirik etxe onetan?

-Askori jaramon egin ezkerero, eta berba asko belarri batetik sartu eta bestetik urtetan laga ezik, zetaz lotsatu be bai.

Zer dala ta?

-Ba... (Mikol'eri belarrira) Ez dautsut esan len mutil au nire semea dala esaten dabela? Ez zenkien?

Neurerik ez dakit eta iñonak jakin?

-Zu be neure antzera mutil zarra ez zara ba?

Eta mutil zarrak ez gara gizonak ala?

Mikol'ek berba gitxitan agertu eban bere ustea.

Nai ta aurretik gaixoa ikusi ez, oraingo begiratzearen ondoren esan eikean eritasuna bigundu egin zala, eta barrero osasunari bidea lagaten etorralla.

Ziurretik, uste bako atzerapenik euki ezik, gaixoak bere denpora bear-arren, egunetik egunera arintzen igarriko zan.

Simon'ek bere ikuspegia bardiña zala esan eutsan.

Ez eben aitatu be ze erremedio ipini. Ez eben ortazko erabagirik artu. Origaitik Simon'ek agertu eutsan pozik ikusiko ebala biaramon illuntzean, eta nai ba eban bera joango jakola bila.

Idurre zerbait esaten asi zan, mutilla obeto joan ezker, ortarako premiñarik ez ebala ikusten, eta abar, baiña Simon'ek ez eutsan berbetan be lagaten, apaltasunez edo bildurrez ari zalakoan, eta Idurre, bereari eusten jarraitu barik, ixildu eta bastertu egin zan.

Simon eta Mikol kalera urten ziranean, gau baltza zan.

Alaz eta Sirnon'ek kale aretako barri ondo ekiala eta oituta egoala bertako goraberetan, eta lagundu izan nai eutsan Mikol'eri. Onek, borondate ori eskertuz, arrenka eskatuten eutsan lagateko, bakarrik be joango zala-ta, berak be Ondardi'ko bidetako barri ba ekiala-ta.

Alde banatu ziran,

Oinkada batzuk egin orduko, zarata takoak entzun ziran eta gizon baten ai-ene eta uluak.

Simon'ek zerbait entzun eta igarri orduko, bildurtu barik bira egin eta gertatu eikean ingurura joan zan, kezkatuta eta sututar

An egoan Mikol, sudurretik odola dariola, etzanda, miñetan, bekokian be urratu batzuk eukazala.

Simon'ek besterik ez eban esaten, zapi bategaz sudurretako odola batzen eban artean, au baiño: Zer egin dot nik, zer egin dot, ni onela jo eta ostikoka erabilteko?

Osagillea izan ete da?

Uste dozu?

Bakarrik ez da izan, bi baiñor

Ezagutu ez?

Gaitz, arpegia estalduta ebiltzalako.

Ezer esan dautsue?

Nik ez dot besterik entzun auxe baiño: Alu, ori, oraintxe

ikusiko doguz zure arrokeriak.

Baiña zer egin dot nik, onela jo eta zanpatuteko?

Len Idurre'ren etxe inguruan igarri doguzanak izango ziran.

Zegaitik baiña?

Ni nitzalakoan joko zinduzen.

Errian ez zan egoten zaindaririk.

Ez egoan ze zaindu andirik be, ondasunetan beintzat.

Giza ondasunetan, ikusi eta ezagutu nai ez ziran artu-
emonen batzuk egoten zirala mundu guztiak ekian. Sarri entzu-
ten zan gabaz mamuren bat ibili zala onako edo arako etxean,
iñoiz makillakadak be egon zirala, errieta zantarrak entzun zirala,
eta abar. Batzutan bildurra edo bestetan odol beroak, baiña
geienetan gonak aidean.

Egia da gabean lapurretan edo beste zerbaitetan ibilliagaitik
baituten zituenak, zigor astunagoa leporatzen ebela eta lotsari zi-
tal eta laidogarriagoa eroaten ebelar Baiña askotan, iñok jakin
barik, edo jakin da be, iñor salatzen ausartu barik igoten ziran
eta bertan bera galtzen laga.

Zanpaketa au gertatu zan aurrean etxe bizitza bat egoan.

Ba ekian Simon'ek nor bizi zan an. Iñoiz alkarregaz ibili zi-
ran txaloparen baten.

Atea jo eta deika asi zan: Millan! Millan!

Ez eban iñok erantzuten.

Barriro deitu eta alako baten be andrea agertu zan, erdizka
zabalduta egoan leio tarterar

-Nor da ordu onetan deika? Zer gertatzen da? Itxasora ur-
ten bearra al dago ordu onetan?

-Ez, Millan bera nai genduke, une baten.

-Ez dago etxean.

-Ez al da etorri?

-Kofradiko batzarra ez egoan ba?

-Kandela argitako kuku batzarrrik egin al izan da iñoiz Ko-
fradian? Sekula ezagutu dozu illundu ta geroko batzarrrik?

-Egia da izan be. Ai ni! Zenbat onelako, konturatu barik,
sartzen ete dauskuez gizon arraiuok?

Nortzuk zarie?

-Ez nazu ezagutu?

Gau onetan danok be legramua baiño baltzago ikusten zarie ta ezagutu, diñozu?

Simon naz.

Zcuk be ordu onak darabiltzuz ba kalean.

Zetarako nai dozu Millan?

-Testigantza bat egiteko.

Arek al leikeana nik ezin?

Emendik nebillela, gizon au billatu dot, sudurretik odoleta eta miñetan, gizon bik zanpatu dabelako.

Nor da berori?

-Otzara egillea. Ezagutzen ez?

Nor dala esan?

An beko zuma-tokiko txabolan bizi dana. Arrain otzarak eta azokarakoak egiten dituana.

Ezagutuko ez dot ba?

Baiña entzun: zelan ebillan berori ordu onetan?
Itargiak atara al zaitue kalera mutilzarrok, katu-arrak lez?

Mesedez, ortarako ez gagoz-eta. Olgetan jarduteko ez gagoz. Premiñazko dogu lekuko bat.

-Ez nagizue ni sartu gizonen autuetan. Orixe bear genduke, lengoak gitxi dirala, barriketa geiago sortu arazteko.

Nire atea, gure etxeko atea esan nai dot, gabetarako aginduta dagon lez, itxita dagonaren testigu zara ez?

-Ez naz ainbestez ziurtatu.

-Ba bakétan laga nagizue. Ez nago ni ia gau erdiko gauzak dirala ta gure gizonen erretolikak entzuteko.

Eta leioaren itxierako kárraskada entzun zan.

Ori ikusita, Simon'ek Mikol'eri esan eutsan:

-Beste nunbaiten deitzea nai? Ez dago urrun Txangurru-ren etxea. A ziurrago egongo da etxean eta, ezpai barik, lotan.

-Zetarako, alperrik?

-Alperrik ez, agintariak orretarakoxe dira ta alegindu daitezala nor izan ete leikien billatu eta jakiten.

Erritar guztiak jokatu bear genduke orretan.

-Begintansiñoia besterik ez genduke eragingo. Laster atarako leukez autuetara itargi betea, mutil-zarrak, norbaiten adarrak eta abar. Ez dautsu ba, zio barik andre orrek orixe berbcrori aitatu?

Ni, Simon, lendik be asko mindua naz, eta naiago dot bertan bera gauza au amatau daitela ta nire baketan bizi.

Beste gauza bat, osagilleak jakingo ba leu eta Pcru mutil ori gaixo egon dala entzun, arek be bereak eta bi esateko euki-ko leukez. Benetan diñotsut, naiago dot nik aztu.

Egoera ori ikustean, Simon'ek Mikol'eri besotik oratu, eta neuk lagunduko zaitut, esanez, biak ixillean joan ziran zumatokiko txabolara.

An ikusi eben ostikadak baltzune batzuk laga cutsezala atzeko mokorretan Mikól'eri eta sudurra eta begi ondoa, arri kosken baten jaustean urratu eta zauritu jakozala.

Eta Mikol'en txabola txiki eta zapala izanarren, etzateko aiña leku ba egoala ta Simon'ek be, lagunaren eskabidez, antxe geratzea naiago izan eban, egunak argi egin artean.



Argitasun ametsetan

Mikol eta Simon, biak, laster loak artu zitun an egozan lasto eta orbelezko oe-asketan etzan ziranean. Orduak jarraituko zituen berbetan, baiña bein etzan ezkerero, galduak ziran, loak bete-betean menperatzen zitunak ziralako.

Esaten dana, oean ez ziran gizonak.

Alaz eta orduak baiño len esnatu zan Simon.

Eguna argitu baiño lenago. Urduri, gau neketsu eta astuna igarota lez, dardarati eta estu.

Bear ba da, ezaupiderik ez eukala be, gizon bi arein itzala ibili zan bere eskutuko pentsamentuetan.

Laster gogoratu zan Millan'egaz, eta arritu egiten zan bere aurka jarduteaz, eta errurik ez eukana zanpatutera aiña elduteagaz. Ez eban nai sinistu orrelakorikr

Baiña zalantzarik ez eukan.

Ordu aretan oraindik etxean falta zan, eta bein arimenak ezkerero taberna eta sagardautegiak itxita egoten ziran errian, eta kaian be ez egoan zeregiñik, txalopa guztiak etxean egozalako.

Bat Millan ba zan, bestea nor izango?

Paulo?

Ezin eban burutik kendu bere irudirik. Eta gizon au, pótozorri eta zazpiki antzeko izanarren, edo beretzat beintzat atakoztat eukiarren, ez eban uste a izango zanik.

Naiago eban, sakon pentsatuta, beste iñor baiño a izatea. Zegaitia garbi agertuko zan. Bear ba da bien artean eukitako berben ondorena. Baiña asteleneko batzarrean bere gain eukiko eban ordago jotea Kofradiako arrantzale guztien aurrean.

Zenbat eta geiago gogoratu, damutu egiten jakon Millan-

'en etxean dei egin bearra be.

Arinkeritzat edo bildurtzat etsiten eban bat-bateko joera ori. Zauritu bat egoan eta naiko ziran bata mindu lez eta bestea billatzaille lez agintarienkana agertzea. Gaiñera sekula euki ete eban berak orrelako egitadarik, berari aitzakiak billatzeko?

Orain, Millan'en emazteak jakitean, ziurrago izango zan Millan berbera arretaz ibili eta agertzea, eta bere burua zuritze-ko aukerak billatzea.

Mikol, beste aldetik, Jainkoari eskerrak emoten esnatu zan.

Errubako etsiten zan; ba ekian berak iñori kalterik ez eutsala iñoiz egin; ez eukala iñogaz ezelako eztabaidarik be bere ogibideko tratuetan. Origaitik bere buruari sinistu eragiten eutsan ez zala gertaera orretan bera, jakinda beintzat, zanpaketa orretarako bide, gai edo zio izan eikeana. Bere buruari sinistu eragin eutsan, eta origaitik nasaituten zan, illunaren erruz jo ebela beste norbaiten ordez.

Alaz eta gogapenik ezin kendu. Idurre'ren etxera joan nai ete eben batzuk ete ziran, eta gero, ezaupidearen bildurrez, bear ba da gizon zintzo lotsa gordetearren, inguru aretara urreratu ziran ei estu-aldien bat emon naia izan ete zan, mamu-salatari lez toki aretan ibili ez eitezan?

Baiña orrela pentsateko, ba eukan aurkako zerbait: etxe aretan, sartu ziranetik, ez egoan iñor egon zan itxurarik. Erdilotan egozan, su ondoan, an billatu zituen andrazko biak.

Sorgiñen giro aretan, batek ez eban ziur jakiten, gertaten ziran gauza askoren errazoirik.

Zegaitik Simon ausartu zan bere billa joatera, eta zegaitik gero Idurre'ren etxera eroaten alegindu, an egoan gaixoak arriskua gainduta ba eukan? Zegaitik mutil a erakusteko ainbeste ardua?

Zelako artu-emonak eta eukazan Simon'ek Idurre'gaz, ikusten zanez, Idurre'k ez ekialako eta ez eukalako bera ara joatearen barririk, eta a bere esanetara ain otsan makurtzeko?

Eta Peru?

Gaua eten eta eguna asi orduko Simon batela lotuta eukan kaira joatera gertu zan.

Eta biak, illuntzean, tope egingo ba eben lez, zapladen toki inguruan alkar ikustekotan geratu ziran, Jainkoak ala nai ba eban.

Asmo orretan agurtu ziran.

Mikol

Gure erri txikietan, lengo giroan, errietako serbitzuak urtean enkantera ataraten ziran, premiñazko serbitsu lezr

Geienetan erri bakoitzeko sarrerak ortik lortuten ziran. Ala erriko labak, edariak, okelak, alondikako zizak eta abar.

Ardaua izaten zan geien zaindua eta beragaz egiten ziran erriko kale, bide eta jairik geienak.

Arrantzale errietan ba egozan, premiñazko lez, beste gai eta tresnak. Bat, otzarak.

Batez be itxasoetako arraiña ontzietatik atara, erabili eta kanpora bialtzeko, asko bear izaten ziran, eta erria ondo orniduta eukiteko, zeregin edo ardura orretako nortasuna eta jaubetasuna urtero ataraten zan errematera, eta geien ordaintzen ebana aukeratzen zan ardura ori bere eskuetan lagateko.

Ondardi'n geien erabilten ziran otzarak, sardiñatako-otzara, berdeletakua, besigutakoa, tretza otzara, otzara zapala eta abar izaten ziran. Neurritz eta sakonez bardiñak.

Otzara luzea be erabilten zan, etxeko oial eta jantziak erabilteko. Eta sare-konpontzailleak euren orratz eta ariak erabilteko be bereziak eukezan.

Erriko zeregiñen arduradun batzuk sarri aldatu edo barriztuten ziran. Batzuk, batez be esku lanik agintzen ez ebenak, edo ta merkataritza gaitasuna bakarrik eskatzen ebenak ia urtero. Beste batzuk, batez be esku-lan eta gaitasun berezia eskatzen ebenak, urtetan baten arduratan geratzen ziran.

Ori gertaten zan otzara-egilleagazr

Ondardi'n ala deituten eutsen zestu-giñari, baiña Mikol Azpeiti'ko Urrestilla aldetik etorri zan eta lenengo urtetan bere buruari otargille deitzen eutsan lez, danetako izenak geratu ja-

kozan: otzaragille, otargille, zestu-giña...

Erriak errentan ipinten zitun ibai ondoan eta erriberctan egozan ia eta zuma toki ugariak. Bestalde berak bear zitun gaztain eta urritz ondoak aukeratzeko eragozpenik ez eban eukiten eta iñora joan barik billatu eta batzen zitun.

Otzaragillearen txabola, edo lantegia, erriarena zan. Baldintzetan sartuta egoten zan eta ez eban orren errcñarik ordaintzen. Zapala zan eta luzea, ez zabala.

Egurak egosi bear zitulako, laba lakoa eukan sarreran. Gero bere lantegia, eta basterrean, saku luzcekin aldebanatzea egiñaz, bere bizileku edo «gela» deituten eutsana.

Ondardi'ra etorri aurretik, ikasgintzan be ibilten zan eta ortako bakarrik bizitzen oituta egoalako, emengo enkantea irabazi ebanean, txabolan bertan, lantegian bertan biziten asi zan.

Eguerdiko jana erriko ostatuan, bakarra egoan, eta aukera barik, baiña pozik egiten eban. Ori izaten zan eguneko bere urteera. Afaldu, txabolan.

Gizon ixilla zan. Aldaran ipinteko lakua zala esaten eben. Berbetan gozua, biguna. Tratuan apala. Bere zeregiñcan zeatza, gauzak ondo egin eta amaitzearen zalea.

Ez eban egin errian lagun berezirik, ez adiskidcrik. Danentzat bardin agertu nai izaten eban.

Arrantzu ugariak gertáten ziranean, eukazan otzarak txalopa jaube guztien artean bardintsu banatzea nai izaten eban, nai eta danak bardin ordaindu ez, eta batzuk illetan be kontuak atzeratuta euki.

Berak be urtean ordaintzen zitun bere egur eta tresnak. Garbiago esateko, domusanturetan. Au da, Azilla'ren asieran.

Otzarak egin eta pilloa batu ala, Kofradia'ko aterpe baten gordeten zitun. Eta arrantzaliei eurei lagaten eutsen bear zituenak artzen, eta bere esanetan, sekula bat bakarraren utsik ez eban igarri.

Bere asieretan, neska zale entzutea artu eban. Esan be egiten zan, etorrita laster emengo abade batek bere ezagun eban azpeitiar bateri idatzi be egin eutsala ia zelako idizkoa bialdu eben andik. Eta arek erantzun, ez arritzeko, an ba egozala ori

baiño beroagoak-eta.

Danak esaten eben itxura oneko mutilla etorri zala, eta emen ez ebalá bizitasunik galdu.

Txabola ta lantegi eta bizi-leku zan etxean, txiri asko bätzen ziran eta ozpal ugari. Eta orrelakoak etxetarako eskabide andia eukiten eben, sutako enborrei asierako indarra emoteko.

Oiturazko zan orreik doan emotea.

Euren billa umeak joaten jakozanean, utzik bialtzen zitun, ezer ez egoan aitzakiz.

Gero andrak joaten asi jakozan, eta ori zan ain zuzen berak nai ebana. Areikin berbak bakarrik barik meitekerizko ardurak eukiten zitula esaten eben.

Umeei ez lagateko aitzakiak emon bear eta erraminten gorabera aitatzen eban, eskutik kendu barik ibili bear izaten zitun matxeta, aiztoa, eztena, labaiña eta abar, arrisku andikoak zirala ume ziriñentzat.

Lenengotan ba ekian Idurre'k bere txabolara etxerako ozpal billa joaten. Gero joateari laga eutsan, nai ta biak giputxak izan eta izkera bardin eta errialde bateko aizeak ten berezia egin.

Goizaldeko lanak

Simon, otzaragillearen txabolatik urten eta kaira eldu zanean, bere txalopa betiko toldan ez egoala ikusi eban.

Begiratu eban ur sakonera, norbaitek gaiztokeriz zulatu eta ondoratuta gongo zalakuan.

Nasa egalean zear ibili zan, kezkatu eta arduratsu, nun billatuko. Eta gitxien uste izango eban tokian, Kofradi aurreko mollaren aurrean, beste txalupen artean erdi eskutauta idoro eban.

Laster konturatu zan eta ziurtzat etsi goizalde aretan norbaitek gorrotoz edo zitalkeriz eroana zala. Bear ba da Kofradian neurriren bat artu aurretik, andik zaindu egien, iñora urteteko asmorik artu ezkeru.

Oraindik goiz zan Kofradiara asarrea agertzen edo ta egin-kizun ori salatuten joateko.

Iñok ikusi baiño len, lenakoen esankizuna gogoratuta, ezer gertatu ezker, gertaerak Fxillean eta eskutuan eukita ariñago jakin eta argitzen zirala, andik ebillala iñor konturatu baiño len, etxe aldera joaten asi zan.

Eta tranpako bidea artu barik, erriberan gora, luzeago baiña bakartiago elduko zala pentsatu eta alaxe asi zan.

Orrela, gau asieran beragaz ebillan Mikol nun zanpatu ete eben ikusteko aukera eukiko eban.

Erdi eskutuan lez igaro zan bertatik.

Begira asi zan, eta edarrakada ur botata egoala igarri eban kalearen egalean, eta bere ustez, ez besperan, goizalde berbertain baiño, oraindik ura lurtean ondo sartu barik goalako.

Astelenean berba egiteko beste gai bat geiago, esan eban berekiko. Mamuak eta sorgiñak aixatu eta lotsatu bearke dira.

Bezperan deitu eban Millan'en etxera begiratu eban. Ez zan iñor agiri bertan. Dana egoan itxita; ate eta etxeak eukazan leio txiki eta illun biak be euren egurrezko olez estalduta edo sarratuta egozan. Ez ori bakarrik. Sarrerako ateak, ate bakarrak, be aldean eukan katu zuloa be, arri bat barrutik egoala estututa egoan.

Aurrera eioan etxera. Ori zan bere asmoa. Uste barik, berez etorri ta sortuten dan asmo batek bultz eginda, Idurre'ren etxean sartu urten bat egin bear ebala pentsatu eban, Peru ikusiz eta bertara urreratu zan.-

Kisketari eragⁱⁿ. oi eban lez, eta ezin zabaltzeko tarterik bilatu.

Arrigarria.

Saka egin eutsan ateari, bigun, zaratarik ez atarateko.

Ezin zabaldu.

Jo eban ixiltzu. Barrero be bai.

Erantzunik ez.

Bein aretara jarri ezker, ez eban etsi nai.

Ba ekian etxeak mendi aldetik leio txiki bat eukala eta bertatik deitzea pentsatu eban.

Leioak barruko ola maratillaz itxita eukan, eta ez zan ezer ikusten. Bildurtu be egin zan andik deika ibiltetan barrukoak

ikaratuko ete ziran. Zartiatutako leio zarreko ol artetik, argien bat ba egoala igarten zan.

Kezkatu egin zan, zer egon eikean.

Mutilla gaiztotu ete da ba?

Ekin eutsan barriro ate joten. Ez egoan nasai. Lenegotan ixiltsu, gero gogorrango.

Liñe'k urten eban.

-Zer nai Simon ordu onetan?

Pentsatu ziñeir

Goizetik zabiltz.

Ni baiño goiztarragorik ez al da?

Lo egingo genduke ba!

Eguna zabaldua ez al dago?

Zelan dago Peru?

-Ustez ondor

-Atea zabaldu egizu. Ikusi nai dot.

Zetarako Simon?

Esan dautsut, mutilla ikusi nai dot.

-Lo dago.

Ametsik egiten dau? Sukarrik bai?

Ez dakit.

Ez dautsazue begiratu?

Ez da beintzat keixatu. Berbetako gogoia etorri jako. Zentzuz berba egiten dau, atzo lez, gauza bakanik esan barik.

Obeto dagon ezaugarria.

Baiña ikusi nai neuke. Gaberarte ez naz etorriko ta ba-
ezpadan begiratu bat egin.

Zerbait jausi edo zarata lakoa entzun zan.

-Nor dabil barruan?

Katua izango zan.

Katurik ba daukazue, ala?

Egia. Baiña kalekoren bat bear ba da.

Esaidazu benetan. Iñor dabil?

Ixillago berba egin. Gero esango dautsut. Joan zaite.

Zer gertaten da?

Nik zer dakit ba?

Sorgiñak al dabiz etxean?
Besterik ez genduke bear.
-Itxuraz beintzat.
-Olororik ba litz laster iges egingo neuke emendik.
-Ez egizu ezer eskutatu. Zer da jasoten dana?
Atzo zeuk ez zendun iñori ezer esan barik Mikol ekarri?
Umearcn mesedean egin neban. Sasi osalari fama ona dauka eta zerbait egin al izango eutsalakoan.
Gaur bera etorri da.
Iñok deitu barik?
Zeuk egin ez ba dautsazu. Guk *ez* beintzat.
Ezin lei. Bertan lo egin dot eta oraintxe urten bertatik eta etorri naz, eta bera an geratu da.
-Ez al dago zu baiño bizkorragorik? Itxasoan *lez* ariñeketan be zeu lenena zarealakoan?
Esan, Mikol dago benetan?
Bein esan ezkeru, zetarako ukatu?
Ze egun da gaur?
Zetarako? Edo zegaitik?
Adarra joten jarduteko.
Benctan, Simon. Idurre'k ez leuke jakiterik naiko ta lenbailen joan zaitez emendik. Mesedez!
-Lenago be etorten zan?
Nik dakidala ez. Barriro diñotsut, Simon. Joan zaitez, ixil. Eta ez aitatu be nik ezer esan dautsudanik. Danon mesederako izango da.
Mesedez, kendu egizu ainka ori atea itxi daidan. Illuntzean ez zatozc ba, biok?

Laiñoak eta lausoak goizean

Simon eta Mikol, biak batera illuntzean Peru ikustera joango ziran edo ez, ikusteko egoan.

Ez ekian Simon'ek Mikol'en jokabidea eta egitada nundik epaitu eta zelan iruntsi.

Lenengo eta bein ez ekian ziur Mikol zala andik ebillana. Sinisgaitz zan beretzat an egotea.

Ala ba zan, mundu gitxiko gizona zan. Ustela.

Bestaldetik Idurre'tzazordurarte eukan eritzia, zearo aldatuko eban eta egia esateko, ezpaian ipinten be asi zan.

Berak errukia artu eutsan andra orreri lenengotik: Aren bakartadeak eta bizi-modu bakanak mindu egiten eban. Eta ordez, bereak, Simon berberanak, ez eban artekatuten eta asko arduratu be *ez*.

Egin da egoan bizitza aretara. Berezko *lez*, jatorrizko *lez* eukan bere mutil-zar izatea.

Gizon lez emakume guraria igarten ebanean, norbaitek esanda, perexilla jaten eban gordiñik eta san Juan bedarrak egosi eta euren ura edan, burutasuna eta berotasuna igaro arte. Eta iñoiz lagunen artean esaten ekian amesetan joaten jakozala berrori orrelako zitzaldi (tentasiño) guztiak.

Sermolari egoki eta aolkulari zintzo ta seksu agerkizunen eta makurkerien ezagutzaille jator zan fraille batek emon ei eutsan errezeta ori.

Simon ez egoan nasai, Idurre'ren etxean nor egon eikean jakin, obeto jakin, eta ikusiagaz ezagutu arter

Origaitik zain geratu zan.

Ez atean. Ez Idurre'ren etxe aurrean; zerbait aurrerago, kalleko etxarte baten baiño. Ia bezperan Mikol'eri ostikadak emon eutsezan toki ertzean.

Inguru aretan ebillan, batetik bestera urduri ta keixu. Ezin kendu burutik otzara-egillearen jokabide nastetsurik, praille itxurako gizon samur eta ogi opilla lako on aren jokabiderik.

Zegaitik ez zan izango beste norbait?

Zegaitik ez ezkonduen bat, bear ba da gizon ezagunago bat, eta origaitik Liñe'ren alegiña andik ainbat lasterren joan eragiteko?

Errira etortzen ziran sermolari guztiak ez al ziran beti aginduetako zapalduena lez seigarrena gora eta bera, maiari ukabilkada larriak be emonaz, ezagutu egiten?

Baiña eta Liñe?

Zelan ausartu zan bera izen bat emoten?

Bezperan beragaz ikusi ebalako eta beste norbaiteri laidorik ez gaitzetzearren?

Idurre eta Liñe, biak ete ziran, alkarren itzalpean, orrelako tratuetako pekatari?

Burutasun bat amaitu edo kenduagaz, bestea etorkion. Bata bestearen atzetik, ezin bastertu-ala. Errezaten be asi zan burutasun eta pentsakide lizun eta txarrak uxatuteko.

Zegaitik, aitzakircen batez, Millan'en etxera deitu ez? Ez eukan gaitz itxurazko bat billatzea. Keixu ebillan.

Eta bera ia konturatu barik, alboan eukan gizona.

Mikol lotsatu lez egin zan eta ala geratu Simon an ikusi eta beragaz topeccin ebanean.

Zelan emendik?

Eta zu?

Etxera joan zara?

Nungo etxera?

-Ez dakit ba! Idurre'nera edo.

Asmatu egin dozu ala jakin?

-Emendik ibilteko...

-Zelan dago Peru?

Ara. Egia. Bat batean gogoratu naz illuntzean baserri bate-ra joan bear nazala otzara zar batzuei azpiak egiten.

Ni, zure txabolatik urten eta kai ondora joan naz, nire txalopa ikusteko asmotan, eta konturatu naz sorgiñak bizi dirala oraindik.

Zegaitik?

Ba txalopa berez azkatu eta ibaian gorago joan eta an lotuta billatu dodalako.

Ziur zagoz zeuk en *ez* zendula laga?

Sekula laga ez dodan tokian zelan lagako neban ba?

-Errian egin lei iñok ori?

-Errian iñok iñor zanpatu lei, zu atzo lez?

Dana dala, zelan dago Peru?

Etzi jagiten asteko gertu.

Etzi asticna.

Egunik alperrena. Niretzat beintzat. Eta zer?

Ezer ez, baiña niretzat uts.

Beteteko egin putz.

Zelan ain gangar?

Bai zera! Baldar.

Lengora jota, zer dauka ze ikusi astelenak Peru'ren gaixoa-gaz?

Kofradian batzarra dago.

Batzarra ala errieta?

-Ez dautsue ori entzuten eurak.

Arrantzaleak? Eurak dira ezagutzen lenenak.

Ez ni lendakari ba nitz. Kenduke neutsen batzuei erabilten dakien aize gangarra.

Ni Ondardi'ra etorri nitzanetik batzar ixil bat cz dot ezagutu. Baketsuak izan da be zaratatsuak.

Baiña odol barik, mamu batzuen artean lez.

Esan, zer dauka zer ikusi batzarrak Peru'gaz?

Azkenengo estutasunaren errua leporatu nai dauste. Errua, esan dote Bardin da, ulertu dozu.

Peru'ri errua emotea nai?

Ez areri ta ez niri.

Ortaz? Egia besterik zer esan ziñei? Eta zer esan leike besteak zuri?

Baiña arek salbatu nei.

-Salbatu?

-Zer esaten dodan be ez dakit. Salbatu bearrik ez daukat, nire eskubideak garbiak dira-ta. Besteenak aiñakoak dira-ta!

Iñok ukatuten dautsuze

Zer dala ta kontua eskatu, sekula ez ba da ortan iñor arduratu? Ez al da ori besteei lagaten dautsena niri ukatutea?

Itsua ta arrua nazala diñoe. Arrua.! Itxasoan alegin egiteari arrotasuna deitu.

Eta ni ez naz orrelako.

Ni be andrekin samurra nazala diñoe.

Zuk biak euki ziñeiz, fama eta lana, alakoxea zara-ta. Fama eta lana.

-Bai? Eta sinistu? Otzara betean nik dana! Zurctzat kana.
Eta Mikol, ascrrctuta, geiagoko barik, bere bidean joan zan.

Eskubideak zaindu nairik

Gau aretan Simon *ez* zan joan Pcru ikustera.

Ikusteko crrctcn egoan, egon ezinda lez, kiriotsu. Edozcr emongo eban ikustegaitik.

Origaitik, nai cta jakin Mikol'ik *cz* zala joango, goizean onek esánda, begira egon zan ia au joaten cte zan.

Onek esana, egia zan, itxura baten.

Ez zan joan gau aretan, cz eta biaramonean be.

Ez zan ausartu Simon Mikol'cn txabolara joaten be. Bcar ba da orrela egin ba leu, bigundu cdo alkar artean zela-ala zuritu egingo zituen bien artean esandako berbak.

An eukan, eskuturrcan, Mikol'ck lagatako zapi baltza be. Aitzaki bat izan cikcan, biak alkar ikusteko. Amorruez kendu eban zapi ori eta osatutzat etsi jaustcan egindako biurria.

Astelena eldu zan.

Oiturazko euken Ondardi'n goizean lenengo meza bertan il edo ittolakuen alde eskintzca.

Eleizeak lotuera asko emoten eutsezan andrazkoci Ondardi'n. Batez be urte barruan criotzen bat euki eben familikoei edo ta aurrercagotik izanarren, oraindik mankala jasotca egin barik cukcnei.

Familiak curen illobia, bakoitzaren illobia, euken eleizan. Antxiñctatik egoan oitura ori. Antxe batzen ziran eleizkizun guztietan etxeko ta seniderik urrenak. Bearrezko zan, nai eta ezko, eta ekandua zaintzeko ezin eban familiak ordaindu egiten eutsen joatcagaitik adiskiden batzuei norbait joatea, argizaiola biztuta euki bear zan egunetan. Eta astean ba ziran iru-lau egun.

Ziurrak domeketako meza nagusi eta bezperak; ziurra baita zapatú goizctan scirctako meza, Errosarioko aldarcan. Eta ziurra, astean egon eikezan illeta, ondra, urteko, noturno eta mankal jasotcak gogoratuta, astclen goizctako lenengoko meza, arimen

meza.

Meza abestua izaten zan, baiña berezia. Abadeak meza ta sakristauak kantua. Gero, meza ostean, eleiz-bira egiten eben abade ta sakristauak, abadea isopoagaz eta sakristaua kurutzegaz, erresponsoak otoiztuteko edo abestuteko bost tokitan geratuz.

Andrazkoetatik gain, arrantzale zarrak geienak joaten ziran meza onetara, bai eta bestelako langilleak be.

Bera amaitu eta Kofradia'ra joateko denpora zan bitarteko, iragarritako batzarrean alkartuteko.

Ikusi zitun Simon'ek eleizan «otso» batzuk. Berari jarkiteko ta ortzak eta erpak erakusteko gertu egongo ziranak.

Naiago eban danak joatea, danentzako aiña errazoi atarako zitun itxaropenez.

Gaiñera, ba ekian burrukalari batzuk kenduta, baten bat kenduta, besteak ixilik egonda, bere aldeko lez jokatu ebel, erabagirik artzekotan.

Uste baiño jende geiago batu zan zazpireterako.

Batzarra zuzen asi zan, garaiz.

Lendakariak ots egin eban:

Iñor ba al dago, bestetan oituraz etorri ez danik, ustez etorri bearrik ez eukalako? Ba dago kanpora joan daitela.

Iñok ez eban zirkin egin.

Idazkariari begiratzeko esan barik, lendakari bera ibilli zan bata ikusi ta besteari begiratu, ia iñor egon ete eikean.

Geitu eban:

-Esan bear dot, Kofradiako serbitzariei neuk agindu dautsedala betiko oitura jarraituz batzarrera ez etorteko.

-Lengo astean batzarrean egon eta orain zegaitik ez?

Eureri ardurarik ez dautselako.

Baiña Kofradikoak dira.

-Irabazirik ez dabe lagaten.

Beste erara lan egiten daber

Esan dot ardurarik ez dautsela, eta abadeak be bakea zaintzen alegintzeko aolkua emon dabe.

Betiko da ori, isopoa eta ur epela.

-Mesedez, ez iñori ikuturik ta gitxiago Eleizeari, ots egin

eban lendakariak.

-Lotsarik ba dauka berorrek, eleizkizun guztietan kanpaiak jo nai izaten ditun orrek, Eleizaren aurka ibilteko?

Mesedez, onda asten ba gara, batzarra amaitutzat emongo dot, erabagirik barik, eta banderarik ez da beratuko. Zeuok ikusi.

la Simon, esan esateko dozunar

Nik? Ni entzuteko nago, ez esateko. Eta zenbat geiago entzun, naiago.

Asi da bere arrokerietan.

-Kristo lez naukazue, eta zelan izan neike arro?

Kristo lez zagozela? Ori be ez da arrokeria eta zitalkeria?

Bai zera! Ori berorrek ésatén daben *lez*, umore baltza da.

-Onela ba guaz, alkarri kristonak emoten amaituko dogu.

Lendakaria zutik jarri zan.

Asi gara?

Karamarruak lez beti atzeraka ibili bear gara eta alkarri txopinka?

la, aurreratu daigun.

Nor da berba egin nai dabena?

(Danak ixillik. Erantzunik ez.)

Gizonak, iñok ez dau berbarik egin nai?

Ainbeste apar eta bits kalean eta egin bear dan tokian mutu?, itandu eban zeniakor Simon'ek.

Erabagitekoa egiña ez dago ba?. erantzun eban batek, gadora barik, atze aldetik.

Zetaz?

-Zetaz? Errekontxo! Txalopa be ez dozue ba Kofradi aurrera ekarri?, zirikalari Simon'ek.

Itxasora joango nitzan bildurrez, zuek etxcán , zegozen artean?

Nok aginduta txalopa bere tokitik aldatu eta danon begien aurrera ekarri? Nor izan da ainbeste al eta nortasu-n daukana? Betikoa?

Iñok ez dau ezer agindu. Nik ez beiñik-bein.

Lendakari izan eta ez dakizu ezer?

Ez zaite asi zure eztenkadaz iñor berotuten.

IDenporak baiño lenago zorriak eznatuten ba jatzuz, crruki zaitut.

Izan lci beste batzuk euki eta il ezin egitea. Eta ez gaitezan, bariro diñot, akulak lez pikoka ibili.

Kanibalak lez, Kodradiak ordezkariak izcntauta daukazala jakin dot, berba egiten dabenari zapladak emoteko, orrela bildurtuta ixildu daiten, edo berba egiten jarraitcko indarrik euki ez dagian, cdo ta batzuen gurarietara makurtu eta otsandu daiten.

Jakingo dozu, lendakari lez, zure agindu ori, zuk agindu edo besteak artu berdintsu da, azken batzarra amaitu eta ordu batera, edo andik laster beintzat, bete zala, ez?

-Gauzak argi esan egizuz, Iparreko izarra lez aidean ibili bariik.

Ba dakizu emengo batzarra amaitu, eta bertako gizon bi etxe baten aurrean norbaiten zain egozala, areri tollanak emonaz ixildu eragiteko? Ori Kofradiko arauetan egongo da, ez?

Ez etorri ona emakume txotxiñen berbakin. Gauzak argi esan, eta ez iñor naastu eta garraztuta ipini.

Kofradi bateko gauzetan ori egiten dabenak, bazkideak gaiñera, anai lez eta bazkide izaten jarraitu leikie?

Esan dautsut gauzak Matzakuko parolak baiño argiago esateko.

Iñok ez daki emen, esan dodan lez atzoko batzar ondoren ostikoka erabili ebela erritar bat?

Ames egiten ez zara ibiliko, Simon. Galerren aizerik ez egizu ekarri zeuk.

Lendakari, oraindik burutik ondo nabil, eta iparra edo mendebala egon bardin da niretzat esan bear diranak esateko. Zorionez burutik, eta zuk pentsaten ez ba dozu be, beste gauzetatik be bai, ondo nabil.

Ori esan bearrik ez dago, jardetsi eban tartetik batek, bestela leiotara urreratzen be ez diran emakumeei esan.

Itxasoan lako setatsu ba zara andrak izorraten, Jaungoiko laztana, alabarik ez daidala sortu nire erraiñak! barrezka jaurti

eban tximiñoa lako arpegidun batek.

Ori, diñozun ori, ekin eutsan barrezka iñarduen gaiñetik Simon'ek, Josafateko zelaian jakingo da, mamun-mamun klausk nok egin izan daben an agertuko da-ta.

Gabaz andra alárgunen etxetara joaten diranak ez al dabe zerbait merezi? itandu eban Millan'ek.

Zuk ba dakizu zerbait.

Nire andreari deika ibili ziralako.

Baiña zu ez zegozan etxean. Eta an egon ba ziña, jakingo zendun zetarako deitu eben.

-Zuk ez dakizu zetara.

-Nik ba dakit bi zirala.

Zerbait ba dakizu. Eta geitxuago be bai. Ez dakizu an, etxe aretan, eta ez daukat lotsarik esateko, Idurre alargunaren etxean, nigaz itxasoko gertaeran estu ibili zan Peru mutilla, gure Txo, otzak jota edo, alboringoa batuta, su karretan egoala?

Eta ez dakizu Mikol, gure otzara egillea, bcdarrezko osakuntzatan, jakituri andiko gizona dala?

Zegaitik ara joan aurretik, eta joango zirala pentsatuta ziuurretik, batzarretik urten eta bereala, gabaren illuntasunagaz baliatuta, lagun bi joan ziran aren atadira zain cgotera? Eta baten ordez bi giñoiazala ikusi ondoren, igeska eskutatu, eta gero be zain egon, eta etxe aretatik urten ondoren, kalean ostikoka eta ukabilka erabili?

Eta zegaitik biaramon goizaldcan, eguna argitu ordurako, an izuri zan odolaren ezaugarriak kentzeko, sekula cz cta, urcz kalea garbitu?

Lendakari jauna, ni arrua ta itsua izan neike itxasoan, baiña Kofradi onetan ba dagoz ni baiño itsuagoak eta ni baiño zanpazaille amorratuagoak diranak legorrean.

Ni bakarra naz. Azkenengoz berba egin daben orrek, berak esango dau zein eban lagun egitada orretan; zeintzuk ziran andik bereala, emen geuk nai doguna egingo da esaten *lez*, nire batela bere loturctatik azkatu eta Kofradi onen aurreko mollara ekarri dabenak.

Kalc garbitzearcna, azken baten, arpegirik erakusteko edo emoteko izenez aitatu nai cz dodazun beste arek ez eukitea da.

Zelan sinistu eragin zeinke esan dozuna?

Deitu Mikol'eri. An dago sudurra anditu, orokorrak balztzitu eta bekokia urratuta.

Mikol lako gizon batek merezi ete dau olakorik?

Or dago nire txalupa txikia. Danok dakizue nik neure toki ziuerra daukadala bera lotzeko. Txikotak azkatu ez, aiztoen bategaz ebagi eutsezan egoan lekuan, eta emen, alboko bateri lotu.

Joan zaiteze gure kalera. Nai eta uragaz garbitu, oraindik igarri leikez an, lurrean, odol baltzuneak.

Eta joan zaiteze Idurre'ren etxera. Ez dago bakarrik. Bertan dago Liñe be. An esango dautsue andrak izorrraten edo umeari erremedioak ipinten joan etc giñan.

Gero ta gogorrago ziardun Simon'ek bere esanetan. Egiak emoten daben indarragaz, gero ta zoliago.

Ixilik egozan batzartuak.

Nik ez dakit, jarraitu eban, gertaera au Kofradian salatzekoa dan edo ez. Nik dakidana da emengo batzar baten ondoren iga-roa dala eta emengo bazkide ta serbitzari baten aurka, Mikol be, jakin eta gogoratu bearreko da, gure serbitzari eta premiñazko serbitzari dalako.

Zeñek daki emen bitartean edo eskutuan zer dagon? aidean laga eban ordurarte ixilik egon zan batek.

Or bitartean neuk diñotsut zer dagon: Ni.

Dana dakizu. Asko esatea da ori, Simon.

Gauza onetan ondo eta ziur dakidalako. Ez uste edozelan nabillenik.

Zer dago ba?

-Ez dot esan? Oraindik be sinistu nai ez? Ez daukat bildurrik esateko: Ni, ni eta ni!

Zeure zurdak!

Beste bein olakorik esaten ba da..., zutik jarrita, esan ebanari begirakune zolia egiñaz, lendakariak.

Kalean esaten dana zegaitik esan ez emen?

Kalea kalea dá eta au Kofradi bat, edo garbiago esanda, anaidi bat.

-Baiña kalean lez aldian darabilguz emen be, eta noiztik da zatar berba ori esatea? Ez gaitezen emen santuei mun egiten ibili eta kalean edozeñeri azpiak garbitzen.

Kanpora!

Zer dala ta?

Kanpora esan dot!

Ze crrazoi dago orretarako?

Esan txarreko eta entzun txarreko zarcalako.

Lendakariaren bat-bateko erabagi onek asarreak jaso zitun batzartuen artean. Batzuk zemaitu eben, a kanpora joatekotan, eurak be urtctera gertuko zirala, olakorik Herodes'ek be ez eba-la egiten-cta.

Lendakariak, bere aldetik, erantzuten eutsen: Bear dan lez batzarra egin arte, banderarik ez da erriako, ta ez daitezala andrak etorri, goserik dagozala eta umiei zcr emon be ez daukela-ta, banderak e riateko, gizonak itxasora joan daitezcan. Lapak batzera joan bearko zarie, ni bandera crriatera makurtu baiño len. Jaungoikoako!

Esan eta erantzun, asarre eta zitalkeri, baldarkcri eta barrabaskcri, naste ikaragarrian" ataraten eben.

Alako baten be, Simon, danen gaiñetik entzun erazi zan. Dardarea ataraten eutsan etxeari be bere abots lodi garrazkiak.

Berba bat edo bestek, esan eban giroa baketzcarren, emen danak gara gizonak-eta, cz dauke edo ez leuke euki bear ainbes-te garrantzi. Itxasoan gordiñago ez gara ibilten,ba?

Emen jokora jo bear da, mamiñera, sakonetara, arraiñcan lez papuetara. Lotsak zainduta, jakina. Beti be begirapen pixkat alkarrí eukita. Danok ez gara ba erritarrak?

Erritarrak, baiña arpcgiko narrua batzuk besteak baiño lo-diago dogula, tartctik batek.

Nor izan da ori? Berak marraixuak baiño azal garratzago

eukiko dau-ta.

Paper garratzagaz aprobia egingo dogu?, barriro be lengoak, begirik be kendu barik, Simon'eri.

Onek, maixu batek lez Entzuten ikasi bear dogula... Ori da gure pekatua-ta. Entzuten ikasi bear dogularr.

Zciñck eta zozuak beliari ipur baltz?

Nor da or berbetan dabillena, bene-benetan be katua?

Ixilik egon zaitez! Ezagutuko ez ba giñake be!

Barriro be zaratak.

Len ixillcan egozanak be, giroa berotuaz batera, ekiñean asten dira. Ez bakarrik berbaz, bai eta eskuak erabili eta ukabillak be noz-naï gora jasoaz.

Batek Simon'egaitik:

Agure sapu orrek daukaz ointxe be erru guztiak.

Nik?

Zeiñek ba?

Ez al daukat nik besteak aiña eskubide kofradi onetan?

Ba dakizu erri batzutan zer esaten daben? Agure zarra durdura, yoan solo-burura, zopak jan eta logura.

Noiz egingo dozu olakoren bate

Lotsarik ba daukazue zeuok, berrogeta-amabost urtegaz, gizona zopak jan eta lotara bialtzeko?

Batek: Ni ba nua. Egingo al dau gu baiño andiagoen batek argia.

Orixe da errezena. Gero andra txotxiñak au bear litzakela, beste a bear litzakela ta abar zarataka.

Nik esan dot, «sekula bita eternan» ez naz etorriko.

Batzarra asi ordurako iges?

Asi ordurako ez. Odolak berotzen asi ta gero baiño.

Eta joan zan.

A ikusi eta beste batzuk be urteten asi ziran.

Orretan, lendakariak geitu eban: Biar goizeko zortziretan barriro. Eta argi diñot eta jakinda joan, banderarik ez da erriako, danok goseak arrakalauta be batzarra bear dan lez amaitu barik. Jakiñan gaiñean zoaze.



Jokabide garratzak

Martitzen (astearte) goizean zazpi lagun bakarrik egozan Kofradi aurrean batzarrerako ateak zabaltzeko zain.

Ordu bete geroago, beste bat bakarra agertu zala ikusi ondoren, lendakariak biaramon goizerarte ezingo zala batzarririk egin erabagi eban, berak eskuak garbitzen zitula esanez.

Bjaramonean, cguaztencan, lagun bi geiago batu ziran, baiña deilariak ez ziran agertu, utsune ori euren erabagien deistaiñez zan aitzakiz.

Batzarra araudictako indar eta araberan egiteko, barruko legea beteteko, irurogei lagun bear ziran gitxienez.

Tximista lendakariak, egun bietan, sorbaldak jaso eta ctsipenez agerpide bardiña artu eban: Baten batek, orrela jarraitzekotan, nik baiño lenago egingo dautso buruari atz.

Ez zan lenengoz ainbesteko ardurabakotasuna agertzen zala.

Berez, ez jakin zegaitik, arrantzaleak ia oiturazko dabe batzarririk geienetara nekez edo gogo txarrez joatea. Urteak igaroko leukez pozik, batzarririk egin barik.

Origaitik, batu cragitearren eta batzarrean artzeko diran erabagiak danak lotzen dituezala ta danen eritzi ta jardenez artzearren, batzar egunean bandera gorria eskegiten da Kofradiko maste nausian, eta batzarra amaitutzat emon arte, ez da crriaten, ez egunez eta ez gauez.

Arrantzalicn artean oiturazko dan lez, itxasoratzcan arrantzaten danetik bakoitzak etxerako jakirako arraiña eroaten dau. Ala orrelako utsunak gcrtaten diranetan laster keixatuten dira ctcxcoandrak. Eta itxasora joatea galerazota gelditzen dan egunetan, alperkeriz, nagikcriz edo ardurabakotasunez batzarririk egin ez edo ta erabagirik artu barik lagaten dalakoctan, andrak izaten dira asarrerik biziena agertzen dabenak.

Lenengo, oia danez, etxeko gizon, senar edo gurasockaz asarratzen dira. Onelakoetan batzuk patrikeretan daukezan di-

rutxuck be kendu egiten dautsez, tabernan edo sagardautcgictan sartuta ganora barik denpora galtzen egoteko susik euki ez dagian.

Ba dira esaten dabenak andre batzuk curen scnarrci orrelako egunetan seksu gurariak asetutca be ukatutcn dautscla, edozer baiño lenago zer jan ez dauken scmc-alabatxoak dirala-ta.

Tximista lendakariak ondo ekian ori, bera be ortik igarota egoalako.

Ama zarra asi jakon lenengo, ia errurik ez euken ume koi-taduak zer egin bear eben, gizonen ardurabakotasuncz, garrantzi andirik. ez eukan batzar bat sctakcriz eta buru gogortasuncz amaitu ezinda aidean lagateko.

Emaztea gero.

Tximista lendakariak ez eukan bere czkontzako ondoren jatorrik.

Ncska eder cta zoragarri zan gaztetan bere emaztea izango zana. Etxeko estutasunakaitik erbestean be denporaldiak egiña.

Tximista'ren gurasoak bildur ziran curen seme bakarra, erbestean arin eta lizun ibilitako neskarcn bategaz ezkondu, eta bizi guztirako zer-esana eta berba-lekuetan batetik, eta bestetik bizi nasai eta ardurabako baten lotuko etc zan.

Euskaldunen artean, famili askotan, emakumearen osotasunari asko begiratuten eutsen ezkontzak egitean, batez be amatasuneko zeregiñen bidetik.

Birgintasun cdo osotasunaren probak egiten ekiczan. Agirian batzuk, ixillcan bestcak.

Azkcñ oncitako bat zan, ezkondu eta lenengo gaua igaro ondoren, ezkon barrien orko izarak aztcrtutca. Orrela jakiten zan neskarcn eme-mintza egun aretan zulatua izan eta zan cdo aurrez erabilia.

Tximista'rcn ezkontza eguneko gau ondoren, famili biak ixil-mixillcan alkarri satorkcriz aitzakia billatzeko gertu egozan familiak, arrotasunczko poza erakutsi eutsen alkarri. Izaretan odola agertzen zan, cta ori, orduko gurasoen esanetan, neska ezkontzara birgin joan zan ezaugarri izaten zan.

Bestalde gero, nai eta seme-alabarik euki cz, Tximista'rcn

andre ederra, etxe barruko bizitza zale ikusten zan, senarraren maitale, eta txalopak eskatzen eban andrazkoen laguntzetara oraindik mardul egoan ama joaten zan *lez*, andre gordin eta indartsu egoalako eta bizi guztian orretara oitua, emazte gaztea etxea txukun apain eta egoki eukiten alegintzen zan, eta senarra bc, igarri barik, etxe-gizon biurtu eban.

Umezurtz geratu zan erriko arrantzale baten alaba etxerako artu eta maitasunez zainduten jakin eban.

Abadeak be asi ziran zirikadak jaurtiten eta giro berezi bat sortuten. Euren ústctan, cztabaidagarri ziran erabagi batzuk arztarren, ezin eikezan gizonak irabazbiderik aldendu edo artara joaterik galerazo. Ortarako egunak be egongo ziran, neguko egun larri edo ekaitzaldietan.

Tximista'k lotsa andia eutsen abadie, lendakari *lez* sarri alkarregaz egon bearra be eukiten ebelako. Arcin eritziak be estutu eragiten eutsan eta kezkat laga.

Alkatea be arduratzen asi zan.

Une txarran alkartu ziran biak.

Egunctako gorabera aitatu ebenean, Tximista'k destaiñ z erantzun eutsan, leortarrak ez eukela zetan sartu mariñelen bizitzan. Kofradian berak agintzen ebala eta berak ekiala zer egin eta noiz neurri bereziak artu; bera *ez* zala iñoiz be Udaletxeko goraberetan sartzan; batak alkate makilla ba eukan, arrotasun eta onore *lez*, besteak legerik zarrenetako kutxa zarreko giltza eukala. Obeto egingo ebala etxetara urak eroaten eta sartzan alegintzeagaz, ura be umientzako janaria baizen premiñazko zala-ta.

Ordu beteko pelota jokia euki eban biak, euren artean, baiña ori *ez* zan lenengoz gertaten zana, eta *ez* zan origaitik asko kezkatu eta artegatu eta beretik urten be *ez*.

Eguenean be gizonik *ez* zan batu.

Ez eta barikuan be, eta itxurarik be *ez* batzeko.

Egun orretan, ikaragarritzko naste eta matxiñada sortu zan Kofradi etxearen aurrean.

Erriko andrarik geienak, ia arrantzale familietako andra geienak, batu ziran bertan, euren umeak besoetan zituezala, gauzak beriala amaitzeko eskatzen, eta geiago luzatzekotan, Ko-

fradiko «aberastasunen» kontura, edo Jaungoikoak jakin eikean tokitik atarata, diru partilla eskatzen.

Gogor, gordin, larri eta bildurgarri batu eta agertzen ziran emakume areik. Bat batera, iñok ezer pentsatu baiño len, gaiñe-ra.

Ez eban iñok orrelako zerbait gertatu eikeanik sumatu, ez oartu.

Bat edo bi batu eta kaleetan zear lagunei deika asi ziranean, berezko indar batek eraginda lez, ziurretik goseak eta larritasunak estututa, Kofradi aurrera joaten asi ziran.

Eskari larriak egiten zituen:

Umiei titirik emoteko be ez eukela.

Aspertuta eta lotsatu egozala, arrain sasoi baten, eskaleak lez etxe batzutako ateak joten.

Ez egozala gizonak sagardautegetian egon eta euretariko asko, zerbait erosi bear ba eben, ibai eta erreka ondoko basa eta kakak kentzen ibilteko, egun argiko ordu guztien ordez errial bi irabazteko, ogibide zikin orregaz umien osasuna arriskuan eukiaz.

Egoera ori luzatzekotan, errian egozan janari dendak utzitu egingo zituela Kofradiaren kontura.

Mojen antzera kandauak ipiniko zituela eurak ekiezan tokietan, ia besterik ezean kezka orrek gizonak zerbaitera beartzen zitun.

Gizonak agintzen ez ba ekien eta bear ziran erabagiak arzteko almenik ez ba euken, lagateko eurei Kofradia, angoa egingo ebela kezka barik eta gizonak joateko itxasorar

Berotuta, sututa egozan andrak.

Eurenetik urtenda asko, zenbat eta geiago an iraun, gero ta larri, gangar eta zoroago.

Atea joten asi ziran.

Ez eutsen iñok zabaldu nai izan.

Ba ekien norbait egoala barruan eta origaitik gero ta gogorago ekiten eutsen curen eskabidean.

Erantzunik ez eukela ikusita, arrika be egin eben osorik egozan iru edo lau leiarretara.

Iñor konturatu baiño len, bear ba da aolku edo laguntza eske, Tximista lendakariak atzeko atetik iges egin eban.

Nora?

Abade nausiaren etxera.

Paulo geratu zan bakarrik Kofradian, kaka larritan.

Arek ez eukan ez adorerik, *ez* gogorik, *ez* bizarririk, une aretan andren aurrera urteteko.

Berak maiteen eban alaba nausia bc an ebillan, begiak tarte batetik begiratzean guzurrik esaten ez ba eutsen, asarre cta ganguartsuen ebiltzanean artean, aurrekocnen artean, gora-goraka.

Atea apurtu naian ebiltzala eta alaxe egingo ebenaz konturatu zan. Tranga lodia sartu eutsan, besterik ezean, besteak etorri artean eusteko asmotan.

Tximista, abadearen etxean, izerditan egoan, mesede eske, belauniko *ez-c* beste era guztietara.

Abadea bialtzea nai eban, emakumeak baretzera.

Iñoiz tokien baten matxiñadetan egin ebela-ta Gire Jaunagaz urteteko eskatzen eutsan, besterik ezean nunbaitera cleiza-koak eroatcra ba cioan lez, txilin otsa entzutean andrak baretuko ziralako ustez eta bitarte aregaz baliatu zerbait aolkatu edo agintzeko.

Abadaca oso-osorik ukatu zan orretara, gauza batzuk *ez* dirala artu bear norberaren naia indarrez edo lotsaren estutasunez erabagiteko-ta.

Zerbait pentsaten lagateko eskatu eutsan eta bere gclara joan zan.

Andik laster biurtu eta esan eutsan bera laguntzera gertuko zala, iru baldintza betetekotan.

Arnasa lakoa artu eban, ori entzutean.

Abadeak bereala agertu eutsazan iru baldintzak.

Asierako Tximista berak alkatea ortarako zuritu ta pccgoi bat jotera beartu, andrea aurrean, iru agintza egiñaz:

Bat.– Zela-ala batzarra astean bertan amaitzeko, eta amaitu ezik, batzarreko gaia bertan bera bastertzen zala eta gizonak itxasora urteteko baimenagaz gelditzen zirala.

Bir– Abadeak domeka eta jaietako etxean egon bearra par-

katuten eutsela, gizonak pekatu barik urten egien, baiña beartuta geratzen ziran egunik galdu barik astean bertan itxasora urtetara.

Iru.– Egun berean ogeina errialeko diru partilla egingo zala Kofradiko bazkide ziran familicn artean, baiña bestetan egiten zan lez, ortik iru zati etxerako ta beste zati bat gizonen patrikarako barik, dana, osorik, etxetarako izango zan baldintzagaz.

Ezer erabagi baiño len, Paulo agertu zan izerdi likiñetan, estu ta larri. Andrazkoak atea apurtu eta barruan sartu zirala, eta andik iñora cz ebela urtengoko ebiltzala.

Orrez gaiñera, maste nausitik bandera gorria erria nai izen ebela, eta tcngrada baten soka eten jakoclako, ezin izan ebela.

Eta gizonak? Iñor ez al da urreratu?, itandu eban kezkatu eta min artuta lez Tximista lendakariak.

-Nor joateko ara? Niri neuri be koskabilluak ebagiko daustczala esan daustc, berba guztiekaz esan be, ordu erdi barru zu billatu eta bctara eroaten ez ba zaitut.

Ori zuri egin leikixue, baiña kostako jakoe niri egitea, andra txatxala eta txotxin orrei.

Tximista'k ez eukan alkatearengana joateko gogorik. Bezperazko jardunean alkarri geiegi esanda egozan.

Laster igarri eban ori abadeak.

Eta? Bai ala ez?, itandu eutsan Tximista'ri.

Onek, ezcckoaren agiriak cçiñagaz, barbarik ez eban esan, bai arpcgi garratza ipiñir

Amaika gauza egin bear izaten dogu abadeok! esan eban arek, eta ziurtzat emon lortuko ebala alkatea beragaz eroatea.

Baiña ta beste gauzak?

Batzarrarena zer? Amaituko da?

Amaitu leike eta orrelako matxiñada bitarteko dala, era batera edo bestera amaituko da.

Eta ezin ba da? Esandakoa egingo da?

-Nire aldetik bai.

Ziur?

Zer, baiña? Bandera erriatea? Ori da esan nai dozuna? Berba emoten daustut nire aldetik kenduko dala. Jakiña, batzarra

egin ondoren edo ortako alegin ondoren.

Eta ba daukazu indarrak gizonak lenbailen itxasora bialtze-ko?

-Andrak ez dautse lagako oean egoten eta joan bearko.

Eta irugarrena? Dirua?

Ori nik ezin neikeana da.

Zegaitik ez?

Miraririk egiten ez dakidalako. Zelan famili bakoitzari ogeina crrial emon, zentimorik ez dagon tokitik?

Errogatibak eginda be lortuko eta litzake orrelakorik?

-Tximista, olgetak bere sasoian.

Orrela ebagi eutsan abadeak Tximista'ri bere zirikadea.

Benetan be ez daukazu ezer?

Guk ez. Orretan egí ziuorra esaten dautsut. Guz ez daukagu ogerleko batik be aurreratuta. Eta zorrak daukaguz.

Danokin batera zeu be alegin egitera beartutea nai ta ezkoa da.

Nire dirutatik emoteko be, etxeko guztiak batuta be, bos-tcun crrial ozta-ozta batuko neukez.

Ori entzun eta abadeak geitu eban:

Alkateak beste bosteun emoten ba dauz, nik Mutriku edo Markiña'ko mojaci kendu neikiocz beste milla, erdi banan, edo batek dana, ori ikusi bear, eta urte beterako, eurak nai izaten dabenez, oi dan korriduagaz, eta jakiña, bear dan lez crantzutekotta. Bestela ez nitzake sartuko ni, zeu bialdu baiño.

Zer deritxazu?

Ezcr esatekorik?

Tximista'k zerua zabalik ikusten eban, eta bai, bai, bai, besterik esaten ez ekian.

Abadeak geitu eban: Au gure arterako baldintza: Iñok ez dagiala esan alkatea eta ni Kofradiko gauzetan sartu garcanik, gure indarrez, zeuk mcsdcz eskatu arte.

Bai, bai, bai, ondo dago...

Eta Tximista'k Paulo bialdu eban adrekana, esateko aginduz, lenengo Kofradi barrutik urteteko. Ezetan asi baiño len ori egin bearko ebela. Eta ori egin ondoren, billatuko zala urtenbi-

de bat.

Abadeak, jendea obeto czagututa, beste eritzi au emon eban: Barruan ba egozan, ez ibilteko kanpora ataraten indarrez, garratzu baiño ez zitulako egingo. Bakar-bakarrik, mesedez geldi egoteko' esateko, egoera orretatik urteteko alegiñak egiten iñardueta-ta.

Eta nai ta Paulo aitzakiak ipinten asi, Tximista'k tatarrez bialdu eban, orretarako be balio ez ba eban, berak jakingo ebela zelan jokatu esanez.

Paulo Kofradira eldu, urten eban lez atzeko atetik sartu, eta andrekana agertuz batera, zarataka eta asarreka asi jakozan:

Nun dagoz orreik gizon ozkillok^

Eureri emongo dautsaguz ume errukarri oneik, ia nundik eta zelan bete eta baretzen dituen ume koitaduok.

Zetarako da landakaria, Kofradian zer gertatena dan jakitako kezkarik eta ardurarik ez ba dauka?

-Ez al dau andreak bear aiña igortzi goizaldean? Bearrean ba dago geu joango gara eta len be eskarri ezin izan daben umea be lagako dautsagu, berak balio ez ba dau guk ba dogu-ta.

-Ixil egon zadiz, Balentiñe, geure gizonak be, bera biaño obeto serbiduta egonarren, ez dira iñoiz be asetzen-cta.

-Geuk daukaguz erru guztiak, urreratzen lagaten dautsegulako. Egin dagiezala gauzak Jainkoak agintzen daben moduan, eta orduan biziko gara eurak nai daben eran.

Andrak euren artean, bakarrik dagozenetan, gizonak baiño zarata eta naste eta erretolika geiago erabilten daben lez, keixu egoan Paulo tarterik artu ezinda.

Eta zarata eta algara aretan, alako baten bare aldiko abagunea igarri eta bere abotsa entzun eragitea lortu ebanean, une aretan an igarten zan nastea nasaitu eta arindu orde, geiago opildu eta biurritzea lortu eban, andrei esan eutselako abadea eta alkatea eioazala, Tximista lendakariak bialduta, kontuak artu eta enpatxu a argituteko asmotan.

Bere esanetan errian pregoilariak pregoia joteko eban, zer egin bear zan eta ze erabagi artu zan adierazoteko.

Ori entzun eta andrak len baiño gogorrigo zarataka ekitea

bat izan zan. Andrak euren can gogortu egin ziran eta iñok, cdo-
zcr gertata bc, andik cz urtctckotan geratu ziran, bcsocan euke-
zan urnc txikiei ondoczen batek cdo ezin eutsi cragindako estu-
tasun cdo gaitz gogorren batek jo ezik.

Estutasunak ittoten

Abadeak, alkateak eta Kofradiko lendakariak izaten ziran
itxasertzeko errietan gizonik andicnak. Altsucnak bai beintzat.

Alaxc Ondardi'n.

Eleizako abadeak kenduta, urtero aukeratzen ziran besteak.
Alkatea urte barri egunez eta Kofradia'ko lendakaria (arrantzale
kofradikoa) dornusanturutan.

Euren taldeak eta curen batzarrak eukezan, oneik be urtero
.barriztuak, baiña areik, beste irurak, nai ebena egiten cbcn. Oi-
tuta egozan orretara, eta euren nortasunaren zerbait zirikatu ez-
kero, errezago.

Errietan, sarri azpikcriz berbetan jardunarrcn, iñor ez da
ausartuten euri aurrez-aurre konturik cskatzcra. ori, gure errie-
tan, Luzifcr'en jarkialdia lakoa izango zan.

Iñor bere aurka ezer esaten ausartuten ba zan, eta berak ja-
kin, kartzclara eroango ebala eta an lo cragingo cutsala, esaten
ekian alkateak.

Kofradiako lendakariak, ezer csaten jausten zanari, bera
agintzen egoan artean Kofradiak estutasun dcnporetan cdo ta jai
batzuen aurre-egunetan egin cikcazan diru partillarik cz ebala
artuko.

Abadcak lagun artean csatcn ekian, berak dana parkatcen
ebala, baiña cz ezer jakinbarik zitalkcriz marnlarrean iñarducncn
jardunik. Bardin cutsala andre txatxalak edo «gizontxoak» izan.
Abadea cztabaidatan ipintea, Eleiza bera eztabaidatzca esan eta
sinistu be egiten eban.

Egun onetan bc, abadeak, parrokoak, beste bere abade la-
guntzailliei ez eutsen ezer esan. Diruak berak gordetcn zitun lcz,
berak aurreratu zitun, Mutriku edo Markiñako monjackin bcr-

ba egin baiño len, ba ekialako oneik, curen dotetzako artzen zitu-
tuen diruei erredituak atarateko garretan egozala, mozkiñak atara
bear eutsezala, bizi al izateko, kapitala edo dirutza nausia jan
barik.

Abadeak alkateari gertaten zana agertu eta lau berba egin
eutsazanerako, onek, nai eta liberala izan, abadearen itzala eta on
eritzia bear izaten eban bere gauza askotarako, eta bereala agin-
du eutsan erriko diru batzaille eta arduradunari, ezelako aitzaki
barik, goiz aretan bertan bear zitula bosteun errial, urte batera-
ko, euneko bostean, eta diruagaz batera bear ziran egiaztapenak
idatzita eroateko Kofradi'ko lendakariak izenpetu egiazan.

Kofradiako lendakariak, nai eta arduradunak eta maordo-
mua curen artean urtero aukeratu eta bizi, onek kontuak egin
eta diruak batu egiten zitun, baiña lendakariak gordeten zitun
danak, eta aurrerako jardunean Kofradiak ezelako dirurik ez eu-
kala esanarren, egiten iñarduezan mollak ordaintzeko ataratako
diru zati bat etxean eukan, eta ez eban iñori esateko gogorik
euki, iruren artean artu eben erabagia beteteko.

Paulo'k esan eutsen lez Kofradian batuta egozan andrak *ez*
egozala ixilik egoteko, erri-zaiña (aguazilla) be eurekaz eroatea
pentsatu eben.

Erri-zaiñak, zeregin orregaz batera, ba eukazan beste ardurak
batzuk: Erriko deilari (pregoilaria) zan, txistularia, eta beste zere-
gin batzuen artean, aukerako bat billatu arte, eleizako sakristau-
tza be berak egiten eban.

Gizon txikia zan, baiña buru-eritzia, eta andrak esaten
ekien lez, prakak betean ibiltzen ekiana.

Iñok *ezer* esan ezkerok, erreta lagaten eban arek, edozein
izanarren, etenbako berba txar, zantar eta lotsagaldukoekaz.

Aguazillak, ezagutzeko be, bizitasun guztia galdu eta lur
kolorea artuta eukan txapel gorria jantzi eban, eta tanborragaz
batera, esku-makilla ordez erabilten eban idizil luzea.

Alkateak, nai eta Kofradian aginpiderik euki ez eta orren
goraberan autu asko erabilia euki, kalean gertatu eikean edozer
argitzeko be, alkate makilla beragaz eroatea nai izan eban

Egun onetan ez zan ortaz ezer esaten Kofradiko lendakaria

ausartu, bestela dana bertan bera lagateko arriskuaren bildurrez.

Aurrez alkateak berak idatzi eban pregoilariarentzako agindua, eta onek irakurten ondo *ez* ekian lez, izki aundi edo maiuskulakin gertu bear izaren jakon papera, txikirik irakurten *ez* ekialako.

.....

Orrela, dana ondo zeaztuta ete egoan iruren arrear berrirakurri eben egin zan paper ori.

Kofradi etxera joan ziran, abadea bere manteo ta guzti, kallean zabal-zabal, kale guztia beretzako artuta.

Kaletik igarri eben barruko zaratca.

Lendakaria sartu zan lenengo, eta oneri ikaragarrizko arrera egin cursen, zarataka, esanalak esanez.

Berbaro a entzun éta alkatea eta abadea ez sartzeko egon ziran, barruko gauzetan eurak ez eukela zer ikusirik eta lenengotan, besterik barik, Kofradi aurrean prcgoia jotea be pentsatu eben. Baiña bakeagaitik dana egin bear dala ta abadea ausartu zan atean agertzen.

A ikusi eta berbaroa bereala joan zan amataten Eta orrelakorik uste *ez* eben *lez*, andra guztiak lenengoz beintzat lotsatu eta mututu egin ziran. Une egokia izan zan alkatearentzat bera be abadearen itzalpean «lotsaz eta duitasunez» aii sartzeko.

Abadea kezkatu egoan, baiña lagunarte aretan igarten eban ixiltasun arek, berari eutsen lotsa erakusten eutsan. Eta barrurako poza lakoa sartu jakon.

Bear ba da gero, bere aurka egingo eben batzuk, baiña banakako jardunetan. Baiña ziur egoan osotasun baten, talde andi baten, *ez* zirala ausartuko. Eta batez be egun aretako algaradan berak zer ikusirik ez eukala danak sinistu eta jakingo eben.

Orretaz ziur egoan, an ikusten zitun emakume asko, andre otoizlari, fedetsu eta barru oneko zirala konturatuta.

Alkatea asi zan berbetan.

Bera ez zala sartzan Kofradiko gauzetan. Arrantzaleak erri-tarrak izanarren, curen berezitasuna eukela curen gauzctarako

cta origaitik barruan gertaten zanatzaz ez ebala ezer esan nai, baiña erriaren mesedean, gauzak beste era baten agertzen ikasi bear ebela, esan eutsen, cta ortarako ba egozala beste bide ego-kiago batzuk.

Andra batek urten eutsan, esaten, berak gosea sarri ezagutzen ebala bere soiñcan, eta ba ekiala aoa askotan zabaltzen, 'asarric barik goscari era orretan eutsi nairik, edo ta negar ixillcan itto. Arrantzaleen artean, errian, gose egunak geiago zirala, ondo edo crdika asctakoak baiño. Alaz eta oraingoa legetik .kanpoko gosea zala esateko lotsarik ez eukala. Arrain sasoian, eurak zegaitik zan *ez* (*lela, bandera gorria jaso eta aste betean etxean arrantzara urten barik egotea, ori ezin eikeala iñok ontzat artu. Bertsoak atarako dauskuez laster, miscrian bizi garean erri izan eta jana aurrean euki eta ukatu edo ta ardurabakotuta bere billa urreratzcko gogorik agertzen ez dogulako.

Alkateak erantzun, konturatzen zala, baiña algaraka ibilteak indar geiago erabili bearra eskatzen ebala eta orrela gosea bera geiago auldu.

Dana dala, berak, egun aretan eta unc aretan, erriaren alde- tik zerbait ipinteko alegiña egin nai ebala ta...

.-Guk premiña bizia dogu, baiña Paulo'k esan daben asmo- rik ezin giñei borondatez artu.

Agertu dautsue *zer* pentsatu dogun?

Bai.

Eta benetan be ez dozue onartuten gure erabagia?

Zelan lagako dogu alkatea edo gure abadea guri kontuak artzera etorten?

Nok esan dau ori?

Zer egin dogu guk kontuak artzeko? Gosea dagola ta emen batu? Noiz da ori pekatu? Oraindik barbarik egin ezin dabenen orde, curen amak ortarako eskubiderik ez ba dogu, nun dagoz gure eskubideak eta nun bizi-bearrak emoten daus- kuzan Legezko alegiñak?

Abadea konturatu zan an okerren bat, edo oker ulertzeren bat egongo zala bitartean.

Eta itanduten asi zan:

Egoera au amaitzca ez dozue nai%

Bai! Bai! erantzun eben andrak ao batez.

Orretarako gizonak itxasora urtetea ez dozue nai%

Naiko ez dogu ba?

Eta egun oneitan eskuartean zerbait erosteko euki dagi-zucn, cgunotako kalteak zela-ala arintzeko, cskalc lez barik, beti lez zorretan barik, nortasunez dendetara joan al izateko, edo ba-koitzak nai dabena egiteko, diru pixkana aurreratuta barik, urrengoan ordaintzeko barik, iñoiz zucn artean egiten dozuen lez, diru partilla lez banatu eta emotea ez dozue nai%

Agindua bat eta izana bi, entzun zan abots me eta dardara-ti bat.

Aginduaz bakarrik kontenta adi, erantzun eben ia bat-batera, sornatsu geienak.

Ni cz nua nirca ez dan meriturik artzen. Zuen lendakariari dagokio kontu ori al danik argi eta zeatzen emotea, baiña nik bai cskatuten dautsuet alegin egin dagizuela zuen gizonen kontzientzietan sartzen, zuen aita, senar edo seme zintzoen gogoe-tan, eginbearren ardura biztuten. Batzarrera deituten danetan, joan daitezala eta gauzak erabagiten alper eta nagikeriz jokatu barik, zintzotasunez jokatzcn alcgindu daitezala, danon mese-dean. Ez bakarrik zeuon mcsedcan, bai eta erri guztiaren mese-dean be.

Tximista lendakariarentzat geratu zan gauzak argitasun eta zeaztasun osoagaz emon eta zabaltzea.

Pozik artu eben andrak ogeina crrial banatzeko erabagia. Premiña gorrian egozan. Dendariak be, zorretan emoteko, aitzaki bako etxc-egotctan, arpcgi illunagaz emoten edo aurreratzen eben.

Diru kontuan, illeta joten cbillan Kofradiak ain denpora gitxian ainbeste batzca miraritzat cukcn. Ez eben sinistu nai. Ba-retzcko zurikeriren bat zalakoan cgozan. Gaiñera, dana eurentzat izateak, arroago lagaten zitun eta cskubidc gciagoz. Era orretan emonagaz, ordurarteko politika be apurtu cgitcn zan irabazici buruz.

Arrantzaleak oiturazko izaten eben, txalopctako irabaziak

banatzean, eurentzako zerbait eskutatu eta artzea.

Ala, txalopa batek bere asteko kontuetan, lenengo jaubeagaz egiten zitun oiturazko ziran banaketak. Au da, txalopeari eta txalopa jaubeak ipinten zitun sare eta tresneri egokien zatia alde batera lagaten eben.

Arrantzaren ia balio erdia emoten zan ortarako.

Gero, beste zatia gizon artean bananduten zan, danen artean batzen ziran zatiak (soldatak) alkartuta.

Ala patroiak besteak baiño geiago artzen eban, askotan birek aiña, eta besteren batek, sota-patroi edo laguntzailleak, bat eta erdi edo geiago. Arrantzale soillak, tostartekuak, bana eta mutil asi barrien batek, txikitxo ba zan, erdika.

Apurren bat lagaten zan, baita jai egun andiren baterako, oiturazko jaietarako. Aratuste (iñauteri), San Pedro Txiki eta abar izaten ziran orretarako aukeratuakr

Ba euken zati berezi bat.

Zati bakoitzari, esate baterako eun errial irabazi lez gertatu ezker, partilla edo diru banatze bertan erabagiten zan larogeina egitea. Orrek esan nai eban etxerako larogei zirala eta andik gaiñerakoa gizonen patrikeretako, eskutuko boltsarako.

Zati oneri «ardau dirua» deitzen eutsen. Beste batzuk «amari ez emon».

Etxerako dirua txalopako «maistresak», txalopako zeregiñak egiteko ardura euken andrak eroaten eben bakoitzaren etxera, eta gizonak euren artu.

Jokabide orrek ba eukan etxetarako ziurtasun bat. Etxerakoa, etxean emoten zala, eskuz esku etxekoandrei edo bertako arduradunari, dirutza orregaz gizonak, guraso nai gazteak, euki eikezan bestelako makurkeriak kendu edo galdu eragiñaz.

Ziurra da beintzat, etxeko premiñik andienetan be, gizon askok nekez ataraten ebala euren «ardau dirua» etxe 'laguntzarako. Ori diru «sakratua» lez zan gizontasunaren eskabidetarako. Banakak izaten ziran andrei edo emazteei eskintzen eutsenak, eta orrelakoei emekeritzat etsiten eutsen euren jokabidea.

Irabaziak era orretan banatutean, bakoitzarentzat, edo txalupenak, jakiñak izaten ziran Ondardi'n, eta iñok ez eban lotsarik

be eukiten zer egin eben adierazteko.

-Zenbat egin dabe zuenak?

Zenbat egin dabe Txitxarro'k eta? Eta «Aingeru baltzak»?

Orrelako itaunak eguneroko ziran andren artean, bai eta gizon askoren artean be.

-Etixerako onenbeste eta «ardau dirua», «amari ez emon», «laika» edo nai zan deiturea bestearentzat erabilia, gizonentzako aren beste.

Euren artean egoten ziran ez bardintasunak. Batzuk geiago arrantzatuta, etxerako gitxiago irabazten eben, eskutuko diru orren mesedean.

Edozetara be, an batuta egozan andrak, Tximista'ri nekez sinistuarren, besteak an egozala lekuko lez eta esaten ebana iruntsiten asi eta aintzakotzat artzera eldu ziran.

Beti be eskintzen ziran iru puntuei buruz, geiagorik aitatu barik, jardun eban lendakariak, eta batzarra zegaitik amaitzen ez zan, edo ta zein burugogorreri bernak ebagi bear jakozan itanduten ausartu ziran batzueri, Tximista'k ez eutsen jaramonik egiten; ez zan ausartu iñoren aitzakirik ipinten. Bi irutan erantzun au emoten eban: Gu geu besteak ez lakuak egin ginduzan gure Jainkoak-eta!

Andrazkoak lotsarik geien abadearen aurrean erakusten eben.

Damututa lez egozan.

Sekula ez ziran ausartuko abadeak egin, eskatu, agindu edo sortu eragindako jokabide eta egoera bateri buruz era orretan erantzuten.

-Ai, Jauna, berorreri be atsekabea sartu dautsagu guk. Ia ba. ittota gagoz eta zerbait egin bear. Onetantxe amaituko ba litz be!

Ume koitaduei lotan be ez dautsazue laga gaur. Eroan egizuez gixarajuok eta ondo beteta kumatan ipini.

Nundik ondo bete, jauna?

Gure mundillak (bularrak) bete egin bear izaten dira lenngo, oneri emoteko!

-Txikiña abade santuaren aurrean zeu ez asi geno edozela-

ko berbak esaten, ez pentsa gero geure artean gabiltzanik.

Obarik jakingo dau eta ziurretik gorritu barik entzunda.

Berbak jakitea sekula be ez da txarto etorten, erantzun eban irri-barre txikia eginda, abadeak. Askotan zuek berbetan eta norbera linbuan sartu ez daiten be.

Berori linbora ba dua, akabo gu!

Abadea ez egoan egoera a luzatu eta an jarraitzekotan.

Pregoilariari agindu eutsan alkateak, Kofradi aurrean bertan asteko lenengoa jotzen denporarik galdu barik, idatzita eukan pregoia, bai eta arratsaldeko iruretan asiko zala batzarra eta antxe banatuko zala agintzen zan diru partilla be adierazoteko, geitu eutsan Tximista lendakariak.

Alaxe, pregoilaria kalean pregoia jotzen asi orduko, andra guztiak Kofradiatik urten, eta entzun-ala uxuka artu eben erabagia eta beste barik etxetara joan.

Txikotak erriaten

Arratsaldean, irurak orduko, danak egozan Kofradi aurrean, batzarrerako ateak zabalduko zain.

Banaka baten utsunea artu eikean, baiña gaitz. Ala ba zan, gaixo edo eziñekoen batena izango zan.

Aitzakiren bat edo beste artuta, emakume batzuk igaro ziran, ia eurenak urreratu ete ziran zelateka.

«Arrain gaiztuak barra barrenean», esaten eben eurekaitik an egozan batzuk, ba ekielako zetara urreratu ziran, beste gertaera askotan be alakoxeak ziralako.

Batzarra asi zan.

Eunerako bi falta. Burua galduta ebillan bat eta ainkako zaintiratuz oker ebillan bat.

Asarre arpegiz jazarri zan Tximista mai buruan.

Aztu egin jakon oiturazko zan otoitza be eta batzarkideak agurtu barik, onela asi zan:

Danok dakizue gaurko matxiñada.

Ez dakit euren bostean asmatu daben edo tartean egongo

dan euki daben zirikalaria.

Gauza bat dakit: txarto esanda, andrak pongolak erakutsi dauskuezala.

Eta ni orretarako ez nagon lez, konturatzen ba zarie gaitz-ena egin dabelako eta urrenguan burutik bera kakarik egin *ez* dagizkuen, ia erabagi bear dana ainbat lasterren erabagiten dan eta danok obeto, auzo errietan bertsuak atara baiño len.

Ori esan eta geitu eban:

Nik ez dakit zein dan emen buru gogorrena.

Zeu bat!

Ixilik egongo zarie ala? Entzuten ez dakizue? Iñor aitatu dot orrela erantzuteko?

Ez dakidan lez, eta nai ta nik pentsatu *ez*, neu izan ete neiken pelotea aidean artu dodan lez, eskari au egiten dot: Gaurko batzarrean iru zarrenak jarri daitezala mai buruan.

Zegaitik iru zarrenak? Ez dira ba zarrenak azurrak gogor eta lotuenak eukiten dituenak?

Gaztenak orduan, ko...rtxetas!, erantzun eban gogo txarrez.

Bai andrak odolak berotu be!, atzetik batek.

Ixi! urten eban danen aotik, bat batean, burrunbada andi lez.

Ikusten zan batzarra amaitzeko gogoaz batu zirala geienak.

-Emen zarrena ez ba naz be, zarrenetarikua neu izan neiken *lez*... tartetik urten eban Simon'ek. Eta zutik jarrita: Nik eskatuten dot, or aurrian dagozan iru gantzeruak be...

Asarre asi zan jendea. Ez jakin Simon'ek benetan ala zirikalari, edo ta igarri barik urtenda esan eban berba ori. Bereala asi zan: Parkatu, parkatu, iru deilariak esan nai neban. Gizonak, ez txartzat artu, urten egin daust neuk be zegaitik ez dakidala, berba orrek. Burua makurtzen nator. Baiña neure antzera iru deilariak be makurtu dagiela.

Gizonak. Arrua naizela esaten dabe. Arro ez danak, atzamarra jaso dagiala. Baiña parke cskatuten nator.

Ni Peru'gaz itxasora joan nitzanean, beti lez, eta beste askogaz egin nai neuken zeregiña da ori, arrantzaleak, arrantzale gazteak itxas eskola bear dabelako, beti *lez* berari arrantza kon-

tuak erakustarren joan nitzan. Tokiak. urak, ooldiak, egualdia, erramutarako era, belak... ez al da umetan erakustea obe, gero ezin ikasita, askotan ikasi be ez egiteko eran ibili ordez?

Eta mendebala sortzen igarri gendun.

Or geunkan beste ikasbide bat.

Gure bakartadea ezagutu gendun eta bildurretan gcntozan etxera, portuko sarrera mareagaz batera egin naian. Baiña ez giñan sasoiz eldu, eta portuan sartzen asi ezkerero, ondoratuko giñala pentsatu neban, mutillari agertu be bai, eta itxas zabalera urteteko egokitasuna jakin eragin néutsan, an errezago eusteko asmotan...

Ondo egin neban edo ez?

Ondo!, erantzun eben geienak.

Ori da norbaitek esan leiken nire pekatua. Bear ba da nire setakeriaz pentsatuta. Orrek zigorrik merezi dau edo ez?

Edozeiñeri gertatu lei ori.

Geiagotan be orrelakoak ikusi doguz.

Zoratuta ezik, nor izan lei egoera orretara borondatez makurtu leikenik?

Ziur egon, ba, orrelaxe gertatu zana. Eta orain beste bat: Orrek sekula gure artean zigorrik merezi izan ez ba dau, deiláriak ba dauke gure araudietan iñori boletoa kentzeko eskubiderik?

Bat bateko erantzuna izan zan: Ez!

Entzun dozue?

Zetan jarraitu onetan? Batzarraren aurrean buru gogor jarraitzeko eskubiderik iñok ba dauka?

Batzarraren bat-bateko erantzun ori artu, eta jarraitu ete leikie eurenean deilariak?

Ez da boletoa bakarrik. Eta berbak?

Laga egiozue berbei aidean galtzen. Alkarri esanak ez ziran ba?

Berbei jaramon egin ezkerero, andrekin be biziko eta giñateke?, urten eban batek.

Eta jarraitu ete leikie Kofradiko lendakariak bandera gorria erria nai ez da, bein batzarraren erabagia jakin ezkerero?

Danok gertu%

Ez uste andrak menderatu nabenik.

Urrengoan berba egingo dogu, zein dan lendakaria gaurko diru partilla agintzeko, nundik eta zelan atara daben ortarako dirua eta abar. Ortarako, gauza bakoitza bere sasoian, domu-santuruak urrun dagoz, eta kaskarrak obeto argitzeko denpora artuko dogu.

Tximista lendakariak, bere aldetik, batzarra ainbat ariñen amaitzea nai eban lez, dirua zelan bananduko zan agertu eban, eta danentzako egoala ta nasai ibilteko aolkatu.

Besterik?

Jendea ixilik ikusi ebanean, bandera lenbailen erriatua izan daitela esanez, batzarra amaitutzat emon zan, asi eta ordu erdi baiño len.

Urrengo egunean, deilariak beti lez egualdiari eta itxasoari begiratu eutsenean, arrantzarako urteteko eguraldi egokia etc egoan edo ez ikusteko, deirik ez jotea erabagi eben, eguraldi berdea egoala-ta.

Batek baiño geiagok esan eben, iñoiz a baiño baltzagoagaz urteera egin zala, eta egin zan partillari emon eutsen errua.

Alaz eta biaramonean, domekan, abadeak goizeko iruretan emon eban goizaldeko meza, arrantzalien meza, eta txalopa guztiak zintzo egin eben curen urteera, aitzaki eta nagirik barik.

Simon penatan geratu zan.

Oraindik indarge billatzera eban Peru.

Baiña albakoa jo, eta lenengo mezatarako elizpean Mikol aurkitu eban. Ez ekiala zer egin eta txara batzuk ikustera joateko asmoa eukala jakin eragin eutsan.

Gaur, itxas amurrua lakoa daukat ba nik. Ez dakit zegaitik, iñoiz ez aiñako guraria.

Ori entzunda, berak lagunduko eutsala ta biak meza ostean txalopa gertuko ebela.

Mikol zalantzán geratu zan.

Laguntzen ba eutsan, meza ostean laster gertuko ebala txalopea, ortarako garretan egoala-ta, geitu eutsan Simon'ek.

Baiña kanpaia jo eban, sarrerako kanpaia, eta oituraz euken tokietan jezarri ziran.

Barruak arintzen

Domeka goizeko zazpirak aurretik, astegunetan *lez* domeketan be goizeko scirctan esaten zan meza ostean, bertara joan ziranak, andrarik geienak oial baltzakin eta gizonak brusakin, cicizpcan egozan, aldretan batuta. Urtcak ba'euken zer ikusi euren artean, agirian ikusten zalako cz zirala nastean alkartzen.

Abadea agertu zan, eta lenengo, bestctan lez, zar eta agurekin berbetara urreratu zan.

Ez eban mezatan scrmoirik egiten, ba ckialako geienak meza nagusitara be joango zirala, eta gor, lotu edo illundutako batzuk kenduta, gero be aukera eukiko ebela.

Oiturazkotzat eukan meza osteko elcizpeko egoera ori, atso agurkaz, erriagaz euki nai izaten eban asteko jardunaldia eukiteko, mundu zabaleko barriak cmonaz, eta batez be inguruko arrantza konteak eta errian esaten zana gogoratzekor

Ondardi'n gizon bik artzen eben egunkaria. Okertuta eta ezuri gaixoagaz ezin ibilita etxetik urteten ez eban osagille batek, eta abadeak.

Origaitik zarrak abadearen aotik zerbait jakin nai izaten eben, batez be mundu txar eta gaiztoaren ekiñaldiei buruz. Eta orrelakoen okerkeri eta gaiztakerien jakintsu ipinten zitun.

Benetan maite zitun abade arek erriko zarrakr Zur eta zentzuz jokutzen ekiela esaten eban. Latiñezko «patres conscripti» gogoratzen eutsen.

Atsegin izaten jakozan andre-gizon mardulak, baiña ez zitun ainbeste beteten. Zerbait aolku eta borondaterik onenagaz erakutsiarren, nai ebena egiten ekiela, esaten eban, eta zarren maitasunez barik, gaztien bildurrez bizi zirala. Origaitik sarri eukiten zitun eurekaz zaparrada batzuk, batez be bere asarreak eta errietak sermoietan egiten eta esaten eutsezelako.

Ortik kanpora gizon egitsu eta jator lez euken erritarrak euren abadea, eta lotsa berezi bat gordeten eutsen.

Gazteak, batez be mutillak, iges egiten eben aregandik.

Bat era artuten ba eban, laster itanduko eutsan: Noiz etxeratu eta oeratu ziñan domekan?

Orrelako itaunak erantzun txarra emoteko gogoia sartzen eutsen mutillei eta eurak esaten eben, olakoetan miñan gaiñean geratzen jakoen erantzunak urten ezkerro, danak be aizeak eroateko lez geratuko litzakezala.

Esan be egiten ekien gazteak, erri onetan jendea, geienetan goizaldean itxasorako urten al izateko goiz etxeratzen ziran erri onetako orde, goizalderarte neska laguntzak oiturazko dituen baserri baten ba lego, urtu egingo zala, abade arek gabeko kale-egoteari eutsan iguiñcz.

Umeak asko maite eben, eurentzako konpittak eta txokolate onak gordcten ckialako.

Egun aretan, domeka izanarren, arrain aldietan arrantzaleak eukiten eben arrantzarako eleiz baimenaz baliatuta, txalopa bat geratu barik, dan-danak itxasora joan ziralako, erritarren artean poz-aizea sartu zan. Eta abadea bera zan atsegiñen ikusten zana.

Origaitik, danekin irribarrezka ibili ondoren, Simon ikusiagaz batera urreratu eta esan eutsan:

-Jakin dot burua makurtzen erakutsi dautsuela.

Ikasi dodala egokiago eta ziurrago izan lei.

-Edozetara be ba dakizu makurtzcn?

Noiz egon naz gora begira parrokoaren aurrean?

Ai ene! esatea cz da naiko.

Ez eta kalean esaten dana asko sinisteko.

Ba dakit zuri esker amaitu dala nastea.

Nigaitik izan al zan bera astea?

Ez dakit. Danak elitzakcz ezezko.

Ez al dira buru asko serra-autszczo?

Itaun bat. Zenbat urte emen abade?

-Berrogei bai, ez sinistuta be.

Zenbat itxas ondamendi ikusi?

Nire urteak aiña itto isopoaz busti.

Ortaz lengoak zerura...

Bearrezko dogu ardura...

Ta zegaitik ni inpernura?

-Zegaitik dozu orren keixura?

Boletoa kendu eta zer egingo neban legorrean?

Besteak egiten dabena, gaba ocan eta eguna elcizpcan.

Barrezka asi ziran

Inguretakoak adi eta begira jarri jakocza,n.

Simon'ek ez eban maite orrelakorik. Zegaitik danak *egon* bear eurei begira?

Origaitik laga eutsan abadeagaz bertso joko ariñean jardun eta jolastuteari.

Abadeak jarraitu eban:

-Eta Mikol'ek zer diño? Otzarak salgai, arraiñaren zain?

Ni atsegiñez entzuten.

Norako asmotan? Txabolan lizunduko zara egunen baten.

Nirea betikoa da. Txara ikustera.

Kanpora?

Markiña'tik aurrera. Santa Eufemi ingurura.

-Ez dakizu ara argizaria gorrian lotuta joan bear izaten dana?

Ori Santa Eufcmitan eta ikusi bear non.

Danok ez zagoze gai?

-Eta nor zure zai?

Guk, emendik aurrera, txisa prakctan eta kandclak dindilizka sudurretan, jauna.

Orain be zuri irabaztekorik Simon...

Ez dozu pentsaten gaitz dala nai ta emonak emon?

Itxasora joan eta arru bete edo otzara bete arrain ekarri baietz, jokatuko neuke.

Zelan zagoz ba etxean, Simon?

la arimea be galduta, bakarrik. Len bi joan eta erria zarataka, eta orain bakarrik ba ninduke, zer?

Ez al dautsu laguntzen Mikol'ek?

Txara ikustera duala esana da.

Baiña gaur, ain zuzen be, danak itxasora joan eta zu zeu bakarrik emen?

Egingo etc eban ori, sasoi baten, Simon'ek?

Ez orain be, nok lagundu ezkerero.

la Mikol, txara kontua jakiña da. Ez dira igartuko. Ordez, gaur, itxasora joan ezik Simon igartu lei.

Ori diñot nik.

Lagundu nai ez?

Laguntzea beti atsegin jat niri. Atzotik jakin ba neu...

(Kiñu egiñaz) Zer? Ez dozu ikusten, gaur urten ezik, edo-zeiñek pentsatu leikla auzia galdu egin dabela agure zar onek?

Iñoiz laguntzekotan gaur nai neuke, Mikol.

Abadcak agindu ezkeror.

-Bai, eta gero ziriak jaurti, bear ez dan toki askotan ainka sartzen dakigula-ta.

Durundirik entzuten ete da kanpairik jo barik?

Luzera zoaz zu, oraintxe be Simon. Zirikadak be pekatu izan leikez gero!

Bestetan gertaten dana, noiz, nun, eta zelan, ez?

Ordago?

Ba zoaze edo ez?

Gertu dago dana?

-Ordu laurden naiko dira orretarako.

Ia ba, atzerarik ez dogu egin bear ko onezkero.

Eta abadea pozik. Simon zarra zer esanik ez, eta azkenean Mikol berbera atsegiñez makurtu eta gertu zan joateko.


Sekula ez ziran alkarregaz bateleko arratzen gertatu Mikol eta Simon, nai eta a zalea izan bat edo besteagaz itxas-egaleko arrantzutara joaten, bai eta kañabera edo eskuko-aparixuekin aitzetara joaten.

Abadeak bere aldetik, agur lez, esan eban: Oraintxe bai esan daikegula Ondardi'ko matxiñada amaitutzat emon daikeala, irabazle eta galtzaille barik.

Simon'ek oraindik ziri geiago jaurti nairik, abadeari:

Egia esan. Zuretzat nortzuk izan dira irabazle jator eta benetakuak? Emakumeak ez?

Eleizan be kontu andia euki bear da orreikin, erantzun abadeak irribarretsu eta arpegi luzea ipiniz.



Erramute (arraunketa) alaiian

Ez eben ordu laurdenik egin gertuten.

Erramuak karkabatik lepoan artu eta molla ondoan egoan batelean sartu, aparixuen otzaratxoa eta karnata baldea molla gaiñetik Simon'ek Mikol'cri luzatu; molla arriak eukan zuloan lotuta egozan batelaren txikotak azkatu eta batelera aidean jaurti; estropuak kutxatik atara, erramuei sartu eta eurok toletari eusten laga, azpiko paelak alkartuta ondo ipinten zituen artean...

Betiko zeregiñak ziran eta oitura lez bizkor egin zituenr

Alkarregaz sarri ibiliak ba ziran lez, bata aurreko tostan eta bestea atzekoan jezarri, eta biak batera, geldi-geldi, crramutan asi ziran, ibai zulotik zear batela eroicla.

Alde guztietara begira eioan Simon.

Jendeak ikustea nai eban. Ori zan bere une aretako gogorik biziena. Arrokeria, baiña aste bete ondoren berak nai eban lez ezelako traba barik urtetea, ori beretzat barrua asetzeko aiñako garaitza zan.

Molla gaiñean iñardu eben unean be, txikota oraindik eskuetan eukala, bardin egon zan inguruetara begira, zeñek ikusiko. Baiña domeka zan lez, nai ta arrantzaleak itxasoratuta egon, Paulo'rik ez zan agertu bere tokira. Eta Simon'ek ain zuzen, Paulo'k ikustea nai eban.

Obeto izan zan orrela gertatea, bestela, batak edo besteak, alukerien batzuk zital eta zoli esan edo entzuteko aukera eukiko ebelako.

Ez ziran itxasoan luzera joan ez sakon sartu.

Lenengo egunean ez eban nai Simon'ek len lako gertaerarik.

Arrituta eioan Mikol Simon'ek eukan inguru aretako ezau-pideagaz. Ez bakarrik aitz eta itxas muturrak, edo sakon-uneak. Ingurutako gaztañadi eta sagasti guztien izenak be ba ekiazan, eta zeñek erabilten zitun, txakoliña egiteko bateko ta besteko matsa zelakoak ziran eta abar, sits eta bits esaten eutsazan lagunari.

Pozik ebillan au, ordurate ainbeste ekian iñor ez ebalako

billatu zeregin orretan.

Irabaltza azpian, Atxazpi'ko egala mugatzat artuta, ondo ekian Simon'ek ango kalcn barri, an ezer ez ba egoan, aldaren bat laster egingo ebela-ta.

Eldu ta aparixuak gertu ta alarrivan asi ziran, au da, ogei metro inguru aparixua beratu ta gero geldi-geldi goraka ekarten edo jasoten asi.

Alaxe konturatu ziran arraiña ba egoala, aparixuetan tengada biziak igarten asi ziralako.

Orrela, abor-estibor jarri eta arrain banakak goratzen laster asi ziralako, biak pozik.

Portutik ara erramutan eioazala milla kontu esan ba zituen be, eta esateko laga beste asko, arraiñean ebiltzan artean arraintakada, ikututze, iges-egite edo etete eta abar zituen curen esae-ra hanakak, bai eta batelera jasoten zituenei samatik oratu eta il eta il zorian laga, eta pael azpiko uretara jaurtiteak emoten eban zeregin eta poztasunak esan eragin eta ataratera eutsezan urteerak be.

Bitsetan ebiltzan biak. Arrain bitsa eskuetan eta poztasunaren bitsa aotan.

-Iño! Gure mutilla *emen* ba *lego..!*

-Zein? Peru?

-Alako mutillikl

-Bizkorra, ez?

-Argia, zentella lakua.

Txikitxua da, baiña etorriko da.

Ez da luze izango, baiña bai trapalotetxua.

Eta egia esateko, nik, arrantzalien artean eta itxastarren artean, lodikote eta gizon biribillak geiago ikusi eta ezagutzen dodaz, gizon luze eta igarrak baiño.

Ez dakit zer egon leiken bitarteko. Bear ba da itxaso berberaren egitura, baiña arrantzaleak, gose egonarren be... ez dira luzatzen. •

-Luzia eta flakua Kosme gixajua, esaten da.

-Baiña a ez zan arrantzalia.

Kontuan euki arrantzaleak aiña gose denpora beste iñok ez

dabela eukiten. Eta arrantzaliak aiña estualdi be ez.

Niri esan!

Artzeko asko?

Otzarak egiñala. Geienak. Norberak bere ortutxua eta gaur lez arrantzako zaletasuna euki ezik, askotan kapote.

Eta *ez* ordaindu barik lagatearren. Izakera da alakoxca. Norberentzat lez beztentzako be nasaitasuna.

Esanda lez arrantzaleak aiña gose egun eta guk aiña estualdi latz eta biurri iñok euki *ez* da be, beti lodi ta gizon.

Itxas gizonak barik, itxas abereak deitzeko eran.

Ez zabiltz txarto.

Lcnako baleak lez.

Dana dala, Peru be nik olakoxca ikusten dot. Edo ezin izan dot bestera iruditu, emen batelean beragaz ibili eta goitik bera begiratu izan dautsadanean. Egiturak eta bere egitadak be orretan pentsatera croan izan nabe.

Amairu urterako...

Ez urteak baiño lenago zartu.

Amairu ez al daukaz?

Egiteko.

Ziur?

-Jakingo ez dot ba?

Nik, egia esateko, oraintsurarte *ez* neban ezagutu.

Entzuna edo erdi entzuna baiño *ez* daukat.

Mutil polita ikusten neban.

Emen, dakizun lez, ganorazko eskolarik ez dagon lez... ha kalean ibili bear zana, itxas eskola ikasten etortera zirikatu neban. Eta pozik etorten zan.

Ba dakit.

Ez dozu pentsaten orretantxe arduratu bear giñakela len zerbait ikasi dogunok?

Ez da bakarrik itxasoa. Itxasoa eta giroa dira ikasi bearrekoak.

Nik sarri pentsaten dot gazteei umetatik erakutsi bear jakocla ementxe, itxas ertzean, geno itxas andictan curen burua jaube izaten jakin dagien.

Ori izaten da nire kezka.

Bear ba da iñok baiño geiago niregan ezagutu nebalako, Laburdi'ko txalopctan ibili nitzanean. Itsu joaten giñan edonora. Arrantzara *lez* itxas lapurretara. Ezeri begiratu barik. Alakoxe ondorenak eukiten genduzan. Edo kartzela, edo ontziaren ondaren d jar

Laburdi'tik ibili ziñan?

Ibili asko ta gitxi irabazi.

-Beti arrantzale? .

Bestetarako jaio al giñan?

Emen ez al egoan lanik?

Gerra usaiña zabaldu zan. «Boluntarioak» eskatu zituen. Ni ez nitzan ortarako. Soldadutzara joatera ukatu egin nitzan. Eta ospa egin bear. Lenengotan garratz egin jatan bizimodu a. Kapitank be alakoak euki genduzan. Praille batek baiño geiago eskatzen eben. Gure onerako, gero konturatzen naizen lez, baiña guk orduan barruko egon eziña gerabillan. Eskola lakoxea zan gure txalupa. Gero kontuak. Andik urten eta itxas «otsoekin» batu nitzanean. A *ez* zan itxasoan ibiltea, edozetara ibiltea baiño. Eta ni konturatzen nitzan, baiña nai ta danok euskaldunak izan areintzako erbestetarra nitzan lez...

Iru urte egin eta sei iruditu jatazan.

Aretara joan barik, gure artean ikasi bearko genduke..Ixa-soa ez da beti garratz eta zekena. Ez da beti gogorra be. Ba daukaz, oraintxe lez, bare egunak, eta ba daukaz aberastasunak be. Origaitik diñot nik itxasoari maitasuna artu bear jakola, emakume bateri artzen jakon lez, nai eta este zikiñak daukazala ziur jakin.

Gure bizia be ba!

Nik gainduta daukat. Bakarrik bizi gearealako diñozu? Onezkero egiña dagoala esan bear.

Bear ba da ezkondu ba nitz eta semeak euki...

Ez dakit, ez dakit.

Ni ortik nabil estu.

Mikol, ez origaitik larritu.

Esan egiten da, errez esan.

Ara, czkonduak baiño negar gitxiago egiteko aukera eukiten dogu.

Negar asko egiña naz ni.

Bakartadeak estutuko zinduzan.

-Ori be bai.

Baiña zu mutilzarra zara, parkatu berba ori erabilteagaz, ni lez, ez?

Bai ta ez.

Atsekabeak?

Askok baiño geiago.

Baiña bein itxasora etorri eta negar eta atsekabeak kontantez ez gara asiko ez?

Konturatzen gara marca zelan dabillan?

Nik arratsalderako etxean egon gurako neuke.

Andrerik ez daukazu beintzat zain.

Baiña egon bearra bai.

Beste arrantzaleak ezer ekarten ba dabe, otzarak be emon bearko dira. Origaitik zerbait gertutea komcniko litzakidake.

Orrela, arrantzateari laga eutsen, nai eta azken jardunetan erdi aztuta ibili.

'Etixerantz biurtzeko crramutan asi ziran.

Egualdiak ez eukan aldakuntzarik. Eguzki epela goitik, aize biguna aurretik, eta anketan, itxas barea.

Mikol asi zan erramutako ekiñaldiaren ixiltasuna eteten:

Peru'gaz estu ibili ziñanean urrunago joan ziñen?

Bai beste onenbeste be.

Eta aizeari edo egualdi aldaketari errez igarri?

Igarri bai, baina zerbait erakustearren eutsi nai.

Eta zer zan atzeratu zinuezana, aizea?

Egia esateko, nekatu egin giñan. Ez da bardin kalma zuri-tan ibili edo mendebalaren lenengo jasoaldian.

Estutuko ziñen.

Ni geien estutzen ninduna, barrako sarrcrara marcako ez giñala elduko zan. Eta ba dakizu Ondardi'n sarrerarik ez dagola ordu guztietan. Origaitik, sartu barik, itxasora zabaldu giñan. An eusteko ustez, orixe da orrelakoetan ziurrena-ta.

Baiña gertabarra izan zan.

Peru oraindik mutil guri-guria. Sekula orrelakorik igaro bako be bai, eta estutu egin zan. Nerbioak baiño txarragorik ez dago orrelakoetan. Eta a gaindu eben.

Azken egunetan ez dot ikusi. Utsunea daukatr Gogortuko zan, ez?

-Ni be bein joan nitzan. Ez naz ausartu geiago joaten. Baiña osatutzat laga neban azkenez ikusi nebanean.

Idurre andre ona da. Ez dakit zer gertaten jakon. Bakar zalea da.

Bai, bakar zalea da.

-Arek be eukiko dauz buruausteak.

Zetaz?

Ez dakit ba. Alarguna da edo zer da bera?

Ba al daki berak?

Or eskutuko zerbait dago.

Sarri egoten zara beragaz?

Nik, benetan diñot, ez dot sekula andre garrik euki. Ba, ori esatea asko esatea da, ez dot ukatzen. Esan nai dodana da, etsi eziñezko guraririk ez dodala euki.

Ni aren etxera neurera lez joaten naz. Sekula txarrik pentsatu barik. Eta berak be badaki ni ez nuala orretara.

Azken oneitan bere multitxoa begiz artu dodalako edo, bere billa joaten nitzan.

Orain bildurra daukat.

Zerena?

Ez al zan Peru betirako bildurtuko azken joaldian?

Ez dot uste.

Nik ikusi nebanean oraindik burutik ebillan lez...

Ba, orretaz zerbait zirikatu neban, olgetan zerbait.

Eta?

Ez dot uste atzerarik egingo leukenik.

Iño! Ori izango litzake nire poza. Ba dakizu zegaitik? Lenengo berari erakusteko daukadan garragaitik. Baiña gero, emengo askori erakustearren, nik ez nebala mutilla estutu. A barriro itxasora nigaz eroatea, nigan sinistuten dabela erakustea

lez litzake.

Eta aleginduko nitzake ba gogotik, areri askok ez dakiczan asko erakusten.

Igarri barik eldu ziran kai aurrera.

Oraindik sartzeko aña ur ba egoan, eta pozik sartu ziran.

Ainbat ikuslc eldu jakozan molla-buruan zer arrantzatu eben jakin naian.

Arro banatu zituen, emen gagoz gu esaten lez, crdiz-bana, ckarrczan iru-lau motatako arraiñak.

Eta Peru'rentzat zirala ta arrain gorri eder bi, aniu batetik dindilizka ipini zituen, bereziki eroateko.

Txalopa lotu ondoren, nasa gaiñera urten ebenean, sekulako barruko poza croian Simon'ek. Berak itxura kentzeko alegin-egiñarren, barro-txiki lakoa igarten jakon ezpanctan.

Laster inguratu ziran ikuslc batzuk.

Agertu ziranetatik iñor ez zan ausartu asteko goraberci buruz ezer esaten. Bolctoa kenduko eutsela eta abar aizeak galdu eragin zitun.

-Arrain gorriak abadearcntzat?, zirikatu eban batek, dindilizka crioazanakin konturatuta.

-Abadeak bcrdclik be ez dau ukatutcn, gogo Onez emon ezkerro, erantzun cursan zoli Simon'ek, itandu cutsana ao bettz lagaia.

Andik ordutara sartu ziran beste txalopa guztiak.

Erreskada luzcan ctozan danak. Batzuk estropada itxuran, sarri egiten eben antzera etxerakoctan. Alkarren leian.

l)cilariak etorri ziran danen atzetik, oiturazko zan lez.

Arrain ugari ekarri eben. Besigu eta brekak.

Aurrcz ikusi zituen erritik urteten eta origaitik eurak molla ingurutara urreratu orduko, erritar ugari egozan ze barri ete ekarren jakin nai eta laguntzeko.

Poztu ziran danak orrelako arrantzuekaz.

Laster urreratu ziran, ontzi bakoitzeko maistresak curen kostaura, egalcra. Oitura eben lez ara batu ziran baita bertakoen cnnazte, ama edo alabak, itxasoko otzara artu eta ctxcraztcko asmotan.

Molla gaiñetik andrazkoak ez ziran ixiltzen, zirikalari:

Lotsarik euki dozue zeuok, arraiña emen-nagoka itxasoan, eta zeuok sagardautegictan atraka eta fondo eginda egoteko?

Ba dakizu Anton, ume lotsagabe au egun guztian negar muxingatan ibili dala? Zera, zcu etxean egonda lodituko dalakuan, dana mirrindu eta txatxartuta geratu da egunotan-da.

Nik ez dakit gure Jainkoak zelan zigortu ez zaituen be. Gitxiago merczitako batzuk joango ziran ortik.

Gizonak lotsatuta cbiltzan arraif a ataraten eta Kofradi aurra eroaten, andren esanak burua artu eraginda. Bardin ontzi baten aurrean, eta arutzakoagan, edo ta basterckotan.

Dana zan zirikadca lcorrtik. Pozak eragindakako bcrbacn crosoaldia zan, ondo pentsatu ezkeru, bestelako jokabide asko baiño berezko eta egokiago.

Alaz eta gizonak cz ziran ausartu-ten erantzunik emoten. Oraindik andren egunak ziran eta laga egin bear jakocn euren auste eben garaitzagaz poztu eta arrotutcn. Eurak erabillcn eskutik txikota eta eusteko asmotan. Egunak bearko zituen baretzcko. Origaitik entzun be egin zan txalopatik gizon zur batek jaurtitako aolku bat:

Ixilik gizonak, ixilik egon, culi asko dabillalako inguruan.

Beste batek, atarramentu areri eutsi ezinda, danen gaiñetik, an egozan andrei deitu eutsen:

Bota, bota eskamak, gogorkeriak kenduta kazularctan guri eta bigunago egon zaitczen, batzun gosea kentzeko dana bearko da-ta!

Aidean artu eben batzuk ziria.

Peru'gaz tope-topean

Etixerako bidean, Kantalcko kantoia igarotean, etxe baten aurreko orman lcpoa emonda, Peru ikusi eban Simon'ck.

Ikusi ta bat batera, bete betean urten eutsan:

Txo!

Simon! Itxasora joan zara?

-Bai, Mikol'cgaz.
 Arrain asko?
 Polito.
 Gaur kalma zuria eukiko zenduen.
 Bare-bare gaur. Zelan igarri?
 Itxasoari begira egon naz len, etxe bitarte orretatik.
 Ta?
 Biar, barriro, mendebala, ez?
 Pentsaten dozu?
 -Sarkaldetik odei illunak ikusten dira. Lapitz autsa lakoxca.
 Ez zara aztutcn?
 Iño! Aztu? Zaletasuna artzen asi baiño len aztu?
 Zelan zoaz?
 Zelan nuan? Askok da zeuk ori esatea, beti berba askori aitzakiak ipinten ibillita. Zelan natorren jakin naiko dozu, ez?
 Kontxo! Bai adi egon be. Ori zelan zatoz?
 Ainkctan indar gitxi.
 Ta? Bestela? Bildurak kendu dozuz?
 Bildurak erakutsi ez dau egiten ba?
 Zer da obc, bildurra galtzea edo zaintzea?
 Onena bildurra ziurtasuncan aldatzea.
 Ikusten zelako arraiñak arrantzatu doguzan?
 -Ba dakit norrentzat izango diran.
 Igarri ezetz?
 -Abadcarrentzat.
 Gaur ez, gaur zutzat.
 -Bcnctan? Poztuko da ama.
 Etxean dagO.
 Errckara joan da garbiketarako egitera.
 Zeu kontuz ibili, ez?
 Laguna falta dozu alar
 Astegunetarako bai. I)omckctarako billatu dodan lagun
 barria, ez da makala.
 Etorriko ziflake?
 Joango ez nitzake ba?
 Bai, Txo!

Ez bildurtu.

Beingoaz ez da atzeratu bear sekula be. Itxasoa gaiztoa da, baiña emonkorra be bai. Sinistu, ondo dakit-eta.

Gaiñera zelan bizi Ondardi'n itxasoagaz alkartuta ezik?

Eutsi, tori arrain gorriak.

Benetan be niretzat?

Gatz aide bat emon lenengotik. Edo amari esan emoteko.

Neuk be gogoz egiten dodaz orrelako gauzak.

-Eta ia laster...

Urrengo nora joango gara? Santa Bata aurrera?

Nai dozun tokira!

Oraindik be Simon'ek:

Santa Bata aurrean ba dakizu zer arrantzatu geinken?

Txibiak?

-Ez zabiz txarto!

Mutilla pozik eioan Simon'ek emondako arraiñakin. Atzera begiratu eta Simon berari begira konturatzean, eskuak gora jaso ta arraiñak goratzen ibili zan arro.

Gero, etxean sartu zanean, berari begira geratu jakon Simon. Damututa lez, ain arin arraiñak emon bearraz, beragaz luzeago jarduteko aukera geiago galdu ebalako.

Bat-batean eztarriko estutasuna oartu eban, eta begietako maiko lodiak jausi jakozan, esateko, samurrez negar egitcn asi baiño len.

Gitxitan jo eban bera samurkeriak, baiña oraingotan, igaroak igaro eta mutillak emoten eutsan baiezpenak, adoretu egiten eban, eta zirikatatu, berak pentsatuta eukan bidean jokatzera.

Buruari eragiten

Txo'n esanda lez, biramonean mendebal eguna agertu zan.

Zaiar laiñoak geitu ziran.

Itxasoa be jaso.

Olatu andirik ez, baiña bai alkarren gaiñeko eten bakuak.

Kaian, barratik barrura, zirri-zarra, ura batzen zan tokietan,

eta olatuak, ur gitxiko tokietan.

Gizonak, itxasora urten ezin. Egon ziran egualdiari begira, urrunera joan barik, itxas-ertzean urteteko be. Baiña azken baten deilariak ez urteteko critziko agertu ziran.

Gizonak, itxas otzara ta guzti, geienak, etxera joan bearean, sagardautebietara zabaldu ziran.

Arrantzaleak etxean baiño naiago izaten dabe orrelako egunak alkartasunean igaro, lagun artean, kontuak baiño asmaturikoak geiago esaten, edo ta itxas ibillercn zeaztasunak gogorutzen, txalopa batekoak bestekoekaz.

Nai eta azkenengoz egin zan diru partilla «ardau diru» bakoa izan, andrak ez eutsen eskupekorik ukatu, gitxiago domekako arrantzua ikusi ondoren, eta gizonen egoera ona ikusi ondoren.

Oraingoan nasterik ez kaleetan eta itxasoa nastetsu. Urrengoan gizonak ibiliko dira asarre eta itxasoa bare.

Sarri gertatzen zan orrelako zerbait Ondardi'n.

Ez eukan- Simon'ek iñogaz autuetan sartzeko gogorik. Ez eta sagardautebietan ango giroan ibilteko be.

Bakarrik egoanez, ez eban goiz aretan itxasoratzeko asmorik artu.

Berc gela illunean etzatcaren zale izaten zan orrelako egunetan. Edo ta etxeko ibilbide luzcan «ainkak luzatzen» ibiltearen gogoko.

Eguerdi aurrean, egualdiak eraginda, oean etzan zan.

Mikol'egaz erabilitako jarduna gogoratu eban.

Peru'ren begirapen eta alaitasunik ezin eban burutik kendu.

Eta poztu bearren negar egiten eban.

Sekula ez eta Idurre'gaz" kezkatuten asi zan.bere bakartadean.

Ordurarte kalean ikusi, itxasoratzetan, edo ta beste edonoiz be Idurre'k etxea zabalik eukiten eban lez, etxeko lez sartzen zan. Sekula txarrik pentsatu barik joaten zan, ikustaldioi egitera auzotar lez.

Idurre'k bildur geiago eukiten eban eta ala erakutsi, jendeak zer esango. Simon'eri ez eutsan ardurarik. Bere barrua,

bcrc kontzientzia nasai eukazala esaten ekian. Bcragana koplctan ez joateko, erantzuten eutsen, iñoiz zirikatzen ebenean.

Baina egun aretan...

Pcru'rcn gogorapenak Idurrc'rcna sartu eragiten cursan, cta Idurrc'rcn irudiak Pcru'rcna.

Ezin kendu bata nai beste barutik.

Mutillarcna cz zan arrigarri, baiña Idurre'rcna ainbestetan bururutzen, zartzarora clgorria sartu etc jakon pentsatcn asi zan.

Milla buruaustc.

Pcru'rcn urteak...

Zelan Pcru Idurrc'rcn czkontzako seme, aren scnarrak iges cgin cta nundik cbillan iñok cz ckiala esaten ba zan cta geroago jai0%

Baiña eta zelan Idurrc'k scnarrarcn abizena emon eta zelan laga ori abadeak bataiatzcn.

Konturatu barik Simon berbera larritu egiten zan eta egoera orrek dardara lakoa sartu.

Eta esaten zana cgi ctc zan;

Beragaz sekula lizunkeru cta ezelako nabarmenkeririk euki ez cta orretarako biderik cz gogo makurrik emon cz eutsan andre a...

Mikol'ek ba etc ekian ezer.

Urrengo domekan zirikatuko eban. Aukcra bat billatu bear, barriro alkarregaz arrantzara joateko. Lengoa ikusita cz cban uste orretara ukatuko zanik.

Beste bat: abadeak cz ctc ekian ezer?

Alaz eta zegaitik abadeari ezer itaundu?

Ezkontza egille edo batcratzaille cntzute andia eukan abadeak. Danak ekien arek ez chala nai crrian mutilizarrrik eta ncskazarrik.

Simon bcrbcnari zirikada batzuk bota cutsazan iñoiz, baiña berak baiño ganora giKiangoko andre bat artu cdo ctxcratzckotan, bakarrik naiago, bi ezin jasota ibili baiño.

Idurre atsegin jakon andre lez.

Baiña bcrc scnarrarcu «eskutukoa» cdo izilleko iges egitea berbera gertatu zanean askok aotan crabiliarren, iñok ez ekian

alargun geratu zanik, nai eta bizi alargun lez jendeak artu.

Orrelako buruketak ezin aldcentuta ebillan.

Berak erabili eta bera lotsatu, kczkaren bat sartzen asia etc zan bildur eta arduraz.

Orrela iñarduala, bere etxean barrurcngo gelatik, etxe sar-rerako atea zabaltzeko argia igarri eban.

Peru txikia zan.

Ezagutu eban barrutik.

A deika asi zan atctik.

Bereala jagi zan Simon cta gelatik urten.

Lotan Simon?

Egualdiak tontortuta. Igarri zcndun atzo. Orra mendebala.

Ba dakizu, batzutan igarten da eta orrelakoctan pozik agertu. Baiña igarten cz danean, ixildu.

Danok egiten dogu ori.

Zelan etorri zara?

Bialdu egin nabe.

Zeiñek?

Lotsatu egiten naz, Simon.

Zcr ba?

Ba amak esan daust... barri txarrak bialdu dautsezala bere errialdetik, eta ara joateko, senideen artera esku utsik cz joateko be, arrain batzuk pozik artuko lcukczala.

Ori esaten lotsatu, Txo?

Ortxe dagoz, leio atzean, ol baten zabalduta, garbitu eta ga-zituta, atzoko geienak. Eroan danak.

Bai baiña...

Zer? Esaten be lotsatu? Eskatuten ez lotsatu Pcru. Lapu-rretan bildurra zaindu, ez eskatzcari.

-Gogor egiten da esatea.

Lotsatzekotan ez g urcra etorri.

Ezin dot esan.

Zer Peru? Zegaitik? Edo ta zer da?

Biderako dirurik ez daukala esan dau.

Zure ama zoratu egin da ala?

Negarrcz dago.

Sekula ukatu dautsat iñoiz lenago?

Lenago be eskatu cutsun?

Alargun batek pcrmiñan baterako dirua eskatzcagaz nor arrituko dala pentsatcn dozu?

Ez al dakigu danok arek, orrelako gertacrcn baten, dirurik ezin euki leikela?

-Ainbesteko txiroak (pobrca) gara

Pobrca *ez* da dirurik *ez* eukitea. Kontuan euki. Bizitzak erakutsiko dautso zer dan.

Zer da ba?

Gogo txarrcko ez izatea. Eta laguncntzako lagun izatea. Orrela, nai ta zentimurik euki *ez*, cz zara sekula pobre Liste izan-go.

Ze barri artu dozue?

Baten bat il dala.

-Etxekoen bat?

Ba zenkien gure amaren *gizona* bizi zanik?

Il zanik *ez* gendun jakin.

Orretara ama joateko asmotan dabil?

-Baiña ez dau nai ni joaterik.

-Zegaitik *ez*?

Bakarrik joango dala diño.

-Neuk lagunduko dautsuet.

Ez dau naiko.

Joan etxera eta amari esan, neu be ba noala.

Ez dan naiko. Etxekoekin asarretuta ez da ha bizi? Ni ez nau sekula bertara croan.

Ez ardurarik. Eriotzetan ez da asarrerik gogoratzen.

Baiña nire aita?

Zer?

Kalean zerbait jakin deban.

l)anok dakizue zerbait eta ez dozue iñok esaten.

-Zertaz?

Amak ez dan ezer esaten. Baiña egia da lapurra zala eta errian lapurretak egin zitulako cskutatatu bear izan zala? Egia da= Nik esanda iñok ezin leike jakin egia danik, neuk be ez

dakidalako.

Aita ba da, zegaitik ez nau croan bear?

-Benetan nai dozu joan?

Egia esanda, bai. Niri cz daust iñok ezer egingo, ez?

Zegaitik?

Gurasoen zorrak semeak cz al doguz ordaindu bear?

Nok esan dautsu?

Abadeak. Eta amak be bai.

Iñok ezer eskatu dautsu?

Amari ez dakit. Niri ez.

Baiña Simon, zetarako asi zara brusa jazten?

Zuekin joateko.

Ama asarretuko da.

Zuen -ama ezagutzen dot eta ez da ukatuko. Ikusiko dozu.

Brusa bat jaztea besterik ez eban euki Simon'ek. Ez eukan geiagorik, berak be, kanpora ostcrak egiteko.

Senarraren illetak

Errexil ondoko baserri baten bizi zan, bere burua eskutautata, inguru aretatik aldendu barik, Idurre'ren senarra.

Itxasoetara joan zala, merkanten baten sartu zala, Ameriketara aldendu zala...

Esana bat eta izana bi, aren scnarrak ez eban euki ainbeste ausardi.

Morroi lez baserri baten bizi zan.

Baserrian ez ekien nungo zanik, ez ezkondu edo ezkongai zanik.

Etxean asarretu zala eta etxeko barririk geiago ez ebalakin nai esanez, agertu zan ordu berean egin eben tratua eta arrezkero baserri aretan bizi zan. Beste morroi asko lez, batzutan al ebana egiten eta bestetan al ebanik ez itxuratzen, gaur langille, biar alper.

Jan truke, domeka eta jaietan kalerako zerbait emonda.

Baserrikoak ez euken beragaitik zer esanik. Euki zituen mo-

roi ba-ezpadako eta kalctarragoak.

Bear ha da nor zan jakin ba eben, edo nunbaitetik igesia zanaren barri euki, txaltxu bat galdu jakocnean beragaitik keixatuko ziran. Edo ta beste baten kaixa zarretik ontzako urre batzuk ostu eutsezanean, morroia bera ikusi eben asarrcrik geien eta zemairik zitalenak jaurtiten.

Sekula ez eben bere txarrik pentsatu.

Berbalduna zan eta ao onekoa eta origaitik lagun ontzat euken etxean.

Bestalde ez euken iñor maitekrietan ibili cikean sasoikorik eta orretan be ez egoan zer esanik.

Etxeko lagun ontzat euken.

Aizkoreagaz ainkan zauricn bat egin eta gangrenaz il zan. Il aurreko egunean esan ei eban zein baserritakoa zan.

Alaxe deitu eben bere etxera eta andik Ondardi'ra.

Idurre'ri arpegira begiratu ez cutsenak ez ziran senarraren aideak, berberaren senideak baiño.

Senarrak igestu eta batera, alegiñak egin eutsezan etxera eroateko, an eukiko ebala beretzako lain aginduz.

Baiña Idurre ukatu egin zan.

Bera ezkondu egin zala eta sortu eben etxea zaindu bear ebela.

Senarrak, egunen baten damutzen ba zan, iñori mesederik eskatu barik etxea libre eukitea nai ebala eta ortarako bera an geratu bear zala. Ezagutzen ebala senarrak berez eukala makurcrien bat, gen) ezagutuarren gaindu ezin ebana.

Etxekoak ez eutsen olakorik ontzat artu nai izan.

Gero, amatasun bidean egoala jakin ebenean, curen lagun-tza bialtzea be ukatu egin eutsen.

Orduko jokabidearen ondorenak ziran oraingotan agertzen eutsezanak, jaramonik egin nai ez-eta.

Gaiñera, mutiltxoa eta beste gizon bategaz ikusi ebenean, ezkontza barrien bat egiña zalakoan, entzun be ez eutsen ezer egin nai, danen lotsagarri zala-ta, eta Errexil'en egin zan illetara Idurre, Peru eta Simon joan ziran bakarrrik emaztearen aldekoak.

Beste aldekoak ez ziran ainitsuak izan ?ta illeta denporan

lagundu eutsen.

Idurrc'k negar ixilla egin eban. Peru'k mara-mara.

Il zan tokiko andra-gizonak ordaindu eben amaiketako bat, eta eurak geratu ziran Peru'k croan zitun arraiñckin. Alegintxoak egin eutsezala, atsekabez ikusten zala baiña eurentzat ona izan zala eta orrelakoak esaten igaro eben matordua.

Simon'ek ez eban ezetan sartu nai izan. Bere auzoko lagun lez agertu zan, eta baserritarrak ao zabalik euki zitun arrantzalien bizitza eta naigabeak eta estutasunak kontatcn.

Peru'k agindu eutsen geroagoko baten joango zala aitaren bizilekua ikustera.

Idurre'k erantzun labur batzuk emotea besterik ez cban egin.

Autu-mutuak

Idurre'k cz eban nai senarraren gertacrarik iñok jakiterik.

Abadeak jakinda naiko zan bcretzat, biar edo ctzi, mutillak premiñarcn bat eukita, norbaitek ziurtatu cikean. Bere naigabetan, beste baten joatckotan gelditu zan.

Baiña Liñe'k erri guztian zabaldu eban gertatua. Lenengo eriotza; gero Simon'cn laguntza; etxekoen arpegirik emon nai cza, eta abar.

Laster asi ziran barriro Idurre'ren alarguntza misticritsuarcn traste eta zapiak aizetzcn.

Simon be atara eta erabili eben trapu zarren artean. Erri alu au, esaten eban. Ba dakit ez dana, baiña egia esan egin bear. Betiko satorrak izorratu nai nabe.

Alaz eta, berekautan orrela jardunarren, nai ta gauza garra-tzak entzun, ixildu egin zan.

Idurre'k geiago jakiten eban Liñe'ren aotik. Beti bestcak gaiztetsi eta bcratuten, baiña bera zan gauzci sustarrak be atara nai eutsazana. Txarrena, zelako kaltea egiten eban konturatu bari-rik.

Bera izan zan abadearen etxera joan zana, andre a «miseri-

tik» atara bear zala ta alegiñak egiteko eskatzen norbaitegaz ezkondu edo batu al izateko.

Abadeak aidean jaurti eban azken berba entzun ebanean. Ez etorri nigana iñor batzeko eskatzen. Kontuz. Nik ezkondu bai, batu ez.

Jauna ezkontzea batzca ez da ba?

Bai, baiña kalean esaten daben batze orretan, ez ni sartu. Mesedez.

Bera izan zan scnarraren egiturak eskutuan geratzen zirala esaten, nai ta berak tutik jakin ez orretan.

Etxean ardi eta kanpoan otso zan.

Idurre konturatu zan, gauza batzuk, aizetzen ziran batzuk, iñok ez ekiazala etxekorcn batek ezik, eta etxean Peru'k ez ekian ainbesteko gauzarik eta oraindik ez eukan adiñik batzugin konturatzeko.

Bolo-bolo cbiltzan, erri txikietako oituraz, Idurre'ri jago-kozanak eta zer ikusirik ez eukenak zabaltzen.

Oraindik ez zan asi Peru itxasora joaten.

Alboringoa zelan osatu eutsen be zabaldu zan.

Gitxik ekien bedar gauzetarako Simon'en zaletasunik, eta laster esaten eben zegaitik joango zan a etxe aretara.

Andik domeka bira, Mikol eta Simon barrero alkarregaz joan ziran. Aurrerako ordu berean.

Orduan lez, abadeagaz meza osteko zirikalidia euki ondoren.

Simon, ba dakit arrain gaiztua zareana, baiña ez nekien ainbeste apar eta bits lagaten zendunik zure ibilleretan.

Zer eskatuten dozu eskabide orretan, jauna?

Atsegin litzakit ondo jatortzun tarte baten zugaz egotea. Gizon andi zara-ta!

-Nik entzuten daukat, baiña beste batzuk ez gero gitxiago.

Zetan?

Ai ene! Beti ez da gero grak eta blast egitea lortuten.

Zuri ulertzeko latin jakin bearko da.

Batzuk ez leuke jakin bear gitxi.

Entzun dozu. Nai dozunean...

Ni pasko txala naz eta kontuz.
Eta ni ogi bedeinkatua, ez dabe ba esaten?
-Alegin egin bearko dogu lotsaz etorri eta lotsak ekarten.
Arrain fiña da lotsa. A lotsa troku ederra, iño!
Askok cz daukana beti izaten da maitagarria. Esan bearrik
ez ezta?, gure abade jauna?
Itxasoratu ziranean, ldu azpira zuzendu ziran.
Mikol asi zan berbetan, ekiñaldi bat ixillean egin ondoren:
Idurre'ren senarrarcn illetara joan ziñala jakin dot.
Alargunari laguntzen.
Eta mutilla be bai.
Zeln Illutll'
Peru.
Bai. Bera zan geien bat aitaren illeta ikusi nai ebana.
Aita esaten dau?
Zcr esango dau ba?
Lapurtxoa zan.
Benetan?
Niri zor laga custazan kendutako batzuk. Zenbatcri ez
arek? Obcto geratu zan ldu a aldendu zanean.
Ez jakin. Pentsatcn dozu?
Berezkoa eukan arek. Gaixoa lakoa. Alperra zan lanean eta
biargiña cskabidcan.
Ondo ezagutu zendun?
Nigaz bc ibili zan illabctean. Damutu jatan. Gero emaztea
etortcn zan eta ekin ncarrez.
Ortara ondo ezagutu zenduzan biak.
Bai. Obcto ezagutu ba nitun obc.
-Gizona noiz aldendu zan?
Noiz? Gau baten a, iñok atrapa baiño len.
Diñodana... Ba dakizu kalean zer diñoen, ezta?
Zcr?
Ba Peru ez dala bere senarrarcn semea.
Nok daki ori?
-Orretara emendik ez zan joan ldu'gaz asarratuta.
-Aleri asarratu eraginda bai.

-Nik len ez neban pentsatcn olakorik, baiña mutil orrek nigaz estutasun a euki ebanetik...

Aita lakoa ba da kontuz.

Igarri barik eldu ziran.

Oraingoan be arrain batzuk artu zituen. Arraingorri, txistu, kabra, karraspio eta abar. Aitz ondo edo inguruko arraiñak.

Abadeari agindua ez betetea be...

Ezin ba da?

Alegin daigun pixkat.

Eta zabaldu ziran pixkat, ez asko. Eta zoriona euki eben. Lotsa eder bat artu eban Mikol'ek.

Trukatu egin bearko dogu. Ni ezin nci abadearengana lotsa barik joan.

-Dan dana be cz sinistu berari.

Areri be ez?

Atsoak esaten dautsenagaz geiegi ibilten dalako.

Ordutara errira biurtu ziranean, an egoan Peru, molla gaiñean, curen etorrera ikusteko zain.

Asko?

Asko zenbat dan iñok ba daki?

Peru, artu egizu lotsa au.

-Ez daukadalakoan? Danak esaten dabe ori.

Ederra da. Ta zer? Zeiñeri croan, amari?

Ez, abadeari.

Ama ondo?

-Ume baten antzera, egun guztian negarrez.

Zcr dala-ta?

Neugaz gogoratzen ei da.

Geiago euki izan ba leuz...

Ni lako usker umiak?

Usker umia lenena izaten da. Txo?

Ez naz ba lenena eta azkena?

Amari be croan egitsasuz.

-Gorriak orain be?

Artu otzara eta atsegiñenak.

-Amarentzat diranetatik, irutik bi nitzat.

-Urrengoan zeuk artutakoak.

-Orretarako nago ba!

Astean bai=

Nai dozuncan.

Molla gaiñean egozan gizonak Simon lakorik ez egoala esaten geratu ziran itxasertzeko arrantzan. Ba eukala arek berezko zerbait.

Bera geratu zan bateleko ura kentzen, azpiko paclak jaso, tangartagaz ur geiena atara eta gero lanbasagaz legortzen.

Ori egin ondoren, crramu biak be berak atara eta croan zintun, biak alderdi baten, karkabara.

Lotsa eroaten eta sartzen

Pozik cioan Peru lotsagaz.

Abadearen serbitzariak urten eutsan atera.

Zer da txotxo au? Au da arrain itxusia. Miña edo zer da or aotik dindilizka daukana?

Au basatzako arraiña cz da ba?

Au artzeko ba dakizu nora joan bear dan?

-Jakiña, itxasora.

Eta eun metroko sondara. Zer dala uste dozu?

Ez dakit gure abadeari olakorik ondo ctorko etc jakon. Urdailletik dabil azpaldi ta...

Aurrek bai, otzarakoak, arrain gozoak.

Norentzat daroazuz? Onen orde z olakoak ez letorkez obeto?

Niri agindu daustena.

Nungua zara zeu, Idurre'nekoa ezta?

Bai.

Koitadua, aita il jatzue-ta. Zeure aita zan, ez?

Bai.

Ene ba! Esan be asko egiten da-ta!

Abadea agertu zan.

Zer dabilizu Anc mutillagaz?

Eskerrak emoten ni.

Arraiña ez dautsu ekarri, ba? Dakarrena artu ta kittu.

Sekula jan dozu?

Nik ez dakit zelan ipinten dan bc.

Saltsan eta kittu.

A zelako basa usaiña eukiko daben onek.

Zelan dakizu, zer dan be ez ba dakizu?

Eta ama?, barriro neskak.

-Negar eta negar a.

Bai amaika egiten dogu geuk be, alargunak izan ezarren.

Abade etxean amaika egin bear izaten da.

Abadea urduri egoan, neska arek txotxinkerien bat esango ebalakoan.

Sartu, sartu mutil barrura.

Eta otzarea nun laga? Zikindu egingo dau onek beia.

Barruan, eskaratzean eukiko dautsu Ane'k.

Abadeak bere idazgelara eroan eban mutilla.

Ikusten zenbat liburu? Atsegin?

Ez naz joaten eskolara.

-Zegaitik ez?

Tokirik be ez dagolako.

Orrela, ezer ikasi barik bizi guztian?

Siron'ek esaten daust...

-Simon zarrak?

Bai. Diñost berak erakutsiko daustala itxasorako ikasi bear dana. Ba dakidaz tokiak, arrain-kalak, eguraldiak, aizeak, belak. Eta geiago be erakutsiko daustala.

Zeu zara estu ibili ziñana?

Bai.

Ezer errezatu zendun?

Nekiezan danak nik.

Eta ez ziñan bildurtu?

Bildurtuta be nora joan?

Txotxo, zuk aita bat eukitea naiko zenduke?

Lengoa il zan.

Ba dakit, baiña ez zendun ezagutu.
Ez. Egia da lapurra zala?
Nik ez dakit orrelakorik.
Zegaitik laga eban nire ama?
Ori berak esango dautsu. Sekula itandu dautsazu?
-Oraintxe arte ez dot ezer jakin.
Egin berba beragaz. Ez estutu. Berari be ez emon miñiik:
Alegindu orretan. Maite dozu ama?
Maitatutca zcr da, musuak emotea?
Bai zera! Beragaz zintzo bizitzea.
Ori egiten dot.
Aitarik ez zcndun ezagutu, ez?
Ez daukat bere irudirik. Eta amak be ez daust sekula beraz
ezer esan. Orain il danean...
Simon zure batel jaubea izan ordez, zure aita ba litz, pozik
egongo ziñake?
Nik, orain be, aita lez daukat a.
Txotxo amari ez negarrik eragin, entzun? Zoaz.
Txokolaterik ba daukazu Ane?
Oraindik ekarteko.
Eta galletarik be ez?
Ez-ta. Atzo emen egon ziranak zer laga? Oraindik ez naz
dendara joan.
Eutsi, tori, txo! lñok ez dagiala esan abadea dollorra (zeke-
na) danik.
Eta ogerleko bat emon eta lagundu eutsan atera.

Atadiko larritasunak

Etxera eldu zan Peru.
Atadira urrcratuagaz batera, barruko bcrbaroa entzuten asi
zan.
Zurbil eta adi geratu zan atadian, sartzen ausartu barik, Nor
izango etc zan bildurtuta. Edo ta artega.
Idurre ta Mikol egozan barruan. Konturatu zan biak zirana.

Asarre iñarduen. Ez garbi, baiña curen jarduna atetik entzuteko eran.

-Joan zaite Mikol. Laga nagizu baketan.

-Zeure berba artu arte ez naz joango.

Nire barbarik ez dozu artuko, orain lcz pentsaten dodan artean.

Orain libre zagoz, ezin ziñeike ukatu.

Zeuk agindu bear al dozu nire libertadeagaz?

Ez zaite olako.

-Esan dautsut nire naia.

-Baiña semea be ba dogu.

Semea nirca da.

Biona da.

Atzipetuta eta bortxakeriz sortutako semeagaz ez dozu eskubiderik. Ezin ziñei. Sekula euki be egin etc dozu beretzako begirapenik eta gogapen txikienik?

Gaixoaldian etorri nitzan.

Simon'ek ekarri zinduzalako.

Ba ekialako nirea zana.

Zeiñek esanda? Arek ez daki.

Ziur?

Zeuk esan dautsazu?

Zure barri ondo daki arek.

Zuk uste baiño gizonago da Simon.

Niri baiño obeto begiratuko dautsazu ta...

-Egon zadiz ixilik.

Auzoko lez etxeko da, eta ez beste ezer pentsatu be egin, a ez da zurelako-ta.

Orretara nigaz bakarrik ibili ziñan.

Ibili ez, jausi. Senarraren pekatu ordaindu eragin eustazun.

Ukatu al ziñei ori?

Nik?

-Gizonaren zorra kittutu eragin, nire makalldiagaz eta be-raldiagaz baliatuta. Ez al da orrelaxe?

Baiña orain aitatasuna emon geinke.

Ba dauka.

Guzurrezkoa.

-Nire gurariz emona, eta orduan zuk bildurrez eta zer esango ebcnagaitik ukatua.

Erriak jakin lei ori.

Ez zaite burugogor.

Aldi onak igaro geinkez alkarri lagunduta.

Emendik joateko esan dot, zarataka astea nai ez ba dozu, auzokoei deika astea nai *ez* ba dozu.

Ez ekian zer egin Peru'k.

Ordurarte, jakin ez eban eta kalean sumatzen eban zerbaiten aria artzen asi zan.

Gertaera barria zan bcretzat.

Sekula ez eban pentsatuko orrelakorik.

Ez eukan ezpairik. Garbi entzun zitun esanaldi batzuk, ain zuzen berari ikutu egiten cutsenak: aitaren lapurreta... nire semea da...

Ateari ots gogor bat emon eutsan, ainkakin joaz, barrukoak konturatu citczan.

Tope-topean ez aurkitzearren, ba nator, ba nator ama! deitu eban, benetan larri eta dardarati.

Bere abotsa entzunagaz batera, Mikol ikusi eban zarrapastadan etxetik kanporako bidean.

Bere ingurutik igarotcan, *ez* eutsan jaramonik egin. Berba batik be ez. Asarre eioan edo itsu-mustuan.

Sartu zan.

Ama negarrez, berari atzea emon eta ormara begira jarri zan, eta eskuak orman ipinita, zotinka, ebillan estutasunen bat igarota *lez*.

Peru, berari begira, negar mara-maratan asi zan.

Amak, indar artu, mutillari begiratu eta asi zan:

-Zegaitik negar laztana?

Eta zeuk zegaitik, ama

Egin bearra, gertaera, bizitzan dakarrezan atsekabeak, cz dakit zer esan be.

Gizon ori zer da zurea?

Ezer ez.

Otzaragillea ez da ba?

Bai.

Zegaitik etorri da edo zetan? Simon'egaz joan da len bate-lean. Arraiñak ekarten etorri jatzu?

Gizonen gauzak.

Eta zer da nirea?

Ez eidazu esan, ez jarraitu...

Ama, egia da aita lapurra zala?

Zeiñen aita?

Nirca

Ez dakit.

-Jakin bear.

Ez dakidala esan dot.

-Jo ama! nik ez dot ezer jakin bear ala? Esaidazu zerbait, asi dozuna, baiña esan zerbait.

Zoaz, zoaz, laga eidazu orain oera joaten. Nekatuta nago, buruari ezin eutsita nago.

Eta zegaitik nire aitaren barri emon nai ez?

Ez dakit *ezer*. Eta *ez* dot nai ezer jakin.

Arek eta zuk biok dakizue. Entzun dautsuet.

Zer entzun?

Bai, ama, niri eskutatu nai dozuena.

Ixilik egon zadiz!

Zoaz Simon'engana.

Ez esan nik bialdu zaitudanik.

Ez esan Mikol emen egon danik.

Zegaitik *ez*?

Bear ba da atsegin ez jakolako egingo.

Eta zer egingo dot Simon'en etxean orain? Nik ementxe nai dot; eta jakin, kalean edozer esateko be, zerbait jakin.

Arek nik baiño geiago jakin lei.

Zeiñek? Simon'ek?

Ez zaitez asarretu.

Ezin dot bururik be jaso. Ezin naz zutunik egon.

Baiña maiteko nazu, ezta, laztana?

Abadeak esan daust, maitatutea ez dala musuak emotea.

Maitatutea zintzo izatea dala. Eta ba daukazu nitaz zer esanik?

Ez maitea. Abadcarengana joan zara? Zetan?

Arraiña eroaten, Simon'ck emonda.

Eta zcr esan daútsu?

Aita il dala.

Eta?

Ia Simon nire aita izatea naiko neuken.

Benetan ori?

-Egia.

Eta zer erantzun dautsazu?

Ni Simon'en laguna nazala.

Ene ba da! Eta besterik cz dautsu ezer esan?

Zer esatea nai zendun ba?

Pero Sinlon'en etXera joan zan. Ez egoan eta gerorako laga.

Geroago be cz eban billatu.

Paulo ikusi eban kalean, eta ia Simon nun egon etc eikcan itaundu eutsan.

A, iñun egotekotan zuen etxean egongo da a.

Zelan gurean?

Ez dago amagaz?

Gurean ez da egoten.

Ez dala egoten? Sinistu Kredoa.

Nik baiño obeto dakizu?

-Jakin ez?

Guzurtia zara!

Guzurtia deitu niri u ric poiigoliño demonich orrek? Ori da zure «maixu» alu orrek erakutsi bear dautsuna?

Peru zer erantzun ez ekiala geratu zan.

Kezkatu egin zan. Mundu barri baten oartzen asi zan.

Gerotxuago kai aldera urreratu zan.

An egoan bere txalopa, berea ez, Simon'ena, baiña bera ez egoan an ez eta inguruan.

Portuko txaloparik geienak itxasoan egozan.

Egaletara begira ebillan.

Mikol'en txabolara joango ete zan?

Ez zan urrcratzen ausartu. Bcrc aurkako gorrotoa sartuta

eukan.

Inguruan egozan zuma ta kañabcra batzuk, jo, zapaldu edo apurto egiten zitun. Ez ekian berak be zegaitik. Apurtzarren.

An andrazko bategaz topo egin eban. Arpegiz ezagutzen eban, baiña ez ekian izenik.

Simon ezagutzen dozu?

Ezagutu ez Simon zarra?

Ikusi dozu?

Zu zara bere semetxoa?

Simon'ek semerik ba dauka ala?

Idurre'ren semea ez zara ba?

Baiña nire ama ez da Simon'en emaztea.

Zeucncan ez da bizi!

ZeIn Simon?

Txo txo, ia alako baten begiko makarrak kentzen dozu-zan.

Ez eban geiago alegiñik egin.

Lotsatuta geratzen zan eta negarrez.

Millan igaro zan bere ondotik.

•-Ez zara itxasora joan, Millan?

Ondoezik geratu naz. Eta zeu?

-Ni oraindik ez naz asi.

Bakarrik emendik?

Simon'en bi lla.

Begiratu dozu amaren etxean?

Gurean ez da egoten.

Begiratu dozu ondo?

Barrero zalantza.

Nik etxean esateko ikusi ez eta danak diñoegurean egoten dela. Zelan leike au?

Nire amagaz ibiltzen dala esan ete nai dabe?

Ganora barik, gogoia be galduta ebillan kalean.

Abadearen etxe aurretik eioala, an ikusi eban Simon bertatik urteten.

Nora zuaz?

Ez dakit.

Zer gertatu jatzu, Peru?
Ez dakit.
Lagunik ikusi ez?
Ez daukat gogorik.
Zu ez zagoz ondo, Peru. Miña daukazu? Geixorik zagoz?
Ez ziñan benetan osatu?
Neuk be ez dakit.
Zerbait esan dautsue?
Asko.
Zer?
Simon, nik pentsaten neban ez ziñala gure ezer, lagun bat
baiño ez ziñala...
Ez etc naz ba?
-Baiña gure amagaz zabiltzala esaten (luiste.
-Zeiñek?
-Askok.
Ori guzurra da.
Nik pentsaten neban ez ziñala nire ezer, eta nire aita za-
reala diño.
-Ez olakorik sinistu.
Ilanak esaten dabe. Batzuk olgetan lez, besteak bete-
betean. Igarri dot.
Sekula guzurrik esan dautsut?
Oraiñarte ez neban pentsaten olakorik.
Guazen, guazen etxera.
Gurera?
Zeuk nora naiago?
Nai dozunera.
Amak be esan dausta zeugaz berba egiteko.
Zeg itik?
-Naste asko sortzen daustclako.
Etxeko goraberan?
Gaur goizean ez dakit zer erabili daben Mikolegaz gure
amak.
-NUn?
Etxean.

Eta Peru'k Mikol'egaz etxean oartu ebena agertu eutsan.
Aita lapurra... semea berea... Berak entzun eta ikusi ebana.
Ni laga ta zuenera joan da orretara?
Nik antxe billatu dot.
Eta amak zer esan dautsu?
Negar eta negar arek. Gero biok negarrez, ezin bérbarik
egin.
Burua be galdu bear dabela, ta orrela ibili da.
Guazen. Ez bildurtu.
Nik ez nekien zerbait dago emen. Konturatzen asi naz.
Uste dozu?
Dakizun baiño geiagorik ez dogu jakingo eta guazen.

Eskutukoak agertzen

Idurre oean egoan.
Semeak eskatu eutsan Simon egoala eta su ondora joateko.
Ezin eban, edo naiago eban, oean egoala berba egin.
Simon sartu zan. Erdi lotsatuta, gelan artzen ebalako. Eta
berealasi zan jardunean:
Parkatu Idurre, onera etortea. Etorri baiño zure semeak
ekarri nabela esatea, egokiago litzake.
Biok auzoko on izan gara eta adiskide. Ondo dakizu. Zeuk
dakizu, ortik kanpora, gure artean ez dala ezer egon. Asko esatea
da, baiña ez eta laztankeri edo igortzi bat bera be.
Ez al da egia?
Bai Simon. Orretan ez dautsut nik ezer esango. Geiegiz-
koa be izan zarala esango neuke.
-Senarra zeunkan. Zori txarra euki zendun beragaz.
Egia da lapurra zala?, lotsakor eta bildurti, Peru'k.
Andia ez beintzat, lotsatu eta iges egin ebalako, etxekoak
konturatu baiño len.
Baiña egia da ez?
Ez zaite orregaz kezkatu. Zuretzat *ez* dator ortik *ezer*.
Bear ba da lapur lotsakorra izango zan. Berezkoa.

Sekula orrelako gogorik ez eban agertu, Idurre'k berbarik ezin osotuta. Baiña ixilla zan, ixillegia. Ezkonbarri izanarren, ez zan ausartuten bere kezka eta estutasunik agertzen. Nik uste dot orrexek galdu ebela. Etorri, gitxi irabazi, eta emaztea ezin zainduak. Itxasoan be asi zan arrantzan, baiña jota etorten zan, aulduta, ez ebalako itxasorako balio.

Nitzako gizon a barruak artu eban, eta galdu.

Ez daukazu bere aurka ezer?

Ia esateko ezagutzeko dcnporarik be ez neban euki.

-Alperra zan?

Emen lantegian asi zanean, arotza ez zan lez, basatzako lanak emon eutsezan. Eta nor ez da gogaituten orrelako ekinbidetan?

Nik ez neban ezagutu.

Ez.

Eta ni jaiio baiño lenago joan zan.

Bai.

Eta ni ez nazala bere semea diño.

Nok esan dautsu ori?

-Ez estutu Idurre.

Zure orduko giroa zcuk bakarrik zenkien.

Bai, Simon, zoritxarrez.

Senarrak lagatako emazte bat, ni nengoen lez, oraindik iñor ezagutu barik, norbere erritik kanpora. _

Baiña laga eidazue. Burua galdu egiten jat tartetan.

Ama, zegaitik esan ez?

Zer esan?

Ni aitaren semea naz edo ez?

Ene ba da, txotxo!

Ez estutu. Idurre Nasaitu zaitez.

Bai ama, nik sinistuta daukat. Baiña jakin nai, zeugandik jakin nai.

esus..!

Ara, auxe da egia:

Senarrak, zerbait ostu eban lantegi baten.

Oartu neban bein eztabaida gogorrean, baiña berak ez

eban ezer agertu nai izan.

Iges eginda gero, nigana etorten zan jaubca, nik ordaindu naian.

Nundik egingo neban ori zcr janik be, esateko, ez ba neukan, eta oraindik errian etorri barri ba nitzan?

Estutu nindun. Gero ta estuago.

la egunero etorten zan. Andra gazte ederra nitzan orduan. Bear ba da orrek ekarten eban bera. Zorra parkatze ordc, zuritu nindun. Gogo txarrez eta indarkeriz, azkenean be makurtu nitzan.

Gciago *ez* zan gizon a nire etxean sartu.

Baiña ni...

Egia da, orretara, nire aita beste ba dala.

-Bai, egia da.

Zuk be cz zenkien ori, Simon.

Ez.

Baiña zuk kalean entzungo zendun, Simon.

Kalean entzuten dana sinistu ezkeru, nire semea zareala be esan izan daustc.

Nik ez dakit nundik zabaldu dan.

Abadeak, ezelako kezka barik, ezkondua nitzanez, nire se-narraren izen-abizenak sartu cutsazan bataiatzean, liburua bete-tean.

Eta iñok jakin ba dau, nik esanda ez dau jakin...

Parkatzen, seme?

Erantzuten ez?

Nik ba dakit, Idurre, Peru'k, berbaz esan *ez* da be, barru-tik parkatu dautsula.

Zure sortzea,, Peru, esan da *lez* izan zan.

Eta orain zer egin bear dozue?

Zetaz?

Ni zeinégaz geratu bear naz?

Ez dozu nai nigaz geratu, ala?

Eta ezkondutera beartuten ba zaitu?

Zeinék?

Zeuk dakizunak.

Ez seme.

Ni ezkontzera beartutekotan, zeu izango ziñake, zeu baka-
rrik, zeure premiñak edo zeure ardurak eraginda. Beste ezerk ez.

Orañarte bizi alargun izan naz. Emendik aurrera alargun
soil. Baiña gero ta maite eta kutunago izango zaitut, pentsaten
neban lez, ezagutzen eta parkatzen jakin dozulako.

-Emen naukazu ni, aita izan barik, aita lez jokatzeko gertu.

-Bildur naz., Simon, batzuen zitalkerizko mar-mar eta azpi-
esanak ugaritako diranez.

-Orrelakoak erantzun erreza dauke. Gure aitak esaten ekia-
na: Esana bat eta izana bi, izana zu, esana ni; esaten dakiana izo-
rratu bedi.

Eta ostikada barik, lotsatu eta minduta laga.

Neuk agintzen dautsut, Idurre, esanalak-esan, zure seme
Peru gizon egiten aleginduko naizela.

Eskari bat egiten daútsut:

Gure abadeak gauza oneik garbi laga nai dauz beretzat eta
ondorengoentzat.

-Zer dago ba zikin?

• -Esaten dautsezanak, esanaren ekiñez, erdi sinistu egiten
ditu batzuk.

-Beregana eldu dira?

-Iñorcngana baiño lenago.

Origaitik gu joatea'nai dau.

Garbi esanda, ura iturritik edan.

Ez zenducn ezer gertuko.

Zer eta zetaz gertu?

Ez dakit ba! Ain asko entzuten dan lez...

Ba dakizu, Idurre, abadea ezkontza zalea dala.

Bera? Abadetza laga ta?

Ez, bere eleiztarrak ezkondata ikustea baiño.

Nor ezkondu? Ni?

-Origaitik jakiñan gain jarri nai zaitut.

Iñor ez dabil orretan. Ni ez beintzat.

Zuk, ara joatean, gauzak garbi laga.

Laster sinistuko leuke arek, aita nazala esan ezkerro, eta

mutillaren abizenak aldatu.

-Benetan, ama. Nik igarri dautsat abadeak pozarren ikusiko ninduela Simon'en seme.

-Gauzak ez dira orretara. Ezin danik ezin.

-Nasai Idurre. Garbi diñotsut. Nik be, berbetan asiagaz batera esan dautsat, eta biotzetik esan be, oraiñarteko bizimóduan jarraitu nai dodala. Eta ez ibilteko iñor zirikatzen.

Jakiña, nik neurea esan dautsat. Ni ez naz sartzen, sartu be ezin neikelako, bestien gurari eta asmoetan.

Nigaitik libre egongo zara beti Idurre, zeuk deritxazun egokiena eta berrazkoena egiteko.

-Eta ama, zeuk zer esateko asmoa daukazu?

-Ez estutu mutil, nire maitasun guztiak zuretzat bakarrik izango diralako, oraiñarte lez.

-Eta nire aita danagaz beartuta zagozala ba diñotsu?

-Maitasunak bakarrik beartuten dau eta ez beste *eze*. Ondo dakit nik nor dabillen maitasunez eta zintzotasunez.

Esan eta esango

Simon, Idurre eta Peru abadetxetik urteten ikusi zituenean, *ez egoan* inguru aretan jende askorik, baiña laster zabaldu zan barria areik ezkontza gertutera joango zirala.

Bereala biribildu eta aizetu zan, iñok uste ezarren, Peru Simon'en semea zala, eta len, oraindik Idurre alargundu barik egoalako, ukatu eutsan aitatasuna emotera gertu egoala.

Erraz esan zan len, Idurre'reñ senarra eskutuan egon zan artean, galduta edo geiago agertuko ezalakuan egon zanean, ezkonduen bizitza eroaten ebela, eta Idurre Simon'en kontura bizi zala.

Beste guzur bolarak be ibili ziran:

Idurre'k Mikol begi obeagoz ikusten ebala, baiña Simon sartuta egoala bitarteko eta onek ez eutsala lagaten nai ebanik egiten, ez eta etxe ondora urreratzen be.

Abadeak pentsatu bear ebela bere garaian, bizi alargun ba-

tck semerik ezin cikcala ekarri edo sortu, iñok nun egoan cdo bizi ba zan ez ekian senarrarcgandik.

Eta Idurre eta Simon'ek aurgintzako almenak galdu barik cukiarren, eskutuko bizitza ez salatutearrcn, arrantzalicn bizitza garratza aitzakitza ipinita, geiago umcrik cz ekarteko berba al-karri emonak zirala.

Eta urteko ituna amaituagaz batera, Mikol'eri erriko otzara cgilletzako eskubidea eta nortasuna kendu egingo cutszala, Si-mon'ek ala nai ebalako, cta besteak bildur eutselako.

Abadea, askotan, jardunak jardun, jaramonik ez egiteko zale zan, baiña oraingo guzur oneik sututa laga eben, batez be bera tartean sartzen ebelako, Pcru'ren legezatzazgaz.

Egun batzutako mar-marrak izango ziralakoan, gor ager-tzen zan lenengotan, ezer jakin cz nairik, baiña gero ta zabalago ebiltzala konturatu zanean, erritar zintzo batzuen izen• ona zain-tzeko ardura eta bearra eukazala, eta Jaunaren eta Eleizaren on eta naiak eskatzen ebelako, eleiztarri berba egiteko erabagia artu eban.

Ala, scrmoi baten adierazo eutsen guzur oneik zabaltzen zein ebillan autorlcikutik kanpora jakiten ba eban, eleizaren es-kubide eta graziak ukatuko cutsazala. Eta autorlekuan autortzen eutsanari, erri-penitentzi lcz, kalerik kale txiliña jo cta jendeari guzurra esaten ebillan pckatari zala eta deika ibilteko zigorra ipi-niko cutsala.

Eta ez zala iñor, orreitako iñor kanposantuan sartuko, erriaren aurrean autortu barik, esaten ebena guzurra zala.

Abadeak esan eban ori.

Bereala joan jakon Mikol, zital. Ba ckiala Simon eta Idu-re'ren ezkontza gertuten ebillala, cta mutillaren aita bera zala-ko, ezin cikcala, jakinda, orrelako ezkontzarik egin.

Abadeak erantzun eutsan ia iñun ezkoutzako deirik ikusi edo entzun cte eban. Eta gizona izan ba zan, len euki ebala nai-ko denpora bere argakeria jakin eragiten agertu eta ziurra ba zan, komeniko ziran abizenak ipini al izateko.

Orrez gaiñera erantzun eutsan, ezkontza ez zala batek ba-karrik egin bear ebana, bik baiño, eta ia bigarrenarcn maitasun

czaugarririk cta nairik ba cta eukan orretarako.

Mikol'ck cz eban beretik urteten. Semea berea zala.

Azkenean, abadeak, ia beretik urtenda, zemaitu eban:

Arimea be galdu egingo neuke nik, lotsatuta, amabi urte-tan bizi alargun errukarri bateri ezetan lagundu ez, eta gero bere semea ncurca dala esaten.

Eta iñok ez dagiala jakin, gaiñera, ume orren sortzea, senarra zanaren lapurreta txiki baten zorra ordaintzeko bortxakeriz ama makurtzetik datorrela.

Abadeak ori esanarren, Mikol ez zan ixildu.

Mar-marrak eta ixil kontuak ez ziran amaitu. Jendeak berean jarraitu eban.

Abadea bera be saltsan sartzen eben, gero ta ugariago.

Erri txikien pekatua dala esaten da, euretako beste onoi-men (birtute) askoren argiaren kerizpea, pentsa eta esan, iruditu eta zabaldu, oker entzun eta aizetze au.

Gizon arterako birtutez beteta bizi diran erri txikien izatea.

Arrantzale barria

Domu santurutan, Arrantzaleen Kofradian, urteko batzarra egin zan.

Batzarkide asko. la geienak.

Lengoagaz aztu barik egozan ezaugarria.

Labur, baiña garbi, urteko goraberen kontua emon eban Tximista lendakariak.

Ez jakin zegaitik, bear ba da garrraztasunak kentzeagaitik, andrea matxiñadako gorabercric ez eban emon.

Lendakariaren azalpena amaitu zanean, Simon'ek berba egin eban.

Bereala asi ziran batzuk zirika:

Alargunak gaztetuta etorriko da ori.

Andre txotxiñen berbetan asten ba gara, batzarrik ez da amaituko aste betean zital eta gordin erantzun eban Simon'ek.

Egon zan mar-mar ixilla, baiña laster amaitu zan.

-Jakín nai dot, andren diru partillako zorra ordaindu etc zan. Bai eta zor ori zeñen baimenez egin zan, eta ia Kofradiko erabagirik Kofraditik kanpora artu etc leikien.

Tximista lendakaria zurbildu zan.

Ba ekien, beste gcienei ardurarik ezarren, Simon estu eta zeatza zala eta kontu artzailca orretan.

Eta Tximista'k parkatzeko eskatu eban. Iñoren baimen bari, Kofraditik kanpora artu zalako eta oraindik zor egoalako. Baiña orduko giroa kontuan eukiteko.

Simon'ek: Orixe nai neban. Parka eskatu eragitea.

Itandu eban, baita, ia billatu ete zan iñori boletoa kentzeko dcilariak baimenik ete euken edo ez.

Oneik, fede onez eta itsu-mustuan artutako erabagia zala, eta parkatuteko barriro eskatu eben.

Símon'ek barriro: Orixe nai neban. Parka eskatu eragitea.

Zetan dator agure alu ori. Berak parkarnenik eskatu dautsa erriari, azken estutasunagaitik?

Nik ez daukat origaitik zetan parka eskatu, eskerrak emon baiño, erantzun eban, erri lez jokatzen jaki ebalako. Eta eskerrak

emoten dautsadaz, benetako gogo eta ezaugarritz. Ala pentsaten dozue beste edozeñeri ori gertatean, ni ez nazala nire indar eta alegiñez beste ainbeste egitera ausartuko?

Eta orain esan bear dautsuet: egun aretan nigaz zan mutil a, gaur Kofradian sartzeko izena emoten natorrela.

Zure semearena?

Nok esan dau ori?

Mundu guztiak ez al daki?

-Datorrala nigana ziurtatuko dabena bat.

Entzun?

Nor da barrero esango dabena?

Emen dago mutilla. Pedro Iturri Burgoa. Nire abizenik ba dauka? Nirea ba nitz lotsatuko nitzakelakuan aitatasuna emoten?

Baiña neuk diñotsuet, agerpena egiten dodan lez, bere eskubideak be nik artzen dodazala, bere amaren aginduz, oi dan lez, bere legeko adiñera eldu artean.

Eta ziur diñotsuet, mutil au, ni bizi ba naz, arrantzale artean jator, ikasi eta gizona izango dala.

Iñok ez eban tutik esan.

Barruko poza igarri jakon Simon'eri mutillaren izena arrantzale artean sartzen ikusi ebanean.

Peru ixil egon zan, lotsakor eta apal.

Simon'en azkena

Laster il zan Simon.

Il ez, itto.

Itxas ertzeko erri txikietan sarri gertaten dan lez, ume txikitxu bat, nasa gaiñean, ur egalean jolasten ebillala, uretara jausi zan.

Toki eskutua zan, etxe oste bat, bakartade egiten zana.

Leioetatik ikusi eban norbait deardaka, garraxika asi zan, umea uretara jausi zala-tar

Inguru aretan ebillan ain zuzen Simon, oiturarik ez galtzearren, itxas ondoari usaiña artzen.

Dcadarrak entzunagaz batera, arriskuari begiratu barik, ool-diz labanduta egozan arri artetatik asi zan ur egalera urreratzen, andik jasoko ebalakoan. Txirrist egin, gorputzari eutsi ezin, bekogiagaz arri cgala jo, min artu eta ia konort barik uretara jausi zan. buruz bera, eta bertan itto.

Emakume gazte batzuk lortu eben uretara sartuta igarian umetxoa ataratea. Baiña ezin izan eben Simon bizirik atara, eta ur asko egon ezarren, egoera txarrean geratu zalako, itto zan.

Ain zuzen gizonak itxasotik ebiltzan egunean gertatu zan eta inguru aretan ez ziran emakumeak besterik batu.

Biaramonean, arrantzaleak itxasora *ez* urteteko bandera gorria eskegi eben Kofradian. Beste koloreak galerazpen neurrituak adierazten zituen. Gorria danentzakoan zan.

Edozetara be bere illeta duintasunez egin naia agertu eben burukideak.

Iñok ez eban eskutatzen gizon gogor, beretar eta buru gogor izan zanik. Baiña borondate andikoa zala be danak autortzen eben eta eskutu eta azpikeri bako gizontzat autortu eben.

Erriaren konturako izan zan illeta.

Bertan, «seniderik urrena» lez, Peru egon zan, bere brus urdiñagaz. Ez eban nai izan «okasiñoetako» jantzirik.

Eta «sepultura», «oblata» egiteko, oitura zan lez oial eta gona baltzez, Idurre.

Baiña iñor ez zan ausartu «semea» eta «laguntzarra» zirala esaten.

Gaitz izaten da bein sartutako esaerak eta deiturak kentzea, baiña Peru'k kozkondu orduko laster sartu eban ortazko lotsa, lenengo txalupan zirikadaz zerbait esan eutsenean eta gero ka-lean.

Mikol, otzara egillea, erritik aldunduta egoan, urtero barriztuteko ituna barriztu barik, bere borondatez, bear ba da bertzat giroa illuntzen igarrita, lotsaz, destaiñez eta miñez.

Urak euren bidean

Urak lez urteak ez ziran geratu curen bidean.

Peru mariñel troko egin zan.

Makallautara joateko era euki eban. Amak nai ezarren, ama ondo ikusi nairik, diru ugaritxuago irabazteko garretan, aukerarik ez eban galdu nai izan.

Itxas andietako bakartade eta alegiñak, mundu barri bat erakutsi eutsen, eta adorea sartu eutsen arrantzari naitasuna artzeko.

Mare bi egin zitun. Mare luzeak, illetakuak. Baiña arrain cz-unea gertatu jakon bere urteeretan. •

Pobre izateko etxeko salda epelago zala ta gelditu zan, erri-kockin bertako txalopctan ibilten.

Gero ta ontzi andi ta sakonagoak egiten asiak ziran. Txalopa andiak bapore biurtzen. Arraun eta belaeen indarrak, gasolinazko motorrak eurekanatu zituen.

Onetan aldatu zan itxas bizitza. Neketsu oraindik, baiña lendik erraztuta.

Beste bizikera, au da, etxe eta kalekoa, oitura, ekandu, jokatibide, familien eziketa, alkar arteko gordintasun, brastabrastako izakera eta abar, endaz etozan lez jarraitzen eben.

Ama bizi zan artean ezkondu zan Peru. Ama berberak agertzen eutsan ortarako gogoia.

Bata bestearen atzetik, olatuak lez zakadáka ekarri zituan umeak.

Ez zan eldu ontzijaube iatera. Egia esateko, mutil bakarra euki eban eta besteak neskak eta ez eukan ortik bultzada andirik. Askotan ontzi jaubeak famili ugarien premiñak bultzatuta agertzen ziran, eta patroitza egin eta etxekoen ogibide izaten ziran. Batez be patroitza etxeko zeregin lez gordeten eben, ontzi jaubeak eta nai ta duintasun andirik agertu ez, nekez lagaten eben ardura ori etxetik kanpoetan.

Alaz eta sota-patroi izatera erraz eldu zan, au da, patrioiaren ordcko. Eta pozik ibili zan ardura orretan. Maite eben tostartekuak, agindu bearretan berak emoten ebalako erakuspidcrik

onena.

Simon'egaz gertatu jakon estutasuna gogoko izan eban bere bizitzan. Birritan ikasi bearrik ez itxasoeri lotsa artzen, zaintzen eta gordeten.

Berezko nortasuna eukan arrantzan. Arrain «sunda» igarten berebiziko zan. Lotsa eta nortasun ori irarri zitun bere semeagan eta ingurukoetan.

Ia irurogei urterarte ibili zan itxasoan.

Txalupako gizonen begirale on izan zan, bai eta txalupa berberaren arduratsu be.

Mardul zala, gizon egin eta gordin zala, ez egoan errian bera aiñakorik.

Baiña urteak ez dabe parkatzen.

Jakiña dan lez, lengo mariñelik *ez* zan itxasotik aberastu. Ia *lege* lakoa zan ori. Batzun ustez itxasoaren aierkundera, bengantz. Askok ez eben esaten ainbesterik. Autortu bai itxasoa sako-negi zala bere ondoa ikusteko eta zabalegi ur azpietan ebiltzantzat.

Peru berberak bere ondorenetan igarri eban ori.

Ez zan aberastu. Ez eta bere premiñetan nasaitu be. Egu-nean bizi zan. Batzutan atsegiñago, bestetan estuago edo ta kez-katiago. Baiña egunari begira.

Orrela ekaitz nai galerren, ipar baltz nai kalma zuri, laiño nai goi urdin, bere bizitza arrantzan igaro eban. Miraritzat eukan ainbeste urtetan bizitea, geiago tirabira edo itxas ez bearrik bari. Noiz nai gertaten ziran orrelako estualdi eta zoritxarrak.

Orrela, arrantzialien zartzaroan sartu zan. Ordu luzeei begira, luzeegien alpertasuna ezin gainduta, nagikeri eta lotuera batera ziran Jainkoak deitu arterañoeko urteak narraz eta aukera bari biziten.

Itxasoa, zabal eta luze dala, ez da aspergarri, ez eta etenkor arrantzale eta itxastarrentzat. Erabilkorra da.

Kalea, orde, estu eta nasaiago izanarren, baretsuago agertuarren, nagi eta alperra da. Eta zartzaroko lotutasun eta gogortasunak neketsu eta sentikorrago egiten dabe.

Urteak eroiazan Peru'k, nai ta ezko atsedan orretan.

Etxean etxeoak, kaleari berea emoten ekian.

Bere mundua itxas tresnak ziran. Arrantzarako gaiak. Batez be urterik urtera barriztu eta egokitzen etozan tresna eta gailuak. Eurak ikusi, aztertu eta ikasten ibili nai izaten eban. Batez be lengo edo bere denporako tresnekin alderantzia billatzen.

Ez zan, beste barik, barriztapenaren aurkako. Eta eztabaidan ipini zitun erabide barri batzuk, geroago onartzeko.

Kalean akatsak bere baltzune luzca eukan. Arrantzale bizitza nekez etorran aldatzen eta ontzen. Bere bizitzako urtetan aldakuntza andirik ez zan igarten. Teknika aldatuarren, bizitzako moldeak lengo zarrak ziran. Lengo asarreak igarten ziran eta lengo kezak. Lengo estutasunak eta lengo «miseria». Gazteak lengo giroan lez negar egiten eta zarrak lengo nagikerietan orduak igaro.

Merezi dau Peru'ri bere zartzaroan, bere il arterako giroan jarraitutea.

Nire izena

Balbe naz.

Jo!

Zelako izena ezarri eusten bizi guztirako bataiatzean?

Balbe!

Gure gurasoak biribillak eukezan, euki be. Edo ta eurei aolkatu eta aginduten eutsen abadeak.

Umetan *ez* nitzan konturatu, jakiña, Beste umeak be eurcnekaz konturatzen ez diran lez.

Koskondutean be ez asko. Zein da izenagaz konturatzen dana edo arduratuten dana? Zein, bizarrak baiño lenago urtetan daben ulexka, edo keuso, edo illaunaz erdi lotsatuta ibiltan dan denporetan, eta abotsa be, ez umetako eta sarritan ez geroko,

ezin kokatuta dabillanetan?

Gaztetan be ez asko. Ni lez. Eta bear ba da konturatu be ez nitzan egingo, bein gure treiñeruko patroiak, denporale txiki baten aize eta euri zakarretan gebiltzala, gu gazteok arctara ez gendula jarraitu nai, belak etxerako bandan cskcgi eta lotu, eta guk palada batik ez gendula emongo erriko bandan ezik arpegi-ra esan, eta bera, eukan gaiztakeri, zorrozkeri eta zitalkeriagaz, asarre, barrua minduta eta goiak eta beiak errcten laga gndu-nean onelako zerbait entzun cz ba neu:

Izena be inpernuan noiz-nai egoteko lakoa daukazu ta zuk berba egin bear, Balbe?

Nire izenak zer dauka zer ikusi onetan?

Ez dakizu zure izena, Balbc, izen zatar ori eta Eriotze, ez-kontza bateko ondorenak dirala?

-Alukeririk ez egizu esan.

-Itandu, itandu Peru zarrari.

Kaira eldu giñanean, txalupa lotzen gendun molla egalca urreratu eta ango mutilloi bateri biraka lotzeko asmotan txopako txikotagaz salto egitera niñoiala, laprast egin neban eta txalupa eta molla bitartean jausi.

Izena bera baiño mcngclago zara-ta!, deitu eustan, eta onetan barre nasaia egin be bai atzekoak. Ori bai, alegiñak egin be bai txalupa eta orma bitartean enplata edo enpalauta geratu ez nendin.

Billatuko neban tartea, bai. Alperrik zirikatu edo estutuko ninduen.

Ez nitzan larritu. Traskoak jantzita ncukazan eta curen pi-sua eta lodiera kaltegarri izanarren ederto etorri jatazan ormeari gogor sakatu eta txalupa alboratzeko.

Orduan neukan sasoiagaz billatuko neutsan nik tartea molla egalari.

Peru zarragaz lenengo gertaera eukiteko aukeraren biIla ibilli nitzan. Ba nekian a zigarroa czpanetatik ezin kenduta ibiltzen zala, eta ortarako eldu ezinda.

Gazteak ez euken denporetean, zelan ezer emon zarrei patrikarako, edo curen gurariantzat. Gizon mardulak sagardautara-

ko lain euki ez eta zelan, etxeko su eta otordutatik kanpora ezer emon al izan?

Origaitik zarrak al ebena egitera oituta eta egiñak egozan.

Ordu luzeak molla egaletan sare konpontzaille andrazkoei aria orratzetan batzen laguntzen, edo ta arraiña (karnata) amuetan ipinten, edo ta aparixuak itxasotik nastauta ekarten zitue-nean eurak askatuten...

Askotan aparixuak benetako «enpatxua» ekarten eben, eta eguna bear izaten zan orrela pillotuta eta nastauta etozanak ari edo soka banatzen eta tretzetan ipinten.

Sare eta treiñak sarri legortu bear izaten ziran lengo denporetan. Eta aga, maste, zubietatik bera edo al zan tokietan legortu ondoren, batu eta esku-burdietan eroaten zituen aterpetara, ta burdi orreitan laga, itxasorako joan bearra gertatu arte.

Zarrak be ba ekien olako tokiak billatzen, burdi artean, ai-zeagandik igeska.

Orrelako aterpe baten egoan Peru, sareen gaiñean biguntasuna billatuta, lepoa euren gain ipini eta orduak igaro naian.

Tingloi,txikia deituten eutsen aterpe areri.

Peru'k mutilla urreratzen ikusi ordurako, poza lakoa artu eta eskatu eutsan:

-Zigarrotxu bat.

-Ezpanekoa kendu baifio len?

-Ia-ba, beste bizixorik ez daukagu-ta.

-Andrea ez dautsu emoten?

-Gureak emon?• Txo! Adarra joten zatoz? Andrea amaitu zan guretzat. Gaurkoak bruseko patrikarak gau eta egun orraztuten baiño ez daki. Gaur rrusurik be ez.

-Ba daki dirurik ez dozuna erabiliko.

-Ia, nire zigarroen ats eta estulagaz, lorik egiten be ez ei dausat lagaten.

Ia,kopla barik, zigarrotxu bat.

-Gauza bat jakin ondoren.

-Zeuk ez pentsatu ni Dootio nazanik, andren gauzak dira-Lrak eta ez diranak esaten edozela ibilteko.

-Bai zera!

Gaiñera, nor zara zeu?

Ni? Balbe.

-Demonien-demonicna! Zu zara Balbc?

Txo! Zuen aita... bai, ondo ezagutzen neban. Danok cz dogu eukiten, ba, alkarren barri erri txikietan?

-Eta?

Iparrak jota ebillan jaio ziñan egunean izen ori ipinteko? edo ipinten lagateko?

Zegaitik ez?

Ez dakizu izen ori eriotzaren ezaugarri bat dala?

Zelan edo nundik dakizu?

Zeuk ezer jakin ez, itanduten etorri ta zeu niri nortasuna czpaian ipinten asi?

Orrela jokatzekotan, zigarro bi edo batez.

Zelan egin leike ori?

Zartzaroko eskubidea da au. Dirurik ez daukagun lez, txi-kikeriak ordaindu eragin. Au ez da bizio andia!

-Esan lenengo zer dan.

Besterik ezean, eta zeure eskolari jarraituz, erakutsi beintzat .emon al izango dozuzan. Jakin daigula beñik bein egia ete dan.

Ori da nagusi ta aguraen sinismena!

Emon arte iñogaz be ez nik.

Ba, zure izena, Balbc...

Ez dakizu esaera zarrik?

Barririk ez dakit eta zelan zarrak jakin?

Ara bat. Agure gogaitua... esan bearrik ez geu lakoxca, cdo erdi amaitua esan nai dauala...

Barria biztuta obeto esan giñei ta ekatzu sua.

Surik be ez?

Ez eta Jainkoaren grazirik be.

Guazcn esanera: Agurc gogaitua eta balbe txarra,
bata mallua, eta bestea baldarra.

Ez dozu esan Balbc zer danik.

Ez diñotzut ba agurea maillua dan lez, balbca baldarra dala?

Zer da baldarra?

Errementariari ez itandu zu lako gazte batek, beragaz jotea nai ez ba dozu.

Ara. Errementarira ba zoaz eta baldarra eskatu... ia ultze an-dirik ba daukazun eta nun sartu bear dozuzan itanduko dautsu, zortzi librako baldarra berari eskatzeko.

Eta balbea?

Zegaitik diñozu ori?

Ba balbe berba, itza, biziaren aurkakoa dalako. Ez biziaren etsai, bizirik eza baiño.

Ni bizi naz.

Ez nabil zugaz, zure izenagaz baiño.

Ez diñotzut ba, eta entzun egizu garbi mesedez, eriotza maillua lez, balbea baldarra dala?

Nik pentsaten neban baldarra alako ardura bagako edo nabarmengarri zerbait izango zala.

Txo, baldarra beti beste zerbait joten eta ain zuzen be beti indarrez joten ibili bear dan tresna edo gaillua dar Eriotze ordu guztietan bizi danari deika dabillan lez. Balbe eta Eríotza ia bat dira. Anaiak. Esan bardiñekoak.

Iñora zoaz?

Zegaitik?

Nik-i...

Zerbait jakin nai?

Nor da jakin nai ez dauana?

Zetaz baiña?

Zetaz? Ezer ba dakigu ala? Nik len pentsaten neban gu zarrrok eskutuko askoren gordelari izango giñala.

Ez al zarie?

Guzurra! Gauza barririk iñok ez dausku esaten, nik ez dakit zegaitik, baiña iruntsi ezin geinken lez.

Ori zure ustea da. Bear ba da etsipen bat.

Nok esan dau óri? Zetan zagoz zu emen? Zerbait esaten ala zerbait jakin nairik?

Gurea zer izango da? Itxasotik urteten al dogu iñora? Eta itxasoa misterio bat ez al da?

Itxasoa misterioa? Ez, mutil. Itxasoa itxaropenik eza da.

Ori zure eritxia izango da.

Sekula berba egin dautsue iñok, egin bear dabenak edo egiten dakienak beintzat, itxasoa ametsa dala-ta?

Beti negarra, errukia, miseria. Bizi barri bateri itxaroten barik, gau luze baten irautearen bildurrez beti.

Egia.

Izango ez da ba? Zer esango dautsut ba? Nik tokirik lotu-garrienian botoia falta, falta dodala esatea lez. Alaxe da ta!

Baiña, txo, bizia ezeztuten asten naizen bakoitzean, etsipena lakoa sartzen jat eta lo gurea etorri.

Nik ez dakit zartzaroá dan.

Antxiña, asko jan ondoren etorten jatan logura edo tontor aldi au. Orain, salda utsa artuta be...

Salda utsagaz ez zara egongo.

Esate bat da ori, jakiña. Ez. Etxean, ezeukiaren barruan be, batzen dabenik ez dauste ukatutenr Eta azak jan da be...

Azak zure saolian?

Zer ba?

Gure amak esaten ekiana gogoratzen dot nik: Azak aza eta salda gazar

-Orretaz gurea be ez zan makala. Aza eta porru, jan eta dolu, ezpanetatik ia kendu barik erabilten eban arekr

Bai beste bat be: Azak eta porruak guztiak eroaten ditu ne-guak, esatea lez, ez dala aitzakitu bear beti aza jaten gabiltzanik, azak be euren ezezko denporaldia eukiten dabelako.

Gaiñera azak aizetan eta puzkarretan ez dira joaten ba?

Alaxe izan da be sabela beteten dabe ta guk, bein adin batera, betetasuna nai izaten dogu.

Eta batera edo bestera, igarri barik etorten jaku bazkal osteko lo gura. Gure andreak bazkal osteko predikua dala ta or ibilten da adarra joten. Baiña egia esanda, eguneroko premiña da.

Balbea?

-Ez eidazu olakorik esan.

Eta etxean obeto, ez?

-Etxean?

Len zan gure etxea.

Eta etxea gurea zan denporetan, guk bete gendun gure zeregiña. orren kezkarik ez daukat. Zortzi- seme alaba ekarriagaz ordaindu neutsan etxeko izate eta berotasunari, edo etxeko etxetasunari, nire errenta.

Gaur, guk, ia ezer ezin dogunean, ez al dauke gure ondorengoak, eurak be beste ondorengoan amets eta itxaropnetan, etxeko bake, ixiltasun eta berotasunagaz baliatuzko eskubiderik?

Niretzat etxea abia bat da. Txori zarrak ez dabe abirik sortuten. Orbelpen lo egiten dabe.

Orrela, nik be naiago izaten dot nire loalditxoaren emen egin, sare-burdiz betetako tingloipe onetan. Nire maitekeriak joan ziran. Nik epeltasun eta biguntasun pixkat lortu ezkeror...

Igarri egiten jakon Peru'ri, beretik urtenda egoala, lo-gurcari ezin eutsita ebillala,

Gero ta lotuago. Begiak itxita, betazalak ezin zabalduz, jaso ezinez.

Igarri bakarrik ez.

Peru berbera ebillan orren eskari. Nai eta aurrean berak atsegin eban mutil bat euki.

Bera, zar izanarren, gazte zala lez agertzeko alegiña egiten ekian. Eta azkenean be bere egoera agertzerak makurtu zan.

-Ba dakizu?

Ementxe lo alditxu bat egin ezik ez nitzake ondo.

Umorc txarra eta zitalkeria, edo gaiztakeria lakoa etorten jatatz, eta nire nortasuna be galdu lez egiten dot.

Tingloipe onetan, emen beti egoten dira-ta sarek betetako esku-burdiak, curen gaiñean, sarean atrapauta lez geratzen naz. Egia esateko, euron kresal usaiña ia batzuk kafea baiño naiago dot nik.

Ez pentsatu lo astuna egingo dodanik.

Ez dakit zer esan be.

Lotan pagola aizea be sentiduten dot; ingurutatik nortzuk igaroten diran igarten dot, curen berbaro, ots eta estul, garr-azkera edo didarretatik. Ia ibilteko eratik be, asko esatea ez ba da.

Beintzat zurtasuna lakoa eukiten dot ingurutan zeintzuk igaro diran igarteko.

Eta Peru zarra, burdian lagata egozan sareen gain makurtzen asi orduko, loak artu eban. Ia igarri barik. Sareen epeltasuna billatu eta laga egin eutsan bere buruari lo konkorrean atsedean artzen. Bakarrik egoalakoan. Tontortu edo drogratu egin ete eban sareen kresal usain eta arrain sundak?

Tingloipeko ardurak

Ez giñan agurtu eta ez nekian zer egin.
Ez neukan nora joan bear zuzenik be.
Tingloipe aretatik, kale zear igaroten ziran guztiak ikusten ziran, eta ziurretik kaletarrak, jakin ezik, ez konturatzeko eran.
Umetxu batzuk agertu ziran.
Kañabera eta esku-aparixuak ekarrezan eskuetan.
Agurea ez dago?
Zer nai dozue?
Amuak piteagaz lotzea.
Lo dagor
Ez da asarretzen itxartu eraginda.
Orretara egon apur baten.
Nai izaten dau esnatzea.
Neuk egingo dautsuedaz.
Orrek lez estu eta ondo bai?
Zer nazala pentsaten dozue? Baserritarren bate
Zu Balbe ez zara ba?
Nundik dakizu?
Zure arreba Ari-meianekua ez da ba?
-Zelan dakizu?
Nire izeko dalako.
Ziur zagoz?
Egongo ez naz ba, erre-erria da ta beragaz asarretuta nago-ta?
-Txo, begi urdin ori, nungua zara zeu?

-Ni? Lapazorrinekua.
-Lapazorrineko Txanke ezpatiaren semea?
Argala nazalako igarri?
Jo, orretara nik be Arimea daukazulako igarri dautsut?
Txo! Joan zaitzeze emendik, neu berotuta laga baiño len.

Ez dakit Peru zarrak ezer entzun *ete* eban.

Ni, era orretan nire izena entzutean, bildurtu, ikaratu eta zurbildu *egin* nitzan. Zenbat eta geiago pentsatu eta asarreago damutu.

Nire etxekoak, egia esan, ba eukezan beste deitura ezagun bi: Bata Durdura, eta bestea Arimeia.

Ametsak cragiteko lako izenak biak?

Ez bata eta ez bestea ez nitun atsegiñez ikusten, ez entzuten.

Eskerrak amaren aldetik dotoreago bat dogula: Olagarro. Erpa eta erru, nortasunez betetako deitura. Erruak zabaltzen ez da makala. Orain, geienak, Olagarronekoak deituten dauskue.

Etxeko askok atseginago erabilten dabe orrelako erri-deitura, paperetako abizen jatorra baiño. Zenbatek dakie, jakin be gure artean, paperetako abizenik?

Orain gurean Durdura entzutea, zirikalarien baten aotik ezik, elitzake ondo artuko. Zer esanik ez Ari-meia.

Konturatzen gurean Olagarrorik sortu edo sartu ez ba litz, zelako izenekin ibiliko nitran?

Durdura, Ari-meia eta Balbe era batera.

Dardara eta ikara sartzen jataz esan utsagaz.

Eta ezin ukatu, nai edo ez, lepoan erabili dodazala irurak. Leorrean eta itxas andietan.

Eta erabilteko lagunik be ez dodala euki izan, itxasoetan nigaz ibilitako gizonak ezik.

Gaiñera, Ari-meia deitura eukiarren, ari-luzea euki dodala edonoiz agertzeko gertu nago.

Danok izaten gara zerbait bizitzan. Bizitza gordiña croan izan dogunok, zer dogu besteak baiño erakusteko geiago? Nik

ez daukat nirea eskutatcko borondaterik. Eta kontu-kontari ibilteko denpora daukadan artean, zerbait esateko garrrik ezin gaindu.

Baiña zer esateko nik, au, Peru zar au, korroskada luze eta zaratetsuetan itto bearren lez ba dabil? Lo ariña egiten dabela? Mckatxis, ori da nasaitasuna ori!

Ori da auspoa; kontxo, sekula olakorik!

Ittotoke bildurrik ez?

Ene ba! Zirriketa marraketa kitarria... ori al da lo konkorrctan abestuten diarduzun abestia?

Ori da arnasaren otsa eta luzca!

Ospa egingo ba neu?

Sareen kortxo eta berun eta sokak be ez dauste gogorkcrik eragiten eta gorputzean miñik emoten.

Eta berak esaten daben lcz, gitxi janaren barruko naigabeak be kili-kilirik ez.

Eta espanetan dindilizka eta noz galduko daukan zigarro ondakiña kendu eta barri bat biztuta ipini ezkeru?

Kontxo! Ainbestean igarten cte dau?

Nor zara?

Aizea be igarten dozula ta ezagutzen cz?

Aingeru bedeinkatu ori, ez eidazu kendu zigarrorik.

Barria ipintea kentzea al da?

Lengoa amatau al da?

Ezer geratzen zalakoan?

Eta zigarro barriaren usain, arnasa cta keiak barriro bizitzarra ekarri eben Pero eta kontu-kontari ipini.

Bizitza gordiña

Emen nago ba, Balbc Olagarro.

Ze u cz zara ba? Emen ni, lenengo Txo, gero Pero zarra, arratsalde guztirako gaztctuta lez. Auxc da arrantzalicn bizitza, bein aguretu ezkeru. Eta go, ni beintzat, endaz arrantzale gara.

Nik dakidala gure odolckuak beti izan ziran itxastarrak edo arrantzaleak.

Arrantzale lez pobre eta pobre lez zeruko lorea, esaten ekian, mindu bearrean bekokia erro jasota, gure ama zanak.

Ni, txikitan, gose asko igarora naz.

Asko benetan?

Asko be asko. Killioiak.

Negu luze eta baltzak izaten ziran gure etxeokak.

Udabarriak emoten euskun poztasun pixkat, eta gero, udazkenerarte, atun tatoekaz loditzen giñan.

Atun tatoak jan eraginda indartzen ziran umeak gure denporetan. Gaurkoak, oraingoak, atunak sikatu egiten dabela, es-teak batu egiten ditula eta orrelako aitzakiak ipinten dautsez. Baiña gu...

Atun takoak ez-e, tramana eta arraiea be ez ziran gureztat makalak, nai eta batzuk 'txis usaiña daukela ta bastertu. Nungoak gara ba!

Otarraiñak egon ezkerro...

Bai, zurdak!

Olakorik ez eben etxera ekarten gure gurasoak. Baiña jakiten gendun sagardautegian noiz jaten eben. Esateko eukiten eben.

Ori bai, gure etxean, mundutik jatekorik onentzat, izurdea eukiten eben.

Artzea galerazota dagoalako.

-Bai, gaur lez. Baiña iñoiz, orduan orain baiño geiago ibiltzen ziran-eta, asko ebiltzala, txalupa ondora be urreratzen ei ziran, gizonei bildurra sartzeko eran, eta oneik arpoiagaz jo eta zaurituten ebena artu eta merkatura atara barik, etxetara zabal-tzen eben.

Abadeak eta osagilleak be gurariz jaten eben ori.

Galerazotako frutua ez zan ba?

Orretan areik cz euken errurik. Il dakoa lez artu ta kittu.

Zucntzat baiño zati obeagoa areintzat.

Ba dakizu, lagundu be egiten dabe.

Atan zagoz?

Ara, barruko bakea iñok emotekotan, areik emoten dakie, ta ori, itxasoagaz burrukan bear daben batentzat gauza andi da.

Gaurko gazteok or diarduzue lengoari ontzarik ezin kenduta edo ta beratu nairik.

Ai ene! Kontuz, kontuz gauza batzukin.

-Bildurra da ori.

Ara Balbe. Nik ez dot nai euren aurka ezer esan ez egin. Gurea eta batez be nirea egiña dago ta uste baiño lenago curen premiñan egongo neike. Eta ni... Ni be mesedeak artuta nago gure fedetik. SekUla ez dot ukatuko olakorik.

Ez da bat fedea eta gizonak.

Gizon orreik ez ba legoz, guz ez genduke federik aizetuko.

Gure fedea itxasoaren bildurra da. Itxasoari bildur ori kentzen dausagunean...

-Zegaz kendu?

Ibillera ziurrago bat billatuta.

Zer nai dozue, farolak anditu eta argia amatau?

Peru, ez zaitut artegatu nai. Zurea ikusia dago. Gurea ikusteko.

-Nik ez diñot ogi obeagorik jango ez dozuenik. Eta erreza-go irabaziko ez dozuenik. Baiña ori aurrerapidearen neurria da. Eta nor da aurrerapide ori argitzen dauskuna?

Enbido orreri ez dausat eutsi nai, baiña alako baten entzungo dozu ordago gogorren bat.

Eta nik erantzun. Gaurko kartekin bai beintzat.

Eta galdu.

Edo irabazi.

Oraingoz jarrai daigun lengo kontuetan. Obeto izango da, ez?

Nik lengoak ba dakidaz. Oraingorik ez asko ta gerokorik zer esanik ez.

Nigaitik ekin.

Ogia be koskan emoten euskuen.

Zelako koska?

Ara, ogitara joaten urteko il batzuetan eukiten ez gendun lez, zotz bat eroaten gendun okindegira. An emoten euskuen ogi bakoitzeko koska bat egiten eutsen zotz orreri, antxoa sa-

soian *edo* atun sasoiā amaitueran ordaintzekotan. Kontu garbia izaten zan. Zotzeko koska bakoitza librako ogi bat.

-Ez egoan paperik...

Nok ekian paperetako aiña eskolarik?

Ni neu, eskolara joan baiño lenago, eskola igesi geiago ibili nitzan, nai ta alkondara zarrez egindako «eskolarako karteria» «Katon»agaz eta punta bagako lapitzekaz, eta egalak koskatuko pizarra zar bategaz beteta eta erdi puztuta erabili.

Ortozik ibilten giñan gure ume denporan, domeka eta jaietan abarketakin. Belaunetako errebira ondo artuta euken prakak erabilten genduzan, Kolore guztietako txaplar^akin atze eta aurreak konponduta, eta brus txikia izaten zan gure gaiñeko jantzia, edo ta aiñatzara joaten ziran izekoak aiñatzatik ekarten euskuezan jertzak.

Erri guztia brusagaz ezagutu neban, maonezko brusagaz, ariñera baiño astunera geiago joten eben brusekin eta astun eta izerdi sunda edo usaiña lakoa eukiten ebenekaz.

Eta iñor ilten zanean, batez be senide urre ba zan, gogoan daukat etxekoei alkateak edo etxejaunen batek lagaten eutsela «okasiñoetarako» jantzi baltz estu bat, eleizara txukun joateko.

Asko a jantzi eta eurenetik urtenda, izerdi likiñetan ikusten ziran, tente egon eziñik, eskuak nun sartu be ez ekiela.

Ezin curen brusagaz joan?

Eziñik ez egoan, baiNa oitura izaten zan eta bete nai.

Nai ta ez?

Ainbcstrik ez, baiña oiturcn menpetasuna ainbestekoa zan. Bestela gizonak ziran areik, gizonak!

Gaiztoak?

Orduko gizonak garratz eukiarren, ogi bedeinkatuak ziran. Nire aitatzako izana zana bai beintzat.

-Eta itxasoan?

Itsucgi. Nire aitatzakoak, esate baterako, cz ekian etxean egoten. Ez zan bere zercan aurkitzen. Esan nai dot, itxasora joan barik, ez zan bera.

Eta iru-lau bidar itxasoetan tirabira egitea gertatu jakon.

Orduko txalupak aize pizkatek jo orduko okertzcn ziran,

egalkera jarri.

Baten, gu ume koskor giñala, gure kaieko sarrera orretatik ia ittota lez atara eben.

Ikusu zenduen?

Gu geu be mollan egon giñan. Umetxo giñan orduan. esateko konturatu be ez giñan egiten arriskuagazr Etxekoak negarrez ikusten genduzan, eleizara be eroaten ginduezan, baiña itzala eta negarra betiko ziran *lez.r.*

Eta niri neuri gertatutakoa be, biziak bakarrik kontatu leike. Ez neuke nai iñorentzat alako egonbiderik.

Ainbesteko izan zan?

Kontu egin, itxasoan bertan nengoala, kurutze bat lez erramua lepoan lotuta euki nebala, gure burua galdutzakotzat emonda, itxasoan azalean geratu nedin, beste laguntzaren bat agertu arte. Eta beste itxaropenik ez otoitza baiño.

Sinistutea be gaitz egiten da.

Fede barik orrela sinistuko eta eban?

Ori *ez da fede*a. Ori eziñaren eroapena da. Edo eziñaren makurpena.

Ondo edo txarto egiña?

Ixil egonda ez da ezer lortuten. Eta zuk pekatu dala esan-go dozu, baiña Jainkorik be ez da samurtzen.

Nire aurrean ez esan orrelakorik.

Zegaitik ez dot erakutsiko pentsaten dodanik?

Lengo umeak agertu ziran. Esna egoala konturatu eta urreratu be bai.

Emen, Peru, amua eta pitiar Lotu mesedez.

Egunero zatoze bardin. Zetárako?

Lasunetarako.

Au pantxotako amua da

Ba jausten danerako.

-Niri atxamarta egingo daustazu?

Aririk bai?

Or amuak, aria eta pitia be.

Eta eskolara?

-Jo! Gaur mare bizia dago.

Eta urrengoan marçilla. Edo ta aingiratarako uriol ondo-
rengo ur loia, *ez?*

Bata nai beste eskola igesi ibilteko aitzaki.

Ikasiko dogu urrengoan.

Bizarrak urtenda gero?

Borandatez lotu eutsezan amuak eta aparixuak.

Balbe'k bekoki illunez begiratzen eutsen. Eta esan be bai
Peru'ri ume areik eskolara cz joatearen errua berberari ezarri ci-
kiola. Eta bularra joteko.

Aria luzatzen

-Uste dozu, Peru., zuen denporetan zerbait erakutsi ba cu-
tsuen, gaur nasaiago ez ziñala egongo?

-Gure denporan eskolarik *ez* egoan, esateko, bakarra baiño.
Eta iru-lau mutil argi ziranekaz igaroten eben maixuak curen
denpora. Besteok, berak esaten eban lez, besugos al monton. Eta
guk ikasi gendunagaz baliatu bear itxasoan eta bizitzako gorabe-
retan.

Len esandakoak egi dira. Ziur egon. Eta geiago esan nai ez-
kero...

Esan, esan, ni ikasi ta ikasteko gogoz nago-ta.

Ixo!

Guazen sagardautegira.

Ez daukat dirurik. Jakin?

Zer esan nai orrekin?

Ba... bat, ezpanak bustiteko or nunbait.

bi, eztarrirako gitxi,

iru, sabela anditu...

Ta lau, auzoak ordainduko dau. Ez?

Ia ba, gu zarrok, ba dakizu: Urterik urtera San Juan, baiña
nekez etorri ta arin jua.

Balbe, bi eta kittu.

Lau eta barrero jarraitzeko gertu, ez?

Sagardautegian sartu orduko, kiñuka asi zan Peru. Igarri

eutsen iñoren kontura eioala. Lenago be oituta egozan, iñoiz, orrlakoetara.

Eta Peru, beriala asi zan kantari:

Bedeinkatua izan dedilla
sagardoarcn graziya,
bai eta ere kupira gabe
eraten duben guziya;
erari onek gizon askori
ematen dio biziya,
au eran gabe egotia da
ncretzat penitentziya.

Eta abots onekoa zan lez, eta bertsoarako egokia, sagar-
dautegian egozanak, lenengoan betozkoa ipini ba eben be, txaloka ekin eutsen eta beste bat esateko eskale asi.

Ori zan bere giroa!

Barriro ekin eutsan, buruz ekiazan Artola'ren bertsoak kantaten:

Gaitzik ez duben erari oni
gogoz oi diot nik ekin,
satisfazioz ez naiz arkitzen
pitxar bat eta birekin;
iru edo lau izaten ditut
arratserako nerekin,
tristura eta penak sendatzen
ditut sagardoarekin.

Barriro sagardautegian egozanak txaloka ekin eutsen. Erdi lo egozanak be, upel ondo baten, niai luzean, buruak makur egozanak be, lo gurea uxatu ebela irudien.

Adiskide eben Peru. Gizon ona izana eta lagun arteko, nai eta g zartzaroan, ezak eta utsak, eta etxeko bakartadeak, lagun artetik aldendu eragin eta zaarren bizi-modu luze ta aspergarria sartuta bizi.

Alaz eta ba ekien onek, nekez, baiña tartetan, egun alai eta zoro-antzekoak eukiten zitula, batez be lagunak antziñako bere gauzekin zerbait alaitu eta aupatu ezkeru.

Eta bertso geiago eskatzen asi jakoezan.

Onek, doiñua aldatu eta beste bat kantatu eban, irugarren basoa goratu eta berari begira irribarrezka:

Urrczkua ikusten
zaio koloria,
baldamu bat da berriz
bere savoria;
txinpartak darizkala
edari guria,
penak ibiltzeko txanpain
baño da obia.

Giputzak ziran bertsuak, baiña sagardautegietan ondo sartuta cgozanak.

Arrantzaleak *ez* ziran aberatsak. Denporaldi urria sarri eukiten eben. Eta aldi aretan bardin. Orrelakoetan eskutuko diruak, «Ardau-diruak», ez dabe atze-luzerik eukiten.

An egozanak, geienak, gizon mardulak ziran. Andrazkoak umeekin etxietan laga eta an, ke eta sagar-ur, kontu eta guzur, alkarreri ziri ta tirri, eguneko orduen barri emoten ebenak.

Eguneko txori-andi bi gastaten ebenak. Au da, launa baso. Eta. ez beti ordainduta. Bein baiño geiagotan Katalin'eri kiñu egin eta urrengo baten ordaintzekotan lagaten eben. Katalin berberak biotz onez ikusten eban ori, ba ekielako gizonak, eukenean, ez emon baiño bon-bon zaleago zirala.

Lengo bertsoak biztuta, begiak gorri-gorri urten bearrez eukan Anton Buru zarra deika asi zan:

Beste bat nire kontura!

A entzun orduko, ziztriña lakoa zan Xeles'ek bere gaiñetik:

Eta nik beste bat!

Peru'k ez-une denpora zala ondo ekialako, eta areik zelan ibiltzen ziran konturatzen zalako, et batez be sekula *ez* ebalako entzun nai izan iñoren kontura ibiltzen zanik, zemaikor itand: eban:

Noiz ordaintzeko, gaur ala urrengoan?

Zu ixil or, gu Katalin'egaz konponduko gara-ta.

Ez. Urrangoan, edo al danean ordaintzekotan, ni be sarriago ibiliko nitzake.

Eta? Nok esaten dautsu ezetz?, Katalin'ek.

-Jana da bat eta edana beste bat. Edanagaz ez da sekula zorrik egin bear. Ori esaten ekien gure zarrak.

Nungo zarrak?

-Nun bizi zara *zeu*?

Zu zeu Santoña Ameriketakua ez zara ba?

Emengo besteok nungoak zarie ba?

Ixildu ziran gizonak.

Peru'k zirikalari: Nigaitik zorrik *ez* egin, eta betozkoz be ez geratu, kantu bat gorabera eztarririk be ez jaku urratuko-ta.

Eta abestuten asi zan:

Zu zara lorientzat
itza dan modura;
gizonaren pozgarri
sortuba mundura,
edaten zaitubena
zu,zeruko ura,
igoten dezu mundu
ontako zerurar

Pozik agurtu eben, bertsua amaitu baiño len kalera urteten igarri ebenean.

Ojaela gertu dago gero, sardiña datorrenerako.

Asko balioko dau ojaelak, kurpitagaz ,egindako egur-ikatzik ez ba daukazue.

Nok esan dau ori?, urten eban bizi Katalin'ek. Zeu ez etorri gero iñori izenik kentzen.

-Iño! Laster urten dautsue brixak zeuri!

Ni naizana izango naz, baiña onetan ziririk iñok sartutako daustalakoan? Larruskain'go Pantxikeri itandu ia nik sekula bes-telako erosi ete dautsadan eta agindu be iñoiz egin ete dautsadan.

Eta Balbe ta Peru urten ziran, ziria sartu ebelakoan pozik, barr[^]coak, batez be Katalin, berba lapiko lez irakiten laga-ta.



Nora joango gara, barrero tingloi txikira^

-Molla burura obeto, ez?

-Urrun dago. Nekatuko zara.

- Lesteko molla urrun? Egunean birritan joaten naz.

Edozetara be itxasoan ibiltea baiño errezago.

Len eskuak nekatuten jakuzan...

Eta gerririk ez?

-Dana dala, eskuak bai beintzat, egun guztian erramutan (arraunean). Gogorra zan a! Baiña orain oiñak. Belaunak biurri. Gorputz gosekil onek lotuera eta unore geiegi eukiten dau.

Eta bizi nai. Zeure denporetan sekula ilterik pentsatu zendun'

Bai sei bidar be.

Eta il nairik euki

Txo, ni eleiz kontuan, abadiak esaten daben lez, pasako zimarroia izanarren, kristiñaua naz gero.

Ez diñot zeuk zeure burua ilteagaitik.

Bestela? Benetan esan da, ardura andi barik neure burua naian ikusi bai.

Zu gizon ausarta izan zareala, diño.

Ba! Urruneko intxaurrek zarata asko.

Luze berba egiten da zugaitik.

Kaniak ba dauka kana-crudi be.

Ameriketan be izan ziñan.

Nungo Ameriketan?

-Ameriketa bat bakar ez da ba%

iru bat, edo batera iru. Eta geiago.

-Nun

Makallutan ibilten giñan tokiak be guretzat Amriketa ziran.

Orretara bein Matzaku'ko muturra igaro ezker, Ameriketa da.

Eta da.

Ara, gogoratu: Len gure txalopak ainbeste joan etorri egiteko egokitasunak eta alik ez eukelako, atunetako denporan Santoña aldera joaten giñan edo Asturias'era. An ondo arrantzaten zan arrain ori eta dirua ekarten gendun. Origaitik, ara joatean «Santoña-Ameriketara» giñoiazala esaten gendun. Eta andik ibiltzen giñan, illa ta erdi inguruan.

Orduan potin andi edo txalupa andietan joaten giñan.

Atunetarako aparixuak eroaten genduzan. Bakoitzak al beste.

Aparixu orreik, soka, loro, tantza eta amua eroaten eben. Amuzkitzat malutak ipinten genduzan amuan. Maluta arto buruetako azala izaten da. Ba egozan gure errian, arto denporetan, orri orreik batzera baserrietara joaten ziran gizonak, eta gero, batu ondoren, ganbaretan sikatu eta txalopei saltzen eutsezanak. Tantza, zaldien buzteneko zurda izaten da.

Gaur, ontzi bakoitzak, arrain bizia gordeteko toki bereziak daukaz, eta sasoia eltzen danean, Zarauz'ko aurrera (abrara), Sagustan edo ta Frantziako uretan edo Santander'eko baian artu bear izaten dabe karnata, au da, antxoa, txitxarro, sardin txiki edo antzerako zerbait, eta «biberu» orreitan bizirik eroan. Gero, ur-andietan, txalopen aurretan abor-estibor espetak zabalduta, aparixuak euretatik dindilizka daroezala, atun billa asten dira. Bestetan, nun egon leiken igarten dabenetan, arrain bizia jaurtiten asten dira, aren atzetik atunei urreratu eragiñez, edo gero sareagaz inguratu eta bera arrantzaten egiñaz.

Gure txalupak gaur ez dake bildurrik atun billa Azores'etara joateko be eta joan be alaxe egiten dira, gaurko teknikak barkartadearen bildurra galdu eragiten dabelako.

Guk ez genkien, egia esateko, Azor'esen izenik be.

Gauza bat Peru. Ez asarretu.

Zetaz?

-Gaurkoa danok dakigu-ta...

Ba dakizu, esan eta esan, ez nazala konturatu arrantzalea 'areanaz be?

Asko dakizu ta.

Nun zabiz orain?

Zein txalupatan?

Edo zein patrioiagaz. Ori esanda danok dakigu nor nun dabillen.

-Ni? Atxartegaz.

Ona.

Baietz uste?

Aita be ona zan. Urruntik igarten eban arek arrain bitsa. Iño! Arek eukan ikusmena eta arek eukazan sudurrak!

-Zer obe itxasoan?

Bata ta beste, pare.

Zuk lengoa jakin nai dozu, ez?

Ia. Guazen aritzen.

Lengo txalupak, au da, plata, txanel, batel, treiñeru, meñaga, txalopandi, potin, bapore, bolintzeru eta abar, gaurko motor andi eta arrasteruei bidea laga eta tokia emonda galdu ziran.

Len ezkuz erabilten ziran txalupak edo ta aizearen, indarrez belak bitarteko zirala. Orretarako erramuak (arraunak) bear. Gaur erramuak premiñen baterako bakarrik eroaten dira eta banakaen batek.

Len Txalopandiak belaz beteta joaten ziran. Gaur bakarren bat, eta askotan, ziurrago, bat-ez.

Len ontziak lotzeko, ondoa emonda lagateko, arlanka, arpeua, karpiña, ankillita etaabar erabilten ziran. Gaur azalean lotzeko txupoiak edo buiak.

Arrantzarako sareak, len, mailla-bakarrak, iru maillakoak, bolintxa, sareak eta treiña izaten ziran. Gaur geien erabilten diranak arrasteko sare lodiak dira, edo ta bestela, bajurakoetan, treiña.

Treiñak bereak ditu: Berunak, mamiña, kortxoko soka edo erlenga eta beruneko erlenga, goiburuak eta biotzak.

Bein zabaldu ondoren, edo itxasora jaurti ondoren, era onetara deitzen dautse: Eskua, papuak eta beiak.

Sarez brazaka neurtuten da. Batez beste trein bakoitzak 180 braza eukiten dauz luze eta 50 braza sakon. Braza bakoitza metro bi dirala kontuan euki.

Sare oneik, arraiña erara etorri ezkeru, milla kilo asko,

amarretik gora, errez inguratu eta arrantzatu leikez.

Oneik eta beste asko, nik dakidazanak dira.

Bai nik be.

Baiña ni eskolan ibili barik, eta gaurkoak lez ikasi barik.

Len be esan dautsut. Nik antxiñakoa nai dot jakin, edozcr, baiña denpora zarretakua.

Ori be, entzutetik beintzat ba dakit zerbait. Orretarako ikasien bat obeto, baiña...

Zer egiten ete eben gure itxas ertzeko arrantzaleak, antxiñetan?

Antxiña, ur ertzeko arraiñak jateko lain emoten eben, baiña ez bizitzeko. Origaitik arrain andien billa ibili bear izatean eben, urterako koipe era gantzak arrain andiak emoten zituelako., Arrain saiña deituten eutsen.

Origaitik benetan arrigarri izan zan gure zarren bizia, batez be arrisku andietan, arpoiak baiño beste izkillu barik, arrain andien atzetik ibili bear izaten ebelako. Ortik sortu ei zan balearrantza.

Nik lenako jakitunei entzunda daukat, amargarren gizalditik amaseigarrenera, euskaldunak zirala munduan bale arrantza eta bere industria eskuetan eukenak eta geien ekienak.

Lenengotan ementxe ibilten ei ziran, gure itxasertzean, abere orrein atzetik. Sasoi aretan jakitunen artean «balaena biscaiensis» deituten oi eutsen emen artzen zan eredu edo tipoari. A sapa, musto edo lasunen nortasuna ez da géro, itxasoetan olako arrain edo abere bateri bere izen berezia emoteko! Italiarrak be '«balaena dei baski» lez agertzen ei eben emen eurekin egiten ziren itun edo tratuetanr

Eskolarik *ez* dozula ikasi?

Molla egaleko eskola, esanaren esanez entzun, sartu eta arrotasunez gogoan artur

«Seda» deitzen eutsenak be *ez* ziran egon ba?

Bale jatorrak galdu edo aldentutean, beste andi mantsua-goak agertu ei ziran emendik. Orrei deitzen eutsen Seda izen ori.

Neguko arrantza izaten zan emen bale arrantza.

Jakiña, batzuk esango dabe ia arrantzale batek zelan deitu leikion arrantza zeregin oneri.

Neu be alaxe nago-ta!

Egia, danok dakigu baleak izabereak dirala, itxas abereak, eta ez arraiñak. Baiña ori baiño pekatu andiagorik esaten da orreitan eta iñor lotsatuten ez dan lez, guk be, geienak edo askok, zabaldua dagon lez erabilten dogu.

Egia esateko gaurko gazteak, zuek, izena bera be galdu egin dozue eta bale ordezt, ballena erabilten dozue. Or be ba dago pekatua.

Ez al da egia?

Ori ta beste asko. Zetarako ukatu?

Baleak noiz joaten ziran emendik?

Urak epeldutean.

-Otzaren zale dira?

Ia, ikusi, Artiko'ra joaten ziran.

Gure zarrak esaten eben lez, itxas-orratza (konpasa) agertu zanean...

-Gitxi gora bera noiz?

-Diñoenez, ia seireun urte inguru. Arraiñen segika urrunduten asi ziran emengo arrantzaleak. Eta 1372 urte inguruan Terranoba'ra sartu ei ziran.

Ziur?

Orduan euskaldunen ugartea deitzen eutsen toki orreri, Terranoba'ri edo dalakoari... Andik berrogei urte geroago Islandia'ra eldu ei ziran, eta beste eun urte geroago Groenlandi ingurutan ezagutu ei ziran.

Arako txalupak ozkillak ez ziran izango.

Lenengotan, agiri danez, berrogeitik eun toneladako ontzietan joaten ziran. Eta eurak sartzen ziran tokiei emengo ize-nak ipini ei eutsezan: Ala Mikela Portu, Baratxoa, Anton Portu, Ederra eta beste ainbat.

Emen ibilten ziran artean, sarri eukiten zituen bateko ta bestekoen arteko asarreak, batekoak balea ikusi ta arpoia sartu ta bestekoak beragaz jaubetzen ziralako ta abar.

Ortik etorri zan geien bat be arrantzaleak, euren buruak

aldeztuteko, alkartasunak sortzea. Au da, gaur be ezagutzen doguzan Kofradiak. Uste danez, XIII garren gizaldirako ba egozan kofradi oneik eta geroago ezagunak dira bale-arrantzari buruz Donosti, Getari eta Mutriku'k 1339 urtean artutako erabagiak.

Bermeo'n 1353 urtean egin *ei* zan Kofradia'ko legeak paperetan ipintea, eta bertan esaten da, *lege* orreik bosteun urte aurretik etozala. Eurak diñuen lez, gizonak be gogoan ez eukezan denporetatik. Eta Bermeo'n lez, Lekeitio eta Ondarroa'n *lege* bardintsuak.

Bale arrantzarako erabagietako baten garbi azalduta laga eben, bein portu batekoak balea jo eta zauritu ondoren, beste-koak *ez* zirela bertara urreratu bear.

Eta gizonak? Ia erri osoak joan bear orrelako ibillaldictara!

Terranoba'ra joaten ziran galeoitari larogei lagun inguru joaten ziran mariñel eta ontzi-mutillen artean, eta galeoia prest egoanetik asi eta beste bederatzia illabetetarako danentzako ogi, sagardau eta ardaua eroan bear izaten eben.

Esaten danez galeoi bakoitza beteta etorten zan andik; arraiñandik gain, milla ta berreun barrika sain, gitxi gorabera. Kapitan, pilotu eta arpoilariei, soldataren gain, saiña el-noten ei eutsen, amarna edo ogeina barrika.

Orrez gaiñera baleen bizarrak be emoten eutsezan. Baleen bizarrak, mandibulako alde bakoitzean 250 izaten ziran.

Zelako bizarrak?

-Ba, bizarrak deitu, baiña azur antzerakoak ziran. Aiztoen (kutxilloen) kirtanak, kortseen eutsigarriák, abanikoen egalak, kapelen tentegarriak eta antzerakocn sendagarri eta gogorgarri-zat bereziikoak.

Inguru oneitan arrantzaten zan baleen miiña, bear ba da paparra esateagaz obeto esanda, eleizari eskintzen eutsen eta zati bat molla eta kaiak egokitu eta egiteko laga.

Lengo euskaldunak, Terranoba'ra lez, Canarias aldera be joaten ei ziran antxiñetan.

Gu euskaldunok munduko arrapakariak izan giñan ala?

Ba... Lanzarote ugarte (isla) euskaldunak billatu ete menderatu ei eben 1392 urtean.

Ori be jakiña da.

Ez al dakizu sasoi orretan euskaldun pilotoentzat Ikastetxe bat egon zala Cadiz'en, esaten dabenez, arrantzatik kanpora be, euskaldunak izan ziralako Mediterraneo'n ibili ziran merkatari ausarditsu eta bizienak?

Molla egalean

Lesteko molla, oraindik arri zakar eta egalak bardindu barik egindako itxas sarreraren egaleko molla bateri deitzen eutsen gure errian.

Ez eukan beste izenik.

Ara eldu ziranean, nun jazarri ez, eta askok oitura euken lez, egalean makurtu ziran. Eta anak ur alderdira dindilizka lagata, antxe gerátu ziran, atsedean egiten, beian gaiñean.

Antxe iñarduen lengo kontuei jarraituz, itxas aizea artuagaz batera.

Balbe ia aspertuta, ez kontuak atsegin ez jakozalako, batera geiegi entzun eta asko ezin gogoratuko zitun arduraz

Peru berak esaten eban lez, iturri onez.

Aurreko ondartzan, ur egalean, olatuak lagaten eben apar eta bitsetan, jolas eta pikuka, zerbait billatu eta atara naian, kaio ugari. Ainbeste kaio orrela itxas ertzean batzen diranean, eguraldi txarren iragarki izaten, da.

-Aurten txirrin urte dala esan lei.

Nun txirriñak?

Orreik baltzok zer dira ba?

Bai zera. Kaivak dira orreik. Guretzat beintzat.

Zuek gazteok itxas txori guztiei deitzen dautsazue kaio.

Ez al dira senitarte bateko?

Nik ez diñot ezetzik.

Zeuk diñozu dana.

Bai beintzat orreik txirriñak dirala. Ziur egon. Orreik *ez* dira asiko.

-Eta zegaitik ez antxetak?

Giputxen bat dabil zuekin barruan, txalupan?

Igarri?

Zeuk erakutsi ezkerro...

Orretara, okerrik ez esateko onena zer dan ba dakizu? Danneri kala-txoriak deitu eta kittu.

Zein kalatakuak?

-Zoaz atako bandan, eta aldretan billatzean itandu.

Eta or datorrena ba dakizu zer dan?

Nor?

Or arritzan gora datorrena.

Kirrixka ori?

Ikusten?

-Bizia da ta baltza.

-Begiratu. bere bizibidetik edo bere bizilekutik kanpoan dabil. Urak iges egin dautsa marea beratzean. Ta or dabil.

Begira._ igo nai ta txirrist. Ala ta be eutsi. Ara ostera be. Arri labanetan naiago ibili ta or dabil, jausi ta igo.

Setatsua da.

-Danak orreik. Begiratu. Egin barriro.

Eta azkenean karramarru baltz eta itxusi ta uletsu geratzeko.

-Ba dakit zer esango dozun.

Bai?

Geu lez, ezetarako balio ez dogula geratzeko.

Ez. Ni alegiñari begira nago. Ikusi. Ez da geratzen. Danak dira orrelakoxeak. Eta geratzen ez danak berea lortuko dau.

-Asko lortu dozu zeuk?

Ainbestean ibili eta naiz iñoiz?

Entzutea ba daukazu.

Alegiñak askotan lagundu bai.

Dirurik egin?

Gizonaren izatea dirutan al dago?

-Nik baietz esango neuke.

Nai izan ba neu egin neikean.

Eta?

Dirua zikiñegi da.

Ez daukanentzat.

-Orrcintzat itsutasunar
-Eta nun egin eikean? Itxasoan?
-Itxasoa ez da bakarrik arrantza.
Mariñelen pleita ez al da ori?
Mariñelak arrantzale al dira bakarrik?
-Eta andra-zale.
Andrarik onena, zatarra izan da bc, norberea. ori sekula ez
aztu.
-Albokoarena izorratuta.
Zelako urteerak eta sinisteak daukazuez gaurko gazteok?
Ze ikusi a ikasi guk.
Illundu da ta guazen etxe aldera.
Etxeraño laguntzea nai?
Sagardauak burua galdu edo tontortuta nagolakuan?

Etxean etxeokak

Peru etxera eldu zanean, laster igarri eban, atea igaro orduko, barruan gauzak ez egozala baketsu.
Sartzen igarri eutsancan, errietan asi jakon erraiña.
Murruskadak lenengo, berbaro luzea, ulertu eziñeko berbaro garratza, illuntze guztirako ekaitza iragarteko eran.
Ama zarra, Peru'ren emaztea, oean egoan, barruko gela baten.
Ikusi be egiten zan, ate ordezeko kurtiña luzeak kenduta eukazalako, oean etzandako zerbaiten itzala.
Erdi txotxatuta, urteen nekez eta nai-gabeen miñez.
Erraiña alargun egoan, baiña ez bakarrik. Naiko eta lar eukan alkarren gaiñeko sei neska-mutillkaz. Lautik amabi urterakoak danak. Ain zuzen lenengo irurak mutillak eta besteak neskak. Txikien biak bikiak, senarra il eta andik illetara jaiok.
Gosea eta lo gurea erdi nastean erabillezan.
Mutilletako zarren biak larri ta popakoixuenak. Amari geien ernegatu eragiten eutsenak.
Ori da aita, eguerdi ostean iges eta kittu.

Bazkal-ondoko loaldi txikia egiteko kalera urten bearra be, naiko mingarri da ba!

Zeñena da orren errua?

-Lagaten al dabe oneik baketan?

Ez umeei aitzakirik ipini.

Konturatzen naz, baiña aitzakia, ezin ukatu, eurena da.

Beti eurena.

-Besterik ezean zegaitik ez dabe zerbaitetan laguntzen?

Zetan?

-Edozetan. Sua gertuten, patatak zuritzen, ogia ebagiten, berakatz atalak txikitzen, edozetan.

Ibon'ek ba daki patatak zuritzen.

Erdia kenduta eta alperrik galduta. Geienak txarrientzat botata.

-Eta besteak?

Zarrenak ezin dabenean besteak zer?

Eta nire andreak, amak?

Zuk ba dakizu ezin dabena.

Neuk be ba...

Ondo da tingloipean lo konkorraldi bat botatera joatea, baiña kontuan euki besteok be azur eta mamiñezkoak gareala, ez gareala arri ez egur be. Eta sasoiz etorri.

Ain zuzen be mutil batek erabili nau antxiñako gauzak jakin eragiten.

Eta bertsoak kantatera eroan.

Nora?

Katalin'eri ez dautsazu kiñurik egin?

Potozorri asko dago emen.

Nik dakidanik ez.

Orreik kontaten datorrena be.

Neu orretara.

Zelan zu?

Neuk ikusi zaitudalako. Gangar andi ori, traketz eta baldar, basoa gora jasota, bertso kantari.

Nun zegozen?

Egon ez, ikusi zaitudanean negarrez etorri nazalako etxera,

ezer esateko gogo barikr

Deitu bear zendun.

Ez dot nai izan kalean jairik emon. Danok txotxin eta sorgintzat artu ez nagizuen.

Guk? An gengozanak?

-Merezi zendun umeak barrura bialdu eta an zeugaz laga-tea.

Laga bear.

Ederto ikasiko eben agure moskorticn artean.

Noiz ikusi nazu moskortuta, zerbait galduta?

An egozan batzuk bai.

Zcnbat egozan ba?

Iru bai beiñik bein.

Eta?

Tontortuta, sei aiña.

Barriketak.

Ez zuaz emaztea ikustera? Ez zara gogoratu zelan egon lci-ken?

Betiko inkcsakin egongo da a.

-Nire ustez txarto dago.

Baiña... txarto?

Gaur arek daukan zurrua cz da betikua.

Emen nabil arratsalde guztian bere dei eta negarri ezin erantzun eta ezin eutsi-ta.

Osagillcari deitu bearko jako.

Ba dakigu arek zer esango daben. Larogetak urte. Makal... Berezkoa. Kosteria amaitu dala beretzat.

Abadeari esatea be komeniko da.

Onek orioz igortzi eta zoaz bakctan.

Zure esanetan ez dago zeregiñik.

Orain arte ala gertatu da.

Bestcok ori egingo ba genduke...

Ori ikusita dago.

Nik amarik ez neuke .orrela bialdu nai. Ori nire ama ez dala.

Ba dakit zu bcretzat ona zarcala.

Cero esango dabe erraiñak gogorrak eta zitalak gareala, biotzik bakoak izaten gareala.

Nok esaten dau ori?

Ez da antxiña ori zu-zeuk be esan zendula.

Ospitalera bialdu nai izan giñuzuncan.

-Ez olakorik!

Bai, ez zara gogoratzen?

Eta ez ziñen an obeto egongo?

Ospitala ospitala da.

Eta etxea etxe, ez?

Beste zerbait. Norberea beintzat.

Baiña konturatu. Zuek ezetarako ez.

-Ainbeste be ez esan.

Barruan dagona ikusi. Ia zetarako dan a.

Noiztik baiña?

Ori be esan, urtetan norberak garbitu beár burutik biatze-
ra, zauri bedarrak be ipini bear, eta abar egiten, ez nazu ikusten?
Jakiña, kaleko orduak argitu eta alaitzen zaitue zu. Emen etxe-
koak, Jaunaren miserikordixan.

Baiña ospitalean...

Koturatu. Zuek, edo andrea beintzat, ezetarako ezr. Eta
nik sei ume-moko, gonetatik tengadaka, batak negar, besteak
muxinga; batak beruzkoa, besteak kaka; batak gosea, besteak
txisa gurea... Bizitza al da au? Zeiñentzako? Nun gengokez da-
nok be obeto, an baiño?

Ospitaleko bidea atsegin jatzu.

Albotik kentzeko gogoa?

Esan be ez orrelakorik. Ala nire asarre billa zabiltz?

Ikusi ordurako gogoratzen daustazu.

Nik gogoratu ala zu orretan alegindu?

Cure zarrak ez eben sekula orrelakorik egingo. Ez eta bu-
ruratu be arei.

Ez eta nire zarri be.

Zegaitik ain zuzen gugaz bai?

-Ikusi gure egoera. Nirca. Ez dautsut besterik esaten. Ikus-
teko eta konturatzeko eran zagoz oraindik.

Oraindik buru argia daukat.

-Ez beste ezetan pentsatu.

Umeak atsegindu eragiten dabe, jolastu eragin.

-Beia jota laga be bai.

Tartctan.

Nireak ordu guztietan.

-Zetarako ainbeste ekarri?

Il ondoren zure semeari ez pekaturik ezarri.

Beroak ziñen biok.

Odoletik dakizu ori? Zure izatetik?

Aurrean probak.

Eta zer da ohea, andretan ibiltea ala andreagaz ibiltea?

Orretarako berba-biderik emon dautsut?

-Gerokoak geroko, jazan bearrak nire lez gertatuta be, zer da obeago?

Luze zoaz zeu.

-Joan eraginda, ez?

Kalma zuritan biziteko, ospitala ona ez? An orrelako be-rotasunik ez dagon lez...

Esan dautsut len be eta, mesedez, ez orretan asi. Beste bein ez neuke esan nai, mesedez ez aitatu orrelakorik.

Ama gauza ba litz, nik zuek etxean euki eta pozik ikustea naiko neuke. Biotzez nai be.

Bai eta zarrena neska ba litz be, zerbaitetan laguntzeko.

Zeuk dakizu ondasunik ez dogula.

Zeuk dakizu nik, ezkondu aurreko lanetatik, batez be udal-diko serbitsutatik dirutxu bat neukala.

Danak emen joan jakuz. Ez daukat ez penarik ez damurik. Ez dodaz zorakerietan eralgi. Ezer ez zeunkela jakinda ezkondu nitzan. Sekula berba erdirik esan dot ontan?

Gaur zorra egiten gagoz. Eta etorkizuna? Beste urte betean be mutillik ez dabe iñun artuko lanerako.

Ni ezin nei iñora joan. Nora, sei pongoliño negarrez lagata? Zeiñek eta nun artu eta zaintzeko?

Orretan, egia, etxeakoak etxean obetoen, banandu eta biar edo etzirako alkarren ezaupide barik baiño.

-Zuk pentsaten dozu, nik sei ume oneik *ez* ba neukaz, nai eta ama ojean egon, *ez* zinduzala eukiko?

Begiak zabalik eta ez dago lo

Sukaldean orrela iñarduen artean, Libe txikia, iru mutillc-tatik urrena, amumaren ondora joan zan.

Beti lez, ixil sartu, lotan egonda *ez* esnatu eragitearren.

Maite eban. Ainbat zurikeri eta loxintza egiten eutsazan.

Bere gclara *ez* joateko agindua eukiarren, amumari bakte-tan laga bear jakon aitzakiz, Libe ezin egon al izaten zan luzaro ara urreratu barik, ezin iraun tartean ikustalditxoa egin barik.

Atctik sartu eta oe ondora urreratu zan.

Begiak zabal egoan amuma, baiña *ez* eban ikusten.

Aoa zabal eukan, agio zarrak be agirian eukazala, baiña *ez* eban arnasarik artu *ez* jaurtiten.

-Amuma, begiratu eidazu. Begiak zabalik eta lo? Ez nazu ikusten? Libe naz. Gosca daukat baiña ixilik nago. Ez gabiltz asarre. Lotarako gogoagaz bai. Baiña... begiratu eidazu. Zegaz pentsaten zagoz, amuma? Nora begira? Zerura?

Amuma, berandu da ta *ez* dogu oraindik afaldu. Eta ama kcixata dabil. Attitta oraintxe etorri da-ta! Ba dakizu sagardaua edaten ikusi dauala amak Katalin'en sagardautegian? Zu gaixo zagoz eta arek *ez* dauka ezer. Zu etxean egon bear eta a kalean.

Baiña, amuma, *ez* esan ezer, e? Ez aitatu nik esan dautsuda-nik, e?

Asarretzen zarienean, olgetan asarretzen zarie, *ez*? Gero las-ter adiskidetzen zarie-ta! Bai, *ez*-ta?

Amuma, zegaitik *ez* dozu aorik itxiten? Min daukazu? Egarri zagoz?

Oraintxe ekarriko dautsut ura.

Ura ala esnea naiago, amuma?

Aparitako ordua da ta sopakin esnea nai? Amak esaten dau obeto lo egiten dala esnea sopakin artuta. Amuma, zuk gure *lez* barruko arrik *ez* dozu eukiten, *ez* da ala?

Jo, amuma! Esan ba zerbait. Besterik ezean ekatzu eskua. Ekatzu!

Zegaitik esku biak ain gogor lotuta? Azkatu egizuz eta emon batr Ez dozu nai lenakoan lez gili-gili egiterik?

Jo! lenago nai izaten zendun ba!

Amuma, otza daukazu? Oztitu egin zara? Eskuak berotzeko indarrrik ez daukazu? Sartu izarapean eskuak. Berotu zaitez.

Iñese konturatu zan Libe'rik ez egoala sukaldean.

Gela aldera begiratu eban eta an barruan ebillala igarri.

Deika asi zan:

-Libe, zetan zagoz or? Zetan?

Ez dozu entzuten amumari baketan lagateko bere oean, amumak errezaten egon nai izaten dabelako?

Libe, beti *lez*, entzun onekoa zan eta sukaldera biurtu zan.

Zer dabizu anlumagaz? Ezin baketan laga? Bere gauza-txoak egiten ezin laga? Ez dakizu bakarrik egotea naiago dauala?

Eta amak, bera be konturatu barik, joteko gogoagaz barik, une aretan eukan larritasun eta ezin-egon eta kirioen bultzadaz, matrail-azurreko bigun baiña bete bat emon eutsan Libe'ri.

Negarrez asi zan au.

-Zu be negarrez? Danon artean neu etenda niri zoratu eragitea nai dozue? Len ez dago orkestarik eta etorri zsx be kornetiña joten. Ia andiago bat emon eta benetan negar eragiten dau-tsudana.

Ama... amumak ez dau jaramonik egiten.

Bai, ama. Begiak zabalik eta ez dau ikusten. Eta ez dago lo...

Enparaduta daukazu-ta!

Ana zabal dauka, baiña arnasarik ez dau ataraten.

-Ametsetan zabiltz?

-Eskuak be otz otz daukaz...

Iñese eta Peru'k, bat-batean alkarri begiratu eutsen. Zurbil-du ziran. Eta gauzak egozan lez lagata, gelara joan ziran.

Begiak zabalik eta ez egoan lo. Ilda egoan, andre, amagiña-rraba eta amuma zana.



Amumari agurra

Negar zolitan ekin eutsan Iñese'k, gelako sarreratik, amuma geldi eta illotz ikusiagaz batera.

Bekokian ikutu, oraindik igarten jakon izerdi likiña izara zurraren egalagaz garbitu, eta negarraren estutasunez berbarik osotu ezinda, ama, ama laztana, neurc benetako ama, esanez, musu bat emon eutsan. Musu luze, biozkorra.

Jainkoak beregan artu zaitzala ainbat ariñen, aozkatu eban, berba ebakietan, baiña entzuteko eta ulertzeko eran.

Peru'k negar ixilla. Gizon mardul eta odoltsuen negarra. Eztarria itto eta berbarik be esaten lagaten ez daben negarra.

Iñese, bere negarretan zerbait nasaitu ondoren, jaiki zan, adoretu eta Pcuri esaten asi:

Ba nua.

Nora?

Osagilleari deitzera.

Ez dago zeregiñik. Zetarako areri deitu? Arena jakiña da. Abadearena egizu lenengo.

Onezkero abadeak be..r

Nire andreak, al dala, ez daiala urten mundutik gure bizitzan ikasi doguzanak bete barik.

Eta osagillea zer?

Abadeak esaten dautsanagaz beteko dau papera.

Iñese kalera joan zan itsu-mutuan.

Umeak igarri eben zerbait.

Aittitta bakarrik ikusten eben gela aurrean, baiña adi egozan.

Gelara urreratu ziran. Dardaraka eta bildurri lenengotan, gero ausarditsuago, bata bestearen gain itaun kezkatia egiten:

Zer dauka amumak, txarto dago?

-Amuma il da?

Len lez dago ori aittitta. Aoa zabalik, ikusten? Begiak be zabal, eta ez dau ikusten.

Aittitta, ezer esan barik zelan il da?

Geldi, geldi zuek, ez sartu, ez urreratu. Ez dozue entzuten?

Ez etorri barrura. Garbitu arte ez ikuturik.

Aittitta, gure amuma ez da inpernura joango, ez ezta?

Ez eidazuc orrelakorik itaundu.

-Ona zan, ez?

Zuentzat gaiztua zan ala?

-Odola lakoa dauka sudurrcko zuloan, aittitta.

Ez diñotsuct ez urreratzcko?

Eta zegaitik ez dau begirik itxiten?

Ilda dagoalako.

Eta il ezkeroko ez da zirkiñik egiten?

Gogortu egiten da.

Eta orretara zelan jaurtitzen dau odola?

-Joan zaiteze emendik. Ez zaiteze entzun txarreko.

-Zegaitik, aittitta?

-Joan ezkaratzera, ama laster etorriko da-ta.

-Jo! Ezin ikusi.

Zeiñek daki erreza?

Edozer? Neuk.

Bai neuk bc.

Zer baiña erreza?

Nai dozuena, amuma zerura joan daiten.

-Eta kandelia biztu bear da?

Txotxo, egizue nai dozucna, baiña zoaze, zoaze emendik eta gaur beintzat, bakctan laga nagizue.

Zarrenak negar be egiten eban tartetan, batez be aittitta begiak malkoz puztuta ikustean eta berbarik ezin osotuta igartean.

Besteak ez ziran ainbeste konturatu. Arrigarri zan eurentzat gertaera, ori bai.

Alaz eta amumaren itzalak minduta edo ta aren ikuspegiak zurbilduta, ixil ocratu ziran.

Iñese lencngotik asia zan komoda zar baten amagiñarrebak gordeta eukazan il jantzien billa.

Lenagoko andre askok *lez*, berberak gertatuta eukan bere il jantzia, eta erraiñak ba ekian ori, gaixoaldi guztietan gogoratu eragiten cutsalako.

An eukan gona baltz luzea, eta astegunetan galtzerdirik erabilten ez ba eban be, egun orretarako, berak iñoiz esaten ekian lez egun andirako, bere illeta egunerako, erabili bako galtzerdi baltzak eukazan.

Bai eta buruko zapi bat be.

Eta Ama Nekatuaaren eskupalariora, andre alargunak edo ta ume askodunak nai izaten eben lez.

Esan bearrik ez zan egon, dan dana batera eta kajatxu baten, almidoi ta guzti gordeta billatu zitualako.

Senitarteko bateri, berak etxetik auzoenari deitu eutsan Iñese'k. A izan zan abade eta osagille deiak egin zituna. Bera baita garbitu eta jazten lagundu eutsana.

Baiaramonerarte iñori ez deitzekotan geratu ziran.

Abadeari illaren eta euren borondatea agertu eutsen: Beartsuen maillako illeta nai ebala, au da, irugarren maillakoa, arrantzale beartsu eta ez-eukiei egiten jakoen antzera.

11 kutxari buruz be il zan berberaren naia agertu eben: baltza eta ariña, zirdildura (fleku) eta apaindura bakoa.

Abadeak esanak entzun eta dana ontzat emon eban.

Osagillea agertu zanean, gaiñetik begiratu eta ilda dago, esan eban.

-Zer euki ete dau beronek, jauna?, itandu eutsan Iñese'k.

-Kostera amaitu, urteak, erantzun eban. Eta Peru'ri, lepoan joaz Zuk tantza luzea daukazu ta eutsi, Peru.

Eta abadeak, osagillearen minutu Erdiko ikustaldia amaitu eta kanpora urten zanean, Peru'ri maitekor esan eutsan: Guk, Peru, arrantzaleak lez kostera barri baten zai egon bearra dogu. Guk betiko biztuera eta alkartzean sinistu bear dogu.

Eta Aita Gure otoiztuten asi zan.

Gaubela

Peru'k azken egona euki nai izan eban berrogetak urte alkarregaz bizi izan zan ezkon-lagunagaz.

Bere azken agurra eta ikustaldia, oroimenez beteta, samurtasunez gaiñezka, emazteari eskiñi.

Miña eukan, buruausterik ez.

Ez eben euki azken nai (testamentu) egin bearrik.

Andreak ez eutsan croan ezkontzara doterik, ez berak ipini txaloparik.

Etxea errentan eukan.

Ez eukan ezelako lurrik, ez orturik leorrean, ez sagasti batik askok eukiten eben lez, ez txanel batik be itxas gaiñean.

Ez eukan iñungo irabazien onurarik.

Berak, Peru'k, zartzaroko zerbait, uskeri bat artzen eban Kofradiatik, arratzalien Kofradiak zar eta alarguntzako oituraz erabagi eta izentauta eukezan zar-sari edo laguntza lez.

Qrain illotz egoan bere emaztea, ibili zan arrain lantegietan, arrain -sasoietan, batez be antxoia aldian, burua kendu eta gatz emoten eta abarretan, baiña tartetan, ez langille ziur lez, eta ez eukan ezelako laguntzarik. Orduak ordu kittutzen ziran bere irabazi eta eskubideak.

Andre eder zala, umeak lotu eben.

Andre igar zala, urtetan aurrera eioala, azken semea ezkondu zan Iñese'gaz, etxera, eta or eukazan etxean lanak baiño geiago eteten eben loba txiki eta alkarren gaiñekoak.

Senarrak, Pcur'k emoten eutsan biarrik gitxien, nai eta beragaz arrantzale askok lortuten eben baiño epe luzcagoan bizi. Zorionez sekula gaixorik egon bagako senarra euki eban.

Arrantzale jatorra. Arrantzale ikasia .izan zan Pcur. Ez erakutsiz, bizitzatik berberak artutako irakatsien ondorencz baiño. Ikasle eta ikusmin ausarditsua izan zan bera. Bata eta bestearen, jokabide, erabide eta aurrerakuntzak ikusi, jakin, oartu eta aztertuten aurrerengoa beti.

Zoritxarra euki eban azken semcagaz, au da, seme bakarragaz, besteak alabak izan ziralako.

Bere sena sartu nai izan eutsan itxasoan. Eta berak lortu ez ebana, semearentzat patroizateko aukera lortu eban.

Ezkontza egokia egiten be lagundu eutsan, Iñese'gaz.

Bata patroia zan eta bestea etxe serbitzuan ikasia, bere gazte urteak orretan emon zitulako.

Ez eben euki etxerik erosi bearrik edo alokatu bearrik. An

euken gurasoena, errenta merkean.

Etxe zabal bat, gela nausi lez sukaldea zala, eta besteak illaran, ate bako ormekin.

Nortasuna euken. Dirurik ez.

Ez ziran gazte zoro ezkondu ziranean.

Odol beroak bai. Urte bi baiño len ekarten eben frutu bakoitza. Sei urtetan lau. Bosgarrena eta seigarrena, Iñcsc alargun zala jaio ziren.

Itxasotik ekarri eben bein barria, Muxarra'ncko txalupa, Peru'ren semea patroi ebillan ontzia, tira-bira egiña zala galerrcn baten, udako ekaitz larri baten. Ingurutan cbiltzan beste itxasontziak, euretako gizonak, alegiñik gartsu eta andienak egin zituen bertakoak artzeko. Baiña «Ur txoria» txalupa, killaz gura geratu zan.

Lortu eben bertako batzuk uretara curen buruak jaurtitea, txalupak barruan artu eta zapaldu baiño len. Ikusi zituen batzuk beste ontzietatik, curen arriskuz eta eurak be tira-bira egiteko unctan geratuta, jaurti eutsezan txikotci eutsi eta lotu naian.

Baiña olatu artean, gora jaso ezin, bilin-bolonka gizonak be barruetan tente egon eziñez, eta ctsita, aulduta, indarrak galduta, txikotari laga eta ondoratzen ikusi zituen.

Bat beintzat Iñese'n senarra zan.

Gonetatik tengadaka ibiltzen baiño cz ekien lau ume an egozan negarrcz eta goseti. Eta Iñese aurdun egoan, bost illebc-tekoz. Geroago, bere dcnporetan, baten ordez bi munduratu zintun.

Geroztik goscaren kurutzea sartu zan etxean, umezurtz errubakoen naigabe eta inkcsa, eta guraso zarren zortasun eta astun tasuna.

.....

Pcru'k Iñcsc'ri esan eutsan, biaramonak argi egingo ebala ta bere gelara joateko, umeak be esnatu ez eitczan eta berak be atsedeen pixkat, besterik ezean, ordu batsutako nagitasunez igarroteko be.

Baiña Iñese'k, bíaramoncan, albakoa jo eta il kampaia entzun orduko, erriko zarrak asiko zirala illari agur egitera etorten, eta etxeko garbitasun eta jasotasunaren ardura eukan.

Ara cioazenak ezagutuko ebela etxe aretako giroa; gaiñera etorriko zala eskua luzatuko eban senitartekoren bat; auzoak be orrelakoetan oiturazko ebela alkarri laguntzea; naiko zala ordu erdi bat etxe erditik «sala» deitzen eutsenerako igarobidean egoan lustrear bizitasuna emoteko, eta ori egiteko bera be an egongo zala goizalderako gertu...

Alperrik erreguak eta esanak.

Besterik ezean lustrea barriztu nai ebala, ori iñor etorri baiño len, premiñazko ikusten ebala, eta bere ezinegon eta guzti, biaramonean be obarik ez zala egongo, eta Iñese orretan asiko zan, billatzen asi eta lustrerik aurkitu ba leu.

Baiña potoa utsik egoan eta asarre ta arduratsu, amagiñarribari azken ikustaldi bat egin ondoren, makurtu zan bere gelara joatera, Peru zarra bere emaztearen ondoan bakarrik lagata.

Andreagaz berbetan

Doniñe! Doniñc...! Gurc artean esaten genduna egia: Doniñe, goizean poza, gabea miñe

Zegaitik laga nazu bakarrik? Zegaitik laga ba zoazala esan barik, deitu eta agurrik be egin barik?

Ez neban merezi?

Gure musuak ez dabe balio.r. Ba dakizu.

Gure laztanak eta maite-miñak ez dauke len besteko markurpenik, eta len aiñako naikeririk... Ba dakizu.

Zimeldu egin gaitue, geuk igarri barik, urteak. Zimeldu eta igartu.

Baiña zure oroiz, zure gomutaz, azken batrrr azken bat... Bera falta.

Luzeena eta maitagarriena izango zana, gaztetakuak baiño gogotsuago gogoratuko nebana... Bera falta.

Doniñe!

Zegaitik deitu eta lenago esan edo jakin erazi ez, txarto zengozalá esan ez, edo ta ez zengozala ondo?

Zartzarora eldu giñan, osasunean akatsik euki ezarren, alkarregaz gaur tope eta biar ziri. Baiña beti alkarregaz. Gure ez-euki ta txirotasunaren barruan ez al giñan maitekiro bizi?

Zartzaroak antzutu eta bizi-miña makalduarren, gure maitasunik ez zan agortu. Ba dakizu.

Doniñe!

Zegaitik itxi nazu bakarrik?

Biok batera, biok egun berean joan ba giña, emen lurrean eta gure etxean be bai, mesede geiago egingo gendun.

Zure aurretik ni joan ba nitz be, ainbeste kalterik ez zan egingo.

Ba dakizu nik lurrari eutsi nai dautsadala. Beti esaten neutsun, baiña biok bizitekotan.

Zu lobakin ondo konpontzen ziñan. Eurak lez jolasten eta biziten dakizulako. Erraiñakin be bai. Ondo alkartuten ziñen biok, etxeko gauzetan, eta niri aitzakiak ipinteko be bai.

Zer egiteko nik oraindik itxasora urteteko adiñik ez gorputzik ez daukenekin, ia ia ni neu zaintzalle premiñara elduta nagolarik?

Zelan zainduko nau ni, bere indarrak baiño premiña geiago daukazan erraiñak, eta zelan lagunduko nik berari, ni neu iñora laguntza eske ba nago?

Zu laster sartuko zaitu gure Jaunak zeruetan. Ogi bedein-katua lakoxea izan zara zu ta sartu ez?

Doniñe_ Ez asarretu. Zeruetan dana jakiten ba da_ zeure Peru be, beste gizon askoi'en antzekoa izan dala jakingo dozu. Ez bildurtu eta barrurik artu. Zuk jakin ezarren, Jainkoak parkatuta daukadaz nire lizunkiak. Azken baten lizunkiak zoraldi bateko garrak eta egitada itsuak izaten diralako, eta unerik atsegiñe-nean bat bateko damutasunean zeu gogoan zinduzala itxartuten nitzalako, eta Jainkoak kontu eskatu baiño len, keixu agertzen nitzalako beregana damuz eta miñez.

Eta zeruetan jakingo dozu al aiña egin dodala beti, nire pobretasun eta ezintasunaren barruan, gure etxea zutik eukiteko.

Nirea al da errua Jainkoak itxas ertzean sortu ba nindu, gizonaren bizitza ia gordin eta errukarrien dan egal onetan?

Al nebana eta al genduna baiño geiago egin gendun biok, onetan biok, itxasoak eroan euskuzan lau seme munduari eskintzeko.

Zuretzat miñak eta naigabeak eta estutasunak galdu dira Doniñe. Niretzat danak geitu eta ittotasunak asi.

Gogoratu bakarrik laga nauzula.

Zurea lez, nirea be, ainbat lasterren erdu bedi.

Orrelaxe, andreagaz berbetan, ulertzen ez dan mar-mar luze eta etenbakoa lez, tartetan loaldi txikiak egiñaz, Peru'k, olezko jarrileku baten andrearen oe ondoan jezarrita, gau osoa igaro eban.

Ainbat ez-bear latz eta mingarrietan gertatu eta, batez be, itxasoetako gertaera negargarrietan bat-bateko ainbat eriotzek ikutu eta negar eragin eutsen agure onek, miñik luze eta biozkorrena, sakonena eta ittogarriena, gau luze eta bakarti aretan igarri eban.

Eta guzurrik ez ebillan bien artean eta olgetarik be ez. An egoan Doniñe, luze, oe gaiñian. Eriotze, zelatari, itzalpean.

Miñak, eutsi ezinda, lo konkorrean tontortzen eban Peru, eta miñak, eutsi ezinda, min biziagotan esnatu.

Berak, etxekotasunez, eten barik esaten eban: Doniñe, goizean poza, gabean miñe! bera lagateko, beragandik urrunduteko, jantzita egoan.

Zelaketa

Eleizako kanpaiak albakoa jo baiño len, Iñese etxeko garbiketak eta apainketak egiten asía zan.

Umeak lo oraindik, alkarren gaiñean, oe bakoitzean irunka.

Ez danakr

Zarrena, Ibon, amak ikusi eban jagi, atetik zelataka ibili,

amumaren gclara joan, ixil-ixil ainka puntetan, eta an sartzen.

Igarri eutsan eta ez eutsan deitu.

Zer egiten etc eban oartzen geratu zan.

Ibon, gelan sartzean, konturatu zan Peru korroskada luzeak egiten ebillala. Ez eutsan ezer esan.

Oc ondora joan eta urreratu zan. Eta amumari goitik bera begiratu, arretaz begiratu, eta bere egoeraz konturatzen zan.

Gero, aittittari, zer egiten eban bururatu barik, berez, lepotik oratu eutsan.

Onek, eskutxua lepoan igarrieran, arnasa lakoa artu eta esnatu zan. Bai gogor eta samurcz eutsi be eskuari.

Ez zaite joan.

Zegaitik *cz?*

Zeugaz egon nai.dot.

Lotara joan bear naz.

Nora? Ez zagoz ondo?

-Amak ez dakiala etorri naz.

-Jakin bearrik *cz* daukazu.

Amak ikusten ba nau?

Enc ba! Zein ama? Doniñc ez zara?

Ibon ni, Ibon.

Eta cskuak azkatu eta iges egin eutsan.

Amagaz topo egin eban, eskaratz aurrean.

Ama, amoma oraindik oc gaiñean dago.

-Nun ipiniko gendun ba?

Ez da otzituko?

Dan baiño geiago *ez*.

Zegaitik dago baltcz jantzita?

Berak nai ebalako.

Bcstetan galtzcrdirik *cz* dau erabilten.

Gaur bai.

-Jai eguna da ala?

Bear ba da berctzat bai.

Ta zegaitik orrela jantzi?

Ba dualako.

Nora?

-Il ondoren nora joaten da?
-Inpernura ez da joango, ez?
-Amuma inpernura ba doa, Jaingoiko errukitsurik ez dago.
-Eta orrela, lepoan eroango dabe?
-Bai.
-Dagon lez?
-Kajan sartuta.
-Ama, biar amumarik ez dogu eukiko.
-Zegaitik ez? Ama eta amuma betikuak izaten dira.
-Baiña gugaz ez da biziko.
-Aurrean egon bear al dau beragaz gogoratzeko?
Illetara joango zara?
-Bildurtu egiten naz.
-Zegaitik?
-Illetetan arima-pielak ez dabe urteten ba?
-Nok esan dau ori?
-Askok.
-Buru ariñen batek.
-Bai, eta atzamarraren ezaugarria lagaten dabela urteten
dautsenaren jantzietan.
-Ez sinistu.
-Pekatu ez da izango?
-Ez sinistutea? Ori ez beintzat.
-Arima-pielik ez dago?
-Bai.
-Eta amumarena?
-A be bai.
-Pentsaten dozu ez nabela ezagutuko?
-Ezagutu eta maitatu eta lagundu, dana arek.
-Zetan lagundu?
-Ba etxean ona izan zaitezen, eta bizitzan ondo ibili zaite-
zen, eta eskolan asko ikasi dagizun.
-Orretan be bai?
-Milla gauzatan.
-Orain aittitta bakarrik biziko da?
-Gu ez gara iñor, ala?

Eta beste andre bat ekarriko dau?
Maspasa ederra ñor ekarten ba dau.
Zeiñek zirikatzen dautsuz olako gauzak
-Iñok ez. Neuk pentsatu.
Beste gauzarik ez jatzu gogoratzen?
-Danak esan ezkeror..r
Errezetarik ez jatzu gogoratu?
Egin dot.
Bai gero?
Sinistu nai ez? Peru'k esaten dautsuna, guzurra izan da be,
sinistu egiten dozu eta ninerik ez?
-Joan zaite lotara.
Ta abadea ba dator?
Deituko dautsugu ta lo egizu, gero erreta ibili barik.
Eguna ez da ba laster?
Orduak ordu ba dira bai.
Aittitta ikustera joango naz?
Zetan?
Ia ostera be negarrez dagon ikusten.
Ama, negar egiteko zegaitik minduten da eztarria?
Ittotasuna sortzen dalako.
o-be!
Kanpaiak. Albakua: Oraintxe joko dabe amumaren il kan-
paia be.
Zetarako?
Ba erriak jakin daian eta danak bere alde errezatu dagien.
Entzun! Dobleko bi. Bai, amumarenak dira.
Etorri. Guazen bere ondora, aittitagaz batera oiturazko dan
ur bedeinkatua berari jaurti eta Aita gurea esatera...
Ur bedeinkatua?
Ez dozu ikusi basotxu baten erriñotzagaz zelan dagon arasa
gaiñean?
Etxeko oitura asko, umeentzat oargarri eta jakingarri biur-
tzen ziran. Origaitik amumaren eriotzeak ba eukan eurentzat jai
itxura edo barri agerpen baten jakin eta ikas miña.



Peru'ren agur ixilla

Gelara urreratu ziran.

Aittitta korroskada bizian ebillala irudian.

Ala emoten eban.

Lo aittitta?, itandu eutsan Peru illoba txikiak, samur.

Ene ba! Gau erdi batik be ezin igaro zeu maitien zindunaren albuari? Ai onek gizonok!, bere aldetik Iñese'k, lepoan ikutu eta belarrira.

Baiña Peru zarra ez egoan lo.

Biziagaz burrukan ari zan.

Azkenetan ebillan, biotzeko miñari eutsi ezinda.

Itxasoetan arrisku guztiak menderatzen jakin ebanak, ez eban ikasi emaztearen agurrik bako azkenik jazan eta eroapenez artzen.

Miñak eten eban eta itto. Biotzari ler eragin.

Eta aulkitik bera zerraldo jausi zan.

Zakar eta setaz beteriko gizona irudian arek, ekaitzik gogor eta gordiñetan eta ez-bearrik zorigaiztokoetan bizirik urtete-ko adorea billatzen eban arek, ez eban almenik lortu etorkion bakartadeari aurre-emoten ausartzeko.

Beretzat be kostera amaitutzat lagatea nai izan eban edo orretara makurtu zan.

Emaztea eta bera eroan zituen, alkarren ondoan, eleizara eta andik itxas gainean, olatuen orru eta brastadak jasoten daben ur lainoak, itxas lurrinak, arlosak eta kurutzak bustiten dituen iltegira.


Iñese eta loba guztiak jarraitu eutsen.


Illak baiño maiko geiago atara eban euren atzetik joiazan

alargun eta seme-alaba txikitxuak ikusi eta gogoratu eraziten eben bizi-bide errukarriaren ardurak.

Itxas ertzean, olatu txiki baiña biziak, egalak jo ta aitzetan apurtu eta bitsa dariola, min irakintsua agertzen eben itxaso berberak gaindu ezin eban gizon a lurrak irunsi bearraz.

Eta biziak bardin jarraitu eban Ondardi'n. Urdin eta illun, kresalez beteta, gaur maite eta biar irunsi leiken itxasoari biotzik ezin billatuta.





ITXAS IZTEGIA

Berba (itz) batzuen azalpena

Abagune.- A nadune. Erderazko coyuntura, intervalo.

Abor-estíbor.- A babor y a estribor erdaldunena.

Ala-arriva.- Arrantzaleak- toki batera joan eta arraiñik ba dagon igarteko aparixua gora ta bera crabilteari deitzen dautse ori.

Alboringo.- Pulmonía.

Aidara.- Arrainik billatzen ez dabenetan egiten daben toki aldatzea.

Alua.- Batzutan gizon zirtzilla. (Miserable). Bestetan emakumearen »vulva».

Alukeria.- Zirtzilkeri bat.

Amu.- Arrantzateko erabilten dan kakua.

Amuzkia.- Arrantzarako arruan ipinten dana. Karnata.

Ankapeko panela.- Bateletan, beko urak estaldureko ipinten dan panela, ola.

Ankilla.- Arlanka (aingura) txikia.

Aolku.- Kontseju.

Aozkatu.- Aoz zerbait osan.

Apan.- Gizon arro edo zaratatsua.

Aparixu.- Erderazko aparejo.

Ardau dirua.- Arrantzaleak irabaziek banatu eta eurentzako, etx ean ez emoteko zatiari deitzen dautse ardau-diru.

Argizari.- Bildumena. Erderaz, cera de las abejas.

Arianka.- Aingura. Erderaz ancla.

Arpeo.- Gantxu bat.

Arrain takada'- Arraiñak ainuan ikutu egitean oartzen dan bultzada

Arratau.- Arraun zati bat.

Arren. Arrenka.- nusedc eskeka, otoika.

Artes a.- Urduri. Ke xu.

Atako banda.- Arrantzaleak kanpora joateri deitzen dautse at-ako bandan joan.

Atoi, atoian eroan.- Erremolkean croan.

Atzeko.- Txalupa bakoitzeko patroia, atzean joaten dana.

Atxamarta.- Arrantzarako lau amuekin egiten dan lotura bat.

Auera.- Esateko era. Aurra ocia = Berbetako abera,casuna.

Baga.- Olatu sakona. Barruko olatua.

Bare-Bare.- Itxas geldia. Kalma.

Barenga.- Txalupa bateko ol okerra.

Barrrabillak.- Gizonaren arrautzak.

Bekaizkeri.- Inbiria.

Bere bostean.- Bakoitzaren eran.

Betazai.- Begiko azal.

Blastiatu.- Igortzi. Asunekin blastiatu, asunekin igortzi.

Bortitz.- Gogor, indartsu.

Brastada.- Bat-bateko bultzada.

Brusa.- Arrantzaleak jazten eben gaineko «blusa».

Brusola.- Txalopctan atzeko mastea sartzeko ol lodia.

Burrunbada.- Olatuen joera.

Deilari.- Arrantzaleak itxasora joateko giroa ikusi eta deia egiteko gizonak.

Dolior.- Zekcn, esku lotua.

Durundi.- Soiñu baten ondorengo zarata. Ekoa.

Durdura.- Kczka, ardura.

Enkante.- Erderazko subasta.

Errarnu.- Arrauna.

Errarnulari.- Arraunlari.

Errekala.- Amua itxasora jaurtitcan, amutik ondora dagon bitartea.

Erreponpa.- Erreka edo ibai baten bide aurkakoa.

Erresaka.- Erderaz, resaca.

Erretolika.- Berbetako era eta ekiña.

Erria.- Ikurriña, bandera erria, eraztea.

Esan-mesan.- Esan eta esan.

Eskailiu.- Erreketako arrain txikitxoa, erderaz bermejuela.

Eskama.- Arraiñen eskama.

Eskutur.- Besoko zati bat.

Estrapu.- Erramua, arrauna toletari ezarteko lokarria.

Etxe-egote.- Arrantzaleak itxasora ez urteteko egunei deitzen dautse orre-
la.

Ezkata.- Arraiñaren eskama lodia.

Ezten.- Suge eta piztien zirikalaria.

Ezuri.- Gota deitzen dan eritasuna.

Gaida.- Euzki berotasuna.

Gaiarren.- Itxas galerna.

Galtsuaran.- Toki izena.

Gantzeruak.– Koipca, gantza ataraten ebenak. Sacamantecas.
Garrama.– Eztarriko garrakeri, katarroa.
Grak eta blast.– Ikutu eta beratu. Jokuctan, aizto bat lurrean ipini eta di-
ruak jaurti. jo ota beratzea.
Gurma.– Erderazko bruma, niebla.

Ia.– Junco.
Idortu.– Gogortu. Bizitasuna galdu.
Inkesa.– Negar ixilla.
Itun.– Tratua.
Itxas lapurrak.– Piratak.
Itxaso beteko.– Gauza andia.
Itxasote.– Itxas joatc. Itxasora joatc.
Izurdak.– Itxas urdcak.

Kaio.– Itxás txori andia. Gaviota.
Kaielak.– Itxas arrain biziak.
Kakua.– Caco.
Kalma zuri.– Itxas bare.
Kamaña.– Itxas ontzictako arrantzalicn oca.
Kapete.– Ule moltsoa.
Kandeiak, sudurretako kandelak.– Mokoak.
Kardama.– Autsa, polilla.
Karkaba.– Erderazko encañada, letrina.
Karnata.– Anuizkia.
Karpuña.– Iru edo lau amukin alkartutako tresna.
Katxikamua.– Amo sail bat.
Kisketa.– Ateko maratilla.
Koasta.– Erderazko codaste.
Konpittak.– Gozoak.
Kordia= Kordcla. Arrantzarako sokak.
Koskabilluak.– Gizonaren arrautzak.
Kresala.– itxas ura.

Lanbasa.– Erderazko lampazo. Bateletako ura lcgortzeko tresna.
Lanbro.– Lañoa.
Lapazorri.– Piojo.
Latiña.– Bela bat.
Lipiztari.– Nastetsu.
Loro.– Aparixuctan ipinten dan alanbrc meia.
Lotsa.– Arraina. Gadus bcinnioides.

Maila₁tu.– Magullar.

Makarrak.- ngeictako zikiñak.

Mamu.- Fantasma.

Mamun-mamun-klausk.- Ezer egingo ez dabelakoan, beragaz geratu.

Mankal jasote.- Eleizetan illobietan ipinten zan eun baltza, jasotea, lutoa amaitzeko.

Maretik marera.- Itxas mare batetik bestora.

Marraixo.- Arraiña. Isurus oxyrhynchus.

Maste.- Aga.

Mirrindu.- Mirrin geratu.

Mokorrak.- Atzeko maniiñak.

Mugita.- Bedar mota bat.

Maillatu.- Magullar.

Mundillak.- Boiak. Arrantzaleak andrea bularrei deitzen dautzc, antzirudiz.

Mutxarri.- Arraiña. Sin sangre.

Muxinga.- Negar ixil biguna.

Nabartu.- Illundu.

Narotasuna.- Tranquilidad.

Nasa.- Muelle,

Olagarro.- Amarratza.

Ondar-mai.- Banco de arena.

Ondoa jo.- Beia jo.

Otargille.- Otzara egille.

Ozkil.- Otzakil. Ziztrin.

Ozpal.- Egur zatiak.

Paparra.- Bular aurea.

Papua.- Mejilla, carrillo.

Partilla.- Arrantzaliak curen irabaziak banatzea.

Pasku txala.- Urtean bein cleizara autortzcra joaten dana.

Pendiz.- Aldatz.

Pongoiak.- Cascabeles.

Pongoiño.- Txikitxoa.

Potozorri.- Gizon zirtzilla. Ladilla.

Proostua.- Amua.

Sakon une.- Ensenada.

Santa Bata.- Toki izena.

Sator.- Topo.

Setakeria.- Terquedad.

Sornatsu.- Irritsu.

Sotapatroi.- Patroi ordeko.

Sunda. Arrain sunda.- Olor a pescado.

Tanborta.- Errainua, arrauna.

Tangárta.- Ura atarateko balde bat, okerra.

Tantorta.- Arraán kala baten izena.

Tantza.- Pita.

Tente.- Zutik.

Tintoleta.- Arrain mota bat.

Toleta.- Tolete. Batejetan arraunak erabiltzeko lotuera egoteko ziria.

Tolla.- Arrain mota bat.

Tollanak emon.- Arraiñari emoten jakozan makilladak, ilteko.

Tosta.- Txalopetako jarrilekua.

Tostarteko.- Txalopetan arrantzale soila zan gizona.

Traskoak.- Choclos.

Tretza.- Palangre.

Txabillu.- Burlazko deitura bat.

Txarta-txartaka.- Arraiña egon eziñik ur-azalean ibili.

Txikota.- Chicote. Soka.

Txilin.- Kanpai txikia.

Txillamua.- Amu mota bat.

Txís egín.- Toki batetik iges egin. Zeregin bat laga.

Txopa.- Ontzi aurrea.

Zakatz.- Agalla.

Ziar laiñuak.- Mendebal laiñuak.

Zurdak.- Abereen ule lodiak.



'1'.valupentzako belak,c:ertuten.

.A'agus a, trinketa, artaiña, burrketa, baliztoia, artzairia...

AURKIBIDEA

Ondardin	7
Kezkak	31
Kofradirako deia	34
Gure gizonak	39
Simon	39
Idurre	45
Txo	47
Paulo	49
Setakeria	51
Asarreak kaian	54
Beste dei bat	57
Beste alderditik	59
Txo ikusten	60
Bare aldia	64
Kofradia'ko batzarrean	66
Gaixoa ikusteko asmotan	74
Argitasun ametsetan	87
Mikol	89
Goizaldeko lanak	91
Laiñoa eta lausoak goizean	94
eskubideak zaindu nairik	98
Jokabide garratzak	107
Estutasunak ittoten	115
Txikotak erriaten	122
Barruak arintzen	126
Erramute (arraunketa) alaian	131
Peru'gaz tope-topean	138
Buruari eragiten	140
Senarraren illetak	145
Autu-mutuak	147
Lotsa eroaten eta sartzen	151
Atadi'ko larritasunak	153
Eskutukoak agertzen	160
Esan eta esango	164
Arrantzale barria	167

<i>Si mon'en</i> azkena	168
Urak euren bidean	170
Nire izena	172
Tingloipe'ko ardurak	179
Bizitza 'gordina	181
Aria luzatzen	186
Oroípen geiago	191
Molla egalean	197
Etxean etxeoak	199
Begiak zabaiik eta ez dago lo	204
Amurnari agurra	207
Gaubela	209
Andreagaz berbetan	212
Zelateka	214
Peru'ren agur ixila	219
Itxas iztegia	223



Zuzendu bearreko utsak eta akatsak.— Irakurleak errez igarteko uts edo akats oneik billatu leikez. Mesedez, gogoan euki zuzentzeko.

Orrialde	Lerro	Dagona	Egon bear litzakena	
	11	5	ninduzuken	nindukezun
	15	19	aretakoaretako	aretako
	15	21	begi	beti
	15	22	sailla	zailla
	15	23	alera	aldera
	31	5	Simon zarraren alabak	Simon zarraren arrebak
	32	12	paparre	paparra
	36	24	saoia	sasoia
	45	13	lantengietan	lantegietan
	46	15	eukerarik	aukerarik
	52	11	azpaldi	aspaldi
	55	19	aluk-eria jo	alukerira jo
	59	azkenurren	Nuek	Neuk
	60	13	dautse	dautso
	62	7	ixartu	itxartu
	74	4	joan al izateko?	Joatea eziña izateko?
	74	16	goizearte	goizerarte
	76	5	auzirik	ausirik
	76	azken	odo	ondo
	82	25	dariola	eriola
	96	30	en ez	an ez
	97	22	leike	leizu
	101	6	Kodradiak	Kofradiak
	102	2	inarduen	inarduenen
	105	8	ez ba giñake bel	ez ba giña, bel
	113	34	adrekana	andrekana
	114	15	gertatenb	gertaten
	114	18	eskarri	ekarri
	114	20	biaño	baño
	116	11	egiazan	egizan
	124	16	gertatu lei	gertatu leio
	135	18	Litzakidake	litzakit
	136	3	bako be bai	bakoa be bai
	136	23	multitxoa	mutiltxoa
	142	6	beste	bestea
	145	25	nungo	nungoa
	154	28	zurelakoa-ta.	zu lakoa-ta.
	154	30	pekatu	pekatua
	155	33	bizitzan	bizitzak
	158	29	dela	dala
	158	31	esan ete nai dabe?	esan nai ete dabe?
	162	3	naian	neian
	162	29	san da lez	esan dan lez
	167	5	egozan	egozanaren.
	167	azken	aki	jakin
	168	13	irea ba nitz	irea ba litz
	173	azken	gurariantzat	gurariantzat?
	177	18	saoian	sasoian
	185	4	lkusu	lkusi
	188	30	et batez be	eta batez be
	189	13	itza	intza
	192	2	egokitasunak	egokitasunik
	192	26	dake	dauke
	193	16	aizearen,	aizearen
	194	24	deituten oi	deitu oi
	201	32	ba genduke	ba gendu
	204	32	zuk gure lez	zuk guk lez
	207	32	ori aittitta.	ori, aittitta.
	210	10	arratzalien	arrantzalien
	214	26	Zelaketa	Zelataka
	220	4	Bitsa dariola	bitsa eriola